

Colección MENDAUR bilduma

## VII



# Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa

Edu Zelaieta Anta







Colección MENDAUR bilduma

## VII

# Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa

Edu Zelaieta Anta



Zelaieta, Edu (1973- )

Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa / Edu Zelaieta Anta – Iruña :  
Nafarroako Gobernua, Hezkuntza Departamentua ; Bilbo : Euskaltzaindia, 2008  
orr. ; cm.– (Mendaur ; 7)  
D.L. NA. 3568-2008  
ISBN 978-84-235-3102-8

I. Nafarroa ( Foru Komunitatea). Hezkuntza Departamentua II. Euskaltzaindia III. Mendaur  
(Euskaltzaindia)

Liburuaren izenburua: Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa

Liburuaren egilea: Edu Zelaieta Anta

Hitzaurrea (Aitzinsolasa): Iñaki Camino

© **Nafarroako Gobernua**. Hezkuntza Departamentua

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.

Taiuketa eta moldaketa: Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

Diseño/Azala: Iñaki Cabodevilla / CAB

Preinpresioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GRAPHICEMS, Gráficas CEMS, S.L.  
San Miguel industriagunea  
31132 Villatuerta  
Nafarroa / Navarra

ISBN: 978-84-235-3102-8

Lege gordailua: NA-3568-08

#### **Nafarroako Gobernua**

Hezkuntza Departamentua

Sustatzaileak eta banatzaileak:

Nafarroako Gobernuaren Argitalpen Fundoa

Navas de Tolosa kalea, 21

31002 IRUÑA

Tf.: 848427121

Faxa: 848427123

fondo.publicaciones@navarra.es

www.cfnavarra.es/publicaciones

\*\*\*\*

#### **Euskaltzaindia / R.A.L.V.**

Plaza Barria, 15

48005 BILBO

Tel.: 94 415 81 55

Faxa: 94 415 81 44

info@euskaltzaindia.net

www.euskaltzaindia.net

## **Eskaintza:**

Euskal Herria mintzairaren bidez  
egunero gauzatzen duten guziei;  
Azken urteotan lagundu didaten adiskideei;  
Baztan-Bidasoako nahiz inguruko  
berriemaile eta laguntzaileei;  
Berako jendaki ditudan guziei;  
*Ipar Haizeko* Iñaki, Ines, Otteri,  
baita Izeba Pakitari eta Osaba Joxe Mariri ere;  
bere *uskara* erakutsi ez, baina bera  
ikasteko bidea eman zidan attari;  
Ariri, proiektu hau eta gainerakoak  
nirekin konpartitzeagatik;  
amari,  
biziaren eskola nagusiak emateagatik

MILA ESKER

*Eskuara ez da galdiko, doike.  
Hemen denak aritzen gara eskuaraz.*  
(Gartzainen)

*...ta nola egiten zenuten kontrabandoa?  
Kontrabanda? Gauaz eta eskuaraz!*  
(Luzaiden)

*Erdara sukalde guzitan sartzen da.  
Ta extiki-extiki itten da eltzariya.*  
(Beran)

\* \* \*

Hizkuntza bat hiltzen den bakoitzean  
munduak begi bat galtzen du,  
doluminez janzten dira gutunetako letrak,  
heriotzak mihia bahitzen digu.

Bizia bizitzeko inbentario bat.  
Behar-beharrezko ditugun gauza guzien inbentarioa:  
arnasa, begiak, birikak, mihia.  
Eta orbelak ez gaitzala estali udazkenean.

**AITZINSOLASA**

---





2008ko udaberrian hamar urte bete dira Malerrekako, Bortzerrietako edo Baztango mintzoak ikuspegi dialektologikotik aski ezezagunak direla idatzi genuenetik; hamar udaberriren buruan, Nafarroako alderdi edo eskualde honi dagokionez bederen, Euskal Dialektologia lehen baino anitzez hobeki dagoela esan daiteke orain, besteren artean, liburu honen egile Edu Zelaietak Baztan-Bidasoa eskualdeko euskararen interpretazio bat eskaini digulako.

Hizkuntzaren *habitat*-arekin lotura zuzena duten gaiez diharduelarik, uraren garrantziaren berri ematen digu behin baino gehiagotan idazleak: luzaroan bertan bizi izan diren gizataldeek ur hori gauza beharra izan dutela gogorazten digu. Gizakiak ura bezainbat, gizarteak edo erkidegoak bizitzeko hizkuntza behar du. Ohar gaitezen, gizakiak edo gizarteak behar duen hizkuntza horren erabilera geografik ere baldintzatzen duela, orografia eta hidrografia gizartearen laguntzaile bezain baldintzatzaile direla, ekonomia-arrazoiak atzendu gabe.

Pío Baroja eta beste idazle batzuen lumek zerikusia dute eskualde honi atxiki ohi zaion halako lanbro literarioarekin; zenbait aldi, alderdi honetako bizilagunen jokabideak ibai arroan gaindi halako komunikazio-eskualde edo errepublika ttiki bat eratu duela dirudi, bai baitira batasun-ezaugarri zenbait ibaiaren arroarekin eta bertako biztanleekin identifika daitezkeenak.

Baztan-Bidasoari anitzek idazle edo artista begiekin so egiten diotela ikusi ohi dugu frankotan; aitzitik, idazle ere baden Edu Zelaietak mintzoaren arlor ekarri nahi izan du bere jendakien eskualdearen azterketa eta interpretazioa: Xorroxindik Beraraino doan ibai arroko euskara zehaztasunez aztertu du liburu honen egileak.

Lanean gaindi ez da sumatzen ikertzailea frogatu beharreko alde aurreko ideia nagusi batetik abiatu denik, tesi jakin bat frogatu nahian lanari ekin dionik, ez dirudi Baztan-Bidasoako mintzoez azterketan halako aurreuste bat dagoenik. Iker-tzaileak eremuaren egitura geolinguistikoa bere osotasunean eta konplexutasunean ulertzeko eta aurkezteko asmoa du eta horregatik, eskualdeko hizkuntza-datuek berek eratzen duten irudiari jarraitzen dio aldi oro.

Ibai bazterreko herrietan ageri diren hizkuntza-ezaugarri franko, ikertzailearen arabera garrantzizkoenak direnak, lerro-lerro ematen zaizkigu liburu honen ataletan zehar. Ikuspegia argia da eta lan guztian gaindi era berean errepikatzen da: eremuaren barreneko ezaugarrien artean bateratzaile direnak bereizten dira batetik eta bestetik, eskualdearen barrenean ageri diren isoglosa-sortak definitzen dira, Baztan-Bidasoa eskualdea barrenetik zatitzen dutenak.

Hizkuntza-berrikuntza franko dago ibaiaren arroa eta bere inguruak banatzen dituen; berrikuntzok ez dituzte isoglosa-sorta simetrikoak eratzen: herri batzuetan nabarmenago da muga giroa dagoela, isoglosa ugari biltzen dela bertara, desberdintasuna dagoela marraren alderdi batetik bestera. Beste herri batzuetan, ordea, *continuum*-aren irudia argi ageri da. Era bateko nahiz besteko herri edo alderdien hizkuntza-egoera erakusten da tesi honetan, eskualde honetako mintzoaz lehen genekienarekiko jauzi kualitatibo nabarmena dakar ikerlanak.

Liburuan gaindi errepikatzen den eskemaren logikaz landa, bada bigarren berezitasun aipagarri bat lan honetan: aztergai hautatu den eremua zabala da, kilometro koadro anitzeko alderdia da ikertu dena eta Euskal Herriko alderdi dialektal ugariaren berri aintzat hartu behar izan da lan egiteko: Lapurdiko ipar-mendebaleko, Urdazubi-Zugarramurdiko, Baigorriko, Ultzamako, Basaburu Txikiko, Oiartzungo, Irun-Hondarribiko eta beste zenbait alderditako euskararen izaeraz jabetu behar izan du ikertzaileak Nafarroako Baztan-Bidasoa alderdiko euskara kokatzeko. Hori bera da lanaren berezitasun nagusietarik bat: mintzo hori edo mintzo horiek kokatzea da lanaren helburua, hizkuntza-geografia egitea, ikertzaileak ez du bertako mintzoaren deskribapen bat egiteko edo gramatika bat eraikitzeo xederik izan. Lan geolinguistiko bat osatzeari dagokionez aski jarrera berritzailea da Zelaietak liburu honetan dakarrena. Baztan-Bidasoako mintzoaren nondik-norako gehiago eta xehetasun ugari ezagutu nahi duenak, Nora Iriartek, Maite Lakarrek, Amaia Apalauzak, Ana Telletxeak, Pello Salaburuk, Mariano Izeta zenak edo Geneviève N'Diaye-k egin dituzten bilduma edo gramatika lanetara jo dezake.

Bada Edu Zelaietaren lanean hirugarren ezaugarri bat ere: baliatu dituen lekukoak ez dira adineko ohiko abeltzain, nekazari edo eskulangileak bakarrik; beren arteko franko berriemaile gazteak dira, euskararekin harreman sakona dutenak, euskara beren eguneroko lanaren aldetik ezagutzen dutenak, ez mintzatze aldetik soilik: filologoak, euskara teknikariak, hedabideetan lan egiten dutenak...; horien guztien mintzoa, ezagutza eta ikuspegia bilatu ditu ikertzaileak; datu-bildumaren eta azterketaren bitartez liburu honen egileak bildu duen ikusmoldeak, beraz, ez du eskualdeko euskararen orain arteko tradizioko izaeratik falta, ezta egun gazteek Baztan-Bidasoan egiten duten mintzoaren izaeratik ere. Egileak adinekoen, helduen eta gazteen euskararen ñabardurak eta argibideak bildu ditu, lortu duen ikuspegiari atal osagarri bat erantsi diotenak; ez da atzendu behar, bestalde, Nafarroako Baztan-Bidasoa eskualdean franko jende egun oroz euskaraz mintzatzen dela eta ondorioz, herriotan gaindi zerbaixko mugituz edo murgilduz gero, gazteen mintzoaren norabideaz ideia argiak eduki daitezkeela.

Liburuaren erdialdera iritsi orduko irakurlea ohartuko denez, ikerlan honen ikuspegiari koherentzia dario alderdi guztietarik. Zubietan dela, Azpilkuetan dela, Zigan dela, Etxalarren dela, Saldiasen dela edo Arantzan dela, ikusmolde bat eta bera baliatzen du liburu honen egileak: etenak eta loturak bilatu, elkarrengana berrikuntzak nora eta zein egituratan biltzen diren aztertu eta ondoren hizkuntza-eremu batzuk proposatu —handiagoak ala txikiagoak—, horretarako ezaugarri sis-

tematikoek eta inoiz baita ez horren sistematikoak ere erabiliz, horrelakoek eskualde txikiak mugatzen baitituzte usu.

Lan egiteko sistema honen bitartez, eskualdeko zatiketa dialektala argitara ekarri da, dialektoen edo azpidialektoen mugen inguruko auzi zenbait aurkeztu eta argitu dira eta hondarrean, argudioak baliaturik ikertzaileak bere iritzia eman du, interpretazio bat eskaini digu. Ez da hutsala egin duen lana.

Tesi-zuzendari batentzat ez da aise doktoregai izan duen egile baten lana aurkeztea: *laudatio*-ra jotzeko arrisku berezia dago eta ez da hori liburu baten aitzinsolasa idatzi behar duenaren zeregina, lanaren ekarria objektibotasunez aurkeztea baizik.

Zuzendariarengan bere konfiantza ezarri izanagatik bakarrik, guk doktoregaiari eskerrak ematea ulergarri da, baina gaude Edu Zelaietarekin puskan ere zor handiagoa dugula: 2008 urteaz geroztik anitzez hobeki ezagutzen dugu Baztan-Bidasoa eskualdeko euskararen egitura geolinguistikoa; ezezaguna zen alderdi honen gaineko ikuspegi lektala ederki argitu izanagatik eta aurkeztu digun emaitzagatik, zorionak eman behar zaizkio ikertzaile honi.

IÑAKI CAMINO



# AURKIBIDEA

<b>Sarrera</b> .....	5
<b>1. Baztan-Bidasoa</b> .....	15
1.1. Baztan-Bidasoa, zer den. Eremua zehazten .....	17
1.2. Demografia .....	21
1.3. Geografia-hidrografia-oroграфия .....	25
1.4. Harreman sozio-ekonomikoak .....	27
1.5. Egoera soziolinguistikoa .....	33
1.6. Baztan-Bidasoako hizkeren estatusa .....	40
<b>2. Datu-bilketa, berriemaileak eta laguntzaileak</b> .....	49
2.1. Sarrera .....	51
2.2. Datu-bilketa, berriemaileak eta laguntzaileak .....	51
<b>3. Irizpide teoriko-metodologikoak</b> .....	61
3.1. Sarrera .....	63
3.2. Hizkuntza geografiatik geolinguistikara .....	65
3.3. Ezagutza filologikoaren laguntza: ikuspegi diakronikoa .....	70
3.4. Lekukoaren ezagutzaren laguntza: oharmenezko dialektologia .....	72
3.5. Isoglosak .....	75
3.6. Esparru dialektalak eratzeko proposamen metodologikoak .....	79
3.7. Laneko terminologia .....	85

<b>4. Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa</b> . . . . .	87
4.1. Sarrera . . . . .	89
4.2. Goizueta vs. Saldias, Beintza-Labaien . . . . .	90
4.3. Garrantzizko isoglosa bat: azentuera . . . . .	94
4.4. Goizueta vs. Leitzza . . . . .	97
4.5. Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa . . . . .	98
4.6. Irun-Hondarribia . . . . .	102
4.7. Gipuzkoa eta Nafarroa gainditzen dituen nortasuna: Bidasoa ibaia . .	108
4.8. Lexikoaren azterketa: saio xume bat. . . . .	111
4.9. Ondorioak . . . . .	113
4.10. Proposamen arealak eta bertze . . . . .	115
<b>5. Bortzerriak</b> . . . . .	117
5.1. Sarrera . . . . .	119
5.2. Harremanak. . . . .	119
5.3. Bortzerriak banatzen dituzten isoglosa nagusiak . . . . .	120
5.4. <i>Uskara aranztarra</i> . . . . .	124
5.5. Bortzerrietako ezaugarri eksklusibo bakanak . . . . .	127
5.6. Ondorioak . . . . .	128
<b>6. Sunbilla: Bortzerriak vs. Malerreka</b> . . . . .	131
6.1. Sarrera . . . . .	133
6.2. Sunbilla ondoko eskualdeen artean. . . . .	133
6.3. Sunbillako euskara: Bortzerriak vs. Malerreka. . . . .	134
6.4. Ondorioak . . . . .	140
6.5. Proposamenak . . . . .	141
<b>7. Malerreka</b> . . . . .	143
7.1. Sarrera . . . . .	145

7.2. Malerrekako herrietan barrena . . . . .	145
7.3. Malerrekako ezaugarri eksklusibo bakanak . . . . .	149
7.4. Ondorioak . . . . .	151
<b>8. Oronoz-Mugairi: muga-hiri</b> . . . . .	<b>153</b>
8.1. Sarrera . . . . .	155
8.2. Oronozek Bertizaranarekin eta <i>errekarekin</i> (izan) dituen gizarte loturak . . . . .	155
8.3. Oronoz-Mugairi mugako hizkera . . . . .	157
8.4. Bidasoa vs. Baztan . . . . .	158
8.5. Ondorioak . . . . .	169
8.6. Proposamen arealak . . . . .	169
<b>9. Baztan</b> . . . . .	<b>171</b>
9.1. Sarrera . . . . .	173
9.2. Harremanak eta gizarte loturak . . . . .	173
9.3. Baztan, lau eremuren baitan: Oronoz-Mugairi, Basaburua, erdigunea eta Baztangoiza . . . . .	175
9.4. Baztanen barreneko isoglosa nagusiak . . . . .	177
9.5. Baztan vs. Ultzama . . . . .	184
9.6. Baztan vs. Baigorri . . . . .	194
9.7. Baztan vs. Urdazubi-Zugarramurdi . . . . .	200
9.8. Ondorioak . . . . .	209
9.9. Proposamen arealak eta bertze . . . . .	210
<b>10. Ondorio nagusiak eta azken proposamenak</b> . . . . .	<b>213</b>
10.1. Sarrera . . . . .	215
10.2. Hidrografiaren garrantziaz . . . . .	215
10.3. Orografiaren garrantziaz . . . . .	218
10.4. Giza geografiaren garrantziaz . . . . .	218



10.5. Norabidearen garrantziaz . . . . .	220
10.6. Ipar Euskal Herria aztertu behar diren garrantziaz . . . . .	222
10.7. Koloreen eta ñabarduren garrantziaz . . . . .	223
10.8. Nafarroako Bidasoaldea eta Baztan, biak euskara nafarrean . . . .	224
10.9. Eremu lektalen estatusaz. . . . .	227
10.10. Euskal Dialektologiako eztabaida aberasten: gure proposamenak. .	227
<b>Bibliografia</b> . . . . .	231
<b>Irudien aurkibidea</b> . . . . .	249

## SARRERA

Orioko maisuak aldarrikatzen zuen bezala, hutsuneak bizia sortzen ohi du. Hutsunea uraren pare; alegia, bizi-iturria. Eta hutsune batetik abiatu ginen gu ere lan hau bukatu bitartean. Hutsune edo, nahiago bada, gabezia batetik; izan ere, gure aita beratarra da, eta bere gurasoak, gure aitatxi-amatxiak, beratarra eta igantziarra ziren. Arestian aipatu dugun hutsunea aitak euskara ez erakustearekin sortu zen, bere *uskara* ez transmititzearekin hain zuzen. Hortaz, bide naturalago batetik etorri ez zen horren bila hasi ginen. Geure burua (behar bezala) euskaldunduz, lehenbizi; Euskal Filologia eginez, geroxeago; eta Baztan-Bidasoako hizkerak aztertuz, hondarrean.

Honenbertzez, agerian utzi nahi izan dugu doktorego-tesi izaten akitu duen hau arras proiektu pertsonala izana dela hasieratik beretik. Eta horrek, segur aski, bertze deusek baino aise indar gehiago eman digu hemen aurkezten dugun lana egiteko. Zenbaitetan ez da erraza izan, geroxeago aipatuko dugunez, bidean harri kozkorrak topatu ditugulako. Halarik ere, hasieratik bagenuen asmo bat: aspaldi samarrean galdutako familia harremanak berreskuratzea, hau da, gure iraganaren puska bat. Erran bezala, batzuetan ez da errazegi suertatu, baina helburua erdietsi dugulakoan gaude. Bai pertsonalak bai eta akademikoak ere. Ikerketa hau gauzatu izana errandakoaren frogarik behinena da.

Gure ikerketa 1999ko Aste Santuan hasi zen, Euskal Filologiako 3. mailako *Dialektologia* izeneko irakasgairako egin beharreko lan batean. Koldo Zuazo genuen irakasle, eta berari esker hasi ginen dialektologiari buruzko lehenbiziko kontzeptuak barneratzen. Gure lan haren helburua Berako euskara aztertzea zen. Hartara, gure ingururik hurbilenarekin hasi ginen: gu gasteiztarrak izanda, hiri berean bizi zen (eta den) beratar bati egin genion lehen grabaketa. Gure **aitari**, hain zuzen. Hori egia erran, 1999ko otsailean izan zen. Gero, Aste Santuan, Berara joan ginen egun batzuk egitera, osaba-izeba batzuen etxera. Berako Suspel Ttiki auzoko **Ipar Haize** etxera. Etxe bereko **osaba Joxe Mariri** gure bigarren grabaketa egin genion. Eta orduan ez bagenekien ere, grabaketa hori sail luze baten lehenbizikoa izan zen, osabarekin orduak, egunak eta asteak eginak baititugu. Etxe hori ez baita alferrik izan gure egoitza nagusia hondarreko urteotan. Bai, bederen, Baztan-Bidasoan eta inguruan barrena ibili garelarik.

Lehenbizian, Berako euskara aztertzeako datuak biltzen aritu ginen. Grabaketak nahiz galde-moduak. Bidenabar, dialektologoaren ofizioa ezagutzeari ekin genion.

Bai eta bibliografia irakurtzeari ere. Hasierako fase horrek 1999ko urrira arte iraun zuen. Une hartan Sarako euskara aztertzeke urte bateko beka bat eskuratu baikenuen, karrerako azken urtean izaten den lankidetzeta-beka bati esker. Nolabait ere, egiazko ikerketan hasteko lehen aukera izan zen guretzat. Ipar Euskal Herrian, gainera. Eginbehar horretarako **Iñaki Camino** irakasleak onartu zuen urte bakarreko proiektu haren zuzendaria izatea. Urte hartako plangintza adostu eta ondoan, lanean hasi ginen. Bereziki, bi alorretan: Saran berean landa-lana egiten eta unibertsitate inguruan bibliografia irakurtzen. Hagitz urte emankorra izan zen alderdi guzietatik, nahiz eta hasiera batean espero genuena ez genuen gerora lortu. Beraz, ezin izan genuen azterketa dialektologikorik gauzatu, berriemaile batzuk ezagutu, grabatu, transkribatu eta bertako euskara entzutearekin konformatu behar izan genuen. Dena den, erran beharra da gerora arrunt aberasgarria izan zaigula orduan egindako lana, mugaz bertze aldeko hizkerekin alderatzeko tenorean batez ere. Halaber, orduan ezagutu genituen hainbat lagunekin harremana mantendu dugu, eta horri esker, bertako (nahiz inguruko) euskararen gaineko informazio gehiago eskuratzeko moduan egon gara.

Hurrengo urtean, 2000ko urrian, oraingo proiektu hau prestatzen hasi ginen. Karrera bukatuta, denbora gehiago ematen ahal genuen. Denbora gehiago irakurtzen Arabako Campusean, eta denbora gehiago Beran, Saran eta Bortzerrietan. Lehenbizian ez genekien zein eremu hartu. Baina gero, zabal xamarra izanda ere, Baztan-Bidasoa (\*) hartzea erabaki genuen, hau da, Baztan-Bidasoa ibaiak Nafarroan barrena egiten duen bideari jarraikiz. Hortik aitzinera Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka, Bertizarana eta Baztan sakon ezagutzen hasi beharra genuen nahitaez. Bertako herriak, orografia-geografia, historia, mugimendu sozio-ekonomikoak, eta ororen gaintetik, bertako jendakia(k) eta mintzoa(k).

Puntu honetan, bidean topatu ditugun bi libururen aipamen berezia egin nahi dugu: Luis de Urantzuren *Lo que el río vio: biografía del río Bidasoa* (1955) eta Leonardo Urteagaren *Guía sentimental del Bidasoa* (1976). Izan ere, arestiko egile hauek Baztan-Bidasoa ibaiaren kronika zehatza egiten dute. Bi liburuen izenburuak uztartuta, zilegi bekigu, ibaiaren biografia sentimentalak ditugu. Nolabait, antzeko bidaia egin dugu guk ere, baina dialektologiaren alorrean. Irakurleen esku dago orain goitiagoko bi lanen maila iritsi ote dugun.

2001ean, Iñaki Camino gure tesiaren zuzendaria zelarik, proiektu bat aurkeztu genion Eusko Jaurlaritzari, ikerketa-beka bat lortzeko asmoz. Zorionez, halaxe suertatu zen, eta lau urtez ikerketa-bekadun aritu gara, 2005. urtera arte. Hots, erabat liberatuta doktorego-tesia egiteko: *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*.

(\*) Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordeburuak ohartarazi bezala, Batzorde hori Euskal Herriko ibaien izenak aztertzen ari da orain eta, ohi denez, Akademiak erabaki finkoak hartzeko denbora behar du. Beraz, izen egokia «Bidasoa» ala «Bidasoa(-a)» den liburu hau plazaratu ondotik jakinaraziko da.

Hau guzia dela eta, adierazi nahi dugu gure orain arteko izandapenarekin jarraituko dugula, «Bidasoa» alegia, Euskaltzaindiak erabakia hartu bitartean.

## Helburuak eta lanaren egitura

Nafarroako Baztan-Bidasoako hizkeren deskribapena egitea izan zen gure lehen urratsa. Deskribapen horretatik abiatuta, bertako euskararen azterketa dialektologikoa izan dugu xede nagusia. Izan ere, aitzinetik aitortu asmo pertsonalez gain, Euskal Dialektologiarako hizkuntza eremu honen kokapen geografikoa zinez *estrategikoa* delakoan gaude: Erdialdeko eta Eki-Erdialdeko hizkeren artean nahiz Ipar eta Hego Euskal Herriko hizkeren artean. Tarte horretan, hortaz, gure helburua kontrastiboa izanik, badugu non eta zer alderatu: guk aztertu beharreko Baztan-Bidasoan barreneko hizkerak elkarrekin, eta Baztan-Bidasoako hizkerak ondoko hizkerekin (Gipuzkoako ipar-ekialdekoak, Nafarroakoak, muga inguruko hizkera lapurtarrak nahiz Nafarroa Beherekoak). Honelaxe, gaurko euskalkien mapa zehaztuago geldituko litzateke; batez ere kontuan harturik inguruko hizkera batzuk dialektologikoki ikerturik daudela (Zugarramurdi-Urdazubi, Irun-Hondarribia, Oiartzun, Ultzama-Basaburu Handia, Erroibar-Esteribar); bertze batzuk hizkuntzaren maila jakin batean ere aztertu direla (Amaiurko egitura eta Baztango fonetika-fonologia); eta azkenik, bertze batzuk xeheki deskribatu direla (Leitza-Areso, Goizueta-Arano). Ezin dira ahantzi, berebat, ikuspegi areala eskaintzen duten Iñaki Caminoren eta Koldo Zuazoren hondarreko urteotako lanak.

Gure helburu nagusien artean, bertako hizkerek hartzen duten norabidea erakustea dago, banaketa administratiboez gainetik. Lanaren egitura ere arestikoaren arabera da. Hizkuntza joera nagusiak non eta nola gurutzatzen diren, lanean zeharreko tasunen arabera. Halaber, ezaugarri banatzaile ote dagoen, ezaugarri esklusiborik ote dagoen, non eratzen diren eremu dialektalik behinenak eta hizkerek duten nortasun linguistikoaz ere mintzatuko gara. Isoglosek marraztutako zenbait eremu proposatuko ditugu elkarren ondoan paratzeko eta alderatzeko.

\* \* \*

Lan honen lehen atalean eremua zehaztuko dugu, Baztan-Bidasoa zer-nolakoa den: demografia, orografia-geografia, harreman sozio-ekonomikoak, bertako hizkerak orain arte izan duten estatusa eta egoera soziolinguistikoa bezalako alderdiak azalduko ditugu.

Azter-eremuko mintzoan eragiten ahal duten faktoreak agerturik eta bertako gizartea definitzen duten dinamikak erakutsirik, datuak biltzeko erabilitako metodologiaz arituko gara. Era berean, berriemaileen eta laguntzaile guzien berri emanen da bigarren atalean. Honelako ikerlan batek hartzen duen dimentsio sozialaz ohar-tuko garela uste dugu, agerian geldituko den bezala, lagun franko izan baititugu bidaide.

Hirugarren atalaz den bezainbatean, aldiz, irizpide teoriko-metodologikoak aipatuko ditugu: deskribapenez haratagoko xede kontrastiboak, oinarri teorikoak eta dialektologia datuak interpretatzeko metodologia izanen dira hizpide nagusiak.

Ondotik, bertako euskararen azterketari ekinen diogu. Hurrengo ataletan, zenbait eremu proposatuko ditugu. Laugarren kapituluan, erraterako, erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa non eta nola gertatzen den erakustera saiatuko gara. Euskal Dialektologian nafartzat hartzen ohi ditugun hizkuntza ezaugarriak noraino hedatzen diren aztertu nahi dugu.

Bosgarren atalean, berriz, Bortzerrietan barrena joan gara berdintasunak eta ezberdintasunak non sortzen diren jabetzeko. Bortzerrietako barreneko nahiz kanpoko muga dialektalik behinenak non kokatzen diren ikusi eta erakutsi gogo dugu.

Hurrengo atalean, Bortzerrien eta Malerrekaren tartean dagoen Sunbillako euskara hartuko dugu aztergai. Sunbillako hizkerak zein alderditara egiten duen jakiteaz gainera, alde bakoitzean dauden ezaugarri banatzaileez ohartuko gara.

Zazpigarren atalaz den bezainbatean, Malerrekako euskara izanen dugu hizpide nagusia: Malerrekako euskarak ezaugarri espezifikorik edo eksklusiborik ote duen, ondoko hizkeretatik berezi egiten duen deus ote dagoen edota Malerrekako herrien artean hizkuntza ezberdintasunik ote dagoen jakin nahi dugu.

Ondotik, Baztango Oronoz-Mugairi aztertuko dugu, inguruan dauden Bertizarana eta Baztango Basaburua gogoan izanik. Oronozen, hala adierazten dute hizkuntza datuek, Baztan ugaldeak eta Bidasoa errekek bat egiten dute, ibai bakarra osatzeraino. Zinetan, aparte aztertu beharreko kasua deritzogu, eta hori dela eta, kapitulu honetan Oronoz-Mugairiko euskararen gertatzen denaren berri emanen dugu.

Bederatzigarren atalean, berriz, Baztanen barreneko isoglosa nagusiak non dauden eta ibar honek ondoko ibar eta eskualdeekin dituen (ez)berdintasunak zernolakoak diren aztertuko dugu.

Hamargarren kapituluan, tesi honek ekarri uste dituen ondorio nagusiak aipatuko ditugu. Halaber, egungo Euskal Dialektologia aberastera eta osatzera etor daitezkeen eduki zenbait nabarmenduko dira bertan.

Hondarrean, ikerketa-lana egiteko eskuartearen erabili dugun bibliografia zerrendatuko dugu. Gisa berean, osagarri dira sarrera honen ondotik emanen ditugun mapak: (i) Baztan-Bidasoa ibaiaren arroa, (ii) Baztan-Bidasoa inguratzen duten ibarrak eta herriak, (iii) Baztan-Bidasoako herrien izenak eta beren kokapen geografikoa. Azter-eremua aurkezteko eta kokatzeko mapa hauetaz landara, kartografia dialektala ere eskainiko da lanean zehar (ikus, nahi izanez gero, irudien aurkibidean).

\* \* \*

Atalak, luzerari dagokionez, ez dira simetrikoak. Ulertzekoa denez, eskualde bakoitzak bere neurriko azalpenak eta argibideak eskatzen baititu. Erraterako, Baztango euskarari buruzko atalak langai gehiago eskaintzen du Sunbillakoari buruzkoak baino. Halaber, herri (edo ibar) guzietan ez dute dialektologia interes bera:

Oronoz-Mugairiko hizkeran gertatzen diren fenomenoak gehiago eta garrantzizkoagoak dira Legasan gertatzen direnak baino; berebat, interesgarriagoa da jakitea zer gertatzen den Bortzerrien eta Malerrekaren tartean dagoen Sunbillan ezen ez Igantzín, Urrotzen edo Gartzainen. Hau ez da guk libreki egindako hautua, dialektologialariak deus guti hautatzen baitu. Geografian barreneko hizkuntza aldakortasunak adieraziko digu non eman behar dugun denbora gehiago; zein toki diren *estrategikoagoak* Baztan-Bidasoako (eta inguruko) hizkeren egitura geolinguistikoa egoki interpretatzeko.

Irakurleak erraz sumatuko duenez, lanari ikuspegi humanistikoa eman nahi izan diogu, pertsonari eta pertsonen kolektiboei dagokien garrantzia aitortuz. Azken batean, ezin dezakegu ahantzi hizkuntzaren gibelean (eta aitzinean) beti dagoela gizakia. Beti gaude gu.

\* \* \*

Bukatu aitzinetik, ohar tiki bat: irakurleak ez du lan honetan transkripziorik aurkituko, tesiaren izenak berak ongi erakusten duenez gero, azterketa dialektologikoa baita ondoko orrialdeetan azalduko duguna. Honenbertzez, ez da toki jakin bateko hizkera jasotzen duen monografia, ez idatzizko edota ahozko testuak eskaini nahi dituen lana ere. Zorionez, —euskararen herri honetan berri onak gogora ekartzea ez dago gaizki— Baztan-Bidasoako euskara ez dago desagertzeko arriskuan. Alde horretatik, Koldo Mitxelenak hainbatetan nabarmentzen zuen premia ez dago ikerketa honetan. Galtzeko bidean dagoena bildu eta agertu beharra dela erraten baitzuen erreteriarrek. Arrazoi osoz, gaineratuko genuke apal. Alabaina, arestian errana dugu ez dela gure kasua: Baztan-Bidasoako hizkerak ez daude desagertzeko zorian eta, beraz, azter-eremuko hizkeren azterketa dialektologikoan murgilduko gara, honelako lan batek baitezpadako duen metodologia kontrastiboan jardunez eta sakonduz.

Azkenik, bihoakio irakurleari bigarren eta hondarreko oharra: datu-bilketari dagokion atalean nahiz bibliografian agertuko ditugu bertako euskara jaso duten bilduma franko. Izan ere, —zuzen da hemen erakunde horien eginahalak eskertzea— zenbait erakundetako fonoteka oparoez gainera, Baztan-Bidasoa osatzen duten ibar eta mankomunitate guzietan hondar urteotan beka bana atera dute tokian tokiko ahozko tradizioa jasotzeko asmoz. Beraz, bertako hizkerak entzun edo irakurri nahi dituenak badu nora jo.

### **Eskerrak ematea**

Aspaldiko legea omen da bakoitzari berea aitortzea. Etxekoak eta ingurukoak hasi-hasieran aipatu ditugu, barkatuko ahal digu dialektologiak horren humano jokatzea! Ondotik, beraz, lan hau aberastera eta osatuago izatera lagundu gaituzten zenbait pertsona aipatuko ditugu.

2004. eta 2005. urteetan *Fontes Linguae Vasconum* aldizkariak argitaratutako Bortzerrietako euskararen gaineko gure ikerketa-lan baten bi artikuluei egin oharrengatik eskerrak eman nahi dizkiegu **Pello Apezetxea, Gotzon Aurrekoetxea, Patxi Iñigo, Paskual Rekalde, Patxi Salaberri Zaratiegi, Mikel Taberna eta Koldo Zuazori.**

Esku artean duzun lan honek *Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa* izeneko doktorego-tesiko akatsak zuzendu nahi ditu. Horretarako, nahi-taezkoak izan ditugu 2006ko otsailaren 17an, Gasteizko Filologia eta Geografia-Historia Fakultatean, *bikain cum laude* kalifikazioa eman zioten **Orreaga Ibarra, Patxi Salaberri Zaratiegi, Pello Salaburu, Xarles Videgain eta Koldo Zuazo** epaimahaikideek egindako iruzkinak.

Datu-bilketari buruzko atalean ageri diren 114 lagunez gainera, **Markel Lizasoaini** ere esker bereziak eman nahi dizkiogu lan honekin izan duen harreman hurbilagatik. Baita udako egun batez Saldiasetik Urrotzera oinezko bidea erakuste alde ere.

Halaber, **Maite Lakar** ikaskide ohi eta lagunari eskura jarritako grabazio eta transkribaketa andanagatik aipamen berezia eskaini gogo diogu.

Mapa guziak **Nagore García de Madinabeitia** informatikari eta adiskidearen laguntzaz eginak dira. Berak lagundu gaitu buruan genituen ideiek irudi itxura har dezaten.

Eta, jakina, eskerrik beroenak **Iñaki Caminori**, hondarreko zortzi-bederatzi urteotan eman digun laguntzagatik eta guk egindako lanak, artikulua, saioak eta tesi hau ere zuzentzeko prest egoteagatik. Baita tesia liburu bihurtzeko bidea urratze alde eta bertako aitzinsolasarengatik ere.

Bukatzeko, Eusko Jaurlaritzari gure esker ona agertu nahi diogu tesia gauzatzeko lau urteko ikerketa-bekagatik. Halaber, lanaren argitalpenagatik Nafarroako Gobernua eta Euskaltzaindia eskertu nahi ditugu.

2008.eko urria

*Edu Zelaieta Anta*

MAPA 1



Bazan-Bidasoa ibaia




MAPA 2



Baztan-Bidasoa inguratzen duten herriak eta ibarrak

MAPA 3



Baztan-Bidasoako herriak



# **1. Baztan-Bidasoa**

---



Auza (1305m) mendiaren mazelan, Xorroxin izeneko alderdian sortzen da Baztan ibaia, Erratzun, Izpegi inguruan. Ibaia edo, bertakoek erraten dutenez, *ugal-dea*. Izen horrekin da ezaguna Bertizaranara iritsi bitartean, Oieregin berean Bidasoa izena hartzen baitu; bai eta izen horrekin jarraitzen Txingudiko Badian hiltzen den arte ere. Bertzeak bertze, Ezkurra (Donezteben), Latsa (Igantzín), Zia (Beran) eta Endara (Endarlatsan) erreken urak hartzen ditu. Guzira 69 kilometroko bidea du; hauetako 59 Nafarroan eta 10 Gipuzkoaren eta Lapurdiren artean.

Hain zuzen ere, ibai honek Nafarroan ureztatzen dituen bazterretan barrena murgildu gara, bertako hizkerak nolakoak diren erakusteko asmoz. Alabaina, hizkuntzari ekin aitzinetik, bertzelako esparru batzuei ere erreparatu beharko diegu; izan ere, dialektologian ezaguna denez, anitz dira eremu bateko mintzoan eragiten duten faktoreak: demografia, orografia-hidrografia-geografia, harreman sozio-ekonomikoak, egoera soziolinguistikoa eta abar. Horiek guziak sakon ezagutu behar dira, delako eremuko hizkerarekin zer gertatu den jakinen badugu. Erran nahi baita, solasa aztertzeke, solas hori egiten duen jendea ere aztertu beharko dela, bai eta jende multzo hori biltzen duen eremua ere. Azken batean, mintzoaz haratago, mintzo hori duen jendeaz ari gara, eta bere biziguneaz.

### **1.1. Baztan-Bidasoa, zer den. Eremua zehazten**

Lehen-lehenik, argi eta garbi adierazi beharra da zein ibar edota eskualde hartzen dituen Nafarroan Baztan-Bidasoa izeneko eremuak. Ibaiazen norabideari jarraituz zerrendatuko ditugu:

- Baztan
- Bertizarana
- Malerreka
- Sunbilla
- Bortzerriak

Segidan, eskualdeok labur-labur deskribatuko ditugu, irakurleak zalantzarik izan ez dezan halako edo honako tokiaz ari garelarik. Ildo honetatik, aise sumatzen da eskualde batzuek duten lurralde-zehaztasuna argiagoa dela bertze batzuen baino. Erraterako, Malerreka izenak/kontzeptuak nahasmen handiagoa sortzen du, segur aski, administrazio aferak egiteko sortu zen *Malerekako Mankomunitatea* dela-eta. Mankomunitate honetan, Sunbilla, Bertizaranako herriak eta Basaburu

Txikiko Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun eta Ezkurra ere sartzen direlako. Bidenabarrekoan, bertakoen artean hagitzez gehiago aditzen da *Mald(a)erreka* aldaera *Malerreka* baino.

Lehenbiziko hurbiltze honek gure eremuko herriak zein eskualdetan dauden argitzera lagundu nahi du. Honekin batean, eskualde bakoitzeko zenbait zertzelada emanen ditugu tokian tokiko lurralde antolamenduaz bai eta egituraketa administratiboaz ere. Geroago, bertzelako datu interesgarri batzuk ekarriko ditugu, betiere Baztan-Bidasoako jendeen dinamika sozio-espazialak nondik nora gertatzen diren hobeki konprenitzeko asmoz.

**Baztan:** Nafarroako udalerririk handiena da, 374 kilometro koadroko esparrua hartzen du bere baitan. Udal bakarra dugu: *Balleko Etxea*. Udal bakar honek bertze herri eta haran anitzek ez dituzten eskumenak ditu. Kasu hau ezaguna da Pirinio inguruko ibarretan, hots, Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkarin. Dena den, aspaldi samarrean ezarritako karabineroen kuartelen arabera, Baztan ibarrak lau *kuartel* ditu eta hamabortz herri:

Baztangoiza: Amaiur<sup>1</sup>, Arizkun, Azpilkueta eta Erratzu.

Elizondo: Elbete, Elizondo eta Lekaroz.

Erberea: Gartzain, Irurita, Arraioz eta Oronoz-Mugairi.

Basaburua: Ziga, Aniz, Berroeta eta Almandoz.

Hona hemen Baztani buruzko definizio labur baina argigarri bat, Eulogio Zudairek emana:

El valle de Baztán es un brecha pirenaica, blandamente abierta desde Velate a Otsondo, con largas estribaciones que se desperezan ladera abajo hacia Urdax y Zugarramurdi, desde Atxola o Achuela y Alkurruntz, hasta topar con el bastión de Peña Plata (1991: 12).

Herri bakoitzean badago alkate gisako bat *alcalde jurado* —zinpeko alkate— edo adineko hiztun batzuek oraindik euskaraz erabiltzen duten *justizie* izenekoa, bi urtetik behin batzarrean aukeratzen dutena. Ez gara gu orain Baztanen banaketa administratiboaren ur handietan sartuko, ez baita gure eginbeharra (nahi duenak ikus bitza Arizcun Cela 1988, Marin et alii 1993 eta Esarte 2006). Euskarazko izen ofiziala «Baztan Balleko Udala» da, eta erdaraz, berriz, «Ayuntamiento del noble Valle y Universidad de Baztán» da. Noizbait, Errepublika ere deitu izan zaio. Izanak izena dakarrenez, horrek argi erakusten du baztandarren arteko egituraketa hagitz sendoa dela. Gisa berean, herri guzietan udaletxe bera izatea batasunaren froga garbia dugu. Hiriburua Elizondo da. Elizondo baztandarren arteko harremanen ardatza dela erran liteke. Hori dela eta, bertan, Elizondoko jendeaz gain, ibar osoko jendea kausituko dugu. Baztandarrek anitzetan harat joaten dira: salerosketak, urri akaberako feria, asteroko merkatua, udal mailako administrazio aferak, aisialdia, kultur eskain-

1 Ofizialki, Amaiur 1969an sartu zen Baztango barruti administratiboan.

tza gehiena (dena ez errateagatik) bertan dago. Uztailaren hirugarren igandearekin ibarreko besta nagusia ospatzen da: *Baztandarren Biltzarra*. 1963tik egiten da herri izaerako jai hau, Elizondon, baztandarren arteko batasunaren erakusgarria. Virginia Aleman Baztango Alkateak *Berria* egunkarian zioenez *Baztandar kontzientzia bertzeen gainetik dago. Alegia, arizkudar, amaiurtar, lekaroztar edo elizondoar bainoago, baztandar sentitzen da bertako jendea* (*Igandea* gehigarria, 3.or, 2004/03/14). Halaber, Mexikon bizi diren baztandarrak *Baztango eguna* ospatzen hasiak dira 2004. urteaz goerotik, maiatzaren lehenean hain zuzen. Ospakizun hau Mexikoko hiriburuko Euskal Etxean egiten da.

**Bertizarana:** Bidasoa ibaiak ekialdetik mendebalera gurutzatzen du udalerrria. Honek duen berezitasun nagusia eta ezagunena Bertizko oihana da, eta bertan aspaldian eraikitako jauregia, Bertizko jauna bizi baitzen. Haran osoari izena ematen dion Bertizko Jaurreriaz ari gara. Hiru herri ditugu Bertizaranan: Oieregi, Narbarte eta Legasa. Herri bakoitzak bere kontzejua du eta udaletxea Bertizaranako hiriburuan dago, Narbarten. Hala ere, hemen ez da sumatzen Narbarte —hiriburuak— ondoko herriei indar handirik eragiten dienik. Gerorxeago ikusiko dugunez, Bertizarana ondoko ibarren itzalean gelditzen da maiz, herri apalak direlako, Malerrekaren eta Baztanen ondoan. Erraterako, Bertizaranak ez du bere zerbitzuen mankomunitaterik (urak, zaborrak, euskara zerbitzua...). Malerrekako Mankomunitatearen baitan dago. Berebat, beren egoitza nagusiak Bortzerrietan eta Baztanen dituzten eremuko hedabideetan (*Ttupi-Ttapa Aldizkaria, Xorroxin Irratia, Ttupi-Ttapa TB, Xaloa TB*) gutitan aurkituko dugu Bertizaranako berririk. Honetan, eragin xuxena du demografia ttikia izateak. Bertizko Jaurreriaz eta Bertizaranaren bilakaerari buruzko informazio gehiago nahi duenak jo beza Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoetara (2000). Alabaina, ataltxo hau akitu baino lehen, Bertizarana 1630. urtearen inguruan orduko «Santesteban de Lerín» ibarretik<sup>2</sup> banandu zela aipatu behar dugu. Hortaz, ordura arte Donezteberi loturik egon ziren Legasa, Narbarte, Oieregi eta Bertiz.

**Malerreka:** Doneztebe, Elgorriaga, Ituren, Zubieta, Urrotz, Oitz eta Donamaria herriek osatzen dute. Historian eskualde honek hainbat izendapen izan ditu (Andres Iñigo 1996: 48): *Tierra de Lerín, Tierra y Valle de Lerin, Vall de Lerin, Valle de Santesteban, Valle de Sant Esteban y Tierra de Lerín, Valle de Santesteban de Lerín*. Erran gabe joaki da gure esparruko historia ere erdara hutsez idatzia izan dela, zoritxarrez. Nolanahi ere, izendapen ezberdin horietan beti herri berak agertu izan dira, hain zuzen ere, arestian aipatu ditugunak eta egun Donamariako auzoa den Gaztelu. Honenbertez, hemendik aitzinera Malerrekaz ari garelarik, zazpi herrioz mintzatuko gara.

Doneztebe Malerrekako hiriburua da. Donezteben, Elizondon bezala, Malerreka guziko jendea biltzen da: hilean bi aldiz egiten den merkatua, San Martin ondoko asteko ortzizraleko feria, erosketak egiteko topagunea, aisialdia eta abar. Haatik, Malerrekan, Baztanen ez bezala, herri bakoitzak badu bere udala. Hortaz, udal mai-

2 Hala adierazten dute Fortún Pérez de Cirizak egindako lanek (1986: 133, 136).



lako aferak egiteko ez da zertan Doneztebera joan. Herrien arteko lotura ez da hain azkarra, eta hori ezagun da; bertakoek nekez erraten baitute ni *mal(d)errekakua naiz*. Nolabait, erkidego sen hori ez dago inondik ere Baztanen edo Pirinioetako ibarretan bezain erroturik, Doneztebe inguruko herrietako zerbitzugune nagusia baldin bada ere.

**Sunbilla:** Bertizaranako herriak bezalatsu, XVII. mendera arte (Fortún Pérez de Ciriza 1986) Donezteberi loturik egon zen. Hortik aitzinera hiribilduaren titulua erdietsi eta bere bidea egin zuen. Udal barruti honetan izen bereko herri bakarra dugu. Egun, Sunbilla Malerrekako Mankomunitatearen barrenean dago, zerbitzuak direla medio.

**Bortzerriak**<sup>3</sup>: Arantza, Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka herriek osatzen dute. Bortz herri hauek aspalditik ageri dira historian bat eginik: *A principios del siglo XIV encontramos ya a las Cinco Villas claramente diferenciadas unas de otras y con la denominación de tales* erraten digu Jiménez de Aberasturik (1980: 297). Bi gauza adierazten dira aipuan: batetik, orduan ere Bortzerriak izeneko eskualdea bazela; eta bertetik, bakoitzak bere funtzionamendua zuela. Bitxia izanen da, edo egungo egoeraren azalpena hain zuzen, baina orain dela zazpi mendekoak bere horretan dirauela erran genezake; izan ere, Bortzerriak izan, badira. Alabaina, Bortzerrietako inork (bertan dagoelarik bederen) ez du erraten *bortzerritarra* dela, baizik eta nor bere herrikoa. Malerrekan eta Bertizaranan bezala.

Bortzerrietan bi herri nagusitzen dira: Bera eta Lesaka, demografikoki nahiz ekonomikoki. Bortzerrietako —Berako eta Lesakako— industrialdeak Nafarroako iparraldeko industriagunerik garrantzizkoenak dira. Industrialde hauek XIX. mendearen bukaeran eta XX. mendearen hasieran baziren ere (Gutiérrez & Paul 2006), batez ere hiruretan hogeiko hamarkadan garatu ziren, Bortzerrietako bertze herrietako jendea erakarrit, eta Nafarroako ondoko eskualdeetako nahiz Gipuzkoako ipar-ekialdekoa (Irun eta Hondarribia, nagusiki). Bertze alde, Bortzerrietako ferriak beti egin izan dira Lesakan, azaroaren bigarren hamabortzaldian, Doneztebekoaren ondotik.

Gure lanaren esparrua geografikoki kokaturik eta zehazturik, hemendik aitzinera maiz egin beharreko eskualdeen aipamenak erraz ulertuko direlakoan gaude. Dena den, azpimarratu behar dugu ikerketa-lan honetan gehiagotan ekarriko ditugula gogo-

3 Bortzerriak & Bortziriak bikotearen aitzinean, Euskaltzaindiak 1990ean argitaratutako Nafarroako Herri Izendegian, Bortziriak onartu zuen. Hori dela eta, xafla, errotulu eta paper ofizialetan hala agertzen da eta, urte hauetan, forma horrek bere bidea egin du. Gazteek ia ez dute bertzerik erabiltzen. Kontua da, ahoz ahoko soka luzean, jende helduak eta adinekoak gehiagotan erabiltzen duela Bortzerriak. Andres Iñigok erran digunez, Onomastika batzordeak 2002an berrikusi zuen Herri Izendegi guziaz, eta bere erabakietan biak onartu zituen, hurrenkera honetan: 1. Bortzerriak (-ak), 2. Bortziriak (-ak). Erabaki hau, ordea, ez bide da batzordetik atera. Hortaz, idatzirako izen ofiziala ez da aldatu. Nolanahi ere, Euskaltzaindiak hobetsi eta ahozko tradizio luzea duen Bortzerriak izendapena erabiliko dugu lanean, jakinik ere uneon bertzea dela ofiziala.

ra herriak eskualdeak baino. Hau, pentsatzekoa denez gero, ez da guk libre egindako hautua, baizik eta hizkuntza ezaugarriek geografian barrena marraztutakoa.

Orain artekoaren arabera, Baztanen dagoen egituraketa administratibo bereziak bat egiten du ekialderago eta gorago dauden Pirinioetako ibarrekin. Ildo beretik, duela berrogei urte ingurutik gaur arte, *Baztandarren biltzarra* bezalako ospakizun bat antolatzeak batasunaren iduria ematen digu. Hamabortz herriotako pertsonak baztandar sentitzen dira. Honekin guziarekin erran nahi duguna hauxe da: Baztan ibaiak izena ematen diola ibarrari, eta era berean, ibarrak nortasun berezia bertako herrietan bizi diren lagunei. Gainerakoan, berriz, nork bere herriko nortasunari eusten dio; hau da, Bertizaranan, Malerrekan, Sunbillan eta Bortzerrietan herri bakoi-tzeko nortasuna gailentzen zaio eskualdekoari.

## 1.2. Demografia

Arrazoi ezberdinengatik izanda ere, Bera, Lesaka, Bertizarana, Doneztebe eta Elgorriaga dira azken urteotan bizilagunen kopuruan goiti egin duten udalerrri bakarrak. Berak eta Lesakak industriaren alderdi positiboa dute beren alde, eta Doneztebe inguruak Malerreka herri ttikien migrazioagatik eta herrietan sortu diren enpresa eta zerbitzuengatik. Bertizaranak igoera hagitx apala izan du, sarri tauletan ikusiko dugunez. Ondorioz, bizimodu urbanoa dakarten lantokiak eta zerbitzuak dituzten herriak dira handitzen ari diren bakarrak. Fenomeno beraren bertze alderdian, nabarrena da baserritik bizi diren herrien gainbehera geldiezina dela, Baztan-Bidasoan ez ezik, inguruko herrietan ere antzeko egoera aurkitu dugu guk.

Baztanen, aldiz, 1997ko azaroaren 28an ireki Belateko tunelak ez du iduri momentuz Baztango demografiaren joera negatiboa iraultzeko indarririk izan duenik. Azken urteotan komunikazio-azpiegitura hobetu ez balitz, beharbada pentsa liteke joera negatiboa are negatiboagoa ez ote zen izanen. Bertze alde, adinari begiratuz, urtetik urtera zaharragoa da baztandarren banaz bertzeko adina.

Ikus ditzagun, bada, populazioaren gorabeherak udalerriz udalerrri, 1960. urte-tik 2003ra arte, eskualdeka antolatuta<sup>4</sup>:

### Baztan

Udalerrria	Bizilagunak (1960 > 2003)	Aldea (ehunekoetan)
Baztan	9.312 > 7.746	-%17

### Bertizarana

Udalerrria	Bizilagunak (1960 > 2003)	Aldea (ehunekoetan)
Bertizarana	651 > 684	+%5

4 Datuok *Institución Nacional de Estadística* delakoak emanak dira.

**Malerreka**

<b>Udalerrria</b>	<b>Bizilagunak</b> (1960 > 2003)	<b>Aldea</b> (ehunekoetan)
Donamaria	567 > 408	-%28
Doneztebe	785 > 1.453	+%85
Elgorriaga	190 > 223	+%17
Ituren	471 > 469	-%0,4
Oitz	204 > 154	-%25
Urrotz	318 > 190	-%40
Zubieta	500 > 293	-41%

**Sunbilla**

<b>Udalerrria</b>	<b>Bizilagunak</b> (1960 > 2003)	<b>Aldea</b> (ehunekoetan)
Sunbilla	951 > 675	-%29

**Bortzerriak**

<b>Udalerrria</b>	<b>Bizilagunak</b> (1960 > 2003)	<b>Aldea</b> (ehunekoetan)
Arantza	1.046 > 603	-%42
Bera	2.600 > 3.637	+%40
Etxalar	1.109 > 801	-%28
Igantzi	618 > 604	-%2
Lesaka	2.294 > 2.692	+%17

Arestiko datuok agerian uzten dute enplegu eta bizimodu erosoa izateko beharrezkoak diren zerbitzuekin ongi horniturik dauden herriak nahiago dituela jendeak, bizilekua aukeratzeko tenorean. Gisa berean, ikastetxe, osasun zerbitzu eta komunikabide hobeak dituzten herriak handitu dira hondarreko aldian.

Diferentziarik aipagarrienak, Bera, Lesaka eta Doneztebe herrietan ditugu, igoerari dagokionez, eta Baztan, Arantza, Etxalar eta Malerrekako gainerakoak, Elgorriaga izan ezik, gainbehera. Alde horretatik, Elgorriagari Doneztebe ondoan egoteak mesede egiten bide dio.

Bertzaranako hiru herrietan 700 lagun baino gutiago bizi dira. Bertzaranako 2003ko eroldaren arabera, Narbarten 275 lagun bizi dira, Legasan 235 eta Oieregin 94 bertzerik ez.

Baztango eroldaren arabera, Elizondon 3.200 lagun bizi dira, Iruritan 850, Arizkunen 650, Erratzun 542, Oronoz-Mugairin 457, Lekarozen 415. Aniz, berriz, Baztango herririk ttikiena da 65 bizilagunekin, eta Berroeta bigarren ttikiena 135ekin. Gainerako herriek, 200na bizilagun pasa dituzte.

Taula hauetan islatzen ez bada ere, bada bertze fenomeno bat azkenaldian berziki nabaritzen ari dena: atzerritarren inmigrazioa. Gehienbat, Ekuadorkoak eta

Europako Ekialdekoak dira, eta hauek —bertakoen dinamika sozio-espazialari jarraikiz— herri nagusietara jotzen dute: Bera, Lesaka, Doneztebe, eta neurri apalago batean, Elizondora.

Inguruko herri nafarretan ere antzeko dinamika sumatu dugu:

<b>Udalerrria</b>	<b>Bizilagunak</b> (1960 > 2003)	<b>Aldea</b> (ehunekoetan)
Arano	360 > 141	-%61
Goizueta	1.350 > 853	-%37
Eratsun	436 > 174	-%60
Ezkurra	475 > 204	-%57
Saldias	271 > 133	-%51
Beintza-Labaien	537 > 269	-%50
Leitza	1.564 > 2.898	+%85
Urdazubi	546 > 387	-%29
Zugarramurdi	525 > 293	-%54

Bistan denez, Leitza da gora egin duen herri bakarra, eta hagitz nabarmen, gainera. Bertzeek, ordea, behera egin dute; eta zenbaitetan, bizilagunen erdia baino gehiago galdua. Arestian zerrendatu ditugun ezaugarriak betetzen dituen herria da Leitza: enplegua, zerbitzuak, komunikabide erosoagoak... Dena den, Leitza ondoko herrietako bizilagunak hartu izanen ditu, eta ez hainbertze, erraterako, Arano, Saldias edo Beintza-Labaiengoak. Aranok (eta Goizuetak bertze neurri batean) ondo-ondoan ditu Gipuzkoako Beterriko herriak: Hernani, Andoain... Saldias erdibidean gelditzen da, nolobait, mutur batean Leitza eta bertzean Doneztebe dituela. Sánchez Carriónen arabera (1981: 11-12), Saldiasek Doneztebe aldera egiten zuen orain dela hogeita borts urte pasa, Eratsunek eta Ezkurrak ez bezala. Gaur den egunean, guk geuk halatsu sumatu dugu, baina ez ginatke erratera ausartuko Saldiasko jendeak Doneztebe aldera bakarrik egiten duenik, baizik eta nagusiki Doneztebe aldera. Azkenik, Beintza-Labaiengo lagunek bi aukera nagusi dituzte: lehenbizikoa, Doneztebera; eta bigarrena, Iruñera.


Bidasoaren bertze aldeko dinamiken berri jasotzeko asmoz, muga ondoko Sara eta Senpere herrietara jo dugu, Lapurdiko gune horretan ere zer gertatzen den jakin-minez<sup>5</sup>:

<b>Udalerrria</b>	<b>Bizilagunak</b> (1960 > 2003)	<b>Aldea</b> (ehunekoetan)
Sara	1951 > 2.182	+12
Senpere	2.240 > 4.300	+92

5 Datuok Sarako eta Senpereko Herriko Etxeek emanak dira.

Senpereko biztanleria kasik bikoiztu da azken berrogei urteotan. Segur aski, Lapurdiko kostaldeko hiri nagusietako zerbitzu eta lantokietara komunikazio erraza edukitzeak zerikusi zuzena izanen du herriko jende gaztea bertan atxikitzeko. Berriz, zerbitzuak, lana eta komunikazio erraza ditugu hizpide eta azalpen. Honela, Baztan-Bidasoan gertatzen dena eremu handiago batean ere gertatzen dela erakutsi nahi dugu.

Demografia-gertaera hauek ondorio sozialak eta ekonomikoak izateaz gain, ondorio kulturalak eta linguistikoak ere badituzte. Behera egin duten lekuetan, hizkera batek hiztunak galtzen baditu, indarra ere galtzen baitu. Gora egin duten lekuetan, berriz, hizkera batek kanpoko hiztunak hartzen baditu, homogeneousuna galtzen baitu, eta dialektologialariari zailago egingen zaio ezaugarrien artean bertakoak diren edo ez ohartzea. Horretarako, oinarri teorikoak ongi finkatu eta metodologia ahalik eta gehien zehaztu behar da, berriemaile onak aukeratuz, datu fidagarriak erabiliz, ondorio xuxenak aterako baditugu.



LUIS DE URANZUREN BIDASOA

### 1.3. Geografia-hidrografia-orografia

Baztan-Bidasoa ibaiak zeharkatzen du gure eremu guziaz. Urak bilarazi ditu aspalditik azter-eremuko jendeak eta herriak. Ibaiak denboraren joanean egituratu ditu herriotako bizilagunen dinamika sozio-espazialak. Dena den, errealitate hidrografiko bat eratzen duen Baztan-Bidasoa ibaiak bi izen eta bi izan hartzen ditu: *Baztan ugeldia* eta *Bidasoa erreka*. Merinok *El desarrollo económico de la cuenca del Bidasoa* doktorego-tesian «Regata» eta «Baztán» terminoak darabiltza (1983). Era berean, Andres Iñigo euskaltzain oso iturendarrak ikuspegi bikoitz hau erabiltzearen abantailaz ohartarazi gintuen Gasteizko Filologia Fakultatean, 2000-2001eko ikasturteko doktorego-ikastaro batean. Errealitate bikoitza ageri duen eremu baten aitzinean gaude, beraz: guk lan honetan eta euskaraz «Bidasoaldea» eta «Baztan» izendatuko ditugunak.

Badira, dena den, Pio Barojaren «País del Bidasoa» izendapen (gure ustez) bukolikoaren tradizioaren jarraitzaileak, guk darabilgun Baztan-Bidasoa osoari errateko. *Diario de Noticias de Navarra* egunkarian gustura aski irakurtzen dugun kronikagile Lander Santamaría izan liteke etsenplu nabarmen bat (ikus, adibidez, Santamaría & Ondikol 2006: 10, 71 edo 290).

Deiturak direla eta, badakigu Doneztebeko zubiak Baztanzubi duela izena, eta pentsatzekoa denez, baita izana ere iraganean. Hala aldarrikatzen du, bertzeak bertze, Bertizarana eta inguruak ongixko ezagutzen dituen Eduardo Gil Bera idazleak:

El topónimo Baztanzubi recuerda que, contra lo que tantas veces se ha escrito y hoy ya es admitido como oficial, el río Baztán no cambiaba de denominación al salir del valle de su nombre, sino al hacerlo del término de Bertizarana, de modo que en el país se ha considerado tradicionalmente como río Bidasoa al resultante de la confluencia de los ríos Ezkurra y Baztán, a partir de la entrada a la garganta de Arrizurraga (1994: 3-4).

Halaber, aintzat hartzekoa da Doneztebetik aitzineko mendiei, errepideaz alde banatan daudenei, Bidasoa-Berroaran erraten zaiela. Kontuak kontu, haatik, egun, ibaiak Oronoz-Mugairin aldatzen du izena. Baztango muga-hirian, hain zuzen.

Uraren bideari jarraikiz, Doneztebeko udalerrian bertze bi errekek bat egiten dute, bi erreketako urak Baztan-Bidasoara isuri aitzinetik: Ezkurrak eta Ezpelurak. Lehenbizikoak Zubieta, Ituren, eta Elgorriagako bazterrek bustitzen ditu Doneztebera iritsi bitartean. Ezpelurak, berriz, Urrotz, Oitz eta Donamaria zeharkatzen ditu. Bi erreka hauen artean Amezitia (713m) mendia dugu, Malerreka bi alderditan banatuz. Hortaz, Doneztebe sare hidrografikoaren eta komunikabideen ardatza da: Sunbilla eta Bortzerriak aldera nahiz Bertizarana eta Baztan aldera joateko. Bidasoa izenarekin Sunbilla pasatuta, Bortzerrietan sartzen da ibaia. Hemen Bidasoak alde batera uzten ditu Bera eta Etxalar, eta bertze aldera, aldiz, Arantza, Igantzi eta Lesaka. Gero, Endarlatsan, Lapurdiren eta Gipuzkoaren artean joaki da, Txingudiko Badiara iritsi arte —Irun, Hondarribia eta Hendaia—.

Ardaizek (1980: I, 185), ingurune fisikoa, klima, ekonomia mota edo faktore administratiboak bezalako ezaugarriak kontuan hartuz, Nafarroa 25 eskualdetan bereizten du. Lehenik Bortzerriak sailkatzen ditu:

Comarca formada por cinco municipios con idénticas características físico-climáticas y con idénticas producciones agrarias. De los análisis de funcionalidad se revela Lesaca como centro funcional, aunque es clara la dependencia funcional que sobre esta comarca ejerce Guipúzcoa, estando los municipios que la componen más volcados a San Sebastián que a Pamplona.

Bigarrenik, Baztan ageri da, Urdazubi eta Zugarramurdirekin batean:

Comarca formada solamente por tres municipios, aunque Baztán a su vez está formado por 14 lugares y la villa de Maya<sup>6</sup>. Todos tienen similares características físico-climáticas e idénticas producciones agrarias. Elizondo (capital del Valle del Baztán) se revela como cabeza funcional, aun cuando existen problemas de accesibilidad para los municipios de Urdax y Zugarramurdi.

Hirugarrenik, Sunbilla, Malerreka eta Bertizarana sailkatzen ditu Ardaizek:

Está formado por 9 municipios que integran el Valle de Bertiz-Arana y el ya desaparecido Valle de Santesteban de Lerín. Puede hablarse de similares características físico-climáticas así como de producciones agrarias para todos los municipios. Santesteban aparece como el municipio más relevante desde el punto de vista funcional.

Honenbertzez, hiru zatitan dakusa Baztan-Bidasoa: (i) Bortzerriak, (ii) Baztan eta (iii) Bertizarana-Sunbilla-Malerreka. Bortzerriak direla eta, Gipuzkoako eragina nabarmentzen du. Honekin ados gaude, baina zenbait ñabardura egin beharrean gara. Ardaizek dio Lesaka dela ardatz funtzionala, Bera herria aipatu gabe; baina, aitzineko atalean agertu dugunez, egungo dinamikak ikusirik, Bera Lesaka bezain *funtzionala* da, ez bazaio gailentzen. Halaber, Gipuzkoako eragina nabari da Bortzerrietan, baina Irun da hiri nagusia, Donostia bigarren maila batean utziz, eta ondotik, Iruñea. Irun ondo-ondoan dagoela gogoan hartu behar dugu. Oraindik ere oroitzen gara gure amatxi *ziudadera* edo *kapitalera* joaten zen sasoiaz. Bereztat Irun zen hiria. Hona hemen Koldo Zuazok Donostiako eta Irungo eskualdeez erraten duena:

Gune autonomo samarra izan da eta da Irun; erabat Donostiari begira eta erabat Donostiaren mende egon ez dena. Irunen beraren inguruan ibili dira eta dabilta Hondarribia, Bortziriak eta mugatik gertuko herri lapurtarrak ere hein batean eta, ostera, Donostiaren inguruan ibili dira eta dabilta Erreterria, Lezo eta Oiartzun (1997: 420).

Gaur egunean, bortzerritarrak Irunen dagoen *Bidasoaldeko Ospitalera* joaten dira. Orobat, espezialista gehienak ere bertan izaten dituzte, eta ez Iruñean (edo

6 Gogoan har bedi 1969. urtera arteko bibliografian Amaiur Urdazubirekin eta Zugarramurdirekin batean agertzen ohi zela, hirurek «villas separadas» izendapena zutela.

Donostian). Sunbillako, Malerrekako, Bertizaranako nahiz Baztango bizilagunak, ordea, Iruñera joaten dira. Ildo beretik, bortzerritarrak erosketak, zinea, aisialdia eta abarrerako Irunera joaten dira nagusiki.

Ardaizen sailkapenari jarraikiz, Urdazubi eta Zugarramurdi Baztanekin batean paratzen ditu «aun cuando existen problemas de accesibilidad», hots, azterketak Nafarroa bakarrik aintzat hartzen duenez, ez digu mugaz bertze aldeko herrien berri ematen. Baztan eta bi herrion artean Otsondo (658m) mendatea dugu, oztopo orografiko garrantzitsua. Haatik, Urdazubitik nahiz Zugarramurditik Sarara eta Ainhoara joateko ez dago inongo oztoporik. Hau dela eta, *Xareta* osatzen duten lau herri hauen arteko harremanak maizago gertatu izan dira orain arte. Urdazubik eta Zugarramurdik betidanik izan dituzte loturak Baztanekin, eta hau hizkuntzan nabari da, baina emankorrakoak (izan) dira Sararekin eta Ainhoarekin (izan) dituztenak.

Sunbilla eta Bertizarana Malerrekari —Donezteberi— lotzen dizkio, nolabait garai bateko «Valle de Santesteban de Lerín» berreraikiz. Bidenabarrekoan, Saldias, Beintza-Labaien, Eratsun eta Ezkurra Basaburu Txikiko gainerako herrieekin batean sailkatzen ditu, nahiz eta aitortzen duen arestiko lau herrietara Doneztebeko eragina ere iristen dela, Leitzakoaz gainera.

#### 1.4. Harreman sozio-ekonomikoak

Azpiatal honetan, harreman sozio-ekonomikoak, eta lotura hauek eremuko hizkeren arteko harremanetan izaten ahal dituzten eraginak ikusi eta erakutsi nahi ditugu.

Dagoeneko errana dugu Baztan-Bidasoako herri guziki administrazioz nafarrak direla, baina nafarrak ez diren bertze herri eta lurralde batzuekin egiten dute muga zenbaitzuek (ikus hasierako mapak). Errate baterako, Baztanek ondoko herri eta eskualdeekin muga egiten du (iparraldetik, ezkerretik eskuinera): Sara, Zugarramurdi, Urdazubi, Senpere, Ainhoa, Ezpeleta, Itsasu, Bidarra, Baigorri, Banka, Aldude, Urepele, Erroibar, Esteribar, Anue, Lantz, Ultzama, Donamaria, Bertizaranako hiru herriak eta Etxalar. Herri, ibar eta eskualde anitzekin, alegia. Kontu honetan bi alderdi izan behar ditugu gogoan: bata, Baztango lurrik gehienak Baztan ibaiaren inguruan biltzen direla, hau da, herriguneak; eta bertzea, eta hau Baztan-Bidasoa osoan gertatzen den zerbait da, herriak arrunt hedaturik daudela. Adibidez, Elizondoko auzoa den Beartzungo baserriek hurbilago dute Nafarroa Behereko muga Elizondo bera baino.

Berak eta Etxalarrek ere Ipar Euskal Herriko herrieekin muga egiten dute, Biriatu, Azkaine, Urruña eta Sararekin. Ulertzekoa denez gero, ez dugu gure eremuko herri guziki zein bertze herrieekin egiten duten muga azalduko, arras nekagarria eta nahasgarria suertatuko bailitzateke. Horretarako, mapak paratu ditugu, egiazki, hitzak baino aise lagungarriagoak direlakoan.



Mapatik lupa goratuz gero, Baztan-Bidasoako herriek Gipuzkoarekin, Lapurdirekin, Nafarroa Beherearekin eta ondoko Nafarroa Garaiko bertze herri batzuekin muga egiten dutela dakusagu. Hala ere, badira herri batzuk bertze herri nafarrekin bakarrik muga egiten dutenak (Arantza, Igantzi, Bertizarana eta Malerreka osorik, Baztango Oronoz-Mugairi, Lekaroz, Azpilkueta eta Basaburuko lau herriak), bertze batzuek Gipuzkoarekin nahiz Lapurdirekin muga egiten duten bitartean (Bera). Pentsatzekoa da honen arabera ezberdintasun eta antzekotasun linguistiko-kulturalak aurkituko ditugula geografian barrena.

Baztan-Bidasoan egiten diren azokarik garrantzitsuenak Lesakan, Donezteben eta Elizondon izaten dira. Aspalditik egiten diren merkatu eta feria hauek ongi erroturik daude:

En 1499 los reyes Don Juan de Labrit y Doña Catalina, concedieron a Lesaca un día de mercado cada quince días; y dos ferias al año de a quince días cada una.

Otros mercados navarros de esta zona septentrional son *Santesteban* y *Elizondo*, los dos a orillas del Bidasoa, el primero cerrando la salida del Ezcurra, el segundo capital del Valle de Baztán, recogiendo los pueblos de la cabecera del río [...] (Casas Torres & Abascal Garayoa 1948: 28-29).

Historiako lekukotasunen arabera, Elizondoko merkatura Ipar Euskal Herriko nekazariak ere joaten ziren:

Al mercado quincenal (en sábado) de Elizondo concurrían, y es lógico suponer que volverán muy pronto a concurrir, de los pueblos franceses de Ezpeleta, Alduides, Baigorri, Ainhoa y Urepel, entre otros (Casas Torres & Abascal Garayoa 1948: 21).

Gisa berean, Nafarroa Garaiko bizilagunak ere Ipar Euskal Herriko merkatuetara joan izan dira:

La encuesta verbal directa, ha permitido comprobar la concurrencia a los mercados de Hendaya, Bayona, San Juan de Luz, y San Juan de Pie de Puerto de los habitantes de nuestras comarcas fronterizas (Cinco Villas, Santesteban, Baztán, Aezcoa). En el caso de Lesaca y Elizondo, incluso salía un autobús para San Juan de Luz y Bayona respectivamente el día de mercado, que en el primero tenía lugar los viernes, si bien era más importante quincenal que semanalmente (Casas Torres & Abascal Garayoa 1948: 20).

Gaur egunean, berriz, harremanok franko eten dira. Segur aski, landa giroko bizimodua goitik beheiti aldatu izanak ere ahuldu ditu salerosketarako guneok. Nolanahi ere, kontua da egun Bortzerrietako baserritar bakan batzuk soilik joaten direla Lapurdira, guk dakigula, batez ere Donibane-Lohizunera eta Azkainera. Baztandik ere jende gutxi kok zeharkatzen omen du muga, nahiz eta oraindik zenbait baztandar ikusten diren Ezpeletan edo Garazin (Santamaría & Ondikol 2006: 30-32).

Elizondora Ipar Euskal Herriko zenbait lagun hurbiltzen dira, iragan garai batean baino aise neurri apalagoan bada ere. Beraz, Elizondoko feriari dagokionez, aspalditik baztandarrak ondoko nafarrekin, behenafarrekin eta lapurtarrekin biltzeko tokia (izan) dela iduri du.

Doneztebeko merkatura, Malerreka, Sunbilla eta Bertizaranako bizilagunez gainera, Basaburu Txikiko herri batzuetakoak ere joaten ohi dira, bereziki Beintza-Labaien eta Saldiaskoak.

Uztailaren leian, Irunen, ganadu-azoka egiten da. Azoka honetara Baztan-Bidasoako zenbait lagunek joateko ohitura dute, bai eta muga ondoko herri lapurtarretakoek ere, maila apalagoan izanda ere.

Elizaren lurralde-egituraketaz den bezainbatean, badakigu Baztan-Bidasoa osoki (baita ere Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaide, Nafarroan; eta Gipuzkoan, Pasaia Irun-Hondarribiraino) Baionako Elizbarrutiaren barrenean zegoela. Egoera horrek iraun zuen Felipe II.a erregeak 1566an Baztan-Bidasoa Iruñeko Go-tzaindegiari lotu zion arte<sup>7</sup>. Ez dago argi Elizak egiten zituen honelako banaketek oinarri kulturalik zuten ala ez. Dena den, iduri du batzuetan bederen banaketa ekle-siastikoak eta tribalak edo kulturalak bat heldu zirela. Hizkuntza katalanaren kasuan, bokalez bukatzen den silaba postonikoan *a* eta *e* bereizten dira mendebaleko dialektoan, ekialdeko dialektoan ez bezala. Baliteke isoglosa hori errealitate etniko batean oinarritua izatea:

No deja de ser interesante el que unas hipotéticas fronteras étnicas prehistóricas coincidan con unas fronteras históricas medievales ya documentadas, y que las dos coincidan con la que parece ser una antigua frontera lingüística entre catalán occidental y catalán oriental (Baldinger 1972: 149-150).

Euskararen herriari dagokionez, halaber, Serapio Mujikak Carmelo Etxegarairen adierazpenak isurtzen ditu Baionako Elizbarrutiari buruzko artikulua batean:

A este propósito hemos oído decir a nuestro querido e ilustrado amigo Don Carmelo Etxegaray, que a su juicio la división eclesiástica en Guipúzcoa, coincidió exactamente con la división lingüística, y pertenecieron al Obispado de Bayona, los pueblos que hablaban el dialecto alto-navarro septentrional; al de Pamplona los que hablaban el dialecto guipuzcoano y al de Calahorra los que hablaban el dialecto vizcaíno. Y ampliando sus conjeturas y recogiendo algunas otras indicaciones que se contienen en la obra citada de Gorosabel, tenemos por muy probable que esa división lingüística fuese debida a que primitivamente había aquí tres tribus distintas, que tenían también habla diversa o dialectos diferentes de una misma lengua, y así los descendientes de los antiguos Vascones, sean

7 Nolanahi ere, Baionako apezpikuarekiko harremanak ez bide ziren bat-batean ezabatu: [...] existen pruebas en el archivo del castillo de Urtubia que demuestran claramente la continuidad de relaciones con Bayona. Se trata de un contrato de arrendamiento de los diezmos y otras rentas que el obispo de Bayona poseía en Cinco Villas y los valles de Baztán, San Esteban de Lerín y Bertiz (Uranzu 1955: 326).

los que hablan el alto-navarro septentrional y pertenecían al Obispado de Bayona: los Várdulos los que hablan el guipuzcoano y correspondían al Obispado de Pamplona, y los Caristios los que hablan el vizcaíno y formaban parte del Obispado de Calahorra (Mujika 1914-17: 192-193).

Alta, Koldo Mitxelenaren bidetik, hiru euskalki talde nagusiak aspaldiko leinu zaharrekin uztartzeko teoriak gero eta jarraitzaile gutiago du hondar aldiko Euskal Dialektologian; euskalkien arteko ezberdintasun dialektalak Erdi Aroaren inguruan hasi eta Aro Modernoan sakonago bilakatu zirela postulatzeko baita (Camino 2009, 28.1. eta 28.2. atalak).

Elizaren barreneko egituraketari dagokionez, berriz, Irigaraik Baztan-Bidasoaz eta inguru hurbilaz informazio zehatza ematen digu:

En el arciprestazgo de Baztán, que comprendía los pueblos del Valle de Baztán; excepto Oronoz, y los pueblos de Maya, Urdax y Zugarramurdi, todas las parroquias son vascongadas. [...]

En el arciprestazgo de Santesteban, que incluía la regata del Bidasoa, desde Oronoz hasta Vera, zona de Santesteban y pueblos de Basaburua Menor hasta Goizueta y Arano, todos los pueblos hablan vasco (1974: 20-21).

Beraz, Oronoz Baztango artzapez-barrutitik at gelditzen da, Bertizaranarekin, Malerrekarekin, Basaburu Txikiarekin, Sunbillarekin eta Bortzerriekin batean Doneztebeko artzapez-barrutiaren baitan. Hau deigarria da hagitz, lehenago hizpide izan dugun Baztanen batasun bizkorra hausten baita.

Mugaz bertze aldeko herriekiko harremanak ugari eta sendoak izan dira historian. Adibidez, fazeriak, hots, bi herriren edo gehiagoren arteko mugako larre-lurra erabiltzeko ituna. Gure ustez, Imanol Trebiñoren azalpen luzea baina zehatza honat ekartzea merezi du:

Fazeria izenez ezagutzen diren herri mugakideen arteko akordio eta kontratuak oso antzinakoak dira. Bake akordioak izateaz gain, herri biren lurra eta mugak zehaztu eta larreen, uren eta basoen erabilera arautzen zuten, herriek eurek akordatuta. Hamaseigarren mendean Espainiako eta Frantziako estatu indartsuak sortzen direnean muga ondoko herriak lehenengo paktuak mantentzen eta egoera berrira egokitzen ahalegintzen dira, lortu ere lortzen dituzte, akordioak gaur arte gorde baitira, eta beren ezaugarri nabarmenetako bat mantendu egingo dute: nazioarteko izaera izan arren, estatuen partehartzerik ez da izango.

1856ko estatu bien arteko Mugen Tratatuaren izenpetzean estatuak herri mugakideen eskubide hauek errespetatu egingo dituzte baina hemendik aurrera hauek akordioak gehienez bost urtetakoak izan beharko dute eta bere osaketan autoritateek parte hartu beharko dute. Geroko mugen tratatuak, halako klausula hauek dagokienez, ildo berberetik segituko dute.

Berriki, berriro sinatutako bi akordioen berri izan dugu, 1997ko azaroaren 30ean Bera eta Sara arteko mugaren 36. mugarrian bertan dagoen Mahain Harriaren bildu eta bi fazeria sinatu zituzten bertako auzapezek, Sara eta Etxalarren artekoa

bata, eta Sara eta Beraren artekoa bestea. Jakin dugunez 1617tik bost urtero egiten da, azaroko azken igandean beti. Europako Batasunarekin ez omen dira premiazkoak halako akordioak eta orain balio sinbolikoa baino ez ei dute, baina sinboloak ez dira barre egiteko kontua (2000: 74-75).

Dena den, Trebiñok berak gaztigatzen digunez, Baztan eta Sara ditugu fazeriak direla eta produkzio gehien eragin duten udalerrriak:

Sara eta Baztan dira halako dokumentuen igortzaile edo hartzaile emankorrenak, dokumenturik zaharrenak gainera euren artean trukaturakoak dira. Hauxe gain, eta askotan aipatu herriekin hartu-emanetan, beste anitz herri izan dugu agiri horien protagonista gutxienez behin izan direnak, hor agertzen zaizkigu: Etxalar, Zugarramurdi, Bera, Luzaide, Biriatu, Urruña, Bidarra, Itsasu, Baigorri eta Lasa (2000: 75).

Hitzarmen hauek inguruko herri gehienekin egiten ziren, Fairén Guillének eskaintzen digun argibidearen arabera:

Marchando desde la frontera Sara-Echalar hacia el Este, hay que anotar numerosos tratados de facería que se podujeron entre ambos pueblos [...].

Tampoco faltaron entre Sara y Vera de Bidasoa.

A tenor de lo prevista (sic) en el art. 14 del Tratado fronterizo de 2 de diciembre de 1856, el Valle de Baztan tiene concertadas con los pueblos franceses de Sare, Saint-Pee sur nivelle, Ainhoa, Itxassou, Espelette y Bidarray, facerías quincenales.

El Valle de Baztan, tiene concertada otra facería con el francés de Baigorri (1955: 509, 511).

Egun Baigorri ibarrak kudeatzen duen oihanaren atal bat, aspaldian Erroibarrek eta geroago Erroibarrek eta Baztanek kudeatua, Zangozako Merindadekoa zen<sup>8</sup>; abeltzaintzaren aldetik lotura hertsia izan bide da Luzaide, Erroibar, Esteribar, Baztan eta Baigorri haranen artean: Sorogaingo fazeria; Iruñeak behar zuen haragi kopuru osoa hornituko bazen, baigorriarren abeltzaintza zinez garrantzitsua zen (Esarte 1983: 40).

Muga aldeko harreman hauetan, garrantzi handia izan du kontrabandoak. Jarduera honek, Hego eta Ipar Euskal Herriaren arteko harremanak azkartu ditu. Kontrabandoaren edo *gau-lanaren* berri eman diguten lagunak franko izan dira. Gure eremuan sartzen ez diren Urdazubi eta Zugarramurdi gainera, Baztan, Etxalar eta Bera ditugu harremanotako partaide nagusiak. *Gau-lanaren* sasoi indartsuena Bigarren Mundu Gerraz geroztik 70. hamarkada bitartekoa da, nahiz eta aitzinetik eta ondotik ere ezaguna izan (cf. Douglass 1977, Perales 2004, Arburua 2005).

8 Dena den, Aldude alderdiko oihana eta mendiak, batez ere Baigorrikoak eta Erroibarkoak izan dira, nahiz eta Baztanek, Luzaidek eta Orreagako Kolegiatak ere zenbait eskubide bazituzten (Arvizu 1997: 52).

Kontrabandoa egiteko Erroibarko mutilak Urepelera joaten ziren eta baztandarrek Baigorriara, bereziki Erratzu eta Elizondo ingurukoak. Baigorri alderdi horretan gelditu diren gaztelaniaren maileguak eta jendeen ahaide ugariak harremanon ondorioak ditugu (Ibarra 2000: 33). Gisa berean, mugaz bi aldeetako ibar hauen hartu-emanak direla eta, Baztandik Baigorriara bizitzera joanak eta Baigorritik Baztanera ezkonduak ere izan dira historian zehar.

Bertze alde, Etxalarrek eta Sarak lotura estuak (izan) dituzte usategiei esker:

[Etxalar] En sus montañas, lindando con la localidad vasco-francesa de Sara, cada otoño se repite el rito documentado desde el siglo XII de la caza de bandadas de palomas (Aierbe 1989-91: VIII, 286).

William Douglasssek ere bertze lekukotasun batzuk eskaintzen dizkigu, erranez mugak zenbaitetan urrundu baino gehiago elkartu egin dituela inguruko herriak:

The evasion of military service is a well developed pattern on both sides of the frontier [...]. Echalar served as a corridor for French Basque evaders and a prime source of persons who fled to France. [...] Barandiaran notes that between 1914 and 1918 some 75 young men fled from Sare to Navarra, and primarily to the towns of Zugarramurdi, Echalar and Vera. [...] In many respects, then, the border actually stimulates contacts rather than impeding them (1977: 136, 141).

Dena den, Iñaki Caminok ongi gogorarazten digunez, hartu-emanak etengabeak izan badira ere, ez dira beti onak izan. Frantzia eta Espainia arteko gerrek nahiz aukotasunak eragin borrokak arruntak bilakatu dira, eta bi estatuen mugaren finkatze zehatza ez da gertatu 1856. urtea arte.

Jakina denez, Jose Migel Barandiaran Saran bizi izan zen berrogeiko hamarkadan. Gerora bere ikerketak biltzen dituen lan batean harremanok agertzen dituzten datu adierazgarriak atzeman ditugu:

Se calcula que las dos terceras partes de los habitantes actuales de Sara son de origen navarro. *Bainan hek ere gure azkazikoak dire* (pero también éstos son de nuestra raza), me decía uno de mis informantes, saratar de abolengo (2000 [1950]: 76).

El comercio con Navarra es casi ininterrumpido, y no por ser contrabando es menos intenso. Hay contrabando diurno y hay contrabando nocturno. El contrabando de día o diurno, efectuado principalmente por mujeres y niños, es facilitado por media docena de ventas existentes a lo largo de las fronteras de Vera y de Zugarramurdi, donde los saratarras adquieren bebidas, comestibles y objetos procedentes de Navarra, y los navarros compran géneros de procedencia francesa (2000 [1950]: 122).

Hoy son frecuentes las relaciones entre los pueblos colidantes. La compra-venta de diversos géneros en las aldeas vecinas, los mercados de San Juan de Luz, de Ezpeleta y, en otro tiempo, el de Lesaca y los comercios de Bayona atraen a numerosas personas (2000 [1950]: 267).

Beraz, mugaren inguruko herrien arteko harremanak nabarmenak izan direla ikusi dugu, eta ondorioz, konprenitzekoa da hizkeretan ere harreman horiek eragina

izatea. Honela azal daiteke zergatik iritsi diren isoglosa batzuk Berara eta Etxalarrera, eta ez Lesakara, Arantzara edo Igantzira (adibidez, puntukaritasuna adierazteko balio duen —*ki* aditz adizkia: *ibilki naiz* ‘nabil’). Edota, nondik nora iritsi diren Baztangoizara zenbait hitz (*arno*, *botike* ‘denda’, *deliberatu*), eta ez Elizondora edo Arraiozera.

### 1.5. Egoera soziolinguistikoa

Soziolinguistika egungo dialektologian gero eta garrantzi handiagoa erdiesten ari da, oinarri teorikoei eta irizpide metodologikoei dagokien atalean azalduko dugunez. Hori dela eta, gure eremuko soziolinguistikaren inguruko datu interesgarri batzuk emanen ditugu: (i) hizkuntzaren ezagutzaz eta erabileraz; (ii) euskara batua-aren azkenaldiko eraginaz; (iii) Baztan-Bidasoan eragin izan duten bertze euskarazko eredu batzuez; eta, azkenik, (iv) azter-eremuko mintzoketiko lotura interesgarriak agertzen ahal dituen gertaera soziologikoez.

Euskararen ezagutzari dagokionez, Pedro de Yrizarrek<sup>9</sup> bere lanean emandako datuak ekarriko ditugu hona lehenik (1981-I: 194-195), Bonaparteren sailkapenari jarraituz:

#### Berako aldaera

Herria	Bizilagunak	Euskaldunak
Arantza	801	801
Bera	2711	1760
Etxalar	896	810
Igantzi	658	652 <sup>10</sup>
Lesaka	2689	2170
Narbarte	263	176
Legasa	199	131
Oieregi	183	94
Ornoz	261	200
Mugairi	189	130
Zozaia	57	50
Doneztebe	892	180
Sunbilla	795	783
Elgorriaga	204	180
Ituren	434	380
Donamaria	433	430
Oitz	178	178
Urrotz	240	240
Zubieta	401	401

9 Euskarazko (azkenaldiko) tradizioan ‘Irizar’ eta, urriago, ‘Yrizar’ ageri direla jakitun baldin bagara ere; Azkoitiko ikertzailearen nahiz haren familiaren nahiari lehentasuna emate alde, ‘de Yrizar’ agertuko da lanean.

10 Berak hala dio *saben vascuence todos excepto seis personas, que no son naturales de Yanci*.

**Elizondoko aldaera**

Herria	Bizilagunak	Euskaldunak
Amaieur	367	360
Arizkun	854	798
Almandoz	330	330
Aniz	82	82
Arraioz	336	328
Azpilkueta	293	293
Berroeta	152	152
Elizondo	2852	1956
Elbete	294	250
Erratzu	650	630
Gartzain	231	231
Irurita	961	700
Lekaroz	519	509
Ziga	354	354

Datu hauen argitara lehenbiziko ondorio nagusia hauxe da: eremu euskaldun baten aitzinean gaude, hizkuntzaren ezagutzari dagokionez behinik behin. Dena den, aspaldiko datuak dira arestikoak, eta handik hona gauzak zerbait aldatu dira.

1999an, *Euskararen egoera. Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan* izeneko txostena atera zuten bertako euskara zerbitzuek. Eremu osoa harturik euskarak gora egin badu ere, Baztanen eta Malerrekan helduek euskara-maila pixka bat galdu dute euren gurasoen aldean. Bortzerrietan, berriz, helduak beren gurasoak baino euskaldunagoak dira. Seme-alabenganako transmisioan euskarak gora egin du hiru eskualdeetan. Hona hemen aipatutako txostenean ageri diren taulak. Gogoan hartu behar da taulotan Bertizaranako hiru herriak eta Sunbilla Malerrekaren barrenean joaki direla:

**Eskualdeka**

Mintzatu	Eremu osoa	Baztan	Bortzerriak	Malerreka
Ongi	77,7	75,9	75,5	84,5
Nekez	11	9,7	13,3	9
Deus ez	11,2	14,4	11,2	6,5

**Adin multzoka**

Mintzatu	17-24	25-39	40-60	+ 60
Ongi	89,5	72,6	73	81,4
Nekez	7	16,4	11,7	7,3
Deus ez	3,5	11	15,3	11,3

Oro har, mintzatzeko gaitasuna altua bada ere, euskaraz ongi irakurtzen eta idazten dakitenak hagitzez gutiago dira (%50,2 eta %39,3 hurrenez hurren). Adinean

gora egin ahala, gero eta euskaldun alfabetatugabe gehiago daude, Euskal Herriko bertze toki anitzetan gertatzen den bezala. Adinaren arabera aztertzen badugu, segidan ohartuko gara gazteenak eta zaharrenak direla euskaldunenak. Nagusien kasuan, beren bizitzaren lehenbiziko urteetan bertze hizkuntzarik ezagutu ez zutelako; egungo haurren kasuan, berriz, ikastolak eta euskarazko hezkuntza ereduak gailentzen direlako. Egoera honek, dena den, arrisku zenbait dakarkio euskararen geroari Baztango euskararen teknikari Paula Kasaresen arabera:

Egin berri den erabilera neurketa batek agerian jarri du euskararen erabilera soziala bazterrekoa dela Baztanen. Euskararen erabilera soziala, gehien goaren jatorrizko hizkuntza eta egoera informaletan erabilia, gazteenen (0-14 urte bitartekoen artean) eta 64 urtetik gorakoen artean egiten da. Adin-talde horiek dira erabilera sozial handiena dutenak. Ez dugu ahaztu behar, ordea, eragin sozial txikiena dutenak direla ez baitira erreferentziazko taldeak: ez dira ekoizpen taldeak, ez dute botererik, ez dira dinamikoak, menpekotasunean bizi diren taldeak dira, eragin sozialik gabekoak, ez ekoizleak baliabideen har-tzaileak baizik (1999: 82).

Hizkuntzaren ezagutzari eta erabilerari dagokienez, berriz, Jose Maria Sánchez Carriónnek, Txepetxek, herriz herriko euskararen gaineko datu zehatzak ematen dizkigu. Aipua luze samarra baliteke ere, soziolinguistak eskainitako xehetasun bikai-nak ematea deliberatu dugu (1972: 95-124 bitarteko orrialdeetatik atereak):

...en **Vera** hay dos hábitats totalmente distintos: la población y los caseríos. En la población quedan oriundos, que hablan vasco tan sólo un 15 o un 20 por ciento en todos los niveles (hay familias totalmente vascófonas)<sup>11</sup>. [...] En **Lesaca** el vascuence es todavía lengua usual. El joven generalmente es bilingüe, habla indistintamente vasco y castellano. [...] Las poblaciones más cerradamente euskaldunes son **Yanci** y **Aranaz**. [...] **Aranaz** es, en sentido absoluto, una de las poblaciones de más vitalidad en toda Navarra. [...] **Echalar** es población de predominio vascófono, menos 6 familias erdaldunes y 15 o 20 que no lo hablan.

No encontramos ningún nombre genérico para designar la serie de poblaciones que se extienden entre la Basaburua Menor, las Cinco Villas y el Baztán, así que acudimos a este, teniendo en cuenta que en el Arciprestazgo de Bertizarana entran, además de los pueblos que vamos a estudiar, los de las Cinco Villas. [...] La zona del «belarri motxa», pueblos de absoluto dominio del vascuence (**Urroz**, **Zubieta**, **Gaztelu**, **Donamaria**). [...] Una zona media, periférica de Santesteban, de pueblos euskaldunes (**Ituren**, **Oitz**, **Elgorriaga**, **Sunbilla**) pero donde la influencia castellanizante de aquella localidad comienza a ser ejercida. **Santesteban** desde hace tiempo, población castellanófona y foco de irradiación del castellano. [...] **Santesteban** ha representado el papel de capital, centro geográfico y administrativo. [...] **Bertizarana** donde la castellanización se debe a la influencia de la carretera general. [...] Tan es así que solo **Legasa** se ha visto libre de ella.

11 Duela 50-55 urte, gure aitatxi (beratarra) eta amatxi (igantziarra) *plazan* bizi baldin baziren ere, euskara zen etxeko hizkuntza nagusia, bertan bizi ziren ahaideen artean (gehien) erabiltzen zena, gure aitarena eta osaba-izebena alegia.



El Valle del Baztán. Los pueblos llanos (**Errazu, Elvetea, Elizondo, Arrayoz, Irurita y Oronoz**) son más accesibles a una penetración del castellano que les llega desde la carretera general y de su situación de tránsito. [...] **Elizondo** foco de castellanización por su categoría de capital del Baztán y su carácter de ciudad «con los bancos, tiendas, mercados, feria ganadera y una pequeña fábrica de material agrícola» [...] En **Ornoz-Mugaire** la castellanización se inició tras la posguerra, acelerada después por el gran contingente de inmigrantes (piscifactoría, industria turística, servicio de bomberos, etc.). Los pueblos altos (**Almándoiz, Berroeta, Ciga, Aniz, Azpilcueta y Garzáin**) su diferencia con los pueblos llanos no radica tan sólo de una mayor vitalidad del euskera en ellos, debido a un mayor aislamiento, sino incluso al género de vida que es aquí casi exclusivamente el tradicional del pastoreo [...] En **Almándoiz**, a la bajada del puerto de Velate, el castellano ha comenzado recientemente la erosión debido a su situación de paso en una carretera de mucho tránsito como es la general que accede de Pamplona a Francia por Irún y Dancharinea. Los pueblos del altozano (**Arizcún y Lecároz**) representan o han representado un papel de transición entre los dos grupos anteriores. **Maya del Baztán** es un pueblo de absoluta vitalidad de la lengua vasca

1970. urtean egindako ikerketa baten datuak dira, baina oro har, egungo errealityarekin bat heldu direnak. Ados gaude, beraz, Txepetxek emandako informazioarekin. Lan exhaustibo honetatik Baztan-Bidasoako ikuspegi orokor bat agertu nahi izan dugu.

Beraz, zenbatez eta herri handiagoa izan, orduan eta erdaldunagoa. Tamalez, Nafarroan (eta ez Nafarroan bakarrik) honelako kasuak ez dira batere arrotzak. Beran, Donezteben eta Elizondon egoera makurragoa sumatzen da gainerako herrietan baino. Dena den, euskararen egoera higatuari dagokionez, nolabaiteko hierarkia egiten ahal dugu: (i) Doneztebeko egoera da okerreza zalantzarik gabe, (ii) Elizondon erdara nagusitzen bada ere eta (iii) Bera da herri *kapitalino* hauen artean euskaldunena. Txepetxek ere antzeko iritzia ageri du bere lanean:

... la irradiación de Vera ha sido muy pequeña. Santesteban y Elizondo ejercen sin embargo una importancia considerable (1972: 188).

Baztan-Bidasoako herri buruez landara, badira bertze herri batzuk erdaldundu samarrak. Erdalduntze prozesu hau, gainera, ez da atzo goizekoa bertze zenbait lekukotasunek adierazten digutenez:

Egia erran nire sorterría Elizondo dugu herririk erdaldunena, handiena ere bai eta badakigu herri handietan jendea lehenago erdalduntzen dela eta euskarak galtzen duela indarra. [...] Gaitz hau ez da oraikoa. [...] Lehenago ere gure haur denboran duela berrogeita hamabortz urte Elizondoko kaletarrak arras erdaldunduak zauden, orduan ere Elizondoko karrketan erdara nagusi. (Izeta 1979: 569).

Baina gaur egun egoera bertzelakoa da. Joan den [XIX.] mendetik hasi zen gure herririk handienetan (Donezteben, Beran, Lesakan, Elizondon eta Iruritan) egoera hori aldatzen eta eskuara, poliki-poliki, hasi zen bere-bereak zituen funtzioak galtzen. (Mindegia 1998: 375).

Halarik ere, badira erdalduntze prozesuan parte hartzen duten bertze faktore batzuk, Txepetxek ongixko azaltzen dituenak: errepide nagusia, orografia-geografia, estatuen arteko muga ondo-ondoan izatea eta kanpoko jendea etorri izana.

Elizan egiten den euskararen erabilerari dagokionez, berriz, Xabier Lasaren azterketari esker (2003), badakigu Baztan-Bidasoako ondoko herrietan mezak euskara hutsez ematen direla: Zubieta, Ituren, Elgorriaga, Donamaria, Urrotz eta Oitzen Malerrekan; Sunbillan; Arantzan, Etxalarren eta Igantzin Bortzerrietan; Legasan eta Narbarten Bertizaranan; Almandoz, Amaiur, Aniz, Arraioz, Azpilkueta, Berroeta, Erratzu, Gartzain, Lekaroz eta Zigan Baztanen (2003: 725). Bertze alde, Beran, Lesakan, Donezteben, Oieregin, Arizkunen, Elbeten, Elizondon, Iruritan eta Oronoz-Mugairin mezak gaztelaniaz edo elebiz egiten dira euskarazkoek landara. Aintzat hartzeko moduko datuak direla iduritzen zaigu, aztergai ditugun herrietako erdalduntze prozesuaz den bezainbatean.

Bertze alde batetik, euskararen mendez mendeko bilakaera geldo samarra arrunt bizkortu dute azkenaldiko irakaskuntzak eta hedabideek. Euskara batua da azkenaldian nagusiki irakaskuntzan eta hedabideetan zabaldu dena. Hortaz, azken 25-30 urteotan, bertako aldaera dialektalez gainera, euskara batua entzutera ohituak dira Baztan-Bidasoako lagun gehienak; bereziki, egoitza nagusia Bilbora eraman berri duen EITB taldeko *Euskadi Irratia* eta *Euskal Telebista* irrati-telebisten bitartez. Egungo jendaratean telebistek zer-nolako indarra duten jakinda, 2008ko urtarri-laren lehenean 25 urte bete dituen *Euskal Telebistak* (Hego) Euskal Herriko belau-naldi oso baten hezkuntzan eta hizkuntzan eragin nabarmena izan duela aitortu beharrean gaude, baita Baztan-Bidasoako gazteagoen artean ere. Dena den, Historiaren ikuspegitik, euskara batua gertakari berria dela erran daiteke, abiapuntua 1968an baitu, ez lehenago.

Egun, euskara batuaren eta bertako(ar)en artean badago bertze hizkuntza eredu bat bien bitarteko zubi-lanak egiten dituen: nolabait, tokian tokiko euskara estandarizatua, idatzia nahiz mintzatua. Eredu hau ondoko euskal komunikabideek lan-tzen dute:

- *Tipi-Ttapa* Aldizkaria.
- *Tipi-Ttapa* Telebista.
- *Xorroxin* Irratia.
- *Xaloa* Telebista.

Euskara batuak euskarazko kulturari *mundu modernoan* sartzeko aukera eman dio, inondik ere. Soziolinguistikaz ari garen honetan, aldiz, zilegi da galdetzea euskara batuaren aitzinetik zein bertze ereduk eragiten ahal zuen Baztan-Bidasoako hizkeretan. Gai honek, segur aski, aparteko ikerlan baterako adinako sakontasuna mereziko balu ere, gure eginbehar dialektologikoetarako zenbait ideia nagusi aipatu gogo ditugu segidan.

XVIII. gizaldiaz geroztik, Gipuzkoako idazleek, bertsolariek eta Elizak Beterriko euskara hedatu zuten Hego Euskal Herriko bazter frankotan (cf. Zuazo 1988). Eragin historiko hau Nafarroara eta Baztan-Bidasoara ere iritsia da. Oraindik, gaur den egunean, arestikoaren oihartzuna sumatzen ahal da: lagunartean nahiz familia giroan norbait bertsotan hasi orduko, errate batera, Gipuzkoa(ti)ko [x] belarea edota *det*, *dezu* erakoak hitzetik hortzera agertzen ohi dira. Dena den, ez da berdin gertatzen gure azter-eremu osoan; zeren eta, Gipuzkoatiko hurbiltasun geografiko-kulturala dela medio, eragin linguistiko hau aise gehiago nabari da Bidasoaldean Baztanen baino. Zehaztasun gehiagorik nahi duenak jo dezake Antonio Zavalaren *Bidasoa aldeko bost bertsolari* izeneko bildumara nahiz berriki argitaratu diren *Bortzirietako Artzainak Ameriketan* eta *Sunbildarrak Ameriketan (1898-1993)* lanetara (ikus bibliografian).

Halarik ere, gipuzkeraren eraginak bete-bete harrapatu ez duen Baztan ibarrean Ipar Euskal Herriko ahozko tradizioak ere utzia du nolabaiteko aztarna, bereziki Baztangoizan:

[Baztango] Abesti eta bertsoei dagokienez, Bidasoatik hurbilen dauden herrietan gure hiztunak gipuzkeraren formak sartu ohi dituzte maiz, nahiz eta baztuetan beren hizkeraren ezaugarriak ere agertu. Iparralderago, berriz, Baztangoizan batez ere, «frants eskuara» erabili ohi dute bertso nahiz abestietan (Lakar & Telletxea 2006: 24).

Honenbertzez, prestigiozko bi tradizio diferentek eragin izan dute Baztan-Bidasoako hizkeretan hondar bi-hiru mendeotan: (i) Gipuzkoakoak Bidasoaldean eta neurri apalagoan Baztanen, batez ere, Bidasoaldetik hurbilen diren herrietan; eta (ii) Ipar Euskal Herrikoak Baztanen bakarrik, nagusiki Baztangoizan.

Resurrección María de Azkuek Baztan-Bidasoan barrena bildutako ahozko piezen artean ere Hegoaldeko eta Iparraldeko bi tradiziook ageri dira, nahiz eta *Euskalerraren yakintza* (1989 [1945]) bilduman arestiko bereizketa hagitzez lau-soagoa gertatzen den. Para dezagun erraten ari garenaren etsenplu bat: Azkuek Arizkungo Francisca Irigoienen ahotik hartu *Gure etxea lakarrez* izeneko kantuan «Nola gastaturen du» irakur dezakegu (40); gisa berean, Francisca Irigoieni hartu zion *Mendiak bete elurrez* abestian Nafarroa Behereko diruditen «zu zira», «ikuskatu zaitut» eta «eztuka kontsideratzen ihaurrek» bezalakoak daude (160-161); aitzitik, Azkuek Arizkungo pertsona beraren ahotik bildutako *Agure zar-zar batek* izenekoan «nik zertako det agure zar ori» ageri da (125). Pentsatzekoa denez, zalan-tza ugari sortzen ahal dituzte halako testigantzek (eta Azkueren bilduman honelako anitz daude): pertsona bera da bi ahozko tradizioen hartzaile ala bertan isuritako transkribaketak ez dira arraz zehatzak? Nolanahi ere den, dialektologia egiteko behinik behin, maiz adierazi izan da Azkueren datuak ez direla sobera fidagarriak (cf. Camino 2009, 31.8. atala).

Gaurkora itzuliz, *Euskararen egoera. Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan* ikerketaren arabera, *Xorroxin Irratia* da Baztanen eta Malerrekan gehien entzuten

den emisorea, nabarmen gainera. Bortzerrietan, ordea, nagusigoa *Euskadi Irratiaren* mesedetan galtzen du. Halaber, kontuan hartzekoa da Bortzerrietan *Euskadi Gazteak* hirugarren lekua betetzen duela. Emisore hau da hain zuzen (1999. urtean) 24 urtetik beheetikoek maizenik aukeratzen dutena. Datu hauek erraz asko lotu daitezke Gipuzkoako hurbiltasunarekin eta badu bere garrantzia, Bortzerrietako jendeak informazioa jasotzean Euskal Autonomia Erkidegotik sustatzen diren hedabideetara jotzen baitu, Baztan-Bidasoako gainerakoek ez bezala. Beraz, Nafarroako euskaldunekin ez ezik, Hego Euskal Herriko bertze euskaldunekin ere bada identifikazio sendoa.

Joera hau bertze zenbait konturekin ere uztartzen ahal da. Erraterako, Bortzerrietan gehien irakurtzen den egunkaria, alde handiz gainera, Gipuzkoan egiten den *Diario Vasco* da. Egunkari honek astelehenetan ez bertze egunetan *Baztan-Bidasoa* izeneko atala ekartzen du (orrialde bat edo bi). Gure eremuko gainerako eskualdeetan ez dago halako nagusitasunik, eta Iruñetik egiten diren *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias* egunkariak presentzia handiagoa dute, nahiz eta berripaperotan *Baztan-Bidasoa* eremu informatiboa egun guttiagotan lantzen den. Euskarazko prentsa kontsumitzen bada ere, bereziki gazteagoen artean, ez dago inondik ere arestikoen pare.

Bertze adibide on bat hainbertze sentimendu mugitzen dituen futbolarena izaten ahal da. Hemen ere bada aldea Bortzerrien eta gainerakoen artean. Bortzerrietan bihotzak Osasuna eta Realaren artean banatzen diren bitartean, gainerakoan oreka hori galtzen da talde nafarraren mesedetan. De facto, Baztandik ikusirik, Bortzerriak giputz samar sumatzen dira, bati baino gehiagori aditu izan diogunez, nahiz eta Bortzerrietan nafar izaera ongi erroturik dagoen. Dialektologiaren terminoak afera soziologiko hauetara ekarrita, Bortzerriak erdialderagokoak direla erran genezake, gainerako eskualdeen ondoan:

Cada país influye en su vecino y aunque no nos es posible determinar el alcance de la influencia que Navarra ha ejercido y ejerce en los países comarcanos, podemos, en cambio, comprobar la que éstos han ejercido y ejercen en Navarra. Así vemos extenderse la idiosincrasia guipuzcoana hacia la Burunda y el Larraun y mucho más intensamente a lo largo del Bidasoa (Urabayen 1926: 298).

Bortzerrietan ere biztanleen tipologia ñabarra da, ondoko eskualdeetan baino ñabarragoa erran nahi baitugu: baserritarrak, kaletarrak, inguruko industrialdean aritzen diren bertako nahiz kanpoko langileak, baita itsasoan aritu direnak ere<sup>12</sup>. Sasoi batean, nekazaritza esparrua euskararen gordeleku izan bazen ere, gaur den egunean, bertako kultur elkarteei nahiz herri ekimenei esker euskararen gaineko

12 Itsasoko lantegia aski ezaguna (izan) da Nafarroako Bidasoaldean Donezteberaino bederen. Arestian errandakoaren erakusgarritako, gure aitaxi eta osaba zaharrena Ternua aldean ibili ziren bakailaotan luzaz. Beran eta inguruko herrietan arrantzaleak ez ezik, patrioiak ere badaude. Honek adierazten du hagitz lanbide ezaguna dela bertan.

kontzientzia hagitzez handiagoa da. Afera honetan, bi kontu ikusten ditugu guk Malerrekatik eta batez ere Baztandik bereizgarri suertatzen ahal direnak: (i) ondo-ondoan dagoen Gipuzkoan euskarak estatus hobea du (Nafarroan baino), ofiziala da, lan anitzetan eskatzen dute...; eta (ii) Bortzerrietako industrializazioak langileak bildu beharra ekarri zuen zenbait eskubide aldarrikatzeko, eta ondorioz, gizarte kontuen inguruko kezka nahiz kontzientziak nolabaiteko tradizioa du bertan (Gutiérrez & Paul 2006: 27). Baztanen, ordea, ez dago enpresa handirik. Erraterako, Baztango enpresa handiena Elbeten dagoen Prebi elektronikak enpresa da eta 30 langile ditu. Aitzitik, ibar honetan lehen sektoreak oraindik badu pisua: Arizkuneko kokatua den *Baztandarra* nekazarien kooperatibak 300 bazkide ditu.

Hizkuntzaren gaineko gaietara itzulirik, euskararen ezagutza zein erabilera goiti joaki da eskualde guzietan, ohi denez, umeak eta adinekoak euskaldunenak direlarik. Irakaskuntzari dagokionez, euskarazko ereduak (arras) gailentzen dira, iragan garai batean kanpotik etorritakoen seme-alabak ere euskaldunduz. Era berean, azkenaldian bizimodu hobea baten bila etorri berri diren inmigranteekin erroka berriak planteatzen ari dira, helduak Baztan-Bidasoako euskaltegietara joatera anima daitezkeen eta batez ere beren umeak euskarazko eruedetan matrikula ditzaten. Alde honetatik, baikorrak izateko moduko datuak baditugu ere, denborak erranen du azken hitza. Agian euskaraz!

## 1.6. Baztan-Bidasoako hizkeren estatusa

XIX. mendearen bigarren erdialdean, Louis Lucien Bonaparte printzea dugu Euskal Dialektologian oinarri zientifikoak ezarri zituen lehenbiziko ikertzailea. Ezaguna da Bibliak eta katiximen itzulpenez baliatzen zela euskalkien berri jasotzeko. Haatik, printzeak bere ikerketa dialektologikoak egiteko erabiltzen zituen metodoak eta irizpideak kolokan jarri izan dira hondar aldirian; eta gainera, argi iduri du ordutik hona euskalkien eta euskararen beraren egoera arras aldatu dela:

Bonaparteren sailkapenari lotuegi ibili gatzazkiola ere esan nahiko nuke, kontuan hartu gabe kasurik onenean ere 1850-1870 bitarteko egoerari dagokiola hura. Eta kasurik onenean diot, Bonaparteren sailkapenak ere badituelako bere hutsak eta bere akatsak. Baina hutsak eta akatsak alde batera utzita, euskararen egoera ere oso aldatuta dago ordutik hona (Zuazo 1997: 420).

Dena den, printzearen lanaren balioa ageri-agerian gelditu da, eta oraintsu arte berak egindako mapak eta sailkapenak oinarritzat hartu izan dira:

...todos siguen aceptando, con retoques mínimos, la clasificación de los dialectos vascos establecida por Bonaparte (Mixelena 1976: 319).

Louis-Lucien Bonaparteri Nafarroako lurraldeak eman zion lanik handiena sailkapena egiteko, eta horren arrazoia begien bistakoa da, ordura arte ez baitzuten inortxok ere hizkera horiek aztertu edo azaldu. Orduko euskararen dialektoak eta azpidialektoak antolatzeke hiru sailkapen baino gehiago egin behar izan zituen, eta

laugarrena burutu ondotik ere, Nafarroakoarekin aski buruhauste izaten jarraitu zuen. Berak idatzitako gutunetan ikusten ahal da bere iritzia goi-nafarrerari buruz:

Je suppose que le basque d'Aoiz après tout sera plutôt comme celui de Lizaso que comme celui d'Echarri Aranaz, qui pour moi n'est pas du navarrais, mais du guipuscoan de Navarre; tandis que Lizaso, Vera et Elizondo sont vraiment navarrais (Urkixo 1910: 284).

Bonapartek euskalki guzien artean goi-nafarrera hibridoena ikusi bide zuen:

Le haut-navarrais et le bas-navarrais se distinguent comme dialectes intermédiaires, avant le premier une grammaire plutôt labourdin et un dictionnaire plutôt guipuscoan, tandis que le second présente une grammaire plutôt souletin avec un dictionnaire plutôt labourdin (Urkixo 1910: 286-87).

Printzeak Bortzerrietako azpieuskalkiaren baitan herri anitz sartu zituen. Bonaparteri gehien-gehienean segitu dion Pedro de Yrizarrek sei multzo egiten ditu honen barrenean: (i) Beratik Sunbillara, (ii) Etxalar, (iii) Malerreka eta Bertizarana, (iv) Oronoz, (v) Labaien eta Saldias, eta (vi) Eratsun eta Ezkurra (1992-1: 365):

El examen de las formas verbales utilizadas en los pueblos de esta variedad, así como la consideración de las transformaciones experimentadas por los finales de los nombres, al incorporar los artículos -a del singular, y -ak del plural, nos ha llevado a la decisión de subdividir la variedad de Vera en las seis subvariedades siguientes:

Propia: Formada por los pueblos de Vera, Lesaca, Aranaz, Yanci y Sumbilla.

De Echalar: Que incluye solamente el municipio de este nombre.

De Lerín: Formado por los municipios del Valle de San Esteban de Lerín y los lugares del valle de Bértiz-Arana.

De Oronoz: integrado únicamente por el lugar baztanés de este nombre, con sus barrios de Mugaire y Zozaya.

De Basaburúa Menor oriental: Formado por los municipios de Labayen y Saldias.

De Basaburúa Menor occidental: Constituido por los municipios de Erasun y Ezkurra.

Dialektologialari azkoitiarrak Etxalar aparte uzten du bustidura maila dela eta. Halaber, Oronoz «Bera aldaera»rekin sailkatzen badu ere, aparteko azpimultzo batean sartzen du Baztango zenbait forma ere aditzen direlako. Malerreka eta Bertizarana, aldiz, bateratsu dakuski. Eta, Basaburu Txikiko herriei dagokionez, Saldias-Labaien bikotea batetik, eta Ezkura-Eratsun bertzetik ageri dira.

Bonapartek zalantza anitz izan zituen Baztango hizkera kokatzeko tenorean. 1869ko sailkapenean, baztanera iparraldeko goi-nafarreraren baitan sartu zuen, baina lapurterarekin ere lotzen ahal zela gehituz:

Le basque de la vallée de Baztan pourrait aussi, sans trop d'inconvénient, être regardé comme le troisième sous dialecte du labourdin; car il est assez difficile d'établir, d'une manière qui ne soit pas un peu arbitraire, s'il se rapproche plus de ce dernier que du haut-navarrais septentrional (Bonaparte 1869: 3).

1881. urtean, zalantza hauek bulkaturik, Baztango hizkera lapurteraren baitan sailkatu zuen Bonapartek, Oronozko aldaera izan ezik (1881: 161). Harrezkero, bertze ikertzaile batzuek ikuspegi bera agertu dute: Hugo Schuchardt euskalari alemaniarrek dioenez, Aldude inguruko mintzoa aztertzen aritu zen Georges Lacombe ados zegoen Bonaparteren azken erabaki honekin (1992 [1922]: 264, 11. oinoharra); Pedro de Yrizarrek Baztango aditz sistema aztertzen duelarik, lapurterazko aditz morfologiari eskainitako liburuan egiten du (1997), eta ez goi-nafarreraren aditzaren barrenean (1992), Azkoitiko dialektologoak «las formas típicas baztanesas [...] difieren sensiblemente de las correspondientes de las variedades labortanas» aitortzen baldin badu ere (1992: 3).

Ikus dezagun xehekiago eta polikiago Pedro de Yrizarrek Baztango hizkera nola banatzen duen:

Subvariedad propia, constituída por los lugares de Amaiur (Maya), Arizcun, Arráyo, Azpilcueta (excepto las bordas incluidas en la subvariedad noroccidental y las situadas más al norte que éstas; esta salvedad es aplicable asimismo a Lecároz y Arizcun), Elizondo, Elvetea, Errazu, Garzáin, Irurita y Lecaroz, con sus barrios y caserios.

Subvariedad de Baztán meridional, constituída por los lugares de Almandoz, Aniz, Berroeta y Ciga, con sus barrios y caserios.

Subvariedad de Baztán noroccidental, constituída por las bordas de Azpilcueta, Lecároz y Arizcun situadas al norte del arroyo de Infierno y de la línea que desde éste se dirige al monte Alkurruntz y al puerto de Osondo, y al sur del río Olabidea y el arroyo Oranea (1997: 535).

Beraz, kontuan harturik muga egiten duten borda eta baserri horietan 90 lagun inguru bizi direla, Baztani dagokionez, bi multzo nagusi antolatzen ditu Yrizarrek: Basaburua eta gainerakoak.

Moutard, Bonaparteren 1881eko urteko sailkapenean oinarritzen da bere azterketa fonologikoa egiteko, eta baztanera lapurteratztat jotzen badu ere, goi-nafarrerarekin duen lotura ere kontuan hartzen du:

Les quatre dialectes français ont chacun un sous-dialecte en territoire espagnol. Le baztanais, l'aezcoan, le salazarais, le roncalais (celui-ci presque complètement éteint) se rattachent respectivement au labourdin, au bas-navarrais occidental, au bas-navarrais oriental, au souletin. D'autre part, le baztanais est très proche du haut-navarrais septentrional (1975: 14).

Bonapartek bezala, duda egiten du Damaso Intza nafarrak Baztango eskuara non sailkatu behar ote den: lapurteran edo nafarreran; printzeari nolabaiteko arra-

zoia ematen badio ere «Emengo euskalkiak Laburdikoaren bukaera berak ditte garayik geienetan» (1922: 84-85). Koldo Mitxelenak ere bere *Fonética Histórica Vasca* lan gogoangarrian, Baztango hizkerak Ipar Euskal Herriko hizkerekin zenbait lotura dituela erraten du:

De las variedades de la Alta Navarra, el baztanés parece ser el más próximo a los dialectos vasco-franceses: en este aspecto como en otros va más bien con el labortano que con las otras variedades alto-navarras (1977: 55).

Yrizarrek, bere memoriak idaztean, Mitxelenarekin Donostian izandako bilera baten berri ematen digu. Bileraren gai nagusia, hain zuzen, Baztango hizkeraren sailkapena izan bide zen:

Para adoptar una posición definitiva sobre la clasificación de dicho subdialecto quise tener un cambio de impresiones con Mitxelena. Nos citamos en un bar de la plaza Guipúzcoa, el Bidasoa, (donde ahora está otro llamado Bideluze). Él acudió desde Errenteria y yo desde Azkoitia. Examinamos el problema de la clasificación del baztanés, y llegamos a la conclusión de que, como ya suponíamos él y yo, la última opinión de Bonaparte era acertada. En vista de lo cual yo, en mis próximos trabajos incluiría el subdialecto de Baztan en el dialecto labortano (Yrizar 2001: 345-346).

Ettxebarriak, ordea, aitzineko euskararen autoritate gehienei muzin eginez, goi-nafarreraren barrenean sailkatu zuen:

Ez dut argi ikusten zergatik Elizondoko banatasuna Lapurtera den. Eta horregatik Goi Naparraren barruan ixten dut (1983: 43).

Tradizioaren soka honetan, kontrako edo bertze era bateko proposamenik egin duenik ere izan da. Jean Saroihandy-k lapurteraren izaera ukatzen zuen erranez, bertzeak bertze, Sara eta inguruko hizkerak goi-nafarrerari zegozkiola (1925).

Bertze alde, azentuaren gaineko balizko sailkapen bati buruz ari zelarik, Koldo Mitxelenak goi-nafarrera ekialde/mendebal ardatzaren arabera hartzea egokiagoa izanen zela iradoki zuen, eta ez Bonapartek ezarritako iparralde/hegoalde ardatz tradizionalaren arabera:

Prince Bonaparte's «Southern» (and «Northern» for that matter), as applied to High Navarrese, is a misnomer. It would be more adequate, albeit not quite exact, to speak of Eastern vs. Western High-Navarrese (1972: 113, 7. oharra).

Nafarroako Ultzama, Basaburu Nagusia, Imotz, Atetz eta Anueko hizkerak aztertu ditu Orreaga Ibarrek bere doktorego-tesian (1995). Azterketa dialektologiko horretan oinarriturik, Mitxelenak aitzinetik iradoki zuen proposamena berretsi du: Nafarroan (izan) diren euskarazko mintzoen banaketa geolinguistikoa bezala ulertzeko, egokiagoa da ekialde/mendebal ardatza ipar/hego ardatza baino. Honen arabera sailkapena eskaini du (1995: 693):



Goi-nafarrera ekialdekoa	Goi-nafarrera mendebalekoa
<ul style="list-style-type: none"> <li>— Hego-nafarrera garaia izan dena</li> <li>— Baztan</li> <li>— Ultzama (Ultzama, Anue, Atetz)</li> <li>— Bortzirriak (Bortzirriak, Sunbilla, Malerreka)</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>— Arakil.</li> <li>— Basaburu Nagusia eta Imotz.</li> <li>— Basaburu Txikia.</li> <li>— Araitz.</li> </ul>

Hortaz, Ibarrek deitutako «goi-nafarrera ekialdeko» horretan gure lanean azterteko ditugun Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Baztan sailkatu ditu<sup>13</sup>: Bortzerriak, Sunbilla eta Malerreka (azpi)multzo batean jarri ditu ikertzaile mezkiritzarrek eta Baztan, aldiz, bera bakarrik bertze batean. Zoritxarrez, Bertizaranaz ez zaigu informazio espliziturik ematen, nahiz eta, geroagoko mapa batean islatzen duenez (703), ekialdeko goi-nafarreraren barrenean kokatzen duen. Azken mapa honetan, Basaburu Txikiko Areso, Leitza, Ezkurra, Eratsun, Arano eta Goizueta «ekialdeko goi-nafarrera»tik kanpo ageri dira eta Labaien, berriz, eremuaren barrenean. Azkenik, sailkapenez den bezainbatean, Saldias herria «mendebaleko» eta «ekialdeko» nafar hizkerak bereizten dituen marra zabalaren pean ageri da, ez bateko ez bertzeko.

Pagolak bere Euskal fonetika Nafarroan doktorego-tesian gauzatu zuen azterketa zehatzaren ondorioetan zenbait isoglosa nagusiren berri ematen digu, gure eremuari dagokion Bonaparteren sailkapena ez dela hagitz egokia erranez, eta honek azterketa sakona behar duela aipimarratuz:

Zugarramurdi izan da berezien agertu den tokia. Egoera fonetiko aldakorra duen arren, ikusi ahal izan dugu, lekuko zahar bati esker, gertakizun fonetiko garrantzitsuetan Lapurterarekin lotzen dela; gero; Amaiur ere bai kasu batzutan, baina herrigune honetako hizkera Baztandarrean kokatzen da; Etxalar ere, Bortzirietako izanik, Iparraldearekin mugan dagoenez, giza-harremanak ditu harekin eta hori zerbait islatzen da hizketan ere<sup>14</sup>. [...] Baztan-go hizketak errealtziazio aski bateratuak agertzen ditu, bestalde [...] Bonapartek Bortzirietako azpi-euskalki bezala sailkatzen zuenak berrikusketa behar du: Ituren eta Sunbillak badituzte analogiak Arantza eta Etxalarrekin, baina desberdintasun garrantzitsuak

13 Aitzitik, erran behar da proposamenak ez gaituela arruntean asebetetzen; izan ere, Bonaparterena ez bazen arras zehatza, Bortzerriak geolinguistikoki goi-nafarreraren ekialdean kokatzea ere ez zaigu sobera zehatza iduritzen. Edozein kasutan ere, eta Ibarrek erraten duenez, afera ez da samurra eta honako saiakera ausartak behar ditugu, Euskal Dialektologian aitzinera eginen badugu. (cf. Camino 1997: 212).

14 Ipar Euskal Herriarekin ere muga egiten duen Beraz ez zaigu informaziorik ematen, tamalez; Pagolak Bortzerrietan Arantza eta Etxalar herriak bakarrik hartu baitzituen bere lanean. Nolanahi, fonetikoki Ipar Euskal Herritik hurbilago ikusten dugu guk Etxalar Bera baino: asimilazio bustiduraren maila izan daiteke arestian errandakoaren sendogarri. Adibidez, Etxalarren ez daude Bortzerrietako gainerako herrietan dauden *aginyu*, *zikinyu*, *erratten*, *itten* bezalakoak, baizik eta *agindu*, *zikindu*, *erraiten* eta *iten* modukoak.

ere bai. Sunbillak Bortzirietarantz jotzen du; Donamariak, berriz, Basaburu Handira orokorki Bertizarana eta Malerreka hizketekin afinitate handiagoa badu ere. [...] Eratsun zeharo kanpora atera behar da Bonaparteren sailkapenetik, Basaburu Handiko eta Aldazko hizkeretatik hurbilago baitago (1992-I: 285).

Pedro de Yrizarrek aditzaren morfologiaren arabera erabaki bezala, Rosa Miren Pagolak fonetikaren arabera ere (i) Sunbilla + Bortzerriak eta (ii) Bertizarana + Malerreka taldeak proposatu ditu. Beraz, Sunbilla Bortzerrietako hizkeren lotzea nahiz Bertizarana Malerrekaokari lotzea hizkuntzaren maila ezberdinak ikertu dituzten bi dialektologialari diferentek ikusi dituzte. Nabarmentzeko moduko datua da, gure iduriko. Bertze alde, Pagolak dioenez, Eratsun bertzela sailkatu beharra da, Basaburu Handiaren ondoan jarritz-edo. Tamalez, Malerreka eta Eratsun bitartean diren Saldias eta Beintza-Labaien herriak ez zituen hautatu bere ikerlanerako. Baztani buruz, berriz, xehetasun guti dago.

Joan den mendeko azken hamarkadan egindako deskribapen eta ikerketen esker (Camino 1997, Fraile & Fraile 1996, Ibarra 1995, Olano 1998, Pagola 1992, Zubiri & Perurena 1998) nola berak zuzenean egindako ikerlanei esker (Zuazo 1994), Nafarroan barreneko muga dialektal nagusiak paratzeko aukera izan du Koldo Zuazo irakasleak<sup>15</sup>:

Hizkuntza eremu nagusi bi ageri dira gaurregun Nafarroan. Bortzerriak, Malerreka eta bereziki, Baztan, Ultzama Atetz lerroan abiatu eta Aezkoaraino hedatzen dena bata eta bestea Basaburu biak (Goizueta eta Beintza-Labaien izan ezik), Imotz (Muskitz izan ezik), Larraun eta Araitz hartzen dituen besteak (1998b: 7).

Gure eremuari dagokionez, Orreaga Ibarrek erran bezala, Bortzerriak eta Malerreka elkarrekin ageri zaizkigu batetik eta, bertzetik, Baztan ekialderago dago. Gisa berean, berriz ere, Bertizaranako euskarari buruzko informaziorik ez da ematen. Malerreka ondoko Basaburu Txikia dela eta, Goizueta eta Beintza-Labaien euskara nafarraren baitan sailkatu ditu ikertzaile eibartarrak, Basaburu Txikiko gainerako herri guziak ez bezala.

Berrikitan, Caminoren (2003, 2004) eta Zuazoren (2003) lan batzuk argitaratu dira. Saiootan, ikuspegi berri zenbait eskaintzen dira Nafarroako mintzoez. Biak ados daude —nahiz eta bakoitzak bere bidea egin duen— erratean euskara nafarrak bertze euskalkien ondoan bereizgarri guti dituela, geolinguistikoki aski erdialdekoa den heinean, bere nortasuna baldin badu ere. Izan ere, erdiguneko hizkeretan hizkuntza ezaugarri espezifikoak izateko aukera ez baita ertzetako hizkeretakoa bezainbertzekoa. Eta euskararen mapari erreparatuz gero, Nafarroa (eta honen barrenean, Baztan-Bidasoa) erditsuan dagoela ohartuko gara. Gogoan hartu beharreko kontua, ez bairik gabe.

15 Dena den, horrek ez du inondik ere erran nahi dialektologialariaren lana akitua denik. Kontrako kasuan gaudela pentsatzen dugu guk, bukaera baino gehiago abiaburu egokia dela dialektologia egiteko, alegia: euskalkien mapa berri horretan ageri diren eremuak berretsi eta finkatu beharko dira.

Zuazok 2003ko lan horretan (1998an aurkeztu) euskalkien mapa berria eskaintzen du. Euskara nafarrari dagokionez, hiru azpieuskalki eta hiru tarteko hizkera dakuski dialektologialariak:

Hiru ikusten ditut: sartaldea, erdigunea, eta sartaldea. Sartaldean, berriz, multzo bi ageri dira: Bortziriak, Malerreka eta Bertizarana sartzen dira ipar-sartaldea deitzen dudanean, eta Sakana, berriz hego-sartaldea izenekoan.

Sartaldeko azpieuskalkia da denetan bereziena. Alde batetik, ezaugarri nafar batzuk ez dira alderdi horretara iritsi eta, bestetik, nabarmena da erdialdeko euskalkiaren eragina. Ipar Euskal Herriaren gertutasuna ere sumatzen da, gainera, ipar-sartaldeko multzoan, Bortzirietan, Malerrekaren eta Bertizaranan.

[...] Hiru azpieuskalki horietaz gainera, nortasun handiko hiru hizkera ere badira: Aezkoa ibarrekoa, Baztangoa eta Burundakoa. Nafarrak dira, gehienbat, baina Nafarroako mugetan daudenez, mugaz bestaldeko hizkerekin dituzte kidesun estuak: euskara nafar-lapurtaurrekin Baztanek, euskara nafar-lapurtaurrekin eta ekialdeko nafarrekin Aezkoak, eta erdialdeko eta mendebaleko euskalkiekin Burundak (2003:104-106).

Hortaz, azkenaldiko literaturan lehen aldiz ageri den Bertizarana Bortzerriekin eta Malerrekarekin batean sailkatzen du Koldo Zuazok. Multzo hau dela eta, bi eragin nagusi aipatzen dira: erdialdekoa eta Ipar Euskal Herrikoa.

Euskalkien eta azpieuskalkien gaineko sailkapen berri honek arrakasta eta onspena jaso baditu ere, badira oraindik (behar eta nahi bezala) ezagutzen ez ditugun alderdiak. Adibidez, ez dakigu erdialdeko euskararen eragina leku guzietan maila berekoa ote den, hau da, ez dakigu zehazki zer gertatzen den Etxalarren eta zer Donamarian, zer Oieregin eta zer Sunbillan. Halaber, Ipar Euskal Herriko hizkeren eragina dela eta, orain arte ez dugu nahiko daturik izan Ipar Euskal Herriaren itzal linguistikoa neurtzeko Igantzin, NARBARTEN edota Gartzainen. Orobat, baliteke erdialdeko eragina bera ez izatea Donamarian eta Zubietan, nahiz eta bi herriok Malerrekakoak diren; edota Ipar Euskal Herriko eraginaren maila diferentea izatea Beran eta Lesakan, bi herriok elkarren ondoan eta Bortzirietan egonik ere. Berezitasun geolinguistiko horiek zertan diren aztertu nahi dugu, zehaztu eta, ahal bada, tasun linguistiko zehatzetan oinarritutako azterketa dialektologiko baten araberaz aldu.

Malerrekaren eta Basaburu Txikiaren artean zer gertatzen den ere jakin nahi dugu. Orreaga Ibarrek eta Koldo Zuazok eskainitako sailkapen eta kartografiaren arabera, ez baitago erabateko adostasunik: zein herri bildu behar dugu euskara nafarraren baitan zein ez? Hitz batez, euskara nafarraren (mendebaleko) mugek berretsi eta finkatu gabe dira. Gure ustez, XXI. mendean sartuak garen honetan, Nafarroako (eta, ahalaz, Euskal Herriko) muga dialektal nagusiak adosteko tenorea dugu, auzoko herri eta hizkuntza gehienetan egin duten bezalaxe.

Rosa Miren Pagolak Bonapartek bereizitako «Berako aldaera»ren inguruko azterketa sakona eta berrikusketa eskatzen zituen duela hamabortz urte. Eta ados

gaude, lan hori egin gabe baitago. Gure lanerako alderdi teoriko-metodologikoak azaldu eta ondoan, aspaldi samarreko galdera honi *dialektologia modernoaz* erantzutera saiaturko gara.

Koldo Zuazoren lan eskerbaren balioa argi eta garbi aitortu baldin bada ere, ez dira munta apalekoak Baztango euskararen gainean (erabat) konpondu gabe ditugun galde-moduak eta zalantzak. Errate batera, Bonapartek, Mitxelenak eta Pedro de Yrizarrek lapurtarrago ikusi izan duten Baztango *eskuara* muga dakusa orain Zuazok. Hala ere, gure iritziko, hizkuntzalari honek «Baztan, muga dantzan» jartzeko ematen dituen lau argudio linguistiko nagusiak, berez, ez dira aski gaurko solas baztandarra nafarraren eta nafar-lapurtarraren tartekotzat hartzeko (2003:106-110): batetik, atal lexikoaz landara, lau ezaugarri mintzo bat kokatzeko kopuru urria delako; eta bertzetik, lanean ikusiko dugunez, lau ezaugarrietatik hiru Bidasoalde osoan betetzen direlako. Areago ere erran genezake, Zuazoren zerrendako hirugarren ezaugarri den *-rat* aldaera (*vs. -ra*) Berako nahiz Etxalarko gazte eta heldu frankontzat gertakari emankorra baita egun, Baztango hiztun gehien-gehienentzat ez bezala. Hortaz, Zuazoren zabalkunde-lan horretan adierazten denari jarraituz, norbaitek pentsa lezake lau (edo hiru) tasun betetzea nahikoa dela hizkera bat nafarraren eta nafar-lapurtarraren tartekotzat jotzeko. Eta kontua ez da horrela: Bidasoan bezala, Baztanen zer gertatzen den argitu beharra da.

Lehenago ere errana dugu hizkuntzalari eibartarraren lanek erabateko ikuspegi berria eman diotela Euskal Dialektologiari: Koldo Zuazoren mapa berria abiapuntu ez ezik, akuilu ere izan da gu lanean abia gintezen. Horregatik, hain zuzen ere, Zuazoren tradizio beraren zordun garelako, berak proposatutakoak nahiz iradokiak geografikoki finkatu eta linguistikoki berretsi nahi ditugu; baita «nik neuk ez daukat Oronoz-Mugairiko une honetako berri zehatza» aitortzen duelarik ere (2003: 110).

Haatik, gu ez gara (Nafarroako) euskararen eremuak finkatu eta berretsi behar direlako uste bakarrekoak; zeren eta, bertzeak bertze, Iñaki Camino dialektologialari eta irakasleak ere antzeko iritzia agertu du:

Gure ustez, etorkizun hurbileko eginbideen artean, Nafarroako eskualdeetako hizkerak aztertzea dago; beti ere, hizkera bakoitzaren ingurumariko mintzoei ere erreparaturik eta behar diren alderaketak eginez (2004: 147).

Hortaz, Rosa Miren Pagolak Nafarroako Bidasoaldeko euskararen inguruan egindako eskaeraz landara, Baztan mintzoari buruzko auziak ere berezko azterketa galdegiten duela ematen du, egungo Euskal Dialektologian Baztan-Bidasoako hizkerak zein estatus ontologiko merezi duten taxuz juzkatuko badugu. Erran gabe doa gure lan honen bitartez argi zerbait egin gogo dugula aferon gainean.



## **2. Datu-bilketa, berriemaileak eta laguntzaileak**

---



## 2.1. Sarrera

Bigarren kapitulu honetan, datuak biltzeko erabili dugun metodologiaz arituko gara, argikiro ikus dadin nondik nora bildu ditugun ahozko datu nagusiak. Halaber, gure berriemaileen eta laguntzaile guzien izenak zerrendatuko ditugu. Gerxeago erakutsiko denez, ehun lagun baino gehiago aritu dira nola edo hala guri laguntza ematen. Kopuru haziagatik bakarrik pentsa dezake batek hondar urteotan ehundu dugun lagunon sarea ezinbertzeko laguntza gertatu zaigula azterketa dialektologiko hau egiteko. Baztan-Bidasoako euskararen egiazko protagonistei dago-kien tartetxo bana egin nahi diegu, haiek gabe lan hau ez litzatekeela deus ere gogoratu bidenabar.

## 2.2. Datu-bilketa, berriemaileak eta laguntzaileak

Lehenbiziko, *berriemaileak* eta *lekukoak* gauza bera direla argitu nahi dugu, lan honetan batak zein bertzeak erranahi bera dutela. Berriemaile edo lekukotzat hartu ditugu herri bateko hizkerari buruzko informazioa eman diguten lagun guziak. Pentsatzekoa denez, gehienbat nor bere sorterriko solasari buruz aritu zaigu, salbuespenak salbuespen<sup>16</sup>. Hau hala izan ez delarik, parentesi artean joanen da herri horrekiko lotura: gurasoen herria, bertzelako ahaidetasuna, bertako euskararen gaineko lana egin izana eta abar. Informazio hori emateko-jasotzeko tenorean ere zenbait modu ezberdin jorratu ditugu: grabazioak, transkribaketak, agiriak, lan idatziak eta guk espresuki prestatutako galdetegiak. Azken metodo hau, guk haiei egindako galdemoduen bidezkoa hain zuzen, bide nagusia izan da, gure ikerketa-lanari hobekien egokitzen zitzaion metodologia zelako. Beraz, gure berriemaile kuttunak galdemoduak erantzun eta erantzun aritu direnak izan ditugu. Haietako batzuekin, gainera, zenbait modutara jardun dugu. Erraterako, batzuekin grabazioak egiten aritu gara (behin baino gehiagotan) eta gero galdera deserosoak erantzutea ere suertatu zaie (orduak eta egunak). Honekin loturik, nolabait, hirugarren termino baten agerpena dugu *laguntzailea*. Hauek, lekuko izateaz gain, bertzelako lan batzuetan ere lagundu diguten pertsonak dira; alegia, gure metodologia eta helburua ulertuta: guretzat lagungarri izaten ahal ziren bertze lagun batzuen kontaktua eginez, denetarik informazioa emanez eta abar. Laguntzaileek (lekukoen aldean) tesi-lan honekin

---

16 Batzuetan, herrien arteko (ez)berdintasunen berri ere eman digute. Berebat, aipatu behar da, zenbaitzuk filologoak edo filologiako ikasleak diren heinean, harremana Gasteizko fakultatean mamitu dela, zalantza batzuez argitasun gehiago lortzeko aukera izan dugularik.



izan duten inplikazioa aise handiagoa izan da. Eta hau dela medio, garrantzitsua deritzogu bi maila horien arteko bereizketa egiteari.

Dena den, ezinezkoa izan zaigu guk aztertu beharreko 31 herrietako lagunekin harreman zuzenak eta emankorrak edukitzea. Honen arrazoi nagusia agerian da: Baztan-Bidasoan herri anitz dira, eta ondorioz, bizilagun eta hiztun anitz. Sobera gureztat, toki orotako berriemaile egoki guziak atzemateko. Sobera, guk hasiera-hasieratik hautaketa-lanak egiteko, herri orotako jende hori guzia ezagutu ahala. Honenbertzez, arestian aitortu dugun hutsunearen jakitun gara. Aitzitik, eskualdeko bibliografiaren laguntzaz landara, hau ez baita nolana hikoia, hutsune hori betetzea erdietsi dugula uste dugu. Gu ikerlanean hasiak ginelarik, Bortzerrietako Euskara Mankomunitateak Bortzerrietako ahozko tradizioa biltzeko beka bat atera zuen. Beka hori eskuratu zuten **Nora Iriarte** eta **Maite Lakar** Gasteizko Fakultateko ezagunak genituenez, berek bildutako zenbait grabazio nahiz transkribaketa utzi zizkiguten. Geroxeago, Johannes Schmidt ikertzaileak sortutako uhinaren teoriaren pare, Malerrekako Mankomunitateak ere (Ezkurra, Eratsun, Saldias, Beintza-Labaien, Sunbilla, Bertizaranako hiru herriak eta Malerrekakoak, hau da, Zubieta, Elgorriaga, Ituren, Doneztebe, Donamaria, Oitz eta Urrotz) bere administraziopean dituen herrietako ahozko tradizioa biltzea erabaki zuen, horretarako beka bat atereaz. Beka hori erdietsi zutenak **Amaia Apalauza** eta **Maite Lakar** lagunak genituen eta ditugunez, zenbait grabazio eta bideo-zinta utzi zizkiguten, Sunbillakoak, Doneztebekoak, Zubietakoak eta Bertizaranakoak batez ere. Halaber, hurrengo urtean, Baztango Udalak bertako hamabortz herrietako ahozko tradizioa biltzeko beka bat atera zuen. Beka hori eskuratu zuten **Maite Lakarrek** eta **Ana Telletxeak** Baztango hainbat grabazio utzi zizkiguten, bereziki, Almandoz, Arraioz, Irurita eta Oronoz-Mugairi herrietakoak.

Arestiko adiskideen bitartez erdietsitako berriemaileen lekukotasunek izartxo bat eramanez dute ondoan, guk egindako berriemaileen datuetatik bereizteko; lan-kide hauekiko zorra zenbaterainokoa den argi eta garbi geldi dadin. Erran beharra da grabazio hauek, berta-bertako adineko jendeari eginak direla, gurasoak ere bertakoak zituztela/dituztela, beren bizia bertan egin dutela eta kultur erreferentzia nagusiak beren herrian bildu dituztela. Eskualdeko ahozko *altxorra* biltzeko, euskara edo hizkera ahalik eta jatorrena izatea eskatzen da, beti ere lekukoek arras gai hurbilak dituztelarik: beren biziaren pasarteak, garai bateko bizimodua, norbera aritu den lanbidea, herrian gertatu istorioak eta abar. Orobat, grabazioetan islatzen den hizkera *itxeko/etxeko uskara/eskuara* dugun neurrian, tokian tokiko solasaren ordezkari fidagarritzat jo ditugu guk. Zinetan eta egiatan, lehengai bikaina bezain beharrezkoa izan da gure lanerako.

Bertze alde batetik, Euskararen Herri Hizkeren Atlaserako (hemendik aitzinera EHHA) egin ziren hainbat grabazio aditu ditugu Euskaltzaindiak Bilbon duen Azkue Bibliotekan. Gogoan hartu behar da egitasmo honetako herri bakoitzeko mila ordu (eta zenbaitetan gehiago) grabatu zirela, horretarako espresuki prestatu galdetegi baten bidez (ikus Aurrekoetxea & Videgain 1993). Guk ez dugu inondik ere dena entzun,

baina Azkue Bibliotekan hiru hilabete pasatxo egin genituen, astelehenetik ortziratera, goizeko 9etatik arratsaldeko 3ak arte. Herri bakoitzaren lagin on bat hartzeko moduko saioa. Tokian tokiko hiztunak ongi hautatuak izan ziren, goitiago aipatu ditugun irizpideen araberrakoak, bertako hizkeraren ordezkari fidelak izan zitezten. Eta alderdi horretatik, erran behar dugu gure belarrietatik pasatu den EHHako grabazio orok koherentzia geolinguistikoko osoa islatzen dutela, lan honetan ikertu eta arakatu ditugun gainerako mintzoekin. Baztan-Bidasoari dagozkion grabazioak 80. hamarkadaren bukaerakoak dira, eta bertan ageri diren hainbat lekuko dagoeneko hilak dira. Gure eremu guziko grabazioak **Izaskun Etxebestek** egin zituen, profesionaltasunez. Grabaziook ondoko tokietan egin ziren: Etxalar, Sunbilla, Donamaria, Aniz, Lekaroz eta Erratzu. Hortaz, eta beti ere berriemaileak nondik heldu diren argitzeko asmoz, EHHA agertuko da parentesi artean, gainerako iturrietatik bereizteko.

2003ko urrian, Nafarroako Gobernuaren eta Euskal Kultur Erakundearen arteko lankidetzari esker, Nafarroako euskararen fonotekaren aurkezpena egin zen Uharteko Zubiarte Euskaltegi Publikoan. Aurkezpenean berean antolatzaileek nabarmentzen zuten, proiektuaren asmoa da Nafarroako euskal hizkeren grabazioak gordetzea eta, era berean, interesaturik egoten ahal diren guzieren eskura paratzea. Fonotekan, bertako sailkapenaren arabera, Baztango 117 eta Bortzirietako<sup>17</sup> 153 grabazio daude entzungai, bertzeak bertze. Hots, sekulako soinuzko artxiboa. Iturriak askotarikoak dira: ikasleek eskola-lanerako egindako grabazioak, **Iñaki Camino, Orreaga Ibarra, Patziku Perurena** edota **Jesus Maria Satrustegi** zena bezalako ikerleek eginak eta bertan utziak, hedabideek egindako elkarrizketak, irratzaioak, Nafarroako toponimia jasotzeko saioak... Gainera, azken teknologiak eta aplikazio informatikoak lagun, etxetik zein fakultatetik aritzeko modua izan dugu. Eta hori, ez bairik gabe, biziki estimatzen da, lana erraztu bidenabar. Afera honetan, bi lagun aipatu behar ditugu, grabazioak nahiz transkribaketak —originalaren kopiak— eman dizkigutenak: **Patxi Andueza** eta **Patxi Goñi**.

Goitiago genioen, gure lanaren dimentsioa dela bide, guk espresuki prestatutako galdetegiak frankotan erabili behar izan ditugula, batez ere zenbait datu berres- teko. Normalean hauxe izan da prozesua:

- Tokian tokiko bibliografia irakurri.
- Tokian tokiko grabazioak, elkarrizketak, inkestak... entzun.
- Tokian tokiko kontaktuak egin, gehienez, kultura edo euskararekin lotura estua duten lagunak. Hauen bidez berriemaile fidagarriak aurkitu.
- Berriemaile fidagarriok grabatu, horretarako aukera izan dugularik.
- Aski informaziorik eskuratu ez denean, aitzinetik hautatutako lekuko batzuekin galdetegiak egin, zalantzak galdetu dizkiegu.

17 Bortzirietatik etiketa honen pean ondoko eskualdeak daude sarturik: Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizarana.

Ezaguna denez, hizkuntza geografia tradizionalak adineko lekukoak hautatu izan ditu, adineko jendea dialektoan era puruagoan mintzatzen delakoan. Ohitura honek, ordea, kritikak jaso ditu: erantzun arkaizanteak izan dira, erdi galdurik dauden aldaerak, erabilera bakana dutenak, aspaldiko garaietako oihartzun motelduak. Datu horiek ez dute ordezkatzeko herri edo bizigune horretako eguneroko solasa, iraganeko egoera baizik (Camino 2009, 4.2.4. atala).

Hizkuntzaren arkeologian erortzeko arrisku hauek saihesteko asmoz, adin orotako lekukoak aurkitzeko eginahalak egin ditugu. Honako hiru adin-talde haue-tan sailkatu ditugu gure berriemaileak: (i) «gazteak», hots, 20-40 urte bitartekoak; (ii) «helduak», 40-60 urte bitartekoak eta (iii) «adinekoak», hau da, 60 urtetik goi-tikoak. Hemendik aitzinera, hortaz, «gazte», «heldu» eta «adineko» terminoek arestiko adin-taldeak ordezkatzeko dituztela adierazi nahi dugu.

Gure ahozko lekukotasun-iturri nagusiak hizkuntzaren kronologiaren arabera antolatuzera saiaturako gara ondotik: (i) EHHAn duela hogeitau urte adineko jendeari egindako grabazioak ditugu; (ii) berrikiago egin diren Baztan-Bidasoako ahozko bildumetan, bereziki adineko jendea ageri da; (iii) Nafarroako Fonotekako langaie-tan adin guzietariko lekukoak badaude ere, helduen grabazioak baliatu ditugu gehienbat; era berean, (iv) guk zuzenean egindako zenbait grabazio eta inkesta jende helduarekin eta gaztearekin egin ditugu batez ere (nahiz eta adineko zenbaitzuekin ere aritu garen).

Zuzeneko elkarrizketak nahiz inkestak egin ditugunean, ikertzaile anitzek errana aintzat hartu dugu (Milroy 1980, Labov 1983, Butler 1988, Moreno 1990): gure presentzia hutsak jaso nahi dugun eguneroko solasa oztopa lezake; gure galderak oker interpretatzea edo gaizki egitea gerta liteke; hiztunarentzat mini-disk baten aitzinean egotea esperientzia berria izatea, eta ondorioz, urduritzea suerta lekiok; finean, batzuetan hizkera naturala behar bezala ez jasotzea gerta litekeela jakitun gara.

Ezin dugu atzendu lanaren erabateko zehaztasuna utopia ere litekeela, eta hasieratik onartu beharra dugu azterketarako oinarritzat hartu ditugun grabazioek eta galdetegiek ez dutela beharbada beti-beti bertako mintzoa islatuko. Haatik, orain arte azaldu dugun guziagatik, hagitx gutitan gertatu zaigu berriemailea berea ez den hizkera batean mintzatzea; ez baita ahanzi behar gure inguru hurbilenarekin hasi ginela lanean, gure familiarekin eta zenbait adiskiderekin. Honek, dudarik gabe ate anitz zabaldu dizkigu. Nolanahi ere den, espero ez diren emaitzak bildu ditugularik, koherentzia geolinguistikoa izan dugu gogoan momentu oro (adibidez, hiztun batek *nonzat* dela herri horretako forma bakarra baieztatzea, gainerako datu guzietan *non-dako* dela adierazten dutelarik, bai eta inguruko herri guzietan ere).

Argi eta garbi utzi behar da informazioa erabiltzean, alderdi etikoa xorrotx zain-tzeaz arduratu garelako: hiztunek beti jakin dute elkarrizketa grabatua zela, berriemai-leen eta bertze lagun batzuen duintasunari eta intimitateari kalte egin gabe. Hau dela eta, gure lan honetako adibideetan ez da izen berezirik agertuko, ez eta bertze per-sona baten izena eta izana zikin lezakeen deus ere.

Hona hemen Baztan-Bidasoako berriemaile nahiz laguntzaile guzien zerrenda, orain arte azaldutakoaren ildotik, zuzenak nahiz zeharkakoak. Benetako protagonistak, azter-eremuko euskaldunak. Eskualdeetan banatuta aurkeztuko ditugu, parentesi artean herria agertuko delarik. Haietako (guti) batzuk ezagutzeko aukerarik izan ez badugu ere, den-denei eskerrik asko, lan hau haiek gabe ez bailitzateke deus ere.

### BORTZERRIAK

**Nerea Altzuri** (Arantza)

**Zuriñe Madrid** (Gasteiz. Filologia. Arantzako euskararen gaineko lana egina du)

**Ana Telletxea** (Bera. Filologia. Arantzako euskararen gaineko lana egina du, familia arantzarra du. Egun Iruñean bizi da)

**Jose Ignazio Fagoaga\*** (Arantza)

**Jon Abril** (Bera. Laguntzailea)

**Iñaki Iratzoki** (Bera. Filologia. Laguntzailea)

**Joxe Mari Zelaieta** (Bera)

**Koro Zelaieta** (Bera)

**Felipe Matxikote** (Alkaiaga)

**Mikel Taberna** (Alkaiaga. Egun Iruñean bizi da. Laguntzailea)

**Pello Apezetxea** (Goizueta, 40 urtez Etxalarko apezka. Laguntzailea)

**Patxiku Irisarri** (Etxalar. Laguntzailea)

**Gerardo Danboriena\*** (Etxalar)

**Puri Danboriena\*** (Etxalar)

**Javier Sansiñena\*** (Etxalar)

**Pakita Alzuguren & Jesus Danboriena** (Etxalar. EHHA)

**Patri Arburua** (Igantzi)

**Manuela Sein & Jexux Mari Sein** senar-emazteak\* (Igantzi)

**Aintzane Erkizia** (Lesaka. Egun Gasteizen bizi da)

**Migel Erkizia** (Lesaka. Aintzaneren aita)

**Mañula Iantzi\*** (Lesaka)

**Santiago Irigoien\*** (Lesaka)

### SUNBILLA

**Antton Espelosin** (Sunbilla. Sunbillako Latasa aizkolariaren gaineko liburua idatzia du. Ikus bibliografian.)

**Patxi Petrirena** (Sunbilla. Egun Erreterian bizi da)

**Frantziska Iriarte & Jesus Ibarra\*** (Sunbilla)

**Jose Mari Jorajuria\*** (Sunbilla)

**Carmen Sedano & Alejandro Juankorena\*** (Sunbilla)

**Jose Galarregi** (Sunbilla. EHHA)

MALERREKA

**Margarita Telletxea** (Donamaria. Osaba Juantxorekin Berara ezkondua)

**Florentino Mariñelarena\*** (Donamaria)

**Pello Goñi & Leokadi Goñi** (Donamaria. EHHA)

**Fernando Sarratea\*** (Doneztebe)

**Domi Zugarramurdi\*** (Doneztebe)

**Migel Telletxea\*** (Elgorriaga)

**Goreti Altzuri** (Ituren. Filologia)

**Patxi Iñigo** (Ituren. Aspalditik Berako apeza. Zenbait artikulua argitaratuak ditu. Ikus bibliografian. Laguntzailea)

**Bittori Arrastio** (Oitz)

**Markel Lizasoain** (Irun. Filologia. Oizko euskararen gaineko lana egina du. Oitz eta Saldiasoko euskararen arteko konparazioa ere egina du. Laguntzailea)

**Carmelo Lizasoain** (Oitz. Markelen aita. Irunen bizi da)

**Patxi Lizasoain** (Oitz. Markelen osaba)

**Txema Aldabe** (Urrotz. Laguntzailea. Goian bego)

**Rosa Telletxea\*** (Urrotz. Txema Aldaberen ama)

**Bittoriano Artzuaga\*** (Urrotz)

**Pakita Eratsun** (Zubieta. Osaba Joxe Marirekin Berara ezkondua)

**Juanita Ibarra \*** (Zubieta)

**Manuel Elizalde\*** (Zubieta)

**Patxiku Juanikorena\*** (Zubieta)

BERTIZARANA

**Migel Hernandorena\*** (Legasa)

**Txentxa Hernandorena\*** (Legasa)

**Joxe Hualde\*** (Legasa)

**Pakita Mikelarena\*** (Legasa)

**Pakito Ibargarai** (Narbarte)

**Maria Agirre\*** (Narbarte)

**Klarita Arretxea\*** (Narbarte)

**Karmen Iriarte\*** (Narbarte)

**Joxe Mindegia\*** (Oieregi)

**Juan Andresena\*** (Oieregi)

**Patxiku Telletxea\*** (Oieregi. Egund Donezteben bizi da)

BAZTAN

**Manuel Bera\*** (Almandoz)

**Juanita Agerrebere\*** (Almandoz)

**Juanito Gartxitorena\*** (Almandoz)

**Fermin Oskoz\*** (Almandoz)

**Maitane Maritorea** (Aniz. Filologia. Laguntzailea)

**Emilia Azkarate** (Maitaneren ama)

**Pello Maria Azkarate** (Aniz. EHHA. Maitaneren aitatxi zena)

**Maritxu Ugarte\*** (Azpilkueta)

**Mikel Oteiza** (Arraioz. Egun Narbarten bizi da)

**Martin Jose Altzuart\*** (Arraioz)

**Petra Etxegarai\*** (Arraioz)

**Clemente Iriarte\*** (Arraioz)

**Edurne eta Jaime Biguria** (Elizondo. Ama arizkundarra)

**Irantzu Izeta** (Elizondo. *Biak Bat* —Baztan eta Baigorri— elkartearen zuzendaria)

**Timoteo Otxandorena** (Erratzu. EHHA)

**Pedro Rekarte Gortari «Kaston»\*** (Erratzu)

**Filomena Arrijuria\*** (Irurita)

**Jorge Azkarate\*** (Irurita)

**Benito Murua & Manoli Arretxea** senar-emazteak\* (Irurita)

**Maintxike Goñi** (Lekaroz. EHHA)

**Jon Gortari** (Oronoz-Arraioz. Egun Oronozen bizi da. Baztan-Bidasoari buruzko liburuxka argitaratu zuen aspaldian. Ikus bibliografian)

**Jorge Oteiza** (Oronoz-Mugairi)

**Asuncion Arregi\*** (Oronoz-Mugairi)

**Jose Iriarte\*** (Oronoz-Mugairi)

**Carmen Ugarte\*** (Oronoz-Mugairi)

**Maria Eugenia\*** (Zoziaia)

**Joseba Otondo** (Elizondo. Aita-amak Arizkun-Amairkoak. Laguntzailea)

**Paskual Rekalde** (Amair. Egun Iruñean bizi da. Laguntzailea)

Bigarrenik, dialektologia lan honen xede kontrastiboa aitortu dugunez gero, halaber beharrez erreparatu behar diegu Baztan-Bidasoa inguratzen duten herrietako euskal hizkeri. Halarik ere, hondar urteotan batzuk franko ongi deskribatuak eta aztertuak izan direnez, datu gutien eskaintzen zuten alderdiei begira jarri gara, behar-beharrezkoak ditugun hizkuntza ezaugarriak aurkitzeko. Eta aurkitu ondoan, gure eremuko hizkuntza tasunekin alderatu ditugu, (ez)berdintasunak agerian uzteko. Honetan ere aitortu beharra dugu bertze adiskide baten laguntza estimagarria, zeren eta 2003an **Estibalitz Montoyak** *Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskara* tesia defendatu zuen (ikus bibliografian). Lan horrek mugakide ditugun bi herri horien (eta inguruko gehiagoren) deskribaketa, azterketa nahiz alderaketaren berri

zehatza eskaini digu. Alde horretatik, eskerrak **Estibalitzi**, bere tesia akitu baino lehenago ere laguntza handia emateko prest agertu baitzen.

Inguruko herri nahiz eskualdeetako informazio gehiago eske, EHHako zenbait grabaziotara jo genuen. Aitzineko atalean bezalaxe, honen jatorria aitortuko da parentesi artean.

Ondotik zerrendatuko ditugun lekukoak Nafarroako inguruko lurraldeetakoak, Gipuzkoako ipar-ekialdekoak, Lapurdiko muga ingurukoak nahiz Nafarroa Behereko muga ingurukoak dira. Adiskide hauei ere mila esker momentu oro agertu duten prestutasunagatik.

#### BASABURU TXIKIA

**Bittorio Lizarraga** (Leitza. Filologia. Egun Ezkurra, Eratsun, Saldias eta Beintza-Labaiengo euskara aztertzen ari da. Laguntzailea)

**Angel Iriso** (Tafalla. Filologia. **Markel Lizasoainen** bitartez lortutako lan idatzia, Saldiasko euskararen gainean)

**Dolores Baleztena** (Saldias. Markelen ama)

**Begoña Urroz** (Labaien)

**Agustina Albiztur\*** (Labaien)

**Oihana Lujanbio** (Goizueta. Filologia)

**Jose Antonio Lujanbio** (Goizueta. Oihanaren aita).

#### ULTZAMA

**Jesus Goldaraz** (Iraizoz. Egun Donezteben bizi da)

#### ZUGARRAMURDI

**Beñardo Goietxe** (Zugarramurdi. Aita-amak ere Zugarramurdikoak. Egun Beran bizi da. Laguntzailea)

**Beñardo Lurnagarai** (Zugarramurdi. Beñardoren osaba. Goian bego)

#### HONDARRIBIA

**Julen Manterola** (Irun. Filologia. Ama Hondarribikoa eta bertako euskararen gaineko lana egina du)

**Juanma Sarasola** (Hondarribia)

#### IRUN

**Ainara Maia** (Irun. Filologia. Irungo euskararen gaineko lana egina du. Laguntzailea)

**Txomin Sagarzazu** (Hondarribia. Irun eta Hondarribiko euskara aztertu du. Ikus bibliografian. Laguntzailea)

URRUÑA

**Kamila Zubeldia** (Urruñako euskararen fonetika eta fonologia aztertzen ari da egun. Ikus bibliografian)

AZKAINA

**Graxi Solorzano** (Azkaine. Laguntzailea)

SARA

**Manex Bergara** (Sara. Goian bego)

**Bernadette Errandonea** (Sara. Egun Beran bizi da, eta Urruñan irakasle. Laguntzailea)

**Marguerite Mariluz** (Sara. Bernadetteren ama)

**Mixel Urbistondo** (Sara)

SENPERE

**Auxtin Zamora** (Senpere. Laguntzailea)

BESKOITZE

**Henri Duhau** (Beskoitze. Beskoitzeko euskararen gaineko bi liburu ditu argitaratuak. Ikus bibliografian. Laguntzailea)

ALDUDE

**Maddi Saldunbehere** (Aldude. EHHA)

BAIGORRI

**Marcel Errotabehere** (Baigorri. EHHA)

UREPELE

**Manuel Altugarai** (Lesaka-Urepele. **Jon Abrilen** amaren osaba)

Hirugarrenik, ezin ditugu aipatu gabe utzi hainbertze datu eman dizkiguten bertako telebistak, irratiak, aldizkariak... Informazioa espresuki guretzat grabatutako hainbat irratsaio, elkarrizketa, erreportaia eta abar izan dira. Euskarriak ere askotarikoak: papera, konpaktuak, MP3 formatu trinkotua, bideo-zinta eta betiko kaseteak. Hedabide hauetako langile zein teknikariei ere eskerrik anitz gure lana errazteagatik.

Segidan aipatuko ditugu Baztan-Bidasoako hedabideak eta alderaketa dialektologikoa egitean guretzat interes berezia izan dezaketen inguruko bertze batzuk. Komunikabide hauek aipatzearekin batean, bakoitzak zenbateko hedadura hartzen duen ere jakinaraziko dugu.



HEDABIDEAK

*Biak Bat* Aldizkaria (Baztan-Baigorri)

*Ttipi-Ttapa* Aldizkaria (Baztan-Bidasoa, Basaburu Txikia, Sara, Senpere eta Azkaine)

*Ttipi-Ttapa* Telebista (Bortzerriak, Malerreka, Bertizarana)

*Xaloa* Telebista (Baztan, Bertizarana, Malerreka)

*Xorroxin* Irratia (Baztan-Bidasoa, Basaburu Txikia)

*Kanaldude* Telebista (Baigorri-Garazi eskualdea)

*Irulegi* Irratia (Nafarroa Beherea)

### **3. Irizpide teoriko-metodologikoak**

---



### 3.1. Sarrera

Gogoan hartu behar dugu aztertu nahi dugun hizkera, edozein izanda ere, lehenbiziko atalean agertutako faktore anitzen ondoriozko egoera linguistikoa dela: mintzoan, hiztunarengan eta erkidegoan eragin zuzena duten eta izan duten demografia, geografia, hidrografia, orografia eta jendeen arteko harreman sozio-ekonomikoez marraztu dute hiztunen eguneroko solasa gaur arte. Aise onartzen baldin badugu, gaurko egoera soziokulturala aitzineko egoera guzieren oinordeko dela, ezin dugu gauza bera egin, tamalez, hizkuntzaren azterketaren aferan. Izan ere, zail da hagitz zehaztea noiz hasi zen hizkuntza ezaugarri bat erabiltzen esparru batean, eta zergatik.

Hizkuntza prozesu historiko konplexua dela jakinda ere, jendartean nola norbanakoaren kontzientzian gauzak ez dira sobera aldatu. Gizakiak dituen kezka nagusiak antzekoak bide dira orain eta Kultura Klasikoaren garaian. Abiadura da segur aski gehien aldatu dena. Gaur den egunean, dena lasterrago iristen zaigu. Eraginak berehalakoak dira. Munduaren bazterrak konektatuta daude aldi berean:

Particularly before the explosive technological advances in modes of transportation and communication which have occurred in the twentieth century, it simply was very difficult or actually impossible for most speakers to converse with other speakers who lived more than a few miles away (Francis 1983: 43).

Desde hace algunos decenios —depende de las áreas lingüísticas y de la fecha de su incorporación a los progresos técnicos y culturales—, los cambios se realizan no por vía geográfica, sino a través de los poderosos medios de comunicación [...]. Una innovación de la lengua se da a conocer tanto en un núcleo urbano importante como en la aldea más alejada, cosa que no había ocurrido nunca a lo largo de los siglos (Veny 1992: 209).

Eta honek eragin zuzena du gizartean, norbanakoarengan eta hizkuntzan. Baina berriz diogu, formak, moduak dira aldatu direnak; ez funtsa. Gaurko hizkuntzaren aldakortasuna aztertu nahi badugu, hiri esparruetara eta bertzelako hedabideetara jo beharko dugu nahitaez, ez baita alferrikakoa dialektologiaren ekarria: hiriak berrikuntzen eremu fokalak ohi dira. Gizartezkoak nahiz hizkuntzazkoak. Azken hiru hamarkada hauetan dialektologiako oinarri teorikoak eta irizpide metodologikoak jorratu dituzten hainbat lan anglosaxoi garrantzizkotan (Chambers & Trudgill 1980; Chesire 1982; Trudgill 1983a, 1983b eta 1986; Chambers 1993 [1991]; Britain & Cheshire 2003) *urban dialectology* hitzetik hortzera aipatzen dute,

hizkuntzaren aldakortasuna aztertzen ari direlarik. Izan ere, arestiko lanotan ongi frogatu duten bezala, garai postindustrial hauetan herririk gehienak ere, bizimoduz, hiri tikiak bertzerik ez baitira: hiri handiagoetatik etengabeko eragin sozialak eta hizkuntzazkoak jasotzen dituzten hiri tikiak (Trudgill 1983a: 171-172).

Horrela, gizarte zientziak garatzearekin batean, baserri eta landa giroko hizkerak aztertzea xedetzat zuen dialektologia tradizionala hiriaren eremura erakarri dute ikertzaile itzaleko batzuek. Harrezkero, hirietako eta herri *urbanoetako* aldaera sozialak aztergai eta hizpide nagusi bilakatu dira azkenaldiko dialektologian.

Egun hizkuntzalarien artean onartu xamarra ematen duen *urban dialectology* honek dialektologia sozialaren atarikitzat hartzen ohi den Fisherren 1958ko lanean izan zuen abiapuntua (cf. Francis 1983, Viaplana 1996, Hernández 1999): «Social influences on the choice of a linguistic variant» lanean, hain zuzen ere. Bertan, lehen aldiz, eragin sozialak aztertu nahi izan ziren hizkuntzaren aldakortasuna azaltzeko asmoz. Zortzi urte geroago, William Labovek dialektologia sozialaren bidea urratu zuen kontzientzia osoz New Yorkeko ingelesari buruzko ikerlan batekin, zeinean estratifikazio sozialak hiztunengan eragin zuzen-zuzena duela ederki erakutsi baitzuen (Labov 1966). Labovi zor zaio, bertzeak bertze, hizkuntzaren baitako aldakortasuna linguistikaren ertzetik ikertzeko eremuaren erdigunera ekarri izana (Camino 2009, 13.2. atala).

Hurrengo hamarkadaren hasieran, dialektologia egiteko molde berria Europara iritsi zen, Peter Trudgillen Norwicheko ingelesari buruzko ikerlanen eskutik (Trudgill 1972 eta 1974). Hori dela eta, dialektologia (gida)liburuetan behin eta berriz errepikatzen diren izenak ditugu: Labov eta Trudgill (Francis 1983: 195). Dialektologia goitik behera berritu duten ekarpen metodologikoak baliaturik, hiri, erkidego edota giza sareek dituzten harremanak ikertzea proposatzen da gaur, hizkuntzaren aldakortasunaren gako konplexuak hobeki ulertu nahian.

Dialektologia sozialaren postulatu nagusietatik bat da, hizkuntzaren baitako aldakortasuna osatzen duten mekanismo askotarikoak ulertzeko, hizkuntzaz kanpoko eragileek hizkuntzaren barreneko osagaiekin harreman sakona dutela aintzat hartzea ezinbertzekoa dela. Mintzoak ikertzeko norabide edo ikuspegi honetan, dialektologia eta soziolinguistika elkarrengandik gero eta hurbilago daudela erran liteke (cf. Montes 1986 eta Gimeno 1990); hainbertze non Jack Chambers hizkuntzalaritzaren adar hau *Sociolinguistic Dialectology* ere izendatzera iritsi den (Chambers 1991 [1993]). Euskararen herri txiki honetara etorririk, ez da harriztekoa gurean ditugun dialektologo nagusiak soziolinguistikazko lanetan ere ikustea (ikus, adibidez, Inaki Camino 2005 eta batez ere Koldo Zuazo 1987, 1988, 2000, 2006).

Mendeetako egoera bat aztertzeko, halaber, iraganeko erdigune fokalak aurkitu beharko ditugu. Polikiago joanen gara, dudarik gabe. Baina gaurtik ikusita zaila da geruzaz geruza begiratzea. Zaila baita geruzen artean bereiztea zein ezaugarri den berria eta zein zaharra. Bagenioen funtsa ez dela aldatu. Egia da: pertsonok elkar ulertzeko tresna nagusia dugun hizkuntzak berezkoa du aldakortasuna. Hizkuntza,

azken buruan, pertsona eta jendartea bezala, aldakorra da, dinamikoa; hortaz, min-zoak ikertzeko eredu dinamikoak baliatu beharko ditugu gure lanerako.

Bertzerik da jakitea nola gertatu den gertatu dena. Nolanahi ere den, bistan da dialektologian emaitza sinkronikotik abiatu beharra dugula, ikuspegi diakronikoa ere gogoan dugularik:

Lo moderno, lo que todavía tenemos vivo, es el único guía de que dispone para interpretar lo antiguo (Mixelena 1976: 312).

Una lengua [...] desde el punto de vista diacrónico constituye un sistema que retiene una cierta cantidad de información sobre su propio pasado, sobre sus fases anteriores (Mixelena 1990: 11).

Hjelmslevek aspaldixko adierazi zuen ideia garrantzizko bat ekarri gogo dugu lerro hauetara; izan ere, hizkuntzalari daniarrak erraten zuen hizkuntzalaritza oro dela konparatua, linguistika azterketa oro dela metodo erkatua (1972). Hori dela eta, hain juxtu ere, sarrera honetan azpimarratu nahi dugu konparazio-idea hori izan dugula beti buruan. Hitz batez, dialektologia kontrastiboa egitea izan da gure xede nagusietatik bat: «...una dialectología contrastiva que analice las diferencias o semejanzas entre variedades dialectales de la misma lengua» (Salvador 1987: 190).

Hartara, ikerlanerako hautatu ditugun oinarri teorikoei eta irizpide metodologikoei dagokie kapitulu honen mamia. Bertan, sarrera honetaz landara, azaldu nahi eta behar ditugun kontzeptuak ongi islatzeko sei azpiatal bereiztea erabaki dugu: (3.2.) hizkuntza geografiatik geolinguistikara; (3.3.) ezagutza filologikoaren laguntza: ikuspegi diakronikoa; (3.4.) lekukoaren ezagutzaren laguntza: oharmenezko dialektologia; (3.5.) isoglosak; (3.6.) esparru lektalak eratzeko proposamen metodologikoak eta (3.7.) lan honetan darabilgun terminologiari buruzko oinarritzko azalpen zenbait.

### 3.2. Hizkuntza geografiatik geolinguistikara

Ezaguna denez, hizkuntza geografia espazioan barrena hizkuntzaren aldakortasuna aztertzen duen alorra da. Alorra, edo hobeki erran, dialektologiaren metodoa. Ikertzeko metodologia honen arabera, geografiako toki jakin batzuetako tasun linguistikoak aztertzen dira, gero hainbat maparen bidez, eten linguistikoak non sortzen diren jaki(naraz)teko (Alvar 1991, Francis 1983, García Mouton 1990).

Gure lanaren ildo nagusiak bat etorri nahiko luke azken garaiko Euskal Dialektologiaren ikerkuntza-bideekin (ikus bibliografian ondoko ikertzaileon erreferentziak: Iñaki Camino, José Luis Erdozia, Orreaga Ibarra, Irantzu Epelde, Estibalitz Montoya, Mikel Olano, Patziku Perurena & Juan José Zubiri, Txomin Sagarzazu eta Koldo Zuazo). Honela, hizkuntzaren dinamika espaziala aintzat hartzen da; errealizazioen banaketaren eta hedaduraren azterketak, alegia. Hizkuntza espazioaren egitura aztertzeko, hizkuntza aldaerek geografian barrena duten heda-

dura ulertzeko, biderik egokiena dialektologia kontrastiboa dela adierazi dugu lehenago. Hortaz, hizkuntza geografia izanen da geronen metodologiaren oinarrietarik bat: hizkuntzaren tasunei emanen diegu lehentasuna eta honelako ezaugarriak aztertzen —(geo)linguistikoki interpretatzen— arituko gara, isoglosa nagusiak zein lekutan kokatzen diren ikusteko. Honenbertzez, hizkuntza eremu bat (edo gehiago) zehazten nahiz ezberdintzen duten hizkuntza ezaugarriez jardun beharko dugu; hots, geografian barrena linguistikoki urruntzen diren ezaugarriez nahiz elkartzen diren ezaugarriez arduratuko gara.

Hizkuntza geografiaz landara, Chambersek eta Trudgillek hizpide duten giza geografia ere gogoan hartu dugu, geografia inguruan egin diren aurrerapenak dialektologiara ekarrita (1980: 206):

In recent decades, geographers have made important advances toward developing dynamic models of diffusion which go beyond static characterisations of the distribution of elements, involving social attitude and community networks as independent variables. Such studies are often brought together under the rubric 'human geography'.

Azterketa urbanoetan erabilitako lanabesak eskualdeetako dialektologian ere baliatzen ahal direla erakusten du aipatu hizkuntza geografia berriak. Dialektologiaren jarduna gero eta interdisziplinarioago bihurtzen ari den honetan, ondoko lerroetan azalduko dugunez, hizkuntza aldaketaren ikuspegia aldatzen ari da. Hizkuntza aldaketak eragiten dituzten faktoreak anitz eta konplexuak dira. Dialektologia tradizionala arduratu izan den hizkuntzaren eta geografian arteko harremanez gain, ordura arte kontuan hartzen ez ziren arrazoi psikologikoak eta soziologikoak ere garrantzizkoak direla frogatua da (Labov 1983, Trudgill 1986).

Lázaro Carreter zenak bere *El nuevo dardo en la palabra* liburuaren aitzin-solasean dakarrenez (2003: 11-27), latinitatearen kanona zen Horaziok hitz berriak erabiltzearen aldeko iritzia agertzen zuen, kultura latindarra prestigioez hornitzen zuten grezieratikoa maileguz aldeko jarrera sostengatzen baitzuen poeta ospetsuak. Badirudi, beraz, aldakortasunaren afera aspalditik heldu dela, baita modu kontziente batean ere. Hala ere, *limpia, fija y da esplendor* leloaren akademiako presidente izandakoak ondorio interesgarriagoak eskaintzen ditu neologismoen inguruko eztabaida historikoaz; zeren eta, dioenez, bi behar mota daude atzerriko hitzak eta egitura linguistikoak erabiltzeko: (i) behar objektiboa ezartzen duen nazioarteko kultura, gauza edo kontzeptu berriak asmatu ahala; eta (ii) behar subjektiboa ezartzen duen prestigioa, «la de quien precisa lucirse personalmente, distinguiéndose del vulgo, y dice *almorzar* por 'comer al mediodía'. El prestigio de lo nombrado —y es muchas veces preciso ponerlo ante ojos y oídos— se impone también como causa de necesidad para la innovación (Lázaro Carreter 2003: 23).

Gure lanean soziologiaren ekarriak txertatzera saiatu gara; izan ere, gizartearen jarrerak eta jokabideak aztertzen dituen diziplina honek badu guri zer erakutsi, bereziki, zenbait ezaugarri jakinen hedaduraz den bezainbatean. Orobat, aski abstrak-

tuak izaten diren (eskualde bateko) idiosinkrasia nahiz mentalitatea soziologiaren edo psikologia sozialaren bidez aztertzen ahal dira. Errate baterako, lehen atalean ikusia dugu Gipuzkoako egunkaririk salduenak eta Gipuzkoako futbol talde nagusiak sarbide erraza dutela Nafarroako Bidasoaldean, batez ere Bortzerrietan. Doneztebe inguruan berean, indar hau apaltzen da. Eta Oronoz-Mugairiz geroztik, ia ez da sumatzen. Soziologikoki erran genezake hiru segmentu ditugula Baztan-Bidasoan: (i) Bortzerriak, (ii) Malerreka-Bertizarana eta (iii) Baztan. Aitor dugu, soziologiaren afera honetan, Sunbilla non kokatu behar ote den sobera ongi ez daki-gula. Beharbada, Malerrekaren eta Bortzerrien artean sortu beharko genukeen laugarren atal batean-edo. Ez gara gu soziologoak, gauza ageria, baina ez du ematen milaka lagunen emozioak astintzen dituen futbolaren kontua eta ideiak egunero etxe anitzetara garraiatzen dituen prentsaren kontua txantxetarako gaiak direnik. Bertzerik da jakitea, ez dugu batere aise, zein harreman egon litekeen soziologia afera hauen eta guk espresuki jorratu nahi ditugun dialektologia aferen artean. Oraingoz, ezin dezakegu zehaztu *Diario Vasco* egunkariak albisteez gainera bertze zerbait garraiatzen ote duen Lesakara edo Etxalarrera; edota zer nolako eragina duen Berako euskal hizkeran, bertako bizilagun franko *errealzale* izateak. Alabaina, bai susmatzen dugula (jakin badakigula, ezin erran) elementu hauen bitartez iragazten den Gipuzkoa(ti)ko izaerak nolabaiteko eragina izanzen duela Nafarroako Bidasoaldeko euskararen oro har, eta Bortzerrietakoan, partikularki.

Ildo beretik, jendarteko jarrerak eta erkidegoen arteko sareak aztertzeke eredu dinamikoak garatu dira hizkuntzaren aldakortasuna hobeki azaltzeke asmoz. Konparazio baterako, Lesley Milroyk erakutsia digu *social networks* nozioaren bidez hitzunok sareak osatzen ditugula gizakiak bere egindako espazioan barrena (Milroy 1980: 46):

Considering a network from the point of view of single individuals, it is possible to begin by making some general statements about the informal social relationships in which everyone is embedded. Each person may be viewed as a focus from which lines radiate to *points* (persons with whom he is in contact).

Sare sozial hauen arabera, adibidez, A egunero mintzatzen da B, C eta D-rekin; baina B, aldiz, A eta C-rekin soilik, eta ez D-rekin. D-k A-rekin harremanak baldin baditu ere, bertze talde batekoa da eta bertan E, F eta G-rekin egiten du solas. Arestiko adibidetxoaren bitartez azaldu nahi dena da gizarte bakar batean —euskararen kasuan, herri batean, nahiago bada— hizkuntzan eragin zuzena duten aldagai sozialak daudela eta gizarte horretako errealitate linguistikoko konplexua bere osotasunean ulertu nahi badugu, bereziki hizkuntza aldakortasuna, erkidegoko kideen arteko taldeak —sareak— aintzat hartu beharko ditugula ezinbertzean.

Milroyren ekarpenak Oronoz-Mugairin aurkitu uste dugun egoera linguistikoa azal lezake, non gure berriemaile batzuek *mintzo bidasotarra* ageri duten eta bakarren batek, berriz, *mintzo baztandarra*. Denak dira aipatu herrikoak, baina ezagun da ez direla, Milroyren hitzetan errateagatik, sare sozial bakarrean egon. Baina, gu



ez baikara Belfasten, zein litezke Oronoz-Mugairiko giza sare horiek? Bada, geroago azalduko dugunez (ikus 8. atala), lana, eliza, hilobia, eskola, aisialdia, oihana... Arlo horiek direla eta, hain zuzen, oronoztar guziek ez dituzte harreman berak izan orain arte. Konparazio, Oronoz-Mugairiko auzoa den Zozaiako bizilagunak egun ere elizaz Oieregikoak dira, hots, nahiko garrantzizkotzat jotzen ditugun elizkizunak eta kanposantua Oieregin dituzte, eta ez *beren* herrian. Halaber, bertze adibide bat emate alde, badakigu Oronoz-Mugairiko etxe batzuek Bertiztik egurra ateratzeko eskubidea izan dutela; bertze bizilagun batzuek, aldiz, Belate aldera jo izan dutela eta (hondarreko aldian, bereziki) Baztango Balleko Etxeak ere loteak banatu izan dituela Baztango dermio komunetan. Hortaz, ikazketan eta egurketan bakarrik, hiru oihan ezberdinetan bederen ibili izan dira oronoztarrak. Arestikoaren arabera pentsatzekoa da Bertiz aldean ibili diren lagunek Oieregi, Narbarte edota Legasakoekin harreman emankorrak izan dituztela; Belate aldean ibilitakoek, berriz, Ultzama edo Baztango Basaburuko jendearekin izan dutela tratu nagusia; eta, azkenik, Baztango dermioetan ibili direnek gainerako baztandarrekin egin dutela solas.

Ohiko hizkuntza geografiatik geolinguistikara egiten ari garen honetan, Jack Chambersek eta Peter Trudgillek (1980) proposatutakoaren ildotik, hizkuntza geografia, hiri dialektologia eta giza geografia biltzen dituen geolinguistikaren aldeko apustu metodologikoa egin dugu. Hori dela eta, hemendik aitzinera geolinguistika terminoa baliatzean, arestiko bi ikertzaileek definitu duten modu berean darabilgula adierazi nahi da. Proposamen teoriko-metodologiko honen arabera, behaketa, deskribapena, interpretazioa eta iragarpena ikerleak egin beharreko lanak dira, hizkuntza ezaugarri bereizgarrien geografia hedadurari ikuspegi dinamikoagoa eman nahian. Hurrengo ataletan ikusiko dugunez, behatu ondoko deskribapenetik abiatu gara gu interpretazio dialektologikoa egitera; eta, batzuetan, horretarako aukera sumatu dugularik, gure ustez etorkizun hurbilean gerta litezkeen fenomeno linguistikoez ohartaraziko dugu, nahiz eta iragarpenaren jardunbide hau arriskutsua izaten ahal dela jabetzen garen (cf. Camino 2009, 27.2. atala).

Hizkera batek geolinguistikoki dituen loturak eta etenak ikusteko, delako minztoaren inguruan dituen bertze hizkerak ezagutu behar dira, neurri batean bederen. Ezinezkoa baita, bertze alde, den-dena xeheki ezagutzea. Gure kasuan, adibidez, Baztan-Bidasoako hizkerak sakon ezagutu behar ditugu, eta ondoko hizkeren berri izan. Nolanahi ere, ez gara soberazko xehetasunetan murgilduko (ez gara herriz herri ezaugarri oren gibeletik ibiliko, alegia) gure azterketa eremukako azterketa delako, eta ondorioz, gure ikuspegia erabat areala izanen delako. Bistan da metodologiak hizkuntzaren errealitatearen arabera behar duela. Erran nahi baita hondarreko urteotan hor-hemenka atzemandako datu guziak ez ditugula baliatuko, eta baliatuko ditugunak ere ez ditugula maila berean baliatuko. Dena den, ezaugarriak hautatzeko eta baliatzeko proposamen metodologikoak geroago agertuko ditugu, 3.6. azpiatalean.

Eugenio Coseriuren iduriko, dialektologialariaren funtsezko helburua minztoen arteko harremanak ezartzea da (1981: 18, 25). Ildo beretik jarraikiz, hizkera

bat ondoko haranetako mintzoekin konparatu gabe aztertzea edo deskribatzea, ez bide da dialektologiaren bete-beteko helburua, dialektologiaren lehenbiziko urratsa baizik (Camino 2004c: 70). Deskribapenak behar-beharrezkoak ditugu tokian tokiko datu zehatzak ematen dizkigutelako. Deskribapena bidea behar bezala egiteko lehen atala dugu, dialektologiak egin behar duen lehen lan garrantzitsua (Jordan 1967: 263). Horregatik, gu ere Baztan-Bidasoako hizkeren deskribapenetik abiatu gara azterketa dialektologikoa egitera. Eta azterketa dialektologiko hau egiteko, hondar aldiari Euskal Dialektologian agertu diren lanez baliatuko gara. Hala sortzen baita tradizioa, aitzinetik egin denaren gainean gauza berriak ekarriz.

Arestikoaren arabera erran liteke dialektologiaren helburua lan geolinguistikoa direla, hizkuntzaren aldakortasuna geografian barrena aztertzen dutenak, hizkeren arteko harremanak nola egituratzen diren azaltzen digutenak. Hortaz, gure lanaren helburu nagusia hauxe izanen da: Baztan-Bidasoako euskal hizkeren egitura geolinguistikoa aztertzea.

Guk egindako nahiz eskuratutako grabazioen transkribaketak ez ditugu emanen ikuspegi areala eskaini nahi duen azterketa dialektologiko honetan. Errate baterako, Peter Trudgillen edota Koldo Zuazoren dialektologia lanetan ez ditugu arestikoak aurkituko. Tokian tokiko hizkerari buruzko monografiak, datu-bildumak, ahozko tradizioa jasotzen dutenak eta abar (hagitz) ongi etorriak izaten dira, bertzeak bertze, ikerlan hau bezalako eremukako lanak gauzatzeko monografia asko behar direlako. Bertze era batera, bi lanak ditugu ezinbertzeakoak: bai deskribatzea, bai erkaketak egitea. Nekez egin bailiteke konparaziorik zer konparatu nahi den ongi jakin gabe.

Erkaketa-lanak direla eta, susmoa dugu, zilegi bazaigu erratea, hizkuntza normalizatu(ago)etan egiten den dialektologia kontrastiboa *oraindik* ez dela aise Euskal Herrian egitea, delako ikerlan horrek ez badu bertako euskararen erakusgarri oparo eta zabalik ematen. Euskarak bizi izan duen historia sozial makurrak gibelka ibilarazi du gure mintzaira hainbat eta hainbat mendetan, ongixko dakigunez. Nolabait, euskara berreskuratzeko giro moderno samarrean, lekuan lekuko hizkerak biltzea beharrezko ikusi izan da. Zorionez, urrats batzuk egin ditugu (zenbat falta izanen diren!), eta gure iduriko, zenbait jarduera normalizazio bidean hasiak dira. Ez gaude *Arraiozko eskuara* biltzen duenaren kontra, alde baizik. Baina pentsatzen dugu bi lan mota bederen bereizi behar direla: monografia edota deskribapena biltzen duen lana; eta azterketa dialektologikoa. Biak dira balekoak. Biek emanen diote *tornuia* (bertako) euskarari. Areago, elkarren osagarri ere badira bi lan mota hauek, lehentxeago adierazi dugunez. Baina gauza ezberdinak dira, berez. Uste irmoa dugu, gure hizkuntzaren egoera normalizatuz bezala, bertze herri batzuetan ohi diren bereizketak gurean ere sarri egingen ditugula.

Baztan-Bidasoako euskal mintzoak ikertzeko, bertako hizkeren konparaketaz, kokapenez eta sailkapenez arituko gara. Horretarako, hauxe bera frogatzeko nahiko argudio aurkeztu ditugulakoan, geolinguistika tresna ezin hobea dugu. Geolinguistikak

ahalbidetzen digu, bertzeak bertze, lupa gehiago goratzea azter-eremuaren eta auzoaren ikuspegi orokorra izateko: ezaugarrien geografia hedadura ikusirik, lerro nagusiak nora begira dauden.

### 3.3. Ezagutza filologikoaren laguntza: ikuspegi diakronikoa

Datu idatzien garrantzia ere aipatu nahi dugu, lan honetan bigarren mailan gelditu baldin badira ere. Bigarren mailan diogu, zorionez Baztan-Bidasoan euskara bizi-bizi dagoelako, nahiz eta gaztelaniak bere eremuak hartuak dituen, soziolinguistikaren atalean erakutsi den bezala.

Geolinguistikaren metodoez gainera, hizkuntzaren errealitate sinkronikoa aztertzeko alderdi diakronikoari ezin zaiola muzin egin adierazi beharrean gara. Gure iritziko, ikertzen den geografia eremu horretako hizkuntza aldaerak sinkronikoki nahiz diakronikoki aztertu behar dira, funtsezko ondoriorik aterako badugu. Hizkuntza ezaugarrien antzinasun maila ezagutzea garrantzitsua da: ahal den neurrian ezaugarri baten zahartasuna edo berritasuna neurtzeak hainbat argi eskain dezake. Dialektologia tradizionalak ere garrantzi handia eman izan dio alderdi historikoari, nazioartean diakroniak eskaini datuak aintzat hartzeko joera egon baita (Camino 2009, 3.3. atala).

Dena den, iraganeko testuekin lan egitean kasu handia eman behar da; izan ere, hor-hemenka aurkitu eta argitara emandako euskarazko paper zaharrek nahi baino aise informazio gutiago eskaintzen dute: nork egina den testua; zergatik erabaki zuen egileak euskaraz izkiriatzea; euskaraz izkiriatzeko tenorean zein eredu zuen gogoan, baldin eta egileak inolako eredurik bazuen; idazlearen eguneroko harremanak zein ziren; nori zuzendua zen testua; zer helburu lortu nahi zen; non eta noiz idatzi zuen egileak; eta abar. Inondik ere baztertu ezin ditugun kontuak dira hauek guziak, ezagutza filologikoaren laguntzaz ikuspegi diakronikoa egokiro baliatu nahi izanez gero.

Baina eman dezagun erraten ari garenaren etsenplu bat: Berako Juan Bautista de Iturriak Ziburuko Josetxo de Bereauri 1674-1676 urteen bitartean idatzitako euskarazko hiru eskutitzak (ikus Urrizola 2006). Hiru gutunok balio berezia izan lezakete, XVII. mendean idatziak diren heinean; Euskal Filologian jakina denez, ez baitira anitz XVII. mendeko (eskualdeetako) langaiak. Haatik, gutunon argitaratzaile Ricardo Urrizola Hualdek «escritas en la variedad dialectal de la zona» erraten baldin badu ere (2006: 264), geolinguistikoki sobera koherenteak ematen ez duten hizkuntza ezaugarriak nahasian ageri zaizkigu hiru testu epistolarrotan: batetik, Berakotzat (eta Nafarroako Bidasoaldekotzat) jotzen ahal dugun «boronte» 'borondate' sinkopa dugu, baina bertzetik, Baztango eta Lapurdiko testuetan nola mintzoan ohi den «drecho» bezalako sinkopa dugu. Bertze adibide batzuk eskaintzeagatik, baditugu arazo handirik gabe Berakotzat (eta berriz ere Nafarroako Bidasoalde osokotzat) jo genitzakeen ezaugarriak: «tidazu» 'dizkidazu' eta «tuzu» 'dituzu' erako aferesiak nahiz «uscaraz» monoptongazioa edota «contuban» 'kon-

tuan' eta «duben» 'duen' bezalako fenomeno epentetikoak. Alabaina, ekialderagokotzat edo iparralderagokotzat hartuko genituzkeen formak ugariak dira hiru gutunetan: «etaric» 'haietarik', «gaitzetic», «eguiten derauçut», «erran nerauzun», «edireiten», «oren»... Ondorioz, eta zorigaitoz ere erran beharra dugu, XVII. mendeko euskarazko testigantza honek ez digu sobera balio gure eginbehar dialektologikoetarako.

Ez gara sobera luzatuko zer dela eta Berako gure olagizonak aukeratu zituen nekez bere sorterrizat har litezkeen forma linguistikoak, honen inguruko susmo batzuk hartzeak oso zaila ematen ez badu ere. Kasu honetan, adibidez, gutunen hartzailea ziburutarra izateak eduki lezake eragina igorlearen hautu lektaletan; Ziburuko euskal mintzoan, ordukoan nola egungoan, gutunetako zenbait era (ez beratar) erraz onartuko baikenituzke. Kontua aski konplexua liteke, ordea: berriki argitaratutako hiru gutun hauek izan ziren Berako Juan Bautista de Iturriak Ziburuko Josetxo de Bereauri bidalitako testu guziak?; ba ote zuen beratar honek bertze epistola-harremanik?; bertze epistola-harremanik baldin bazuen, euskaraz ala erdaraz izan zen?; jaso ote zuen inoiz Juan Bautista de Iturriak euskarazko eskutitzik bera idaztera jarri aitzinetik?; hala izatera, eragin ote zion idatzizko ereduari lehendik irakurritakoak?; olagizon beratarak euskaraz izkiriatzen zuelarik berdin zitzaion nongoa zen hartzailea ala bere auzoko gramatika lektalen berri zekienez moldatu egiten zuen idaztankera? Agerian utzi dugun bezala, ez dugu aski informaziorik galde-modu sorta honi egoki erantzun ahal izateko. Dakigun apurraren artean, Juan Bautista de Iturriak idatzitako hiru gutunek bere sorterriko hizkera modu fidagarrian ordezkatzeko ez dutela argi dakusagu. Hau dela eta, ezin izan ditugu hiru gutun hauek (erabat) aintzat hartu gure eginbehar dialektologikoetarako.

Testuekin lanean ari garelarik badira bertze zenbait kontu gogoan hartu beharrekoak, baita arazo handirik gabe fidagarritzat jotzen ahal ditugun testuen kasuan ere. Bertzeak bertze, idatzitako testua beti izaten da solas bizia baino formalagoa. Honek fonologian eragiten du nagusiki. Erran nahi baita idatziak ez dizkigula mintzatuak erakutsiko lituzkeen gertakari guziak agertuko. Errate baterako, segi dezagun Berako mintzoan, gaurko euskaran *batian* eta *batin* aditzen dira, hots, Berako gramatika bi aukera ditugu: *ondarrian* eta *ondarrin* 'hondarrean, azkenean'. Nolanahi ere, bigarren *-in* bukaeradun formak gailentzen ari dira herrian: gazteen eta helduen artean ohikoa dugu; *-ian* bukaeradunak, berriz, adin batetik goitikoan artean entzuten dira batez ere. Berrikuntza fonologiko hau bizi-bizirik dago Berako euskaldunen artean, prozesua ez baita oraindik osatu: batzuek *batian* forma zaharra goa darabilte (bidenabarrekoan, berrikuntza zaharra dena, aztertutako Berako dotri-nan (Pagola eta alii 1995) eta Berako udal ordenantzetan (Idoate & Villanueva 1981) fenomeno sistematikoa baita) eta bertze hiztun batzuek, aldiz, *batin* erraten dute. Alabaina, gaur den egunean, Berako pertsona batek (ahalaz, euskara batuan alfabetatu ez denak) idazteko forma aukeratu beharko balu, forma osoagoaren alde eginen luke segur aski. Hortaz, geroagoko euskal filologoak pertsona horrek izkiriaturakoaren arabera gaurko hizkera beratarra aztertuko balu, ez litzateke fonologiako

gertakari aipatuaz ohartuko. Adibide honek testu zaharrak ikuskatzean zuhurtziaz jokatu behar dugula gaztigitzen digu.

Halarik ere, ezagutza filologikoak eskaintzen dituen testigantzen artean badugu dialektologia diakronikoa egiteko aukerarik, zenbait euskal testu Baztan-Bidasoako hizkeren ordezkari hartzen ahal ditugun neurrian. Geolinguistikoki era koherente batean ageri dituzten hizkuntza ezaugarriak dauzkaten testu zaharrak erabili ditugu ikuspegi diakronikoa gogoan hartzeko: testuetara isuritako mintzoa argitzen ahal duten datuak arakatu nahi baititugu. Bibliografian zerrendatu ditugun XVIII. eta batez ere XIX. mendeetako lekukotasunez ari gara, eskualdeko hizkeren gaineko azterketa dialektologikoan hor-hemenka agerraraziko ditugun ikerlearen tresna baliotsuez.

### 3.4. Lekukoaren ezagutzaren laguntza: oharmenezko dialektologia

Hiztun orok badaki zerbait maiz erabiltzen duen mintzairari buruz. Halaber, hizkuntza edo mintzo bateko kide orok ondoko hizkuntzaren edo mintzoaren berri izaten ohi du. Hau aski ongi ikusten ahal da, adibidez, lagunarteko giroan bertze hizkuntza erkidego bati buruzko imitazio irrigarri bat egin nahi dugunean: belarriek gure kode linguistiko(et)an arrotza dena garunaren hots-inbentarioaren arabera interpretatzen dituzte soinu «arraroak». Arrarotasun horixe da, hain zuzen ere, irria eragiten diguna. Honela, hiztunok hizkuntzaren edo mintzoen arteko ezberdintasunaren kontzientzia garatzen dugula aise onestekoa da.

Azpiatal honetan, lekukoaren ezagutza (meta)linguistiko hauek laguntza baliagarriak suertatzen ahal direla azaldu gogo dugu; zeren eta hiztun arruntak ere badaki zerbait ikertzaileak aurkitu eta finkatu nahi dituen muga dialektalen gainean. Honekin ez gara erraten ari hiztun arruntaren maila aprioristikoak dialektologialariaren jarduna saihestu behar duenik, ezta zientzia linguistikoaren maila berean paratu behar dugunik ere. Ikertzaileak metodo zientifikoa ezarri behar du eta berari lehenetasun osoa eman. Haatik, nazioarteko dialektologian *zientzia egiteko* zenbait berriemaileren intuizioak baliatzea ez da atzo goizeko jarduna, eta, ondoko lerroetan agertzeraz saiaturik garenaz, ezta ekintza antzua ere (cf. Francis 1983, Preston 1988 eta 1989, Silva-Corvalán 1988).

Euskararen herrian ere Orreaga Ibarrek bere doktorego-tesian azpiatal bat eskaini zion «Kontzientzia linguistikoa» izenekoari (1995: 595-604). Bertan, Prestonen lanaz ari delarik, «dialektologia hautemailea» euskarazko izendapena zerabilen. Urte bat lehenago, Ibarrek «dialektologia hautemailea» zioen tokian, Iñaki Caminok «oharmenezko dialektologia» paratua zuen (1994: 138-145). Bata nahiz bertzea dialektologo anglosaxoiek darabilten *perceptual dialectology* motaz ari ziren. Bigarren euskarazko izendapen honek, ordea, bide zerbait egina duela dirudi (ikus, adibidez, Camino 1997, Erdozia 2001 eta Montoya 2004). Hori dela eta, guk ere «oharmenezko dialektologia» izendapena baliatzea deliberatu dugu, euskarazko ikerlanak egiten ari garenon artean terminologia finkatzeko asmoz.

Iñaki Caminok dialektologia mota hau egiteko gako nagusi batzuk eskaini zituen bere doktorego-tesian:

Trantsizionalak izan daitezkeen eremuetan, ikertzaileek edo biltzaileek ez dute soilik datu dialektal primarioez galdegin behar, baita konszientzia lektikalaz eta berriemaleen guztizko hizkuntz jarrerez ere (1997: 45).

Trantsizioko eremuez ari da Donostiako hizkuntzalaria eta trantsizioko eremua da lan honetan ikertzeko dugun Baztan-Bidasoako euskara. Hori dela eta, orain arte azaldu dugun geolinguistikaz gain, oharmenezko dialektologiaren laguntza egokia dakiguke ikerketaren datuak eta ondorioak agertzeko tenorean.

Jarraian Berako lekuko batek azal dutako istorioa dakargu. Gure osabak pasadizo hau inkesta edo grabazio-saio arruntetatik kanpo kontaktu zigun: Debara joan zen batean, ez zen ohiko beretzat Gipuzkoako alde horretan ibiltzea, inguru hartako euskaldunekin lanean ari zelarik, bertze langile batek galdetu omen zion zerbait *bukau* baten gainean *ta orduan ni asi nuken ya bokadua arrautzen niken miño zero, an etzuken yeus ere* ‘eta orduan ni hasi ninduan ea mokadua harrapatzen nuen baina zero, han ez zuan deus ere’. Geroago jakin omen zuen osabak Deba inguruko hark «bukatu» nahi zuela erran *bukau, bukau... bukatu guk eztiu ibiltzen, guk akautu errattendiu. Bukatu... enteintubai, Gipuzku alderdi ontan, Oiartzunan, Andoañan... ta telebisionin errattentek, miño bukau! ‘bukau, bukau... bukatu guk ez diagu erabiltzen, guk akautu erraten diagu. Bukatu », entenditu bai, Gipuzkoa alderdi honetan, Oiartzunen, Andoañen... eta telebistan erraten ditek, baina *bukau!**

Hizkuntzalariaren ikuspegitik aberasgarria da hiztunaren gogo-maparen berri izatea: Berako lekuko honek Nafarroa ondoko eta ez hain ondoko gipuzkoar euskaldunak *berreizten* ditu, hauekin nolabaiteko tratua izan duen seinale. Halarik ere, *bertze* gipuzkoar horiek beregandik urrutixko daude, hain urruti non batzuetan euskaraz elkar ulertzea nekeza gertatzen baitzaio. Oharmen linguistikoari dagokionez, hiru maila gutienez dakuskigu adibide honetan: (i) lekukoak darabilen «gu» (beratarren abstrakzioa, segur aski), (ii) hiztunak arazorik gabe ulertzen dituen gipuzkoarrak eta (iii) behar bezala ulertzen ez dituen gipuzkoarrak.

Dialektologiaren bidea hautatu duen ikertzaileak honelako istorioak maite ditu, nahiz eta frankotan hiztunak elkarren artean sortutako gaizkiulertuak estu jartzen dituen. Areago, gure osabak istorio hau kontatzen duelarik (guk bi aldiz bederen entzuna diogu), tonua goratzeaz gainera bere solasei darien arrangura nabari-nabaria da; izan ere, bera kexu da: zerengatik jakin behar du beretzat «mokadu» dena Deba inguruan ‘akautu’ dela? Elkarrekintza linguistikoari ez bide deritzo bidezkoa, batez ere honen kontura bertze mintzo bateko kide batzuek irri egiten baldin badiote. Ez dira arrotzak inondik ere arestikoa bezalako anekdotak Euskal Herrian; tamalez, behin baino gehiagotan euskal hiztunak elkarren artean erdaraz egitera bultzatu dituzten egoera ezagun samarrak (izan) ditugu. Beharbada, euskara batuaren kontra aritzen diren zenbait euskaldunek zein zubi hautsi nahi duten ongi pentsatu beharko

lukete, herri ttiki eta ahul(du) honen hizkuntzaren batasunaren aurka jardun aitzinetik.

Oharmenezko dialektologia espresuki landu duen Dennis R. Prestonek erabilitako bortz tekniketarik (1988) bi baliatu ditugu guk:

1. Era teoriko batean lekuko batzuei galdetu izan diegu bi konturen inguruan: zein da sumatzen duzun euskararik hurbilena? Esparru mailan (Bortzerriak, Malerreka, Bertizarana eta Baztan eremuak proposatu dizkiegu honetarako), zein da euskararik berdintsuena eta zein diferenteena?
2. Hiztun guti batzuei bertze herri batzuetako grabazio-zatiak paratu dizkiegu ea non kokatzen zuten hizkera hori; ezaguna egiten ote zitzairen; zertan sumatzen zuten (ez)berdin, eta abar.

Hona hemen eremuka edo esparruka bildutako iritzi nagusien laburpena:

1. Bortzerrietan: euskara aski berdintsua dela aipatu dute gehienek. Diferentziak agertzean, bi herri atera dira maizenik: Arantza eta Etxalar. Arantzan hitzak jaten dituztelako. Etxalarren, berriz, finagoak omen direlako: ez dute bustitzen eta zenbait hitz Ipar Euskal Herritik hartuak dituzte. *Frantsuskara* ez omen dute urrunxko sumatzen, bereziki muga onddokoa: Sara, Azkaine, Urruña... Dena den, muga politiko-administratiboa gehienengoa gogoan dago, batez ere heldu eta zaharren artean. Bortzerrietan Gipuzkoakoa ere aise ulertzen da, normalean. Nafarroari dagokionez, Baztan ingururaino igualtsu hautematen dute, eta Baztanen, gauza batzuk aldatzen badira ere, ez dira sobera diferente mintzatzen.
2. Malerrekan: jasotako erantzunen arabera, Malerrekan igualtsu egiten dela sumatzen dute bertako hiztunek. Bakarren batek aipatu du *goi erritan zubitanta* hitz batzuk diferenteak direla, bereziki *esan* eta *beste* (ez *erran* eta *bertze*) nabarmendu dituzte. Bortzerrietako euskara ere *altso* 'igualtsu' hartzen omen dute. Sunbillako hiztun batek diferentzia Etxalarrekin markatu nahi izan du (palatalizazio maila dela eta). Bertze alde, Baztan aldean erberdinxeago egiten dutelako oharmena agerian utzi du bakarren batek, baina baztandarrekin euskaraz egiteko trabarik ez omen dago. Goizuetako euskara berezia omen da, kantari-edo aritzen direlako. Azkenik, Gipuzkoako mintzoa dela eta, gehiengoa, *ondo*.
3. Bertizaranan: iritzi nagusia da Malerrekan bezalatsu mintzatzen direla, hitz batzuk gorabehera (hemen, Zubietako kasuan ez bezala, ez dute deus berezirik aipatu). Baztan aldera joanda, ordea, aldaketa nabariagoa omen da. Bortzerrietan ere ez omen dira gauzak sobera aldatzen, *itzen bat do ola, miño gutti*.
4. Baztanen: ezberdintasun larririk sumatzen ez bada ere, Oronoz-Mugairin Bidasoan bezalatsu egiten dela erran dute zenbait lagunek. Zalantzarik

gabe, diferentzia linguistikoak epaitzean Oronoz-Mugairi izan da baztandarrek gehien aipatu duten herria. Dena den, batek baino gehiagok erran du Baztangoizan *frants eskuara* sartzen dutela, hitzak-eta. Bertze alde, eta Baztandik atera gabe, hirugarren iritzi mota baten arabera, Baztango Basaburuan diferente erraten dituztela hainbat gauza (palatalizazio mailaz ari dira). Baztandik kanpora joanik, gauzak gehixeago aldatzen omen dira, Bidasoaren aldera-eta, baina oraindik aski ongi. Bakarren batek erran duenez, Bortzerrietako bizilagunak ia erdi gipuzkoarrak dira (baina hizkuntzazkoa baino gehiago, kulturari buruzko juzkua eman duelakoan gaude). Ultamaz edota Baigorri aldeaz galdetuta, apenas harremanik dutela adierazi digute Baztango gazte gehienek: batzuk *erdaraz* —gatzelaniaz— ibiltzen dira eta bertzeak *frantsesez*. Adin batetik goiti, heldu eta batez ere zaharragoek ez omen dute problemarik Baigorriko edo Lapurdiko euskara ulertzeko.

Arestian zerrendatu ditugun usteok kontuan hartuta, berriemaileak bereziki alderdi fonetiko-fonologikoaz nahiz alderdi lexikalaz ohartzen direla iduri du: bus-tidura automatikoaren mailaz eta hiztegi-az landara, anitzetan erantzuna hauxe izan baita *ek idu(r)i du solasi(a)n ari di(r)ela kantari*. Honela, bertze herrietako grabazioak paratu dizkiegunean, lekuko gehienek kantari mintzatzea argudiotzat zutela, maizkara asmatu dute hiztuna zein ibar edo eremutakoa zen. Orreaga Ibarrek ere badakar antzeko azalpen bat «gai ziren Ultzamakoak bai Imozkoa, Baztangoa edo Basaburukoa zen esateko, eta alderantziz» (1995: 598, 34. oinoharra). Nonbait ere, dialektologialariari oraindik zientifikoki atzeman ezin diren prosodiaren aferek ihes egiten diote; ez, aitzitik, hiztun zenbaiten belarri finei. Hau zintzo aitortu beharrean gara.

Inkesta ugaritan lekukoaren ezagutza linguistikoaz azterketa dialektologikoaren aberasgarri gerta daitekeela argi gelditu da. Yoshio Masek egindako ikerlan batean (Camino 2009, 16.4. atala), zinezkoak ziren 58 ezberdintasunetatik, lekukoek 51 xuxen identifikatu zituzten, hau da, %87'9ren mailan ibili ziren. Horregatik, eta honat ekarritako gainerako argibideengatik, azterketa linguistikoari dagozkion hurrengo ataletan ere berriemaileen testigantza zenbait agertuko ditugu, geolinguistikaren metodo zientifikoaren osagarri.

### 3.5. Isoglosak

Era aseptiko batean erran liteke dialektologiaren helburua dela dialektoen ikerketa zientifikoa egitea, hots, hizkuntza esparru batean sortzen diren hizkeren azterketa eta interpretazioa (Iordan 1967: 251, 1.oinoharra). Eginbehar honetan zenbait eztabaida teoriko izan dira ikertzaileen artean. Honela, hizkuntzalari erromanista batzuek arras gaitzetsi dute dialektoaren kontzeptua, Gaston Parisek erraterako, dialektorik badenik ere ukatzeraino (cf. Montes 1982, Viaplana 1996, Hernández 1999).



Lege fonetikoak formulatu zituzten neogramatikoez mugak eta isoglosak ezartzeko aukera azaldu zuten lehenbiziko aldiz, XIX. mendearen bigarren erdialdean. Harrezkero, isoglosek arrunt eginkizun inportantea izan dute, dialektologiaren zutaberik sendoena bihurtu baitira, batez ere hizkeren arteko diferentziak agertzeko tenorean. Zalantza handirik gabe, isoglosa dugu dialektologoek zientziak erdietsi duen emaitzarik lortuenetakoa bat: isoglosaren kontzeptuak, hizkuntza tasun batean oinarriturik, bi eremuren arteko muga bereizteko marra ezartzen du. Hizkuntza ezaugarri jakin bat ordezkatzeko duen marra horri deitzen diogu isoglosa.

Chambers eta Trudgillek (1980: 103) *isoglosa* terminoa lehen aldiz Letoniako dialektologialari Bielenstein-ek erabili zuela badiote ere<sup>18</sup>; Joaquin Costa espainiarrak, juxtuki euskara dela eta Schuchardt eta Bonaparte aipatzen dituen 1878ko artikuluan, *isoglosa* hitza baliatzen du «líneas que unen los lugares donde se habla un mismo idioma o un mismo dialecto de transición» (cf. Gutiérrez 1982: 53).

1875-1876etan Ascolik eta Meyerrek izan zuten eztabaida polemikoa ezaguna da dialektologiaren historian (Goebel 2002: 34). Hizkuntzalari frantsesak dialektotoei «une conception assez arbitraire de notre esprit» zeritzen, bere ustez, dialektotoak zientifikoki zedarritu ezin daitezkeen heinean. Hizkuntzalari italiarrak, aitzitik, dialektoen arteko mugaketaren aldeko arrazoiak eman zituen: hizkuntza tasunen «particolare combinazione» eta beren «simultanea presenza» argudiatuz. Hizkuntza ezaugarri edo tresna hauekin (nolabaiteko) muga dialektalez mintzatzeari zela defendatzen zuen Ascolik, berak franko-probentzalararekin egin bezala.

Ttipi-Ttapa hamabostekariak dakarrenez (2007/11/15), Txirene antzerki taldeak «Ogiyik karri etzun semia» izeneko lana eskainiko du Beran, IX. Kafe Antzerki Zikloaren barrenean. Graziadio Isaia Ascoliren bi argudio nagusiak praktikan paratzeko tenorea dugu, hizkuntzalariaren ikuspegia hobeki uler dadin. Horretarako, arestiko antzezlanaren izenburua hartuko dugu aztergai:

1. *ogiyik*: bi fenomeno aipagarri ditugu hemen. Batetik, epentesia; bertzetik, *ogiya* forma epentetikoaren gainean eraikitako partitiboa, zeinak bukaerako *-a* kendu ondoan *ogiy + ik* egin baitu > *ogiyik*.
2. *karri*: euskara nafartzat jotzen den ezaugarri eskusiboetako bat, aferesia: *ekarri* > *karri*.
3. *etzun*: batetik, *zuen* > *zun* berrikuntza dugu; bertzetik, berrikuntza honen gainean gertatutako sandhiaren emaitza *ez + zun* > *etzun*.
4. *semia*: Euskal Herriko bazter frankotan suertatzen den disimilazio-gertakaria, *seme + a* > *semia*.

18 1892an erabili zuen Bielenstein-ek, meteorologian baliatzen den *isotermo* terminoan oinarrituta, zeinak tenperatura bereko bi toki adierazten baititu.

Banan-banan zerrendatu ditugunez, hizkuntza ezaugarri hauek ez lukete aski berezitasun mailarik eskualde bateko aldaera lektal batean edo bertzean kokatzeko. Aldiz, lau tasunon «particolare combinazione» eta beren «simultanea presenza» kontuan harturik, munta handiko ondorio batera iritsiko gara: euskarazko lau hitzeko perpaus llabur hau, ezagutza dialektala tarteko, Bidasoa ibaiaren inguruan bakarrik ekoizten ahal da era naturalean gaur egunean. Ascolik erranen lukeen gisan, lau tasun hauek aldi berean konbinatuz, Euskal Herriko zein eremutako solasa den jakin dezakegu. Areago, *ogiyik* bezalako fenomeno epentetikoak, Nafarroako Bidasoaldeaz den bezainbatean, bereziki Bortzerrietan eta Sunbillan aditzen direla gogoan izanik, nahiz, Gipuzkoako Bidasoaldean forma osoak aferesidunak baino ohikoagoak direla ohartarazita (cf. Sagarzazu 2005: 62-63), edozein hiztunek eguneroko erraten ahal duen perpaus soil batek (bereziki) Bortzerriak eta Sunbilla jartzen ditu dialektologialariaren ikusmiran. Zinez, ikuspegi teoriko-metodologiko honen aldeko froga sendoa delako iritzia dugu.

Nolanahi ere, batzuetan muga lektalak ezartzea oraindik aski konplexua gertatzen da (Veny 1992: 213):

Tratándose de hechos humanos, sociales, de extrema complejidad, no existen entre ellos fronteras matemáticas —como tampoco existen entre registros o entre niveles de lengua— sino franjas variables de transición que también pueden constituir dialectos.

Dialektoen arteko mugez ari garelarik, hizkuntza aldaerek espazioan barrena erakusten ahal duten trantsizio mailez mintzatu behar dugu, eta ez modu fisiko edo konkretu batean ageri diren mugaketa garbiez. Ez da ahanzten ahal, azken batean, mintzaira gizakion kultura ez-materialaren atala dela. Auziaren gako nagusia mugaren beraren kontzeptua liteke, beharbada, nola ulertzen eta ezartzen dugun: ez baita gauza bera, adibidez, berriki arte Hendaiatik Irunera joateko igaro behar genuen muga interestatala eta guk hemen espresuki jorratu nahi dugun muga dialektala. Bertze era batera, muga kontzeptuak errealitate ezberdinak idurikatzen ahal ditu. Txingudi inguruko etsenpluarekin jarrai dezagun, Europako Batasuna dela eta, muga materialak izandako aduanak eta frontierak desagertu baldin badira ere, Bidasoaren alde banatako muga kulturelek bizi-bizirik diraute XXI. mendearen hasiera honetan. Are gehiago erran genezake: batzuetan, historian zehar ongi gauzatutako muga fisiko zenbaitek arrasto soziokultural garbia utzia dute jendeen gogoan. Mugen eta frontieren inguruko ikuspegi antropologikoen berri izan nahi duenak Aitzpea Leizaolaren, Carmelo Lisonen edota José Antonio Peralesen lanetara jo dezake (ikus bibliografian).

Isoglosa bakoitzak hizkuntza gertakari baten muga neurtzen duela badakigu. Neurri handi batean, hortaz, arazo enpirikoaren auzia ezaugarri linguistiko bakoitzaren «geografia partikularra» aurkitzean datzala erran genezake (Melis et alii 1989). Muga dialektal *ebakigarrik* ez badugu ere, aitzitik, bai badaudela eremuak banatu eta definitzen ahal dituzten isoglosak (Mixelena 1976: 318-319). Badago,

beraz, dialektologia egiterik: item linguistiko bereizgarri nagusien xerka abiatu gara, hauek multzoka antolatzeke asmoz.

Alta, isoglosak antolatzea ez da lan erraza, batzuetan isoglosa bakoitzak mapa ezberdin bat iradokitzen baitu. Bortzerrietako lexikoa geolinguistikoki aztertu nahiko bagenu, zenbait hitzek edota aldaerak Bortzerrietako joera orokorraz kanpo jokatzen dutela ohartuko ginatke; hau da, isoglosa lexikal guziek ez dute berdin jokatzen dialektologoaren begien aitzinean: Lesakan bakarrik dagoen *kallatua* bertze lau herrietan *gaztanb(e)ra* dugu, eta Lesakako *gaztanb(e)ra zenberena* da gainerakoetan; Etxalarko *fite & abudo* aukera ez dago bertze lau herrietan (*abudo*, bakarrik); Beran eta Etxalarren erraten den *gasna* Arantzan, Igantzin eta Lesakan *gazta* da.

Oiartzungo Fraile ahizpek diotenez (1996: 238), Oiartzunen ere bada *kallatua* (eta ez Gipuzkoan ohikoa den *mami(y)a*). Ikertzaileak peskizan segituko balu, elkarrekin muga egiten duten Lesakako eta Oiartzungo bizilagun zenbaitzuek harreman historikoak dituztela konturatu litzateke. Era berean, Etxalar ez bertze lau herrietan arrotza den *fite* ohikoa da ondoko Lapurdin, Zugarramurdin eta Baztanen. Hain zuzen ere, Etxalartar askok ongixko ezagutzen dituzten tokiotan. Azkenik, Igantziko *gaztaren* ondoan Berako eta Etxalarko *gasna* diferentea ote den susmatu beharrean, ikertzaileak jakin dezake Ipar Euskal Herriko lagunekiko kontrabandoan, bereziki bi herriotako gizasemeak arituak direla (cf. Arburua 2005).

Lexikoa bezala, hizkuntzak dituen bertze alderdietan ere isoglosen ageriko desordena gerta daiteke: fonetika-fonologian nola morfosintaxian. Edota, alderdi morfologikoak norabide bat adierazten duen bitartean, hizkera edo mintzo beraren sintaxiak bertze bat islatzen ahal du. Iñaki Caminok ikertu duenez (1997), aetzen *uskararen* morfologiak, aditzaren morfologiaren atal batek nagusiki, Baigorri inguruko euskararen antza du; hori zela eta, Bonaparte printzeak Baigorrikoarekin batean bildu zuen Aezkoako euskara. Fonetika-fonologiaz eta sintaxiaz den bezainbatean, ordea, Nafarroa Garaiko hizkeretatik aise hurbilago dago Aezkoako solasa.

Isoglosak, oro har, graduzkoak edo bat-batekoak izaten ahal dira. Gehienetan, hiztunak aise jabetzen dira bat-bateko isoglosen arteko diferentzietan. Nafarroan, oharmenezko dialektologiari dagokion azpiatalean ikusi bezala, aski ezaguna da *esan/erran* aldaera lexikalak sortzen duen bereizketa mentala. Gure azter-eremuko herri guzietan *erran* erabiltzen da, Zubietan izan ezik. Eta isoglosa bakarra izanda ere, bertako nahiz inguruko lagunentzat nabarmena da. Halaber, Bortzerrietako, Sunbillako, Malerrekako eta Bertizaranako anitzek diote baztandarrak *e*-arekin solastatzen direla. Hitzun arruntek ez dakite zer den hurbileko asimilazioa, baina erraz sumatzen dute *ure* eta *sue* baztandarra dela. Arestiko bi kasuotan isoglosa bana dugu, baina bigarrena anitzez garrantzizkoagoa da, hurbileko asimilazioaren fenomeno bizi-bizirik baitago, bai eta egun sartzen ari diren mailegurik berrienetan ere. Hurrengo azpiatalean erakutsiko denez, isoglosa hau munta handikotzat dugu: ezau-

garri berria, sistematikoa eta emankorra baita. Hainbertzetan *errepikatzen* da, ezen inguruko jendeari iduritzen baitzaio baztandarrak *e*-arekin mintzatzen direla<sup>19</sup>.

*esan/erran* aldaera lexikalak sortzen duen bereizketak ez du iduri halabeharrezkoa edo zorizkoa denik. Izan ere, Zubietan aurkitu dugun *esanekin* batean *beste, bost, ostegun, ostiral, oso, asko, aurrera, atzera* ere badaude, hain zuzen, Baztan-Bidasoako gainerako herrietan ez daudenak. Dena den, Zubietan berean (baita Leitzaraino ere) *hagitz* erabiltzen da, baina ñabardura hanpatuarekin (*vs. oso* neutroa). Baita *ertze* ‘heste’ eta *mazurtzak* ‘masustak’ ere; kasu honetan, halarik ere, aldaera neutroak dira (bertze hedadura bat dute hondarreko biok). Gainera, Zubietako bakanen batek *ortzegun* eta *ortzila* ere erabiltzen ditu. Datuok ez digute argi adierazten zein den Zubietako forma —bakarra—, bai, ordea, Zubietan hasten direla gauzak aldatzen, hizkuntza trantsizioa nabarmenago egiten. Isoglosen arteko ezberdintasuna oinarri hartuko dugu muga dialektalak finkatzeko, ezberdintasun dialektalei antzekotasunei baino garrantzi handiagoa emanez (Ivić 1962: 34-35).

Bukatzeko, *esan/erran* aldaera lexikala bertze zenbaitekin biltzen ahal dela ohartu gara. Horrela, lexikoan dagoen aldakuntza giroa hizkuntzaren bertze mailak diren fonetika-fonologian nahiz morfosintaxian gertatzen ote den jakin dezakegu. Hala izatera, trantsizio lektal baten aitzinean egonen gara.

### 3.6. Esparru lektalak eratzeko proposamen metodologikoak

Esparru lektalak eratzeko ikuspegi metodologikoa aurkitzea daiteke gakoa: zeren arabera proposatuko dugu esparru lektal bat? Nondik nora finkatuko ditugu muga lektalak? Inondik ere galde-modu zailak, baina gisa berean, nolabaiteko erantzuna eduki behar dutenak, baldin eta ikerlan honetan dialektologia egiten jarraituko badugu. Ikertzailearen eginkizuna dialektoen mugak aztertzeo eta finkatzeko irizpide teoriko-metodologikoak lantzea da, ez lantegiaren zailtasunez kexu agertzea (Camino 2009, 10.1. atala).

Pello Salaburu euskaltzain osoak ahozko komunikazioan gaztigatu digunez, dialektologiaren jardunak hizkuntza aldaerak sailkatzera jo behar du. Dialektologoaren helburu nagusia taxonomia-lana litzateke, honen arabera: ikertzaileak behar du izan, ez bertze inork, datu dialektalak esparruka proposatu eta deuseztatzen dituen, multzo dialektalak teoria eta metodologia jakin bat aplikaturik azaltzen dituen.

Geolinguistikan jakina denez, eremu dialektalaren garrantzia handiagoa izanen da, zenbatez isoglosa gehiagok bereizten duten eremu bat bertze batetik. Zenbatez isoglosa gehiago kausitu bi hizkeraren artean, aldaera linguistiko horiek bi mul-

19 Guk ikusia eta aditua dugu Berako etxean, baztandar baten mintzoa imitatu nahirik, egiten den lehenbiziko gauza *-e* bat paratzea dela, baita Baztango euskararen gramatikak eskatzen ez duenean ere: *balone* ‘baloia’, *zilue* ‘zuloa’...

tzotan sailkatzeko aukera handiagoa izanen dugu. Halako isoglosa sorta bat dialekto edo hizkeren arteko mugak ezartzeko lanabestzat hartzen ohi dugu dialektologian.

Alabaina, frankotan gauzak ez dira nahi bezain argiak izaten. Isoglosa batzuk bertze batzuk baino adierazgarriago suertatzen dira, horietako batzuei garrantzitsuago baiteritzegu. Isoglosen kopuruaz bakarrik mintzatu beharrean, hauen dialektologia garrantziaz ere aritzea ezinbertzekoa zaigu; nahiz eta garrantzizkoenak zein diren erabakitzea hain erraza ez gertatu (Ivić 1962: 48).

Oro har, dialektologialariak berrikuntza eskusiboak, bateratzaileak eta sistematikoak maite ditu, taxonomia egiteko lanaren zama arintzen dioten heinean. Baina hizkuntzaren konplexutasunak ez du kartografoen logika segitzen gure begien aitzinean. Hizkuntzaren ezaugarriak ez dira asmatu guri errateko gauzak nolakoak izan diren, nolakoak diren eta nolakoak izanen diren ere. Gurea bezalako erdiguneko eremu batean, gainera, hagitz zaila izanen da honako tasunak kausitzea. Beraz, metodologia aztertu nahi dugun eremuaren arabera moldatu beharko dugu ezinbertzez. Konparazio, Koldo Zuazoren 1998ko lanak Euskal Herri osoa jomuga zuenez, hizkuntzalari eibartarraren eredu metodologikoak eta Baztan-Bidasoa linguistikoki aztertu nahi duen lan honetarakoak ez dute zertaz berdin-berdinak izan.

Iñaki Caminok hego-nafarreraren egitura geolinguistikoa zein den erabakitzeko ondoko sei irizpideok lehenetsi ditu bere lanean (2004: 58-61): (i) eksklusibotasuna, ia eksklusiboak diren ezaugarriei ere garrantzia aitortuz; (ii) geografiaren iragazkia, ezaugarri banatzaileak diren edo ez; (iii) geografia hedadura, zabal edo murrizta; (iv) ezaugarriak berrikuntzak, arkaismoak ala hautuak diren bereiziz; (v) ikuspegi diakronikoa eta (vi) sistematikotasuna. Bertze alde, berriz, Koldo Zuazok bere hondarreko lanetan (1998, 2003) erabilitako ikuspegi arealak eraman du hizkuntza ezaugarriak hautatzeko irizpideak hiru mugatzera: (i) hedadura zabal, (ii) maiztasun handia eta (iii) emankortasuna. Zuazok, euskal gizartean ezagun egin den euskalkien sailkapena lortze aldera, datu sinkronikoak (eta ez diakronikoak) eta berrikuntzak (arkaismoak bazter utzirik) hartu ditu aintzat.

Nor ote da bietatik oker dabilena? Gure ustez, zilegi bekigu gure dialektologo nagusiak *epaitzea*, bi ikertzaileak zuzen dabilta: errealitate diferenteak ikertu eta arakatu dituzten neurrian, errealitate dialektalak neurtzeko proposamen teoriko-metodologiko ezberdinxeak baliatu behar izan dituzte. «Nolako esparrua, halako metodologia» leloa da gu lerro hauen bidez aldarrikatzen ari garena. Ez baita gauza bera Euskal Herria osoki aztertzea edo eskualde (zabal) bat; izan ere, ezaugarrien sistematikotasunaren eta emankortasunaren gaia, aztertu nahi den eremuaren hedaduraren arabera da: eremu ez arras handian sistematikoak ez diren eta hedadura murrizta duten ezaugarriek ere garrantzia eduki dezakete, batez ere ezberdintasunak edo mugak finkatzera laguntzen badute (Camino 2004c: 78).

Arestiko bi adibide bikainen ondotik, galdera nagusia egiteko tenorea iritsi zaigu: zein daiteke Baztan-Bidasoa egokiro aztertzeke eredu metodologikoa? Saia

gaitezen afera garrantzitsu honen inguruko argi zerbait egitera. Gure argitxoa, betiere.

Ezaugarriak hautatzeko gure irizpide nagusiei dagokienez, koherentzia geolinguistikoa erakusten duten ezaugarriak multzoka biltzea izan liteke datu dialektalak antolatzeko eta sailkatzeko modu bat. Goitiago erakutsi den eran, eskualde baterako eredu metodologikoaz den bezainbatean, guk ere ezaugarri sistematikoak direnak eta horren sistematikoak ez direnak baliatuko ditugu; gramatikan emankor direnak eta horren emankor ez direnak; berriak direnak eta horren berriak ez direnak, jakinik denek ez dutela dialektologia garrantzi bera: isoglosa sistematikoek, emankorrek eta berriek gainerakoek baino balio sailkatzaile handiagoa dute. Orobat, dialektologia tradizionalak isoglosen garrantziaz erakusten duenez, hedadura zabaleko isoglosei balio handiagoa aitortzen ohi zaie.

Honenbertzez, koherentzia geolinguistikoaren araberako eremu lektalak proposatuko ditugu: norabide berean doan ezaugarri multzo bat aurkitu dugularik, esparru lektal bat proposatzea erabaki dugu. Erraterako, Ipar Euskal Herriko isuria agertzen duten ezaugarriak multzo batean sartu ditugu. Espero ahal den bezalaxe, Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duten nahiz historikoki harreman gehien izan dituzten herriak bateratsu ageri dira. Ez maila berean, jakina, perfektuegia bailitzateke guretzat, baina ezaugarriok iragan garai batean eremu bateko hizkerak dinamika berean zeudela frogatzen ahal dute. Eta ezaugarri multzoa gotorra eta sendoa baldin bada, lotura ere azkarragoa (izan) den seinale garbia. Gero, ikusten badugu, Ipar Euskal Herriko ezaugarri horiek dituzten herri horietan ez daudela Nafarroan (eta gune zabalago batean) ohi diren bertze batzuk, jabetuko gara zenbait herri eta toki Nafarroara begira egon diren bitartean, bertze batzuk, ordea, Ipar Euskal Herrira begira egon direla. Hortxe hasiko dira ezaugarriak beren lana egiten: herriak bateratu edo banatu, eremuak osatuz eta bereiziz.

Esparru dialektalen arteko banaketa garbia eta zehatza egiteko zailtasunak direla eta, bereziki gurea bezalako erdigune batean, ikertzaile frankok *continuum* delako kontzeptua hobesten dute. Alarcosek ematen digu arestikoaren berri (1976: 139):

Pero cuando se han querido dar los límites geográficos de un dialecto, se ha tropezado con el hecho de que son frecuentemente borrosas y graduales: unos fenómenos penetran en zonas aleñañas, otros no alcanzan la extensión total de la «región dialectal». De ahí que se haya manifestado la idea de que los dialectos forman un «continuum» sin límites precisos, que varían insensiblemente, y se haya hablado de «dialectos de transición».

Erdaratiko mailegu berrietan, *-on* bukaera nafarreraren ezaugarri eskusibotzat hartzen da egungo Euskal Dialektologian. Fenomeno honek, hala ere, maila ezberdinak ageri ditu Nafarroan barrena. Baztan-Bidasoari dagokionez, Baztanen, Bertizaranan, Sunbillan eta Malerrekan, Nafarroako gainerako herri eta ibarretan bezala, *bastona*, *limona*, *koltxona* edota *sermona* erakoak arauzkoak ditugu. Bortzerrietan, ordea, *bastoya*, *limoya*, *koltxoya* eta *sermoya* (nagusi) ditugu. Datuok

ikusita erran liteke Sunbillaren eta Bortzerrien artean badela muga garbia, baina afera ez da hain erraza: izan ere, Bortzerrietan ondoko bikote hauek bilduak ditugu hizkera naturalean *frontona & frontoya*, *garrafona & garrafoya*, *kañona & kañoya*, *marrona & marroya*, *ormigona & ormigoya*. Areago, nagusi diren aldaera hauek ere aditu ditugu: *abiona* (*abioya* baino aise gehiagotan), *balona* (*baloya* baino aise gehiagotan), *kamiona* (*kamioya* baino aise gehiagotan) eta bertako aukera bakartzat dugun *kordiona* ‘akordeioa’. Zinez, egoera konplexua.

*Continuum* baten argazki egokia liteke, beraz, Nafarroaren eta Gipuzkoaren artean kausitu uste duguna, zeinean Nafarroatik Gipuzkoarako hizkuntzaren trantsizioak lau edo bortz maila diferenteren berri ematen baitugu: (i) Nafarroako berrikuntza espezifikoa den *-on*; (ii) Bortzerrietako lehia konplexua islatzen duten *-oi* (bereziki adin batetik goiti) & *-on* (bereziki gazteagoen artean); (iii) Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 39) eta Leitzan (Olano 1998: 81-82) *-on* emaitza bakarrak omen diren *abiona*, *kamiona* eta *kordiona*; (iv) Hondarribian eta Irunen, adinekoen artean nagusiki, *balonka* (baina *baloya*), *kamiona* eta *porrona* bildu ditu Sagarzazuk (2005: 73); eta, azkenik, (v) Gipuzkoako herrietan erabiltzen den *-oi* forma bakarra genuke. Lau edo bortz maila genioen, ez baitugu argi Goizueta-Leitza eta Hondarribia-Irun bikoteek taldekatze ezberdina behar duten ala ez. Lehen bi herrietan gazteek ere forma nafarrak erraten dituztela eta, Hondarribia-Irunen ez bezala, Leitzako eta Goizuetako solasek nafar itxura handixeagoa hartzen (eta hartuko) dute gure iduriko, ezaugarri honetaz den bezainbatean.

Espazialki, zaila izaten da trantsizio-gune nabarmenak aurkitzea, baina honek ez du erran nahi toki batetik bertzera ezberdintasunik ez dagoenik (Trudgill 1990: 6):

If you travel from one part of the country to another, you will most often find that the dialects change gradually as you go. The further you travel, the more different the dialects will become from the one in the place you started, but the different dialects will seem to merge into one another, without any abrupt transitions.

Ekar dezagun euskararen herrira arestiko adibidea: Mutrikutik Imotzeraino ezaugarri eskusibo guti ageri da, nahiz eta muga batetik bertzera alde handia dagoen; Igantzitik Aezkoara ere bada alde, baina herriz herri, ibarrez ibar joanez gero, ezaugarri espezifikoko guti aurkituko dugu. Hizkerok *continuum* batean daudela erraten dugu, baina ez du iduri Mutriku, Goldaratz, Igantzi eta Garralda herrietako solasa bera denik. Nola finkatu muga lektalak? Zeren arabera erranen dugu Goldaratzten euskara bat egiten dela, eta Beran bertze bat, ezaugarri eskusiborik ezean eta herriz herriko leze linguistikorik ezean?

Euskal Herriko erdigunean den Baztan-Bidasoa dialektologikoki aztertzeke, gure proposamen metodologikoa irizpide kualitatiboetan sakontzea da irizpide kuantitatiboetan baino gehiago. Adibidez, *i+a>iya* & *i+o>iyo* epentesiak (*mendiya*, *ogiya*, *oliyo*...) Gipuzkoan arruntak direla badakigu, bai eta Bortzerrietan eta Sunbillan ere. Hala ere, zehaztu beharra dugu, Gipuzkoan sistematikoak diren bitartean, Bortzerrietan eta Sunbillan /i/ hori azentuduna delarik soilik sistematizatzen

direla iduri duela; hau da, beti erraten da *egiya* nahiz *ogiya*, baina gehiagotan adituko dugu *bazkaria bazkariya* baino. Nafarroako Bidasoaldean, ezaugarri hau gibelka joaki da, gazteek zaharrek baino gutiagotan erabiltzen baitute. Bertze alde, epentesia duen absolutiboari inesiboa eransten zaionean, bi emaitza kausitu ditugu: Beran eta Etxalarren *mendiyan, erriyan* modukoak gailen dira, Lesakan, Igantzin, Arantzan eta Sunbillan *mendiyin, erriyin* modukoak nagusi ditugu. Ikuspegi geolinguistikoa txertatuz gero, *-yin* erakoak, berriagoak, Oiartzunen ere badaude (Fraile, A & Fraile, I. 1996: 43); *-yan* erakoak, berriz, Aranon (Zubiri & Perurena 1998: 75), Hondarribian, Irunen, Hendaian, Biriatur, Urruñan, Azkainen eta Donibane Lohizunen (Pedro de Yrizar 1997: 258-259). Azkenik, Doneztebe inguruan, Bertizaranan eta Oronoz-Mugairin ere bada epentesi zerbait, baina hagitz irregularrak. Nolanahi ere, hondar herri hauetan epentesiak gertatzen direlarik, *-yin* erakoak nagusitzen direla ohartu gara.

Irizpide kualitatiboei esker mailak bereiz ditzakegu, hizkuntzaren errealitatearen kolore ñabarrari etekin handiagoa atereaz: (i) Bortzerriek eta Sunbillak bat egin dute Gipuzkoarekin, baina han arau edo erregela fonologiko sistematikoa dena ez da horren sistematikoa Nafarroako herriotan; (ii) Gipuzkoatik heldu den berrikuntza Oronoz-Mugairiraino iristen da arras lausotu arte; (iii) gertakari epentetiko honi inesiboa eranstea bi multzo aurkitu ditugu: Arano, Hondarribia, Irun, Lapurdiko herriak, Bera eta Etxalar, geolinguistikoki iparralderago koka dezakegun saila; eta, Oiartzun, Lesaka, Igantzi, Arantza, Sunbilla, Doneztebe, Elgorriaga, Bertizarana eta Oronoz-Mugairi, geolinguistikoki hegoalderago koka dezakeguna.

Lehenago aurkeztu Zubietako kasu jakin horretan bezala, arestiko honetan ere erkatu beharko dugu bertze zenbait ezaugarriekin, ea ezaugarri gehiago biltzen dugun ardatz honen arabera. Gauzak hala izatera, esparru bereziak marraztera laguntzen duten item linguistikoa direla gogoan harturik, eremu lektal bat postulatu beharrean egonen gara. Halarik ere, isoglosen kopuruak berezko garrantzia duenez haratago, metodo kualitatiboak koherentzia geolinguistikoaekin uztartzeko komenientziaz ohartarazi gogo dugu: hizkuntzaren azterketan erakutsiko dugunez, usu Gipuzkoatik heldu den eragin lektala, Bidasoa ibaian goiti, Baztango atarian iraungitzen da. Batzuetan, lehenago, isuri lektal beraren eragin-maila diferenteak agertuz: (i) Bortzerrietaraino, (ii) Sunbillaraino edo (iii) Bertizaranaraino; gutiago batzuetan, (iv) Baztango Basabururaino ere iristen da<sup>20</sup>. Herriz herriko geografia hedadura zehatzak emanen digu lupa goratzeko aukera, muga lektalik behinenak begiztatu ahal izateko.

Aitor dugu, koherentzia geolinguistikoa eta irizpide kualitatiboak gorabehera, arazoak utzi ditugula konpontzeko. Dialektologiaren historian inork ez baitu erdie-

20 Erraterako, *u* erdibokalaren kontsonantizazioa, *u* bokala diptongoaren bigarren osagaia delarik, *gaba, gaberdi, kristaba, labak, labetanogei* eta *eskolaba* 'elizmutil' etsenpluak Baztango Basaburuan bildu ditugu, hain zuzen, *iñe, ille* moduko palatalizazioak gertatzen diren lau herrietan. Zenbait ezaugarri elkarri lotu ahal/behar direlako bertze frogak bat.



tsi zein isoglosak edo isoglosa sortak duen mailarik gorena eta erabakigarriena zehaztea:

Yet in the entire history of dialectology, no one has succeeded in devising a satisfactory procedure or a set of principles to determinate which isoglosses or which bundles should outrank some others. The lack of a theory or even a heuristic that would make this possible constitutes a notable weakness in dialect geography (Chambers & Trudgill 1980: 112)

That is the problem with which we began this book: how is dialect to be defined? What distinguishes one dialect from another? Are there boundaries between dialects, and if so, how are they to be identified? (Francis 1983: 151)

Dialektologiaren historian behin eta berriz errepikatzen dira hurrengo galderok: Zenbat isoglosa eta zenbat ezaugarri berezi behar dira hizketa bat definitzeko? Sorta tinko eta gotorra osatu behar ote dute isoglosok? Aski ote da isoglosa edo ezaugarri bakar bat? (Camino 2003a: 430).

Problematika historikoari konponbidea eman nahian, ikertzaile batzuk saiatu dira (Séguy, Guiter, Goebel, García Mouton etab.) dialektometria izenaz ezagutzen dena aplikatzen. Dialektometriaren xedea da puntu batetik —herri batetik— bertze batera dagoen hizkuntza urruntasuna neurtzea, isoglosei ezarritako indizeetan oinarrituz. Metodo hauek bi dialektoren arteko urruntasuna, hurbiltasuna, berdintasuna eta ezberdintasuna neurtzen dute, subjektibitatean oinarritzen ez diren metodologia neutralagoak erabiliz. Geolinguistikari aplikatutako zenbaki-taxonomia honek zenbait ekarpen interesgarri egin ditu, bereziki emaitzen ilustrazio grafikoan.

Hizkuntzalari zenbaitzuek, ordea, dialektometriaren jardun kuantitatibo-matematikoari arazoak ikusi izan dizkiote: zer eta nola neurtu ez da behar bezala zehazten; neurtzen den horri zer garrantzi ematen zaion. Hitz batez, ezaugarrien artean ponderaziorik ez egitea kritikatu zaio nagusiki (Francis 1983: 165, Camino 1997: 31).

Europa alderdietako dialektometria Euskal Herrira ekarri izana zor diogu Goitzon Aurrekoetxea ikertzaileari: «hizkeren arteko distantziak zenbakitan jartzen dira lehen aldiz euskararen kasuan» zioskun bere doktorego-tesian (Aurrekoetxea 1995: 14). Lan honetaz landara, Nafarroa Garaian Ana Maria Etxaidek bildutako emaitzekin dialektometria —edo lexikometria erran beharko genuke— saio bat egin zuen 1992an. Bertan espero izateko zenbait ondorio ageri dira: lexikoaren difusio-gunea euskararen eremuaren erdigunean dagoela; geografia hurbiltasuna hagituz loturik dagoela hizkuntza hurbiltasunarekin, nahiz eta salbuespenak dauden: Aurrekoetxeak egindako azterketaren arabera, Lesakatik inguruko herri guziak Goizueta baino hurbilago daude. Ados gaude Aurrekoetxearekin Goizueta dela lexikalki (nahiz linguistikoki) gehien aldentzen den Bortzerrien inguruko herri nafarra. Hala ere, hizkuntzalari bizkaitarraren datuek hori adierazten badute ere (1992: 107), Lesakatik Aurizko lexikoa Goizuetakoa baino hurbilago egotea aski sinesgaitza zaigu.

### 3.7. Laneko terminologia

Ezinbertzekoa iduritzen zaigu lan honetan zehar maiz agertuko diren zenbait terminoren gainean bi hitzegitea. Ez da gure asmoa inondik ere, Euskal Dialektologian daudekeen terminologia arazoak konpontzea, baizik eta gure tesian erabiliko ditugun kontzeptu batzuk behar bezala argitzea.

Adibidez, nondik nora erraten ahal dugu *atzendu a(a)ntzi* baino nafarragoa dela? *zinauden* vs. *zauden* lehian, zein ote da ezaugarri nafarra? *nuaye* nafarra baldin bada, zer dira *naye* eta *nae* aldaerak? Bada, goitiago azaldu ditugun isoglosek eta geolinguistikak dute gakoa, giltza, ezaugarri baten geografia hedadurak emanen baitigu honen berri. *atzendu* nafarra dela diogu, Nafarroa gehienez ageri delako. *a(a)ntzi*, berriz, Ipar Euskal Herri osoan nahiz muga inguruko zenbait hizkeratan ageri da: Luzaiden, Baztangoizan, Urdazubin, Zugarramurdin, Bortzerrietan, Irunen eta Hondarribian. Bistan da, hortaz, *ahantzi* Ipar Euskal Herriatik heldu dela, eta muga gurutzatu baldin badu, mugaren bi alderdietako herrien arteko hartu-emanengatik izan dela: badugu Etxalarren, eta ez, ordea, Donamarian; badugu Erratzun, eta ez, ordea, Zigan.

«egon» aditzari dagokion *zinauden* ‘zeunden’ aldaera Nafarroako eremu zabaLEAN ageri da. Ez bertan bakarrik, Ipar Euskal Herriko hizkeretan ere badugu. Bortzerrietan, aldiz, ez da ezaguna, hemengo herrietan *zauden* analogikoa baliatzen baita. Analogikoa diogu Bortzerrietan eta bertze hainbat lekutan ere iraganeko zenbait adizki osatzeko oraineko adizkiari *n* bat eransten baitzaio: *zaude* + *n* (lehenaldiko marka) > *zauden*; *nuaye* + *n* > *nuayen* ‘nindoan’. Hortaz, *zinauden* edo *nindaiyen* ‘nindoan’ bezalakoak gordetzea ez da berez nafarra, Nafarroatik kanpo ere aski ezagunak baitira, baina argi dago isoglosa honek Euskal Herria banatzen duela: — *in*— artizkia duten adizkiak, batetik, eta ez dutenak (bigarren hauek analogikoak izan edo ez), bertetik. Bertizaranan, Baztanen, Erroibarren, Aezkoan eta Baigorriin baditugu, errate baterako; ez, ordea, Bortzerrietan. Kasu honetan, honenbertzez, ezaugarri (esklusiboki) nafarra ez bada ere, eremuak bereiztera laguntzen digun tasun supradialektala da.

Ezberdina da hurrengo kasua, *nu(a)ye*, *naye* eta *nae* ‘noa’ nafarrak baitira. Hirurak erabiltzen dira Nafarroan, eta hirurak ere ez dira ohikoak Nafarroatik kanpo. Beraz, euskara nafarraren ezaugarri eksklusiboa daiteke. Halarik ere, monoptongazioak Nafarroan barrena hiru eremu ezberdin idurikatzen ditu: *nu(a)ye*, *gu(a)ye*, *du(a)ye*, *guzi*, *zuzi*, *zuzte*, *duzi* Malerrekan, Sunbillan, Bortzerrietan eta Bertizaranan aldaera nagusiak dira; *naye*, *gaye*, *daye*, *gazi*, *zazi*, *zazte*, *dazi* Baztanen ditugu<sup>21</sup>; *nae*, *gae*, *dae* laburtuak Esteribarren hasi eta Aezkoaraino iristen dira. Hiru eremu dakuskigu, hirurak nafarrak izanik ere.

Aipatu berri dugunaren arabera, ezaugarri bat nafarra dela erratean, bereziki Nafarroa gehienez erabiltzen den tasuna dela adierazi nahi dugu. Era berean, zer-

21 Atetzen, Anuen, Ultzamako herri batzuetan eta Imozko bertze batzuetan *nuaye*, *duaye* modukoak erabiltzen dira (Ibarra 1995: 478).

baitek erdialdera begira jartzen gaituela erraten dugunean, batez ere erdialdean erabiltzen dela erran nahi dugu, eta ez Nafarroan. Berdin Ipar Euskal Herrira begira jartzen gaituzten ezaugarriez ari garelarik.

Oro har, dialektologian hiru eremu mota nagusi bereizteko ohitura dago: *focus* delakoa, gune indartsua dena eta berrikuntzen hedatzaile gertatzen dena; *relic* ize-nekoa, gune indartsuekiko saihetsekoa izanda, ezaugarri zaharrak gordetzen ohi dituen; *transitional* delakoa, trantsizioko eremua bi gune fokalen artean kokaturik ohi denez, hizkuntza joera baten baino gehiagoren eraginpean gelditzen dena (Camino 2009, 9. atala).

Laugarren atalean ikusiko dugun bezala, Malerrekako eta Basaburu Txikiko *brigde dialect* edo zubi-hizkerak aztergai izanen ditugu, eta, zortzigarrenean, adibidez, Baztango eta Bidasoaldeko trantsizio linguistikoaz mintzatuko gara; izan ere, Baztan-Bidasoa eremu trantsizionala da, goragoko sailkapen klasikoaren arabera. Alabaina, zertaz ari gara zubi-hizkerez edota trantsizioaz ari garelarik? Günther Haenschek Katalunia eta Aragoi bitarteko mintzoen gaineko artikuluan dio aragoieraren eta katalanaren artean ez dagoela trantsizioko dialektorik, baina bai elkarren arteko eragin ugari eta forma hibridoak. Halaber, Aragoi eta Katalunia bitarteko hizkerak dialektok izaterainoko nortasun linguistiko propioak ez izanagatik ere, bi hizkuntzon arteko «una separación neta, una frontera bien delimitada entre el catalán y el aragonés» dagoela diosku hizkuntzalari germaniarrak (Haensch 1962: 94). Hau da, katalanaren eta aragoieraren *ertzak* lotzen dituen zubi-hizkerez ari zaigu, batetik bertzerako trantsizio-eremuaz.

Nafarroan ere aurkitu uste ditugu honelako egoera analogoak, non hizkuntza trantsizioa nabarmenago egiten den, non herri batetik berte baterako bidaian aldaketa-giroa aiseago sumatzen den, non muga lektalak ageriago antzematen diren. Halako esparruei deitu diegu trantsizio-eremu; halako mintzoei zubi-hizkera. Dena den, pentsatzekoa denez gero, topatu ditugun zubi eta trantsizio guztiak ez dira neurri berekoak. Hori dela eta, kasuan kasuko iragatea ahalik eta zehatzen definitzera saiaturiko gara, hizkeren arteko muga lektalak ponderatuz.

Euskalkien gaineko literaturan agertu eta onartua denaren arabera, bada euskara dialektal mota bat «nafarrera» edo «euskara nafarra» izendatzen ohi dena. Halaber, arestiko euskara nafar honen ondoan, bada berte euskara dialektal bat orain «erdialdekoa» erraten duguna, baina historikoki eta berriki arte «gipuzkera» izendatutakoa (Zuazo 1998, 2003).

Jakitun gara hizkuntzaren azterketa muga edo trantsizio dialektal baten ingurukit abiatzea ez dela estandarra gure herrian. Halarik ere, 1.6. azpiatalean nabarmendu bezala, euskara nafararen eta erdialdekoaren arteko iragateari buruzko berri zehatzik ez dugu kasik. Hori dela eta, Euskal Dialektologian Nafarroako muga dialektal nagusiak ongi ezagutu eta denen artean adosteko asmoz, erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa hartuko dugu hizpide hurrengo atalean.

## **4. Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa**

---



#### 4.1. Sarrera

Atal honetan aztertu nahi dugu erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa non eta nola gertatzen den. Horretarako, Zubieta, Saldias, Beintza-Labaien eta Goizuetako hizkeren ezaugarri nagusiak aztertuko ditugu; baita Leitza, Ezkurra eta Eratsun herrietakoak ere, bigarren maila batean. Ondotik, Oiartzun eta batez ere Irun-Hondarribia mintzagai hartuko ditugu konparazio linguistikoan. Aipatu herri guziok ondoko herri nafarren ondoan paratuko ditugu, geografian barrena sortzen diren eten eta kidetasun nagusien berri emateko. Bukatzeko, nafarrera eta erdialdea eremu dialektalak finkatzera laguntzen ahal duten zenbait item eta aldaera lexikal proposatuko dira.

Bistan denez, herri bakarra da Baztan-Bidasoaren barrenean dagoena: Zubieta. Gainerako herriak, oraingoz Gipuzkoakoak alde batera utzita, Basaburu Txikikoak dira, baina gure eremuarekin muga egiten duten neurrian, elkarren arteko harremanak usu gertatu dira. Goizueta izan ezik, Zubieta, Saldias eta Beintza-Labaien Leitza eta Doneztebe arteko ardatzean mugitu izan dira aspalditik (ikus 1.3 eta 1.4). Hurbiltasun geografikoa dela eta, Zubietako bizilagunek nabarmenago egin dute Doneztebe aldera. Goizuetak, berriz, Malerrekarekin baino Bortzerriekin izan ditu harreman gehiago, Arantzarekin bereziki. Bertze alde, Goizuetak mendebalean dituen herri gipuzkoarrek ere harreman aski emankorrek ditu eta izan ditu, Hernani inguruarekin batez ere.

Hondarreko urteotan, zenbait ikerketa interesgarri plazaratu dira: Leitza eta Areso aztertu ditu Mikel Olanok (1998) batetik, eta Goizueta eta Arano Juan Joxe Zubirik eta Patziku Perurenak (1998) bertetik. Tokian tokiko informazio zehatza emateaz gainera, inguruko hizkeretara begira, euskalkien baitako kokapena egin dute. Baita ohartarazi ere Bonapartek egindako sailkapena berri eta moldatu beharra dela. Lan hauen arabera, iduri du, Nafarroako toki anitzetan gertatu den bezala, bertako mintzoek erdialdera egin dutela, sustrai nafarra galduz eta Gipuzkoatiko tasunak hartuz.

Koldo Zuazok euskalkien sailkapen berria (1998, 2003) egin duelarik, Goizuetatik ezker gelditzen diren Eratsun, Ezkurra eta Leitza nafarreratik kanpo utzi ditu. Beintza-Labaien eta Goizueta eremuaren barrenean sartu ditu, Goizuetako adinekoen eta gazteen artean alde nabarmena dagoela aitortuz. Euskara nafarraren baitan sailkatu duen Beintza-Labaien herriko hizkerari buruz, aldiz, ez dugu berri zehatzik aurkitu. Azkenik, Saldias erdialdearen eta euskara nafarraren arteko ertz-

-ertzean paratu du 2003ko mapan (ez, ordea, 1998koan), nahiz herri honetaz ere informazio espliziturik eman ez duen.

Hortaz, Basaburu Txikiaren eta Malerrekaren arteko iragate linguistikoaz deus guti dakigu. Hori dela eta, Baztan-Bidasoan (eta maiz, ekialde zabalean) arruntak diren ezaugarriak eta erdialdean (nahiz mendebalean) ez direnak noraino hedatzen diren ikertu nahi genuen. Gakoa herriotan barrena dagoela iduri du, gure azter-eremuaren mendebaleko ertzean. Izan ere, sarri ikusiko dugunez, Malerrekandauden ezaugarri batzuk hemen aldatzen (hasten) dira; baita Gipuzkoatik heldu diren bertze batzuk ere. Nolabait, bi indar lektal topatzen dira elkarrekin: azter-eremuaren mendebaletik heldu dena eta ekialdetik heldu dena.

#### 4.2. Goizueta vs. Saldias, Beintza-Labaien

Goizuetako berri gehiago genuenez, bertako datuak hondarreko urteotan eskuratu ditugun Saldiasako eta Beintza-Labaiengoan ondoan paratzea gogoratu zaigu, interesgarria izan litekeelakoan. Jakina denez, Goizuetako (eta Aranoko) egoera ikertua da. Erran nahi baita bertako hizkera deskribatu, aztertu eta sailkatua dela. Lan hauen guzieren ondorioz, Goizuetako euskara euskara nafarraren baitan sartzea erabaki da, Gipuzkoako euskararen oihartzuna sumatzen bada ere (Perurena & Zubiri 1998, Zuazo 1998 eta 2003).

Gure ustez, Saldiasako eta Beintza-Labaiengo egoera hobeki ezagutzeak gure eremuaren eta auzoaren ikuspegi arealagoa ematen ahal digu batetik; eta bertzetik, Baztan-Bidasoan usu ageri diren ezaugarriak non hasten diren edota erdialdeko ezaugarriak non lausotzen diren ikusteko aukera izan dezakegu.

Goizueta erdialdean ez egoteko aurkeztu diren arrazoiak —tasunak— Saldiasen ere betetzen ote diren aztertuko dugu lehenik. Beintza-Labaien ere aipatuko dugu alderaketan, baita Zubietan ere. Betiere, herriotako hizkeren trantsizioa nola gertatzen den argitzera lagunduz gero. Euskarak ageri dituen eten eta muga nagusiak non diren erratea da gure xede nagusia.

Ezaugarriak (eskematikoki) aurkeztu aitzinetik, bagenuela halako intuizio bat aitortu behar dugu: Goizuetako euskara nafarra baldin bada, Saldiaskoa (eta Beintza-Labaiengoa) ere bad(ir)ela erraten ziguna. Beraz, maila aprioristikoa genuen iritzi hori zientifikoki frogatu nahi genuen. Nolanahi ere, hizkerak osatzen eta bereizten dituzten ezaugarri dialektalak edozein ideologia linguistikoren gainetik lehenetsi ditugula argi eta garbi adierazi gogo dugu. Hona hemen gure saioa:

#### Goizuetako solasa nafar egiten duten ezaugarriak

1. Aferesiak: *man, karri, zandu...*
2. Sinkopak: *txokolte, abistu, enkartu* ‘enkargatu’...
3. *ongi, obeki* aldaerak vs. *ondo, obeto*.

4. *-koz, -lako*z aldaerak vs. *-ko, -lako*: *ittekoz, naitzelakoz, zelakoz...*
5. *-(e)n* eta *-(e)la* perpaus konpletiboetan vs. *-(e)la* bakarrik: *uste dut biar torko den/dela*. Aukera bikoitza dago, beraz.
6. N-N-N saileko *-it-* pluralgilea: *ttiñat* ‘dizkinat’, *ttiot* ‘dizkiot’, *ttigu* ‘dizki-gu’...
7. *gotti, betti, aitz* ‘hagitz’, *arrunt, gaztanbera, patu, sobra, sarri, matelezu-rreko...* nafartzat edo ekialdekotzat hartzen ahal diren item edo aldaera lexikalak.

#### **Goizeta Gipuzkoatik urruntzen duten ezaugarriak**

1. «izan»en *-a-*: *zara, gara, zate* (vs. *zera, gera, zerate*)
2. \**j*-ren ebakera [j] da: *yoan, yosi, yan...* (vs. *joan, josi, jan...*)

#### **Erdialdearekin bat egiten duten Goizuetako ezaugarriak**

1. *-st-* kontsonante taldea dago Goizuetan ondoko Gipuzkoan bezala: *beste, bost, ostegun, ostiral* vs. *bertze, bortz, ortzegun, ortziral*. Isoglosa hau Ituren eta Zubietan artean dago, baita Bortzerrien eta Goizuetaren artean ere. Lehenbizikoetan *-rtz-* taldea dago, eta bigarrenetan *-st-*<sup>22</sup>.
2. *ikusten al dulez du ikusten al* bezalako egitura perifrastikorik ez dago Goizuetako mintzoan.
3. *al* galde-partikula arrunta da Goizuetan. Ezaugarri hau gehiago zabaltzen da, Malerreka osoan ere baliatzen baita.
4. *egin* indargarria ere maiz erabiltzen da Goizuetan. Malerrekan ere baliatzen da, baina maila apalagoan.
3. *nor/zein* izenordainak nahasi dira Goizuetan, Gipuzkoan bezalaxe. Malerrekan, Sunbillan eta Bortzerrietako Arantzan, Igantzin eta Lesakan ere bada zerbait, baina ez da inolaz ere iristen Goizuetako mailara.

Lehen multzoari dagokionez, gure datuen arabera, Goizuetako hizkera nafar egiten duten ezaugarri guzi-guziak betetzen dira Saldiasen eta Beintza-Labaienen. Salbuespenik gabe, gainera. Goizuetako euskarari nafar nortasuna ematen dioten ezaugarriak Saldiasen ere kausitu ditugu. Era berean, Goizeta Gipuzkoatik urruntzen duten ezaugarriak Saldiasen eta Beintza-Labaienen ere badaude. Basaburu Txikian eta Bidasoaldean hedatu diren berrikuntzak Goizuetara, Saldiasera eta Beintza-Labaienera iritsi dira. Beraz, orain arte Euskal Dialektologian argudiatu eta onartu denaren arabera, *nafartasunaren* maila berean genituzke Goizeta, Beintza-Labaien eta Saldias.

22 Erran gabe doa ekialderago dauden zenbait lekutako hizkeretan *beste* eta *bost* badirela, Nafarroa Beherean, adibidez.



Alabaina, Saldiasen eta Beintza Labaienen dauden zenbait ezaugarri Goizuetan ez daudela jabetu gara. Ezaugarriok Baztan-Bidasoan arruntak dira. Ez, ordea, Gipuzkoan. Segidan, ez lehenago bezain eskematikoki baina laburrean, Euskal Dialektologian (hain) ezagunak ez diren argudio geolinguistikoen zerrenda bat proposatuko dugu:

### **Saldias eta Beintza-Labaien Nafarroara hurbiltzen dituzten ezaugarriak**

1. *unata*, *arata* adizlagunak daude Saldiasen eta Beintza-Labaienen (nahiz eta Saldiasen *auzkaldera* ‘harako aldera’ forma ere badagoen). Nafarroan eta Ipar Euskal Herrian dauden erak dira, hain zuzen. Goizuetan, berriz, *onontz* eta *orrontz* modukoak ditugu (ondoko Gipuzkoan aditzen diren *onuntz* erakoetatik aski hurbil).
2. Goizuetan, *-n-z* bukatutako aditzen geroaldiko morfemen artean *-ko* & *-en* lehia dago, lehena bigarrena baino maizago erabiltzen delarik. Saldiasen eta Beintza-Labaienen, berriz, *-en* da aukera bakarra, Nafarroan eta Baztan-Bidasoan bezala. Dena den, mendebalerago dagoen Leitzaan ere bada atzizki hau: *emaan* ‘emanen’, *yoaan* ‘joanen’, *esaan* ‘esanen’.
3. Goizuetako adinduen ahotan *apari*, *pamila*... berrikuntza giputzak daude. Formok, guk dakigula behintzat, Saldiasen eta Beintza-Labaienen arrotzak dira gazte nola zaharren artean. Gipuzkoan noizbait egindako berrikuntza hau ez da arestiko bi herrietara iritsi, beraz.
4. Goizuetan, bigarren pertsonako *y-* berrikuntza nafarra ez da batere sistematikoa: *yaiz* & *aiz*, *yoa* & *oa* eta abar aditzen baitira egunerokoan. Saldiasen eta Beintza-Labaienen, berriz, sistematikoa dugu. Egun, Euskal Dialektologian nafarreraren ezaugarri espezifikotzat hartzen den honen isoglosaren sistematikasuna Ezkurratik eskuin dago: Eratsunen ere sistematikoa da, eta Leitzaan, berriz, ez.
5. Berrikuntza linguistikoak diren *noye* ‘noa’, *goye* ‘hoa’, *doye* ‘doa’ erakoak, «joan» aditzean, Saldiasen eta Beintza-Labaienen daudela ikusi eta entzun dugu. Euskara nafarreko *nu(a)ye* / *naye* / *nae* eretatik hurbil samar dira bi herriok, Malerrekako *nuye* modukoetatik hurbilsko, hain zuzen. Goizuetan, berriz, honako berranalisisirik ez da gertatu eta *noa*, (*y*)*oa* erakoak erabiltzen dira<sup>23</sup>.
6. Saldiasen «egon» aditzaren iraganeko formak *nagon*, *ziñauden*, *giñauden* erakoak dira. Beintza-Labaienen are sail *nafarragoa* aurkitu dugu: *niñagon*, *ziñauden*, *giñauden*. Guk dakigula, era honetako adizkiak Malerrekan, Sunbillan, Bertizaranan, Baztanen, Ultzaman (Ibarra 1995: 484-485),

23 Dena den, Saldiasko seme eta erretore Jose Erasunek Campiónen *Orreaga* baladaren itzulpena *version al dialecto vulgar de Saldias* egin zuenekoan *doa* ageri da (Otxandorena 1997). Berrikuntza aski berria ote?

Esteribarren (Ibarra 2000: 184), Aezkoan (Camino 1997: 445) eta Ipar Euskal Herriko zenbait gunetan ohikoak dira. Goizuetan, aldiz, *neon*, *zaunden*, *gaunden* tipokoak aditzen dira, ondoko Bortzerrietan bezalatsu (hemen, *nagon*, *zauden*, *gauden*). Leitzan, berriz, *giñeuden* & *geunden* lehia dagoela ematen du.

7. Saldiasen eta Beintza-Labaienen honako formak aurkitu ditugu «eduki» aditzaren iraganean: *ziñaukin*, *giñaukin*, *ziñaukiten*. *-iñ-* duten honako adizki analogikoak ondoko Malerrekan eta Nafarroako gunen batzuetan erabiltzen direla dakigu, Ultzaman eta Basaburu Nagusian erraterako (Ibarra 1995: 480-481). Goizuetan, aldiz, *zanaukan* & *zanaukin* modukoak erabiltzen dira.
8. *-rtz-* kontsonante taldeaz den bezainbatean, egoera konplexu samarra aurkitu dugu. Beintza-Labaienen *ortzeun* ‘ortzegun’, *urtzila* ‘ortzirala’, *bertze* eta *bortz* bederen bildu ditugu, nahiz eta *beste* eta *bost* ere entzun ditugun. Isoglosa hemen barrena igarotzen da, nolabait: (i) Iturengo auzoa den Aurtitzen (eta hemendik ekialdera) *bertze* modukoak aukera bakarria dira; (ii) Beintza-Labaienen lehia dagoela iduritu zaigu; (iii) Zubietatik ezker, ordea, *-st-* taldea nagusi bide da nahiz eta guk Zubietan berean, *ortzeun*, *urzila* erakoak bakan bildu ditugun. Halaber, *erran* & *esan* aldaerak arestikoekin batean mugitzen direla iduri du: (i) *erran* Beintza-Labaienen, Iturenen, Urrotzen, eta ekialderago dago; (ii) *esan* Zubietan, Saldiasen, Goizuetan, eta mendebalerago. Bertze alde, *ertze* eta *mazurtza* Eratsuneraino iristen dira, Ezkurran hasten baitira *este* eta *masusta*.

Beintza-Labaien Nafarroako inguruko hizkeretara hurbiltzen duten zortzi ezaugarri aurkeztu ditugu, Saldiasen kasuan zazpi dira. Gehienak garrantzizkoak direla uste dugu, Nafarroako euskararen isoglosa aski garbiak marrazten dituzten heinean. Eguneroko hizketan aditzen ahal diren isoglosa hauek Goizueta batera eta Zubieta, Saldias eta Beintza-Labaien bertzeraz uzten dituzte. Zortzi ezaugarriotan ikusi denez, Zubieta, Saldias eta Beintza-Labaien herriek ekialderago diren herri nafarrekin batera joateko joera (handiagoa) ageri dute, Goizuetaren ondoan.

Bertze alde, Saldiaстик mendebalera dauden herriak, Eratsun, Ezkurra eta Leitzan, gehienetan erdialdearekin batean ageri dira; nahiz eta uste dugun herriotan dena ez dela bat. Goitik begiratuta, oro har, (i) Ezkurra Leitzari atxikia ageri da, eta (ii) Eratsun Saldiaстик eta Beintza-Labaiendik hurbilxeago. Zernahi gisaz, iduri du Eratsunen ez direla bi indar topatzen, hiru baizik: Gipuzkoatik heldu dena, Malerrekatik heldu dena eta Basaburu Nagusitik heldu dena. Rosa Miren Pagolak ere bere tesian aipamen berezia egiten du herri honetako solasaren (fonetikaren) gainean:

Eratsun zeharo kanpora atera behar da Bonaparte-ren sailkapenetik, Basaburua Haundiko eta Aldatz-ko hizketetatik hurbilago bait dago. Gainera lehendik datorren giroa ere nabari da, beharbada mendearen hasieran mendebal detetik sartu zen eraginez (1992: 285).

### 4.3. Garrantzizko isoglosa bat: azentuera

Azkenaldian zenbait lan interesgarri argitaratu baldin badira ere (ikus bereziki Hualde 1997 eta Gaminde 1998), tamalez, azentuera erabat zehaztu gabeko esparrua dugu oraindik Euskal Dialektologian. Halarik ere, aski garrantzizkoa deritzogu hizkuntzaren momenturoko alderdi ageriko honi, zinez bereizgarria suertatzen delako<sup>24</sup> nahiz horren *erruz* zenbait fenomeno fonetiko gertatzen direlako (euskara nafarra determinatzera laguntzen duten ezaugarri berezien artean, aferesiak eta sinkopak errate baterako).

Altxo honetan, bi gauza egin ditugu nagusiki: (i) bibliografiak azentuari buruz eskaintzen dituen berriak laburbildu eta iruzkindu; eta, (ii) berriok gure datuen aldean paratuz, nolabaiteko muga lektal batzuk proposatzeko eginahalak eginen ditugu, herriak eta hizkerak garrantzizko isoglosatzat jotzen dugun azentu-ereduaren arabera multzoka sailkatuz. Hona hemen laburbilduta, beraz, gure eremuko azentuaz arduratu diren ikertzaile nagusiek erran dutena:

1. Koldo Mitxelenak egindako sailkapenaren arabera (1972), *Bidasoaldeko* azentua IV. tipoa sartuko litzateke. Saldias ez da bertan aipatzen; bai, ordea, Beintza-Labaien:

This last accentual system recognized is that prevailing on the Southern bank of the lower reaches of the Bidasoa river: Fuenterrabia, Irun, and the Cinco Villas (in Basque, Bortzerrieta) of Navarre. It extends at least as far as Beinza-Labayen, some 10 km. to the Southwest of Santesteban [...] (1972: 115)

Mitxelenak deitutako *Bidasoan type* sistemaren arau orokorra azentua bigarren silaban ezartzea da [+2] *katúa, itxía, uskára, gaizkí, ongí...*; erroa silaba bakarrekoa baldin bada, azentua lehen silaban joaten da *lúa, órtik, bígar(re)na, seíra* ‘seina’; hitz markatu batzuetan ere azentua lehen silaban joaten da *bágua* ‘pagoa’, *órma, píkua...* Arauok Saldiasko azentuaren ondoan paratzen baditugu, Saldiaskoa ere halakotsua dela ohartuko gara: herri honetan, sistemaren arau orokorra [+2] da; erroa silaba bakarrekoa baldin bada, azentua lehen silaban joaten da eta hitz markatu batzuetan azentua lehen silaban ezartzen da. Egia da, gure datuen arabera betiere, Saldiasen hitz markatu gehiago aurkitu ditugula, segur aski, azentu-moldea hemen barrena aldatzen hasten den seinale. Alde horretatik, Saldiasko emaitzak dira: *óngi, gáizki, áma, á(i)tta* (hondarreko biok Malerreka osoan ere bai)...

24 Lan honen hirugarren ataleko «oharmenezko dialektologia» izenekoan erran bezala, galdetuz gero zerk bereizten duen ondoko herriko hizkera batetik, anitzetan erantzuna hauxe izaten da *ek idu(r)i du solasin ari di(r)ela kantari*. Hortaz, ongi prestatutako dialektologialariak hitzunek nabaritzen duten bereizketaren berri emanen balu, ahoskeraren edo prosodiaren arabera banaketa dialektologiko interesgarria genuke. Halarik ere, hagitz zaila da zehaztea non hasten den azentuera bat eta non bertze bat. Ahoskera edo prosodia sakon aztertuko duen ikerketa baten esperoan gelditu behar dugu oraingoz. Lerroa bederen aipatua da.

Beraz, Koldo Mitxelenak argudiatutakoa gure datuekin uztarturik, Saldiasera ere zabal daiteke *Bidasoan type* honen eremua.

2. Iñaki Gamindek hiru irizpide nagusiren arabera eratu du Nafarroako (nahiz Euskal Herriko) azentu ereduen sailkapena (1998: 26):

- Azentu bereizgarria bai edo ez.
- Azentua txertatzeko eremua hitzaren erroa den edo talde fonologikoa den.
- Azentua txertatzeko norabidea eta silaba.

Ikertzaile bizkaitarraren hiru irizpideok ezarrita, Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka, Labaien eta Zugarramurdi<sup>25</sup> multzo batean sailkatzen ditu, eta bi Basaburuak, Nagusia eta Txikia, bertze multzo batean, Labaien izan ezik. Tamalez, Saldiasen erreferentziarik ez da egiten. Dena den, arestiko irizpideok gogoan ditugula, Saldias lehenbiziko taldean legoke, Beintza-Labaien eta Baztan-Bidasoaren ondoan: azentu bereizgarria dago Saldiasen, erroa da eremua eta [+2] sistema da arau orokorra. Berriz ere, Saldias eta Beintza-Labaien multzo batean ditugu, eta Basaburu Txikiko gainerakoak, Goizueta barne, bertze batean.

3. José Ignacio Hualdek dioenez, euskal azentuari buruzko lehen aipamenetatik pentsatu izan da Bidasoaldeko hizkerek azentuera berezia dutela. Larramendik (1745), Bonapartek (1877) eta Azkuek (1931) bederen iritzi hau azaldu zuten (cf. Sagarzazu 1994). Halarik ere, [+2] sistema Euskal Herriko erdialdeko esparru zabal batean aurkitzen ahal dugu, ezberdintasun batzuk gorabehera. Bertze alde, Hualdek «Bortziriak edo Bidasoa Harana» aztertzean, Arantzako, Iturengo eta Labaiengo datuak erabiltzen ditu (1997). Hortaz, Mitxelenaren ildotik, Nafarroako Bidasoaldea Labaien herriraino behinik behin hedatzen du, azentueraz den bezainbatean.

Orain arte erran dugunaren arabera, Bortzerriek, Sunbillak, Malerrekak, Beintza-Labaienek eta Saldiasek eremu eta eredu mota jakin bat osatzen dute, dagoeneko bertze ikertzaile batzuek Bidasoaldekoa edo bidasotarra deitu izan dutena. Bidasoaldeko eredu honek muga egiten du bertze azentu eredu bat duten Ultzamarekin eta Baztanekin ekialdetik eta Lapurdiko herriekin iparraldetik. Zugarramurdi eta Urdazubi bi ereduon artean daude egun. Ondorioz, Bortzerrietan, Sunbillan, Malerrekan, Beintza-Labaienen eta Saldiasen ageri den azentubidea aski erdialdekotzat jo liteke, kokapen geolinguistikoa dagokionez.

Bertze alde, Goizuetak bat egiten du bi Basaburuekin, eta berriz, Nafarroako Bidasoaldeko hizkeretatik aldentzen da. Saldias eta Beintza-Labaien, ordea, eremuaren barrenean daude. Zalantzarik gabe, garrantzizko isoglosa dugu honako hau eskualdekako banaketak egiteko.

25 Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara aztertu duen Estibalitz Montoyak (2004a: 68-87) dio bi herriotako azentua bi ereduren arabera ezartzen dela, erdialdeko [+2] eta ekialdeko [-2] ereduen arabera.

BASABURUEN ETA BIDASOALDEAREN ARTEKO AZENTUAREN ISOGLOSA



#### 4.4. Goizueta vs. Leitza

Olanoren, Perurena & Zubiriren eta Zuazoren lanak konparatzen segitu nahi dugu guk azken urteotan lortutako datuekin. Honela, badakigu Goizuetako euskarak Leitzakora alde dagoela, baita Leitzakotik Aresokora eta hemendik Gipuzkoara arte. Ikerlanak uztartzearen ondorioz, Malerrekako mendebalean eta batez ere Basaburu Txikiko ipar-ekialdeko herrietan hasitako trantsizioak aipatu herriotan barrena segitzen duela ohartu gara. Aldaketak herriz herri gertatzen dira, bizigune batetik bertzera beti zerbait aldatzen delarik.

Lehentxeago ikusi dugun bezala, zenbaitetan isoglosak garbiak dira. Bertze batzuetan, ordea, gradualagoak dira, eta eremukako ikuspegia behar dugu ezberdintasunak geografian barrena nola sortzen diren konturatzeko. Nafarroan, guk hiru maila bederen sumatzen ditugu aldakuntza-giro honetan: (i) Zubieta-Beintza-Labaien-Saldiaстик Goizuetara; (ii) Goizuetatik Leitza-Ezkurrara eta (iii) Leitzatik Aresora. Trantsizioaren lehen urratsa (i) frogatu eta gero, Leitza ez dauden baina Goizuetan (eta Zubietan, Beintza-Labaienen eta Saldiasen) badauden ezaugarri nafarrak aurkeztuko ditugu ondotik:

##### Leitza ez dauden ezaugarri nafarrak

1. Lapurdin, Nafarroa Beherean baina batez ere Nafarroa Garaian entzuten ohi diren sinkopak eta aferesiak bakan gertatzen dira Leitza; Goizuetan, aldiz, arruntak dira bi fenomeno hauek eguneroko hizketan.
2. Euskara nafarraren ezaugarri eksklusibotzat jotzen den bigarren pertsona singularreko *y-* soinuaren berrikuntza Goizuetan eta Ezkurratik ekialdera ageri da gaur egunean. Leitza, ordea, ez. Goizuetan, dena den, ez da (Saldiasen bezain) sistematikoa.
3. Nafarreraren tasun espezifikotzat jotzen den N-N-N saileko *-it-* pluralgile berriaren ordeaz, *-zki-* orokorra dago Leitza. Goizuetan, aldiz, Nafarroa gehienez hedatu den *-it-* pluralgilea dugu sistematikoki: *ttio* ‘dizkio’, *ttigu* ‘dizkidu’, *ttit* ‘dizkiat’...
4. Kausazko perpausetan *-lakoʒ* bakana omen da Leitza; hagitzez gehiago erabiltzen da Goizuetan eta Baztan-Bidasoan.

##### Goizuetan ez dauden erdialdeko ezaugarriak, Leitza bai

5. Nork hirugarren pertsonaren marka, ondoko Gipuzkoan bezala, *-e* da Leitza *dizue* ‘dizute’, *due* ‘dute’; Goizuetan, aldiz, *-te* dago, Nafarroan bezala (*di*)zute, (*du*)te.

Ezaugarri anitz ez izanagatik, gehienak, gaurko Euskal Dialektologian, euskara nafarra edo nafarrera deitzen den aldaera dialektalaren ezaugarri espezifikoak baitira, hain zuzen ere, Goizuetari eta ondoko mintzo batzuei nafar kolorea ematen dietenak. Gainera, ezaugarri hauek guziak berrikuntzak direla kontuan hartu behar

dugu, hots, garai batean herri nafar askok batera eginak: froga linguistiko hauen arabera behinik behin, Goizueta eta ondoko herri nafarrak dinamika geolinguistiko beretsuan ibiliak baitira, Leitza ez bezala. Bertze alde, ezaugarri bakarra izanik ere, eguneroko solasean emankor samarra den *-e* hirugarren pertsonaren marka dugu Leitzako euskarari, baita ondoko Ezkurran eta Eratsunen ere. Goizuetakoan (nola Saldiaskoan), berriz, hizkera nafarretako *-te* dugu. Hitz batez, erdialderago (ez erabat erdialdean) kokatzen da Leitzako hizkera Goizuetakoa baino.

#### 4.5. Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa

Orain arte baliabide kontrastiboen bitartez agertu duguna pausatuko dugu lu-rean, geografian. Isoglosa garrantzizkoak marrazten dituzten tasunak ekarriko ditugu honat: batean, burura mintzo nafarrak ekarrarazten dizkigutenak; bertzean, al-diz, erdialdekoagoak. Hona hemen guk aurkitu ditugun isoglosa nagusiak, erdialdearen eta nafarreraren arteko iragatearen berri ematen ahal digutenak:

##### Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioa

1. Bigarren pertsona singularreko *y*-berria: Nafarroa gehienez erabiltzen den ezaugarria dugu. Ikusi dugunez, Goizuetan ez da sistematikoa (Aranon ez dago), eta Ezkurratik ekialdera ageri da. Gipuzkoako Bidasoaldean sistematikoa da, eta Donostia bitarteko hizkeretan bada zerbait.
2. «joan» aditzaren adizkiak: Saldiasetik mendebalera hasten da aditz honen paradigma aldatzen. Nafarroa gehienez ohikoak diren adizkien ondoan, hurrengo herrian, Eratsunen, bertzelako formak ditugu eta. Baita Goizuetan ere.

Goitiagoko bi ezaugarri berriez landara, ezaugarri multzo bat ere aurkitu dugu, erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioarekin bat egiten dutenak. Isoglosa hauek ez dira beti herri beretik igarotzen: batzuetan, Saldias, Beintza-Labaien eta baita Leitza inguruko herriak ere ageri dira Malerreka, Sunbilla, Bortzerriak eta Bertizaranarekin batean; bertze batzuetan, berriz, erdialdearen eta euskara nafarrearen arteko trantsizioa idurikatzen duten isoglosok Basaburu Txikia osorik uzten dute alde batean, Saldias eta Beintza-Labaien barne, mendebaleragoko hizkerekin batean. Ondotik zerrendatuko ditugun ezaugarriok euskalkien mugak gainditu eta eremu zabalagoetan betetzen dira. Supradialektalak dira, hortaz, geroxeago, aparte aurkeztuko dugun azken ezaugarri mikrodialektala izan ezik. Tasun hauek guziak lehenago aurkeztu ditugun biekini konbinatuz gero, gogoan har bedi orain eta hemen Ascoliren erakutsia, denak alderdi bertsuan aldatzen direla konturatuko gara, bateko nahiz bertze hizkerak elkarrengandik gehiago urrundu.

##### Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioarekin batean doazen ezaugarri supradialektalak

1. Aferesiak: *zandu*, *man*, *torri*, *kusi*... Goizuetan, Saldiasen eta Eratsunen bederen Malerrekan bezain bizkor atzeman ditugu. Ezkurran eta Leitza

ahultzen bide da fenomenoa. Gipuzkoaz den bezainbatean, Donostia bitarteko hizkeretan bada zerbait, bereziki, Irun-Hondarribian eta Oiartzunen.

2. Sinkopak: *torko* ‘etorriko’, *txokolte* ‘txokolate’, *abistu* ‘abisatu’, *deskantsu* ‘deskantsatu’, *abilna* ‘abilena’, *apuntu* ‘apuntatu’... hedadura bertsua du sinkopen fenomeno honek. Dena den, Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranan badaude sinkopa berezi batzuk, eguneroko hizketan maizkara baliatzen direnak eta nolabaiteko eremua marrazten dutenak: *irauzi* ‘irabazi’, *illaute* ‘hilabete’, *eskautu* ‘eskapatu’, *kalauza* ‘kalabaza’, *arrautu* ‘harrapatu’ eta *eraun* & *eram(n)* ‘eraman’. Arestiko adibide hauetan, silaba postonikoan trabari ezpainbikoak irristari bilakatzen ahal direla badakigu (azkena, sudurkari ezpainkaria da). Saldiasen espresuki galdetuta, ondoko hauek eskaini dizkigute *irauzi*, *illaute* (*illabte* ere bai), *eskautu*, *kalauza*, *arrautu* (*arraptu*, *arpatu* nagusi, halarik ere). Eratsunen, berriz, *irauzi* bertzerik ez. Hortik mendebalera ez dugu halako gehiagorik sumatu. Halaber, Gipuzkoan ez dugu berrikuntza hauen arrastorik kausitu.
3. *-st-* kontsonante taldea Zubietatik ezker dago: *ostegun*, *ostiral*, *beste*, *bestela*, *bost*. Herri honetan hasten dira bertze item lexikal batzuk: *esan*, *oso*, *asko*, *atze*, *aurre*... Dena den, Eratsuneraino *ertze*, *mazurtza* aukera bakarrik dira. Beintza-Labaienen, berriz, ondoko hauek ditugu: *bertze* & *beste*, *bortz* & *bost*, *ortzeun*, *urtzila*, *erran* (eta *esan*, gutiagotan bada ere), baina *aurrera* eta *atzera* ere bai. *aitzin* eta *gibel* Iturenen eta Urrotzen hasten dira, azken herri honetako zenbait hiztuni *aurre* eta *atze* bildu badizkiegu ere (Iturenen ez bezala, alegia).
4. Euskal Herria bitan banatzen duten morfema banatzaileak: *-na* eta *-ra*. Lehena, *bina*, *iruna*, *launa*... Basaburu Txiki osoan eta hortik mendebalera dago. Bigarrena, bereziki *-iz* bukatzen direnekoetan, *bira*, *seira*, *zazpira*... Malerreka-Bortzerrietan eta ekialde zabalean (cf. Camino 1999: 69, Etxaide 1984: 72, Lafitte 1962: 78).
5. Baztan-Bidasoako (ekialde zabaleko) *-zione* ez dago ez Goizuetan ez Beintza-Labaienen ez Saldiasen ere. Etena hementxe dago, hain zuzen: *television*, *tentsio*, *razio*, *indizio*... erabiltzen dira arestiko hiru herri hauetan. Malerrekan (Zubieta barne) eta Bortzerrietan, ordea, bertze hauek ohikoak dira: *televisionia*, *tentsionia*, *kalefa(k)ziona*, *razionia*, *indizionia*... Eta ez dira hitz guti bukaera hau dutenak.
6. Nork hirugarren pertsonaren markari dagokion isoglosa Saldias eta Eratsun herrien artean dago: mendebalera, *-e due*, *dizue*; ekialdera, *-te dute*, *dizute*.
7. Aditzaren geroaldiko morfemak diren *-en* vs. *-ko*: jakina denez, Nafarroa gehiengan eta Ipar Euskal Herrian, *-n* batez akitzen diren aditzek *-en* atzikia hartzen dute: *yoanen*, (*i*)*zanen*, *egonen*, *erranen*... Goizuetan, al-



diz, *-en* & *-ko* morfemen arteko lehia dago. Saldiasen eta Beintza-Labaienen *-en* baliatzen da. Bi herri hauetan, gainera, berrikuntza bat gertatu da geroaldiko morfema hartzearekin, Leitzan eta Basaburu Nagusian gertatu bezalaxe, *yoon*, (*i*)*zaan*, *oon*, *esaan*... erako asimilazioak gailendu baitira. Honako adibide bakan batzuk Zubietan ere aditu ditugu: *sann dugu* ‘esanen dugu’, *zann da urire* ‘izanen da hori ere’. Nolanahi ere, Zubietan (*e*)*sanen* & (*e*)*sain*, (*e*)*zanen* & (*e*)*zain* modukoak nagusi dira, Malerrekan, Sunbillan eta Bertizaranan bezala.

8. *-az* bukatutako partizipioak: Baztan-Bidasoan nola ekialde zabalean *ateria* / *atraya* / *ateraia* eta *botaria* / *botaya* partizipioak ditugu. *Ateria* Saldiasen, Beintza-Labaienen, Malerrekan, Sunbillan, Bertizaranan, Bortzerrietan eta Erreterria bitarteko hizkeretan (Mitxelena 1977: 114) bederen badugu; *atraya* Baztanen; *ateraia* Urdazubin, Zugarramurdi (Montoya 2004: 63) eta Ipar Euskal Herrian (Lafitte 1962: 256). *Botaria* partizipioak eremu murriztagoa bide du: Saldiasen bertakoa ez dela erran digute (nahiz eta arrotza ez izan); Nafarroako Bidasoaldean, aldiz, arrunta da. Bigarren aldaera *botaya* Baztanen, Zugarramurdi eta Ipar Euskal Herrian aditzen da. Isoglosa apala da aski, baina gainerakoekin bateratsu mugitzen dena, iduriz.
9. *gogo* «asmoa izan, nahi izan»: *yuango nun, miño ez nun astirik* ‘joan gogo nuen, baina ez nuen astirik’, *ze ingo zu* ‘zer egin gogo duzu’ (Donamariako adibideak dira). Ezaugarri hau ez da iristen Saldiasera edo Beintza-Labaienera. Baztan-Bidasoan (eta ekialde zabalean), berriz, oraindik erabiltzen dute, pentsatzekoa denez gero, helduek eta zaharrek batez ere. Garrantzi apaleko isoglosa izanagatik ere, hona ekarri nahi izan dugu, gainerakoekiko konbinazioan.
10. *-(e)larik* atzizkia denborazko perpausetan ageri da Malerrekan eta Bortzerrietan (eskualde honetan, *-(e)nean* atzizkiarekin batean): Basaburu Txikian ez da sobera erabiltzen, gure datuen arabera. Halarik ere, Malerrekako bizilagunekiko harremanengatik edo berezko ezaugarria delako, Saldiasko eta Beintza-Labaiengo berriemaile batzuek noizbehinka erabiltzen dutela ikusi dugu. Horrat non ezartzen ahal den bertze isoglosa (gradual) bat. Erran gabe joaki da Baztan-Bidasoan nahiz ekialde zabalean arrunta dela ezaugarri hau<sup>26</sup>.
11. *eman* eta *utzi* aditzekin osatzen diren perifrasetan, menpeko aditzean adlatiboa hartzen dute ekialde zabalean: *edatera* (*e*)*man*, (*h*)*oztera utzi*. Saldias eta Beintza-Labaien eremu honen barrenean daude. Mendebalerago, berriz, *edaten eman*, *ozten utzi* modukoak hasten dira.

26 Patxi Salaberrik gaztigatu digunez, *-(e)larik* atzizkia, bertze itxura batekin, Nafarroako Beramendi herriraino iristen da.

### Erdialdearen eta nafarreraren arteko trantsizioarekin batean doan ezaugarri mikrodialektala

1. *oa>ua* eta *ea>ia* disimilazioak: Euskal Herriko zenbait tokitan bezala, Bidasoalde guzian arauzkoak dira; Zubietan eta Beintza-Labaienen ere aski sistematikoak dira. Saldiasen, ordea, txandaketa aurkitu dugu: *yendia*, *itxia*, *ardua*... bezalako formak daude, baina *talok*, *lanen*, *itxen*... modukoak ere ez dira falta<sup>27</sup>. Goizuetan eta Eratsunen, berriz, etena dago, hots, ez dago disimilaziorik. Ondoko Gipuzkoako eremu zabalean disimilazioak arruntak dira. Beraz, disimilazioak direla eta, Goizuetak, Eratsunek, Ezkurak eta Leitzak esparru gordetzaille ttiki bat osatu dute inguru berritzaileagoaren aitzinean.

Arestiko hiru multzoetako ezaugarriotatik, batzuetan, etena Zubieta eta Saldiasen artean dago, Malerreka eta Basaburu Txikiaren artean alegia: *-zione* akabaila, *seira* bezalako banatzaileak eta *gogo* aditz berezia. Isoglosa hauek garbiak dira aski. Disimilazioak eta *-(e)larik*, ordea, ez dira bat-batean desagertzen Malerreka eta Basaburu Txikiaren artean, baina maiztasunaren aldetik beheiti egiten dute Saldiasen.

Bertze ezaugarri batean, *-st-* vs. *-rtz-* kontsonante taldeen arteko lehian Ituren batera eta Zubieta bertzerat banatuta ageri dira. *bertze*, *bortz*, *ortzeun*, *urtzila* bezalakoak Beintza-Labaienen ere badaude, baina *beste*, *bost* ere badirela atzendu gabe. Baita *erran* ere, nagusiki (ez bakarrik). Saldias, berriz, Zubietarekin eta mendebale-ragoko herriekin batera doa kontu honetan.

Hiru aldiz isoglosak Saldias eta Eratsun eremu banatan paratzen ditu: *irauzi*, *illaute*, *eskautu*, *kalauza*, *arrautu* sinkopa bereziak Saldiaseraino iristen dira, *irauzi* bertzerik ez Eratsuneraino; «joan» aditzaren adizkiak diferenteak dira bi herriotan; eta *dute* modukoak ditugu Saldiasen vs. *due* modukoak Eratsunen.

Bi ezaugarritan isoglosa Eratsun eta Ezkurra bitartean kokatzen da: hain justu, aferesien eta sinkopen maila. Biak fonetika-fonologiari dagozkio. Garrantzizkoak dira, kontuan hartuz gero, hizkuntza mintzatuan maiz gertatzen diren fenomenoak direla. Hiztunarentzat aise oartzeko modukoak, dudarik gabe.

Behin aldentzen da Leitzatik Ezkurra, baina eremu trinkoa duen ezaugarria da: bigarren pertsona singularreko *y-*.

Leitzatik Aresora aldea dagoela badakigu Olanori esker. Halaber, Goizuetatik Aranora ere bai Zubiri & Perurenari esker. Hortaz, ilunxeago zegoenaren gainean argi zerbait egitera saiatu gara. Nafarroatik Gipuzkoarako bidean, Malerrekaren eta Basaburu Txikiaren arteko trantsizio linguistikoaz den bezainbatean, honelako

<sup>27</sup> Antzeko egoera iradokitzen du Jose Eratsun saldistarraren XIX. mendearen bigarren erdialdeko testuak: *illunin*, *erria*, *betea*, *otsuac*, *otsoac*... (Otxandorena 1997)

egoera lektala dakusagu gaur den egunean: (i) Zubieta, (ii) Beintza-Labaien eta Saldias, (iii) Goizueta, (iv) Eratsun eta (v) Ezkurra-Leitza.

#### 4.6. Irun-Hondarribia

Eta iparralderago begira, zer gertatzen da Gipuzkoako ipar-ekialdean? Badakigu Bonapartek Arano eta Goizuetarekin batean Erretereria, Lezo, Oiartzun, Irun eta Hondarribia goi-nafarreraren Gipuzkoako azpieskalkian sartu zituela. Haatik, aspaldiko kontuak dira horiek. Zuazok berrikitan Oiartzun, Irun eta Hondarribia tarteko eremuan sailkatu ditu eta Lezo eta Erretereria, aldiz, erdialdeko euskalkiaren baitan sartu ditu:

Ekialdera egin ahala, ostera, ahulagoa da eragina, eta erdialdeko euskalkira lerratu bada ere joan den aspaldian, oso agerian dago oraindik bere izaera nafarra. Tarteko hizkera da azken batean, erdialdeko euskalkiaren eta euskara nafarraren arteko lotura egiten duena. *Sortaldeko azpieskalkia* deitu diot honi, eta bertan sartu ditut Gipuzkoako iparrekialdeko hiru herri: Oiartzun eta, batez ere, Hondarribia eta Irun (2003: 137-38).

Honenbertzez, Pasaia, Lezo eta Erretereria alde batera utziko ditugu<sup>28</sup>. Oiartzun eta *batez ere* Hondarribia eta Irunera begira jarriko gara. Eredu honetan ere badi-tugu lan interesgarri batzuk, azken urteotan argia ikusi eta eman dutenak. Hauei esker (eta gure berriemaileei esker, jakina) Baztan-Bidasoarekin muga egiten duten Oiartzun eta Irun-Hondarribiko datu zehatzak eskuratu ditugu. Oiartzunen kasuan Fraile ahizpen lana dugu. Bertan (1996) erraten da, bertzelako ondorio batzuen artean, Oiartzungo euskarak Gipuzkoara egin duela nabarmen, nahiz eta Nafarroarekin dituen kidetasunak oraindik bizirik dauden, bereziki adinekoen artean eta Lesakarekin muga egiten duten auzoetan. Txomin Sagarzazuren lanak (eta berekin dugun harremana) baliatu ditugu Irun-Hondarribiko euskararen ezaugarri zehatzen berri izateko. Bi herriotan aspaldikoa iduri duen sustrai nafarra hobeki gorde da Oiartzunen baino, nahiz eta hemen ere euskara giputza franko sartua den, batez ere gazte(ago)en artean. Sagarzazuren eta Fraile & Fraileraren lanez gainera, ikuspegi areala eskaintzen duten Caminoren (2000b) eta Zuazoren (1997) artikulua gogoan izan ditugu.

Tamalez, deus guti dakigu elkarren ondoan dauden Gipuzkoako Bidasoaldearen eta Nafarroako Bidasoaldearen arteko (ez)berdintasunez. Agerian gelditu da Irun dela aspalditik hirigunea, bai bederen Bortzerrietako bizilagunentzat (eta muga ondoko lapurtarrentzat). Indar bateratzailea dugu, beraz. Eta honek izanen duke bere isla hizkuntzan. Hori dela eta, Irun-Hondarribiko euskararen ezaugarri nagusiak Bortzerrietako euskararen ondoan paratzea deliberatu dugu. Betiko xede kontrastiboa gogoan dugularik: zertan berdintzen diren eta zertan bereizten diren hizkera hauek.

<sup>28</sup> Gainera, eremu hau ezaguna da: Pasaiako hizkera Agirretzek & Lersundik & Olaetxeak aztertu dute; halaber, Lezoko euskara Agirretzek & Esnaolak ikertua da. Ikus bibliografia.

Azken batean, hizkeren trantsizioaz ari gara berriz ere. Ez dugu inondik ere hizkuntzako muga monolitikorik ezarri nahi, jakin baitakigu saiakera antzua bezain ustela dela, baizik eta aldaketa horiek non gertatzen diren ikusi eta erakutsi.

Honat Irun eta Hondarribia erdialdetik aldentzen dituzten tasun nagusien balizko zerrenda bat.

### **Irun-Hondarribia erdialdetik aldentzen dituzten ezaugarri nagusiak**

1. Bi herriotan sinkopak eta aferesiak gertatzen dira. Sagarzazuk, dena den, bilakaera hauen erabilera eta maiztasuna zehazten ditu (2005: 62-63):

Hondarribiko eta Irungo hizkeretan maiz gertatzen da hitzaren hasierako bokala ez ahoskatzea. Baina bilakaera horrekin zerikusia duten bi kontu hartu behar dira gogoan: hizketa arinean gertatzen da eta aferesirik gabeko aldaerek maiztasun handiagoa dutela aferesidunek baino.

[sinkopa] Bokal edo silaba azentugabea gal daiteke Hondarribiko eta Irungo hizkeretan. Zenbaitetan hitzaren barrenean gertatzen da bilakaera, eta beste batzuetan deklinabidean nahiz aditzean. Hala ere, bilakaera hau ez da Bortzirietan bezain indartsua (cf. Zelaieta 2004).

Arestikoaren arabera, aferesien eta sinkopen maila ez da Nafarroako Bidasoaldean barrena dagoena. Eta maiztasunak eta indarrak badu bere garrantzia bertzelako banaketa diatopiko batzuk egiteko. Zernahi gisaz, iduri du, Txomin Sagarzazuk berak dioskunez, Oiartzunen baino azkarrago dabiltzala bi fenomeno hauek Irunen eta Hondarribian. Nolabait, Saldiasen eta Goizuetaren ondotik heldu dira Irun-Hondarribia, maiztasunaz den bezainbatean. Gero, Oiartzun (bereziki, Lesakari begira dauden auzoetan), eta hurrenkera honetan gertakariok desagertu arte, Lezo, Erreterria eta Pasaia.

2. *-ko(t)z* & *-kos* aldaerak ohikoak dira Irunen eta Hondarribian: *ittekos*, *ordukoz*, *zelakoz*... Dena den, txistukaririk gabeko aldaerak gero eta maizago aditzen dira bi herrietan, eta are gehiago Oiartzunen. Gaur den egunean, beraz, ugariagoa da *-ko* aldaera.
3. *-oi* & *-on*: (*a*)*kordiona* (Irun) / *akordeoya* (Hondarribia), eta bi herrietan aditzen omen diren: *abiona*, *kamiona* eta *porrona* erabiltzen dira. Bistan denez, *-oi* akabaila nagusi da bertako hizkeran. Gogoan hartu behar da ekialderagoko Bortzerrietan bertan *-oi* bukaera<sup>29</sup> hitz frankotan dagoela, nahiz eta mailegu berri batzuetan *-on* sartzen ari den. Alde horretatik, beraz, Irun-Hondarribiko euskarak hurrengo urratsa agertuko luke, Nafarroatik begiraturik, *-on* hori erabat itzali arte.

<sup>29</sup> Guk Bortzerrietan grabatu nahiz bildu ditugunak (Zelaieta 2004: 238) *balkoya*, *bastoya*, *botoya*, *eskalap(r)oya*, *kapoya*, *kartoya*, *koltxoya*, *limoya*, *meloya*, *patroya*, *pregoya*, *sermoya* eta (*t*)*zagoyal zaboya* ‘xaboia’.

4. Zenbaitetan lan honetara ekarri dugun bigarren pertsona singularreko *y*—sistematikoa da Irunen eta Hondarribian: *yaiz*, *yabil*, *yau*... Isoglosa esklu-sibo honen eremuaren barrenean ditugu bi herriak.
5. Inesiboan *baitan* partikula Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko idazleek erabili izan dute (*Orotariko Euskal Hiztegia*, *OEH* hemendik aitzinera). Gisa berean, oiartzuarra zen Mendiburuk ere erabiltzen zuen<sup>30</sup>. Irun-Hondarribian bi adiera hartzen ditu partikula honek (Sagarzazu 2005: 71): ‘nire esku, gain’ *ta múndwa óyen báitan da wuan* edo ‘nire artean, nire-kiko’ *neré báitan*: «*ok palísan bat emán bjar tzja(te)k né(r)i*». Dena den, Hondarribian inesiboa adierazteko *-gan* kasu marka erabiltzen da, Sagarzazuk (1994: 606) adierazten digunez, *laja lan ori nere baitan* bezalakoak ematen baldin baditu ere. Bere hitzetan, hagitx murrizta da *baitan*-en erabilera hau, eta xehekiago aztertu beharreko auzia. Goizuetan, aldiz, bertze azalpen bat dakarte Zubirik eta Perurenak:

*norengan* kasuari dagokionez, arrunt gutxi erabiltzen denez, *neregan*, *iregan*... formen ordez gehienek *nerega(i)ñ*, *irega(i)ñ*... bezalakoak eman dizkigute, *gain* posposizioarekin eraikitako esapideak emanaz. Dena dela, forma hauen ondoan *nere batten*, *ire/ere batten*, etab. ditugu, baina azkene-ko forma hauek «*nere batten pentsatu nun*» eta horrelako edo antzeko esamoldeetara murrizten dira (1998: 102).

Hortaz, isoglosa hau Hondarribian nahiz Goizuetan barrena kokatzen ahal dugu, hortik mendebalera lausotzen baita, eta ekialdera, bere erabilera zabaldu egiten da.

6. N-N-N saileko *-it-* pluralgilea arauzkoa da Hondarribian. Irunen eta Oiar-tzunen *-it/-zki-* pluralgileen arteko lehia dago. Irungo lekukotasuna aipatzen du Koldo Artolak, zeinak adierazten baitu, *-it-* gibelka ari dela *-zki-* pluralgilearen mesedetan:

Bere aitak eta amak *nittion/zittion* eta gisa bereko erak erabiltzen zituzten, bera gaztetxo zelarik, Lapizen eta Irunen, oro har ere, ia euskara baizik egiten ez omen zen garai hartan, era hauek guztiz arruntak zirelarik. Orain bertan ere Pausun horrelakoak erabiltzen direla dio (Yrizar 1992-2: 386).

Gaurregun, aldiz, Irungo zenbait auzotan erabiltzen diren *nizkion/ziz-kion* eta gipuzkerazkoak diren hauen gisako erak geroago joan omen dira sartuz [...].

7. Perpaus osagarrietako *-(e)nik*, *-(e)la*, *-(e)n* aukera hirukoitza dago Gipuzkoako ipar-ekialdean nola Nafarroako Bidasoaldean. Dena den, ñabardurak egin beharrean gara. Nafarroako euskararen ondoan, Oiar-

30 Nahiz eta kontuan hartu behar dugun Mendiburu Iruñean bizi izan zela luzaz, eta Larramendik go-mendatu bezala, pareak anitzetan erabiltzen zituela, nonahiko entzule-irakurleek ulertzeko: *esan / erran, asko / anitz*...

tzunen hagitz bakana da *-(e)n*: *uste dut biar (e)torriko den* bezalakoak arrotzak ez badira ere, ez omen dira ohikoak, eta gainera, bereziki adin batetik goiti aditzen dira. Baiezko perpausetan, *uste dut biar (e)torriko dela* hagitzez arruntagoa da Oartzunen. Irunen eta Hondarribian gehixeko erabiltzen bada ere, ez da inondik ere Nafarroako euskararen mailara iristen. Ezezko perpausetan, berriz, hirukoiztasuna ageriagoakoa da, nahiz eta *-(e)nik* aukera nagusia den: *ez dut uste biar (e)torriko denik (den/dela)*.

8. Nafarroako Bidasaldeko *-(e)lik(an)* denbora eta modu perpausetan bada Irunen eta Hondarribian, baina *-(e)la* aise ugariagoa da zalantzarik gabe. Berriz ere, Nafarroako euskararen ondoan paratuz gero, maiztasunak nabarmen egiten duela beheiti jabetuko gara. Gipuzkoako ipar-ekialdean maiz gertatzen den bezala, iragan garai bateko sustratu nafarra duten ezaugarriak gibelka ari dira. Beraz, erran dezakegu *itxera (e)tortzen delikan* ‘etxera etortzen delarik’ ez direla batere ohikoak Hondarribiko edo Irungo gazteetan, Lesaka edo Sunbilla batean eguneroko gauza den bitartean.
9. *ongi, obeki vs. ondo, obeto* aldaeren arteko lehia dago Irun-Hondarribian. Edozein kasutan, bi herriotan *o(be)tiyo & o(be)kiyo* eta *ondo* dira gailen samar ageri direnak. Ekialdeko itxura du lehenak eta mendebaleko nahiz erdialdeko tankera bigarrenak. Trantsizio bete-beteko ezaugarria dugu honako hau.
10. Sintaxiari dagokionez, bai/ez erako galderak osatzeko *al* galdetzailea ez da beharrezkoa Irun-Hondarribian. Txomin Sagarzazuren arabera (2005: 83), iduri du maiztasun aldetik halako gradazio bat finka daitekeela: Irunen eta Jaitzubian ugari samar erabiltzen da, Hondarribiko bertze auzo batzuetan eta kalean gutiago, eta Portuan gutien edo ia batere ez. Ondoko Bortzerrietan ez da erabiltzen, ezta hortik ekialdera ere. Basaburu Txikian, ordea, ohikoa dela dakigu. Halaber, Malerrekan ere entzuten ahal da.
11. Lexikoa: *afera, aizego*<sup>31</sup> ‘hego haize’, *altxatu* ‘gorde’, *arrant*, *askar* ‘indartsu’, *ate & piro*, *betti & bera*, *bultzatu & bulkatu*, *deus*, *eguberriak & gabonak*, *endana* ‘andana’, *estomaka*, *euskara & euskera & uskara*, *gotti & gora*, *gottinai* ‘goragale’, *idor*, *iduri du*, *idurittu*, *itz egin & mintzatu*, *jostatu*, *katakaxintxa* ‘urtxintxa’, *kale & karrika*, *kider*, *miño* ‘baina’... Nafarroako (eta batzuetan, ekialde zabaleko) solasen oihartzuna dakarten aldaerak eta item lexikalak dira.

Hondarribiko eta Irungo hizkerek euskara nafarrarekin (eta lapurtarrarekin) duten harremana erakusten dute goitiagoko ezaugarriek. Ez dira guti, ez munta ti-

31 *aizego* aldaera ekialdeko hizkeretan usu ageri da. Gipuzkoan, Bizkaian eta Araban, berriz, *egoaize* da nagusi.

kikoak ere. Ondorio nagusia da Nafarroatik (eta neurri apalagoan, Lapurditik) heldu den euskara hemen hasten dela aldatzen. Izan ere, aurkeztu ditugun sei ezaugarritan, Nafarroan (eta batzuetan Lapurdin) bizkor eta sendo dagoena, Gipuzkoako bi herri hauetan, ahul, lehian edo aukeran dago: sinkopak, aferesiak, *-ko(t)z/-kos* aldaerak, *-oi* & *-on* lehia, *baitan* partikularen erabilera, zenbait perpaus osagarritako *-(e)n* aukeran egotea. Tasunok hemen hasten dira indarra galtzen, eta Donostia bitarteko hizkera gehienetan ahulduz doaz guziz desagertu arte. Ahultzea ekialdetik mendebalera gertatzen da: Hondarribia (bizkorren), Irun, Oiartzun, Lezo, Erreterria, Pasaia (ahulen, ia batere ez).

Bertze alde, ondoko bi ezaugarrietan Hondarribia ekialdera eta Irun mendebalera begira banaturik gelditzen dira: N-N-N saileko *-it-* pluralgilea (vs. *-zki-*) eta *al* galdetzailea. Are gehiago, bertze bi ezaugarri aurkitu ditugu bi herriok banatzen dituztenak:

### Hondarribia Ipar Euskal Herrira hurbiltzen duten ezaugarriak

1. Hiketan, zenbait formak isoglosa garbia marrazten dute: *z(it)uken* & *z(it)unen* vs. *y(it)uen* & *y(it)unen* ‘z(it)uan, z(it)unan eta h(it)uen’ adierazteko. Hona hemen Hondarribiko adibide pare bat: *ik atzo se in suken emen, eskua sartu-o* ‘hik atzo zer egin huen hemen, eskua sartu-edo?’, *aurreko kostera oso ona isandu suken* ‘aurreko kostera oso ona izan zuan’. *zuken* & *zunen* gisakoak. Hondarribian ez ezik, Beran, Etxalarren, Zugarramurdin, Urdazubin, Baztanen (Ornoz-Mugairi barne) eta muga ondoko herri lapurtarretan ere erabiltzen dira. Beraz, Ipar Euskal Herriko euskararekin lotura nabaria erakusten du muga inguruko herri hauetako hitanoak. *yuen* & *yunen* gisakoak, berriz, Irunen ez ezik, Oiartzunen, Lesakan, Igantzin, Arantzan, Sunbillan, Bertizaranan eta Malerrekan bederen erabiltzen dira. Hauek ez dute Ipar Euskal Herriarekin loturarik ageri, bai, ordea, euren artean.
2. Adizki trinkoen ordez, adizki perifrastiko jakin batzuk erabiltzen dira Hondarribian: *-ki* balio puntukaria duten adizkiak (Hondarribiko etsenpluak dira, Yrizar 1992-2: 430) *eramaki dut*, *ekarki dut*, *ibilki naiz*, *joaki naiz* & *faki naiz*. Hauek, aitzineko puntuan bezalaxe, gisako isoglosa marrazten dute Bortzerrietan: Beran eta Etxalarren bai, gainerako hiruretan ez. Zugarramurdi-Urdazubin eta Lapurdin bai. Baztangoizan ere bada zerbait<sup>32</sup>.

32 Izetak (1996) badakar *goaki naiz*, *gaki naiz*, Orabidean eta Etxalarren erabiltzen direla adieraziz. Kontuan izan behar da Orabide alderdiko baserri batzuk Baztangoak direla (Azpilkueta, Lekaroz, Arraioz eta Ornozkoak), batzuk Etxalarkoak, eta bertze batzuk Zugarramurdikoak. Ez da harritzekoa, hortaz, halako formak bertan entzutea. Gisa berean, Paskual Rekaldek ohartarazi gaituenez, Amaiurren berean ere ez da ezezaguna, erabili gutiago egiten bada ere. Iñigok, Salaberrik & Zubirik (1995: 288) egindako lanaren arabera, Nafarroan Zugarramurdin, Urdazubin, Beran eta Etxalarren bakarrik erabiltzen da balio puntukaria. Nolanahi ere den, N'Diayek —Amaiurko euskaran— badakar adibide bat (1970: 242) *ezta iñor ere ibilki*.

Honenbertzez, Nafarroatik nahiz Ipar Euskal Herritik heldu diren ezaugarri batzuk Hondarribira bakarrik iritsi dira. Honek kolore ñabar bat ematen dio Hondarribiko euskarari. Hondarribia halako ezaugarriak dituen Gipuzkoako herri bakarra da, mugako hizkerek ohi dituzten ezaugarriak agertuz.

Bertze alde, honat Irun-Hondarribia (baita mendebalerago daudenak ere) Nafarroatik aldentzen dituzten ezaugarriak, eta Gipuzkoara hurbiltzen dituztenak:

### **Irun-Hondarribia Nafarroatik aldentzen dituzten ezaugarriak**

1. [x] belarea jaun eta jabe dugu bi herriotan, Gipuzkoa osora hedatu baita: *jakin, jo, jan...* (vs. *yakin, yo, yan...*). Ez Leitzan, ez Goizuetan eta ez, jakina, bi herriotatik ekialdera, ez dago ezaugarri nabarmen hau.
2. Hitz frankotan *z->tx-* gertatu da hitz hasieran Irunen eta Hondarribian: *txetu* ‘xehetu’, *txilko* ‘xilko, zilbor’, *txoro, txuri, txutik...* Arestiko bilakabidea Gipuzkoan (aise) maizago aurkitzen dugu Nafarroan baino.
3. Irun-Hondarribian *onontz* ‘honantz’ modukoak daude, Goizuetan bezala, beraz. Honetan Nafarroako euskaratik aldentzen dira bi herri hauek, bertako *unat, orrat* erakoak arrotzak baitira.
4. *nor/zein* izenordainak erabat nahasi dira Irun-Hondarribian, Gipuzkoako bertze eskualdeetan bezala.
5. *nijoa* bezalako adizkiak ditugu «joan» aditzean, hots, Gipuzkoan zehar hedatuak direnak.
6. *-ko* aditzaren etorkizuneko atzizkia aukera bakarra da egungo hizkeran.
7. *egin* aditz indargarria maiz aski erabiltzen da Irunen eta Hondarribian. Egia bada ere Nafarroan ez dela arrotza aditz indargarri hau, maiztasun aldetik, alde nabarmena dago Gipuzkoaren eta Nafarroaren artean. Ipar Euskal Herrian, guk dakigula behinik behin, ez da ezaguna *egin* aditzaren erabilera hau.

Zazpi tasun hauek ere ez dira nolanahikoak, eta argi eta garbi adierazten dute Nafarroara heldu ez diren zenbait ezaugarri bertako mintzoan eta Gipuzkoan ohikoak direla. Tasunok giputz kutsu nabaria ematen diete Irun eta Hondarribiko hizkerei (baita Oiartzungo euskarari ere, jakina).

Orain artekoek landara, badago bertze ezaugarri bat, aski garrantzizkoa, Hondarribia bere baitan hartzen duena: herri honetan txistukarien neutralizazioa nagusitu baita, *z* eta *s* ez dira bereizten. Irunen eta Jaitzubian, ordea, bai (Sagarzazu 2005). Afera honek gogora dakarkigu zer gertatzen den itsasaldeko bertze portu batzuetan: ondoko Lapurdin berean, Bizkaiko eta Gipuzkoako kostalde gehienera. Ez dakigu ziur noraino izan litekeen itsasoko lagun arteko harremanengatik, baina deigarria da hagitz neutralizazioa ia Euskal Herriko itsasalde guzian gertatu izana,



aldameneko lehorreko herrietan ahoskera jatorra gorde delarik. Ezaugarri hau Hondarribian arruntean hedatu izanak itsasoarekiko lotura erakusten du<sup>33</sup>.

Honenbertzez, agerian utzi dugu koska bat badagoela Nafarroatik —Bortzerrietatik, zehazkiago— Irun-Hondarribira bitartean. Eta bertze koska bat, oraindik, Hondarribia-Irun ingurutik Donostia ingururaino, euskara giputzean bete-betean sartu bitarte. Nafarroatik begiratuta, honelako egoera lektala dakusagu Gipuzkoaren eta Nafarroaren artean, mailaz maila: (i) Hondarribia, (ii) Irun, (ii) Oiartzun, (iii) Erreterria-Lezo-Pasaia eta Gipuzkoako gainerako mintzoak ondotik.

Zernahi gisaz, gaur den egunean, erdialdearen eta nafarreraren arteko zinezko trantsizio bakarra dago, Oiartzunen sustrai nafarra gorde duten lagunak guti direlako eta adin batetik gorakoak. Hortaz, nonbait honako trantsiziorik baldin bada, Irunen eta nabarmenago Hondarribian da. Nabarmenago diogu, kontuan hartu behar baita Irun herrigunea arrunt erdaldundua dela aspaldion eta, beraz, hizkera irundarraren belaunaldiz belaunaldiko transmisioa ia hautsia dela, nahiz eta oraindik auzoetan berta-bertako hiztunak gelditzen diren. Franko ahuldua den ahozko hizkera irundarraren orde, eta gaztelaniaz gainera, gaurko hiriko euskaldun gazteek bi aukera nagusi dituzte, gure iduriko: Euskal Herri osorako estandarra den batua (bere horretan) hartu edo, maiz aldaera dialektalek nortasun kolektiboan sendotzeko funtzio demarkatiboa izanda (cf. Camino 2009), kolore eta usain giputza eskaintzen duten ezaugarri linguistiko zenbaiten alde jokatu: *det*, *dezu*...; *zea* ‘zara’, *gea* ‘gara’, *jun* ‘joan’ eta abar.

Hondarribian, hala adierazten dute bertako egoera (sozio)linguistikoaren gaineko datuek (Sagarzazu 2005: 43-53), karrikan eta ostatuan gaztelania aditzea arrunta badaiteke ere, oraindik ez da bertako mintzoa guziz *urtu*. Bertze era batera, Irunen ez bezala, Hondarribiko euskararen soka ez da agortu belaunaldi gazteagoen artean, edo ez erabat behintzat. Gaurko sokaren mutur hondarribiar horretan dakusagu guk bereziki trantsizio beteko hizkera bat: egun, Gipuzkoan, era gizarteratu batean, herri honetan bakarrik bizirik dagoena.

#### 4.7. Gipuzkoa eta Nafarroa gainditzen dituen nortasuna: Bidasoa ibaia

Zenbaitetan, lehen atalean ikusi dugun eran, Bidasoa ibaiaren arroak Gipuzkoako eta Nafarroako herriak lotzen ditu. Bereziki, Irun-Hondarribia eta Bortzerriak. Gizartean eta historian nabaria den joera honek badu bere ondorio linguistikoa, zeren eta ezaugarri multzo bat aurkitu dugu Gipuzkoako eta Nafarroako Bidasoaldea biltzen duena:

33 Urantz kronikagile irundarra ere honetaz ohartu zen: En la parte del puerto de Fuenterrabía oiremos una variedad que no es netamente bidasotarra y que podríamos aparejarla al dialecto de pescadores común en toda la costa (1955: 450).

**Bidasoaldeko herriak elkarrengana hurbiltzen dituzten ezaugarriak**

1. Berezko *-aren* ezegonkortasuna: erdialdeko zenbait hizkeratan, hitzaren bukaera *-a* delarik, bokal hau galtzeko joera bizia dago: *egi bat, justizi pixkot, sil bat...* Haatik, ezegonkortasuna bertze aldekoa ere izan liteke: *trena bat, trenabidia, kanpina batin, apeza unek, egunan batin...* (Etxalarko adibideak). Gertakari hau ongi dokumentatua dugu Bortzerrietako testu guzietan (ikus bibliografian): *egunatan, gauz onatan, yaquintasunaco duaya...* (Berako dotrinako adibideak); *mandamentua unec, mundua unetan, obligacionia hoc, motivua unetaz...* (Zubigarai Etxalarko erretorearenak, XIX. mendearen akabailan); Lesakako idazkietan *-a* mugatzailea ia sistematikoki erakuslearekin batean doa: *eguna eq, arriya oq, anciya dagona ura* ‘ahantzia dagoen hura’, *decretuba estuba orren cumplimentuba* ‘dekreto estu horren kunplimentua’... Oiartzunen ere gertatzen dela badakigu (Fraile & Fraile 1996), baita Irun-Hondarribian ere (Sagarzazu 2005: 71) *autobusa batian, ura garbiyakin*. Baztanen eta Saran ez da arrotza, nahiz arras erabilia ez izan. Saran honako hauek eman dizkigute guk bertan egingdako grabazioetan (1999-2000 urteen bitartean): *otela bat, apeza unek, dena lana zakarra zen, soro zelaya bat eta otomoila bat*. Urdazubín eta Zugarramurdin ere bada (Montoya 2004a: 119-120): *edozein andrea, gatz guttikin, ogi irina pittat...* Honekin loturik egon litekeen bertze fenomeno bat hedatzen da Bortzerrietan, Sunbillan, Bertizaranan, Malerrekan eta Basaburu Txikian: bertako eta inguruko toki-izenei *a* bat eransten ohi zaie: *Iruna* ‘Irun’, *Azkaña* ‘Azkain’, *Labaina* ‘Labaien’, *Saldisa* ‘Saldias’, *Urroza* ‘Urrotz’... Berrikuntza hau, guk dakigula bederen, eremu honetan bakarrik zabaldua da, baina indarrez, ahozko forma berriek zaharrak lekutu baitituzte.
2. Datibo, genitibo eta destinatibo pluralen atzizki pleonastikoak nagusitu dira Irunen eta Hondarribian, *-aken, -aki & -akeri*: *launaken kotxia da* ‘lagunen autoa da’; *eman au gurasokeri*; *nik semeki esaten diot* ‘nik semeei esaten diet’... Bortzerrietan ere bada, baina hemen bi egitura aditzen dira: *lagunari & lagunakeri, semin & semiken...*; *umiken yostalluk* ‘umeen jostailuak’ (Igantziko adibidea) bezalako genitiboak guti samar aditzen dira Bortzerrietan. Beraz, Irun-Hondarribiaren ondoan aise apalagoa da berrikuntza honen indarra. Datiboan gehixeago gertatzen da; errate baterako, maiz aski aditzen dugu *goraintzik denakeri*, Berako etxetik Gasteizkora itzultzen garenetan. Alabaina, Bortzerrietan, berrikuntza hau ez dabil Gipuzkoako Bidasoaldean bezain azkar, eta gainera, forma zaharr(ago)ak (*goraintzik denari* bezalakoak) ere ez dira erabat desagertu.
3. Analogiaz sortu diren mota honetako adizkiak ohikoak dira Irun-Hondarribiko hizkeran: *niogun* ‘genion’, *nittugun* ‘genituen’, *banugun* ‘genuen’. Bortzerrietan ere (usu samar honako formak erabiltzen dituzten) zenbait hitzuni joera hau sumatu diegu: *in nugun* ‘egin genuen’, *gauz ek*

*eraun nitugun errana ziguten tokirat* ‘gauza haiek eraman genituen errana ziguten tokirat’ (Etxalarko adibideak)<sup>34</sup>. Afera honetan ere Gipuzkoako bi herrietan indartsuago nabari da analogia mota hau Nafarroako Bidasoaldean baino (Sagarzazu 2005: 82). Nolanahi ere den, Bortzerrietan eta Irun-Hondarribian bakarrik gertatzen da, eskuan eta buruan ditugun adibideen arabera.

4. *-ketu* & *-katu* aditz atzizkia: Hondarribia, Goizueta, Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranan erabiltzen da *nik aingira yankatu dut* ‘nik behin jan izan dut aingira’ (Goizuetako etsenplua, Zubiri 2000: 102); *noizpattere errankatu zattut* ‘noizbait erran izan dizut’; *noizpattere arittukatu gattuk orren gain* ‘noizbait aritu izan gaituk horren gainean’ (Berako adibideak). *-ketu* aldaera Hondarribian erabiltzen da (Sagarzazu 2005: 80). Nafarroan, al-diz, *-katu* da nagusi, *-ketu* arrotza ez bada ere. Gure datuen arabera, Malerrekan gutiago erabiltzen hasten da, eta Saldiasen dagoeneko ez da ezaguna. Berebat, Baztanen, Zugarramurdin eta Lapurdin ere ez dute erabiltzen.
5. N-N-N saileko sinkretismoa nagusitu da: N-N-N saileko *nori* kasuko singularreko eta pluraleko hirugarren pertsonak ez dira morfologiaz bereizten, batak zein bertzeak *-o-* artizki bakarra hartzen dutelako: *giltzak man nittion* ‘giltzak eman nizkion’ nahiz ‘giltzak eman nizkien’ izan liteke. Gertakari hau sistematikoa da: *nik erran nion ekeri* ‘nik erran nien haiei’, *ederra ein tzioken guratsuri* ‘ederra egin ziean gurasoei’ (Berako adibideak). Irun-Hondarribian, Bortzerrietan, Sunbillan, Bertizaranan<sup>35</sup>, Malerrekan, Basaburu Txikiko Beintza-Labaienen eta Saldiasen, Oronoz-Mugairin eta Baztango Basaburuan (Yrizar 1997: 531-32) ere gertakari bera dago. Bortzerrietako testuetan, erraterako, salbuespenik gabe ageri zaigu: *norq emanen ttio gaur nere ezpañey itzaq?* ‘nork emanen dizkie gaur nire ezpanein hitzak’, *emaztiaq even senarrey izan biar dioten sugeci-yua* ‘emazteek euren senarrei izan behar dieten atxikimendua’ (Lesakako adibideak).

Arestiko bertz ezaugarriak gertatutako berrikuntzak dira, aski sistematikoak eta eremu trinko bat marrazten dutenak: Bidasoaldea. Honek, zalantzarik gabe, nortasun azkarra ematen die bertako hizkereri, bereziki, datibo, genitibo eta destinatibo pluralen atzizki pleonastikoez eta *niogun* bezalako adizki analogikoez, esparru jakin batean bakar-bakarrik baliatzen diren heinean: Irun-Hondarribia eta Bortzerriak. Gainera, bi kasutan susmoa dugu Irun-Hondarribitik abiarazitako

34 Yrizarrek hauxe dakar: anotó Etxegarai, en Lesaca: *gunun*>*nugun*. Sobre ellas manifestó: «nagusia ezkerrekoa da, baina ez da hain arrotza *nugun* forma harrigarri hori. Gehienok entzun dugu behin baino gehiagotan (1992-1: 461).

35 Halarik ere, Bertizaranako idazkietan ez da Bortzerrietakoetan bezain ugari ageri; nahiz eta gaur den egunean arras nagusitu den. Beraz, pentsatzekoa da berrikuntza hau Bortzerrietan lehenago zabaldu zela.

berrikuntzak direla, testuen kronologian lehenago ageri baitira Gipuzkoako Bidasoaldean Nafarroakoan baino eta, gaur den egunean, aise bizkorrago sumatzen direlako han hemen baino. Honek frogatzen du, gure ustez, nondik heldu den hizkuntza aldaketa. Gainera, badago hirugarren faktore bat gogoan hartzekoa: Irun (baita Hondarribia bera ere, aspaldian) izan da eta da eskualdeko jendearentzat hiria, jendea bertara joan izan da merkatura, lanera, mandatuak egitera, medikuarengana, aisialdira eta abar. Hortaz, argi iduri du aldaketaren norabidea hori izan dela, eta ez alderantziz.

Gainerako hiru ezaugarriak eremu zabalagora hedatzen dira: batzuetan, Basaburu Txikira iritsiz, eta bertze batzuetan Baztango Basaburura iritsiz. Ezaugarriok geografian barrena hedatzeko ibaian goiti egin dutela idurika genezake, Bidasoa ibaiaren arroari jarraikiz.

#### 4.8. Lexikoaren azterketa: saio xume bat

Lexikoaren gainean egin dugun azterketaren berri ere eman nahi dugu, aldaera eta item lexikal batzuk geografian barrena nola hedatzen diren erakusteko asmoz. Tamalez, oraindik alderdi lexikoaren azterketa dialektologiaren atalik antzuen gertatzen da maiz. Arras konplexua zaigu eremu batera jatorri ezberdina duten eragin lexikalak nondik eta noiz etorri diren zehaztea.

Ulertzekoa denez, zail da hagitz Sakana erdialdean, Arakilen, Ultzaman, Atezten, Odietan, Txulapainen, Ezkabarten, Olaibarren, Anuen, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan, Baztanen eta Bidasoaldean baliatuko den eta Nafarroakoa baizik ez den lexikoa harrapatzea. Dena den, ohartu garenez, ekialdekoa den hitz bat Ultzaman dagoenean, Esteribarren, Erroibarren, Aezkoan eta Artzibarren ere agertzen ohi da; nahiz eta Aezkoako guzia Baztanen ez kausitu edota, Orreaga Ibarrek ongi erakutsi zuenez (1995), Ultzamako guzia Imotzen ez egon.

Zein da, beraz, solas bat nafarreratzat hartzeko baldintza? Idealki, solas edo hitz hori nafarrera bizirik den eremu guztietan agertzea litzateke: Bidasoaldean, Baztanen, Ultzama aldean, Sakanan, Esteribarren, Erroibarren eta Aezkoan, baina hau, argi erran dezagun, ez da arrunta izaten. Normalki periferiak huts egiten du: Sakanak, Baztan-Bidasoak edo Pirinioek. Konplikatua da afera inondik ere. Guk uste dugu, eta hau proposamena da, periferiako eremu baten salbuespenarekin hitz bat nafarra izaten ahal dela: (i) Ultzama, Baztan-Bidasoa, Esteribar-Erroibar, Aezkoa ibarretakoa denean [salbu Sakana]; edo (ii) Sakana, Ultzama, Esteribar-Erroibar, Aezkoa ibarretakoa denean [salbu Baztan-Bidasoa]; edo (iii) Sakana, Ultzama, Baztan-Bidasoa denean [salbu Esteribar-Erroibar + Aezkoa].

Zailtasunak zailtasun, Euskal Dialektologian denen artean aitzinera egiteko asmoz, hona hemen gure saio xumea: lehenbiziko, Nafarroa guziko aldaerak zerrendatuko ditugu, eta gero, Nafarroa guziko itemak. Ezkerraldean Nafarroan erabiltzen dena agertuko da (berezi, Baztan-Bidasoako forma), eta eskuinaldean, erdialdean

erabiltzen dena. Nafarroan ohikoak direnetatik batzuk iparraldera edo ekialdera ere ezagunak dira. Aldaerak eta item hauek supradialektalak ditugu, hortaz:

*apez vs. apaiz, baru(r) vs. barau, erde vs. lerre, iretsi vs. irentsi, iduzki, iruzki & iguzki vs. eguzki, ille vs. artil(l)e & ardi-il(l)e, obeki vs. obeto, ongi vs. ondo.*

Ondotik, item lexikalen zerrenda bat proposatuko dugu, kontuan harturik betiere Nafarroan ohikoak diren item lexikal batzuk Ipar Euskal Herrian ere ezagunak direla, eta erdialdean ohikoak diren bertze batzuk mendebalean ere ezagunak direla:

*aixti(a)n ‘arestian, oraintsu’, aretxe ‘txahal’, arotz ‘errementari’, atari ‘ate, sarrera’, atorra vs. alkandora, azi(e)nda ‘animalia, ganadu’, beratz vs. bigun, berendu ‘askari’, bikor & pikor vs. ale, bulkatu vs. bultzatu, (e)ññal ‘ahalegin’, espe(ra)tu vs. itxoin, ezkillu vs. kanpai, gaztanb(e)ra vs. mami, guatze vs. ohe, i(t)tausura vs. itogin, izotz ‘izotz zuri, antzigar’, karrika vs. kale, kider & gider vs. kirten, kisu vs. kare, cuarto ‘laurden’ (ordua emateko), laster(ka) vs. korri(ka), mixto vs. pospolo, sor & gor vs. gor, yarri vs. eseri, zolda ‘uher, zakar’, zurgin vs. arotz.*

Hurrengo multzoan, Baztan-Bidasoan, Ultzaman, Esteribarren, Erroibarren eta Aezkoan badiren eta Sakanan nahiz hortik mendebalerago ez diren aldaera zenbait zerrendatuko ditugu:

*bei(t)i & bera, biarri vs. belarri, daldar vs. dardar, egal vs. ego, elkar vs. alkar, eskuin vs. eskubi, erran vs. esan, iduki vs. eduki, itze vs. iltze, izit(t)u vs. izutu, goi(t)i vs. gora, nabala vs. labana, yautsi vs. jaitsi, yostatu vs. jolastu, xilko vs. zilbor.*

Orobat, Baztan-Bidasoan, Ultzaman, Esteribarren, Erroibarren eta Aezkoan badiren eta Sakanan nahiz hortik mendebalerago ez diren itemak emanen ditugu hurrengo sailean:

*aizin vs. aurre, aizego ‘hego haize’, altxatu ‘gorde’, ama(u)txi ‘amona eta amabitxi’, at(t)a(u)txi ‘aitona eta aitabitxi’, argi(a)ste ‘egunsenti’, arras(o), arront, arraztalu ‘eskuarea’, ats (& asnasi urriago) vs. arnas, aun(d)itz vs. asko, aski, ausarki ‘ugari’, azkar ‘sendo, fuerte’, biarrik (& eskerrik urriago) vs. eskerrak, bide-nabar vs. bide batez, beztitu (& yauntzi) vs. jantzi, deus (ere) vs. ezer, duikabe (Bidasoa) & doike (Baztan) ‘segur aski’, ebatsi, eri vs. gaixo, erriko itxe vs. udaletxe & ayuntamiento, espantu ‘itxura, fanfarroi’, idortu vs. leortu & sikatu, ixtape ‘hankarte’, (kata)putxintxa & (kata)kurtxintxa vs. katagorri, kukuso vs. arkakuso, maingu & maingi vs. erren, matel ‘masail’, mutil vs. morroi, muturkatu ‘behaztopatu’, naski (Baztan) & noski (Bidasoa) ‘ustez, segur aski’, neskato vs. neskame, orma ‘izotz’, oroit(t)u ‘gogoratu’, ostatu vs. taberna, paratu vs. jarri, petral ‘habe’, pikatu ‘moztu, ebaki’, sob(e)ra vs. gehiegi, t(t)arrapat(t) ‘lasterka eta presaka’, tenore vs. garai, xe(a)tu ‘puskatu, txikitu’, zurmio vs. (tx)orkatil.*

Guti samar badira ere, badira Sakana [salbu Arakil] eta erdialdea alde batera eta Nafarroako gainerako eremuak bertzero uzten dituzten eleak:

*goittu, goittittu & goratu* ‘igo, altxatu’, *irri vs. barre, matxutxa & matzu(r)za vs. masusta, ortzi(ra)l(e) vs. ostiral, oyan vs. baso, urin vs. koipe*.

Nolabait, saio honetan baliatu ditugun ehun hitz pasatuxe honek nafar kolorea ematen dio azter-eremuari; nafar kolorea, batez ere, erdialdeko (eta mendebaleko) kolorea hartzen duten bertze hitz batzuen ondoan. Isoglosa nabarmena delakoan gaude, lexikoaz den bezainbatean.

Nolanahi ere, isoglosa hauek ez dira beti toki beretik igarotzen. Batzuetan, Goizueta eta Saldias euskara nafarraren barrenean daude: bertzeak bertze, *aixtin, aizego, apez, arront, atari, azinda, baru, beitti, bulkatu, daldar(i), deus (ere), elkar, erde, eskuin, goitti, guzi, gaztanbera, iñal, iretsi, izotz, ongi, obeki, orma, oroittu, paratu, t(t)arrapat(t), yostatu, zurmio*.

Laugarren kapitulu honetan aztertu ezaugarri foniko-morfologikoetan bezala, alderdi lexikoan ere Saldias nafarrago ageri zaigu Goizueta baino; isoglosa batzuek Saldias batera eta Goizueta bertzerera banatzen baititute: *beztitu (& yauntzi) vs. yantzi, egal vs. ego, ertze vs. este, idortu vs. leortu, ittausur vs. ittotti, mazurtza vs. masusta, nabala vs. labana, guatze vs. oe & ue, yautsi & yeutsi vs. yeitsi*.

Saiakera honetara ekarritako hitz batzuk Irun-Hondarribian ere ezagunak dira (bertako aldaerak emanen ditugu): *aizego, atari, azienda, bulkatu, deus (ere), goittitu, guzi, izotz, orma, oroittu, paratu, txurmiyua*. Halaber, hauetatik batzuk Donostia bitarteko hizkeretaraino iristen dira, eta bereziki, Oiartzunen dira ezagunak: *atari, deus (ere), guzi, oroit(t)u, paratu*.

Bertze alde, Baztan-Bidasoa eta Ipar Euskal Herria elkarrekin estuki lotzen dituzten solas zenbaitzuk aurkitu ditugu. Hitzok Nafarroako ibar eta herri gehienetan falta dira, ez, ordea, Baztan-Bidasoa ondoko eremu lapurtar eta baxenafarrean. Hortaz, Ipar Euskal Herriko euskararen eragina salatzen duten hitzak dira:

*aldaira* (Bidasoa) & *aldaire* (Baztan) ‘etxe aldaketa, mudantza’, *andana* (Baztan) & *endana* (Bidasoa), *(a)ixtur* ‘guraize’, *banaz bertze*, *Besta Berri* ‘Corpus Christi’, *fier*<sup>36</sup> ‘azkar, sendo’, *kapable* ‘kapaz’, *sainga* ‘zaunka’, *zertaz* ‘zergatik’, *zinaurri*, *zimiko* ‘atximur’, *zozo* ‘ergel’.

#### 4.9. Ondorioak

Ondotik, laugarren atal honetan aurkeztutako ezaugarriek zein ondoriotara eramán gaituzten aipatuko dugu, modu eskematikoan.

- Frogaturik gelditu da Saldias eta Beintza-Labaien Goizueta baino nafarrago direla, Malerrekako eta Basaburu Txikiko zubi-hizkeren trantsizioan: Goizueta nafar egiten duten tasunak Saldiasen eta Beintza-Labaienen ederki

36 Hitz hau muga ondoko Esteribarren eta Erroibarren ere ezaguna da (Ibarra 2007).

betetzen dira; eta gainera, Nafarroa gehienez erabiltzen diren bertze ezau-garri batzuk Saldiasen eta Beintza-Labaienen indarrean daude eta Goizuetan ez daude (edo lehian). Goizueta baino (aise) nafarrago ageri dira Saldias eta Beintza-Labaien, Bidasoaldeko dinamikan egoteari esker.

- Goizuetan, zaharren eta gazteen arteko aldea nabarmena da: zaharrek Nafarroa aldera gehiago egiten dute eta gazteek, berriz, Gipuzkoa aldera gehiago jotzen dute. Saldiasen eta Beintza-Labaienen ere adinaren kontua nabaria da, jakina, baina ez dago Goizuetan dagoen alde hori. Erran nahi baita egungo dinamikek ez dutela hainbertze begiratzen Gipuzkoara eta Gipuzkoako mintzora. Erdialdetiko berrikuntza gutiago daude bi herriotan Goizuetaren ondoan. Hortaz, pentsatzekoa da etorkizunean ere Goizuetako euskarak erdialdera nabarmenago biratuko duela Saldiasen eta Beintza-Labaienen baino.
- Zubietan Malerreka da, hizkeraz ere, baina alderdi fonikoan eta lexikoan Basaburu Txikira egiten du batzuetan. Hizkuntza aldaketa Zubietan hasten dela erran genezake.
- Saldiasen eta Beintza-Labaienen segitzen du aldakuntzak, eta nabarmenago antzematen da aldaketa giroa Goizuetan. Hizkeren trantsizioan aipamen berezia merezi du gure azterketan sartzen ez den Eratsunek: bertako polimorfismoak bi indar ez, hiru topatzen direla salatzen baitu.
- Baztan-Bidasoatik begiratuta, bortz maila bederen sumatzen ditugu aldakuntzan, Gipuzkoa ondoko Aranora eta Aresora iritsi baino lehen: (i) Zubietan, (ii) Beintza-Labaien eta Saldias, (iii) Goizueta, (iv) Eratsun eta (v) Ezkurra-Leitza. Ohi denez, trantsizioa mailaz maila gertatzen da, baina horrek ez du erran nahi ezin identifika daitekeenik.
- Malerrekaren eta Basaburu Txikiaren arteko trantsizioa nola gertatzen den ikusi dugu, baita iparralderaxeago ere: Irun-Hondarribia, Oiartzun eta Bortzerriak (tarteka Goizueta aipatuz). Hemen ere erdialdearen eta nafarreraren arteko iragatearen iduri bat eman dugu: Hondarribia da Nafarroatik (eta batzuetan, Lapurditik) hurbilen dagoena; Irun ondotik doakio, eta Oiartzun urrunago. Gipuzkoako hiru herriotan gertatzen da aipatu iragatea. Hortik ezker, euskara giputza gero eta sendoago ageri da.
- Gipuzkoako herriotan adinaren kontuak bertako hizkeren dinamikaren berri ematen digu: Hego Euskal Herri gehienez bezalatsu, belaunaldi gazteagoek erdialdera egiten dute. Irunen, Hondarribian eta Oiartzunen adineko euskaldunak dira sustrai nafarra hobeki gorde dutenak; gazteagoen artean, berriz, Gipuzkoa aldeko euskara franko sartua da. Gaurko egoera (sozio)linguistikoa kontuan harturik, Hondarribia da trantsizio linguistikoko bete-betean daku-sagun herri bakarra.

- Bidasaldeko batasun iduri bat ematen diguten borts ezaugarri berri eta (ia) eskusibo aurkeztu ditugu, Nafarroaz eta Gipuzkoaz gainetik, Bidasaldeak bere nortasun linguistiko-kulturala baduela aldarrikatzen dutenak. Geografikoki nahiz sozio-ekonomikoki ere halatsu gertatzen da, Bortzerrien eta Irun-Hondarribiaren artean bereziki. Oroitarazi behar da Beratik Irunera —errepidez— 12 kilometro bertzerik ez dagoela. Eta Irunek Berarekin ez ezik, Lesakarekin ere muga egiten duela kilometro frankotan. Dena den, nortasun hau Bidasoa ibaiarekin batean hedatzen da, mailaz maila: (i) Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranara; baita tarteka, (ii) Basaburu Txikira eta (iii) Baztango Basaburura ere.

#### 4.10. Proposamen arealak eta bertze

Gure asmoa ez da inolaz ere bertze ikertzaile batzuek egin duten lana gaitzestea; nolatan gaitzesiko dugu guk abiapuntu eta oinarri hartu duguna? Ikerkuntzan denen artean aitzinera egin behar dugula uste dugu. Guk ere aitzinetik ongi egina zena baliatu dugu gure eginbeharra ahalik eta hobekien egiteko asmoz, Euskal Dialektologian aitzinatzeke asmoz. Hortaz, gure ustez, hauek dira (berr)aztertu edo zehaztu beharko liratekeen afera zenbait, laugarren atal honi dagokionez:

- Euskalkien mapari gagozkiolarik, Saldias nafarreraren ertz-ertzetik atera behar delakoan gaude, eta barrenera sartu, Beintza-Labaienen ondoan paratzeke.
- Goizuetaren kasuan, kontrakoa egitea proposatzen dugu: hain zuzen, barretetik atera ertz-ertzean kokatzeko, gaur den egunean, muga-mugan baitago.
- Oraindik ez dakigu sobera ongi zer gertatzen den mugaren bertze aldean. Erraterako, deus guti dakigu Hendaiak eta Hondarribiak elkarren artean izan ditzaketen kidetasunez eta ezberdintasunez. Halaber, Bidasaldeko nortasuna iradokitzen duten ezaugarri (ia) eskusiboak Lapurdiko Bidasaldean ba ote diren aztertzea interes handikoa izan liteke: Pausu (Behobia), Hendaia, Biriatu eta Urruñan.





## **5. Bortzerriak**

---



## 5.1. Sarrera

Lehenik eta behin ohar bat egin nahi dugu: Bortzerrietako euskara dela eta, 2004 eta 2005 urteetan bi lan —edo hobeki erran, ikerketa-lan beraren bi atal— argitaratu ditugu (ikus bibliografian). Erran gabe doa, hortaz, atal honetan erabiliko ditugun datu gehienak bi artikuluetatik atereak direla, nahiz eta azken hiru urteotan ere Bortzerrietako mintzoari buruzko datu berririk bildu eta aztertu dugun.

Ikerketa-lan horretan Bortzerrietako euskararen 84 ezaugarri aztertu ditugu, azentuerari buruzko ñabardurez eta atal lexikoez landara: fonetika-fonologian 18, izenaren morfologian 24, aditzaren morfologian 25 eta bertze 17 syntaxian. Azken batean, Bortzerrietako euskararen gramatika bat egin dugu, gramatika deskriptibo horretatik azterketa dialektologikora abiatzeko asmoz. Horretarako, geografian barrera joan gara berdintasunak eta ezberdintasunak non sortzen diren jabetzeko.

Beraz, aipatu bi artikuluetan luzeago baina tesi-lan honetan sintesi izpirituaz, Bortzerrietako barreneko muga lektalik behinenak non kokatzen diren ikusi eta erakutsi gogo dugu, orain arteko metodologia kontrastiboari jarraikiz. Halaber, Bortzerrietako hizkerak berezko nortasun linguistikorik duen edo ez duen agertuko dugu, betiere lanean zehar aurkeztuko ditugun tasunen arabera.

## 5.2. Harremanak

Gipuzkoarekin, Lapurdirekin eta Nafarroarekin (Baztanekin, Bertizaranarekin, Malerrekarekin eta Goizuetarekin) muga egiten dute Bortzerrietako herriek. Geolinguistikoki, aski kokapen berezia delakoan gaude. Hala ere, badira herri batzuk Bortzerrietako bertze herri batzuekin bakarrik muga egiten dutenak (Igantzi), bertze batzuek Gipuzkoarekin nahiz Lapurdirekin muga egiten duten bitartean (Bera).

Bidasoa ibaiak gurutzatzen du eskualdea, Bera eta Etxalar alde batera, eta Arantzua, Igantzi eta Lesaka bertze aldera uzten dituelarik. Era berean, Bera eta Etxalar dira Ipar Euskal Herriko herriekin muga egiten dutenak. Hain zuzen ere, muga dela eta, argi dago bi aldeen arteko lokarria hizkuntza (eta oro har, kultura) izan dela. Rosa Arburuak bere *Bortzerrietako gaztiak (1940-1960)* liburuan erraten duenez, Iparraldean neskato ibili ziren Bortzerrietako gehienak Berakoak eta Etxalarkoak ziren. Hortaz, pentsatzekoa da harreman horiek nolabaiteko ondorioa izana dutela bertako mintzoan. Dena den, egun ez du iduri egungo harremana sasoi iragan bate-

koa den. Eta hizkuntzari dagokionez ere, mugaren bi alderdien arteko aldea gero eta handiagoa dela iduri du, muga inguruko baserritarren arteko harremana hobeki gorde bada ere.

### 5.3. Bortzerriak banatzen dituzten isoglosa nagusiak

Lehenbiziko, Bortzerrietako herriak banatzen dituzten isoglosa nagusiak zeirendatuko ditugu:

1. *i+a>iya* epentesia: *mendiya, ardiyak, oliyo, zerriya, ariya, baliyo...*  
Epentesia honelako kasuetan dugu Iñaki Gaminderen arabera:

Txertaketa erregela hitzaren azentuak baldintzatua da, hots, /i/ bokala azentuduna izaki, /y/ txertatzen da, ez bestela (1996: 46).

Hala ere, guk eskuratu ditugun datuetan nahiz solas bizian bertze hauek ere aurkitu ditugu: *ittúrriya, ipúrdiya, ber(t)sólariya, izúgarriya, astákariya...* Bertze alde, epentesiaz gainera inesiboa ere eransten denean, bi emaitza kausitu ditugu: Beran eta Etxalarren *mendiyan, erriyan* modukoak gailen diren bitartean, Lesakan, Igantzín, Arantzan nahiz Sunbillan *mendiyn, erriyn* modukoak nagusi ditugu. Bidasoaren alde bakoitzean emaitza bat ageri zaigu.

2. Zenbait aldiz, *o>u* bilakatzen da *-n* sudurkariaren aitzinetik: *unek, unekin, unentzat, unenbertze, unela, untan, unat...* Dena den, ez da hagitz emankorra, eta gainera, *onek/onat* bezalakoak ere aditzen dira. *u-* duten formak Ipar Euskal Herrian ez ezik, Malerrekan, Basaburu Txikiko Saldiasen eta Beintza-Labaienen, Bertizaranan, Baztanen eta Urdazubi-Zugarramurdin ere baliatzen dira, aldeak alde. Auzi honi buruz Patxi Iñigok hauxe zioen bere artikuluan, Beran ospatu ziren *Euskal Besten mendeurrena* zela eta:

HAU=HUNÉK edo HONÉK bihurtzen da. Nork ordaindu du ardoa? galdetzen badugu, Arantzan, Beran eta Etxalarren: «HUNEK ordaindu du» erantzunen digute. Igantzín: «HONÉK ordaindu du». Lesakan: «HONÉK ordaindu du» edo «HUNÉK ordaindu du» (Iñigo 1980: 43).

3. Diakroniara joz gero, Berako nahiz Etxalarko testuetan *u-* ikusiko dugu, eta Lesakako idazkietan, aldiz, *o*<sup>36</sup>. Zoritxarrez, ez dugu Arantzako edota Igantziko testurik ezagutzen. Bertze alde batetik, Lapurdin eta Baztanen aditzen diren ungi, untzi Etxalarren bakarrik jaso ditugu guk bertze lau herrietan aditzen diren ongi, ontzi formekin batean. Hortaz, Etxalar, ondoan dituen Saratik eta Baztandik hurbilago ageri zaigu. Dena den, Etxalar

36 Ricardo Urrizolaren artikuluan batean, Juan de Iturria beratarak idatzitako hiru eskutitzetan *onen* eta *onetan* ageri dira (2006: 255-269). Halarik ere, irizpide metodologikoei dagokien atalean azaldu dugunez, hiru testu laburrak ez ditugu (erabat) kontuan hartu, bertako datu geolinguistikoki nahasiak direla bide.

urruti samar gelditzen da Ipar Euskal Herriari atxikia den Luzaidetik. Izan ere, Luzaiden gertakari hau ia arras sistematizatzen da, Ipar Euskal Herrian bezala (Salaberri 2000: 230): *undar, uñez, ungarria, uñazia...* gurean *ondar, oñaz & oñez, ongarri* (gehiago *gorotza, oñazia...*

4. Bustidura automatikoa ( $i+t > (i)tt$ ,  $i(n)+d > i(n)y$ ): barreneko banaketa garbia suertatzen da kontu honetan, Etxalarren ez baitago maila honetako bustidura automatikorik: *guti, maiten, tugu, baitan, bildu, arraildu, agindu...* Gainontzeko herrietan, aldiz, bustidura hagitz azkarra da: *gutti, matten, matte zattut, ttugu, battan, bilyu, arrailyu, aginyu, zikinyu, minyu...* Beraz, Etxalar Ipar Euskal Herriko nahiz Baztango hizkeretatik hurbilago ageri zaigu berriz ere. Ezberdintasun hau bortzerritarren artean ezaguna da, eta normalean gutien-goan gelditzen denari iseka egiten zaionez gero, batzuetan bertze lau herrietakoek etxalartarrak zirikatzen dituzte honen kontura. Bortzerrietako testuetan ere banaketa bera aurkitu dugu. Aitzitik, Bortzerrietan, asimilazio bustidura ez da hiru inguru jakinetan gertatzen: deklinabideetan *menditik* (inoiz ez *menditik*); atzizki eratorrietan *urite, zerritegi, erritar* (inoiz ez *uritte, zerrittegi, errittar*) eta aditz partizipioetan *yarrita* (inoiz ez *yarritta*). Berebat, mailegu berri samarrak diren *gabardina, gasolina, makina, mandarina, pegatina* busti gabe ahoskatzen dira Bortzerrietako herri guzietan. Bustidura adierazgarria ere maiz erabiltzen da, honako aldagetak suertatzen ohi direlarik:  $z > x$ , *xoko, xakur, xerri, xapel, axal...*;  $t > tt$  *mottel, ttennte, kattu, muttiko...*;  $l > ll$  *llabur*<sup>37</sup>, *pollit, polliki, llo...*
5. Adlatiboa: Bortzerrietan barreneko banaketa arras garbia dugu, Beran eta Etxalarren *-rat, -ganat, -(z)erat* daude aukeran<sup>38</sup>, eta bertzeetan *-ra* da atzizki emankor bakarra. Dena den, *norat* kasuaren arrastoak diren hainbat forma fosilduta daude herri guzietan, erakusleak nagusiki: *unat & onat, orrat, arat*.
6. Bizidunen ablatiboa: Bortzerrietako idatzietan ageri den atzizki bakarra *-ganik* dugu, gaur egunean, Ipar Euskal Herriko hizkeretan erabiltzen dena nola muga inguruko zenbait mintzotan<sup>39</sup>. Guk arakatu ditugun testuetatik adibide zenbait ekarri nahi ditugu honat, goitiago erran dugunaren erakusgarrirako: *non ganik, Jaunen ganik* (Bera); *Mariaganic, Virginiaganic* (Etxalar); *gure ganiq, nere ganiq* (Lesaka). Gaur den egunean, ordea,

37 Su empleo en inicial con valor afectivo se da sobre todo en dialectos orientales (Mitxelena 1977: 195).

38 Gure datuen arabera, maiz familia kontua izaten da. Izan ere, herri nahiz barride berekoek ezberdin jokatzeko dute, batzuek gorde dute, eta bertze batzuek ez. Erran dezagun, bidenabar, Berako eta Etxalarko testu batzuetan bakarrik agertzen dela.

39 Baztangoizako testigantza dugu honakoa (N'Diaye 1970: 80): *noenganik dakizu berri au*. Halaber, hego-nafarreraz den bezainbatean, egun Aezkoan baliatzen dela nahiz Elkanoko Lizarragaren lanean ere ageri dela badakigu. Dena den, Nafarroatik kanpo, Bizkaian ere bazen antzina. Beraz, *-ganik* zaharra dugu.

egoera konplexu samarra dago: adin handikoeak bakarrik bereizten dituzte bizidunak eta bizigabeak, ablatiboari dagokionez, *medikutik eldu naiz* modukoak gero eta gehiago aditzen direlarik, alde batetik; eta bertze aldetik, bizidunen ablatiboa erabiltzen dutenen artean *-ganik* eta *-gandik* atzizkiak aditzen ahal dira. Gure datuen arabera, Beran eta Etxalarren biak erabiltzen dira, eta bertze hiruetan *-gandik* eman digute. Berebat, Patxi Iñigok honako hauek bildu zituen (1980: 46): Beran *-ganik* eta *-gandik*, Etxalarren *-genik* eta *-gandik* eta Arantzan, Igantzin eta Lesakan *-gandik*. Hortaz, iduri du Bidasoa ibaiak muga lana egiten duela berriz ere.

7. Ezaguna da Bortzerrietan eta inguru guzian erabiltzen dela *-ki* aditz atzizkia. Atzizki honek har ditzakeen hiru balioen artean (ikus Iñigo, P., Salaberri, P. & Zubiri, J.J. 1995), puntukaritasuna adierazten duten egituretan zentratuko gara gu, Bortzerrietan barreneko isoglosa interesgarriago bat eskaintzen baitu:

Bortzerrietan Bera eta Etxalar dira puntukaritasuna adierazteko *-ki* aditz-atzizkia erabiltzen duten herri bakarrak; honelako adizkiak aurkitzen ditugu hemen: *joaki naiz/joaki nintzen*, *ibilki naiz/ibilki nintzen*, *eramaki dut/eramaki nuen*, *ekarki dut/ekarki nuen* (Iñigo, P., Salaberri, P. & Zubiri, J.J. 1995: 285).

Honenbertzez, Bera eta Etxalar ditugu (berriz ere) alde batera, eta Arantza, Igantzi eta Lesaka bertzera. Gainera, gramatikalki adizki trinkoak baino eraikuntza errazagoa izaten ahal den neurrian, Berako eta Etxalarko gazte frankok ere ausarki erabiltzen dituzte honakoak. Bizi-bizirik dagoen bereizketa hau ezaguna da bortzerriarren artean. Erraterako, Lesakako gazteek ongixko dakite *yuaki naiz* hori beratarra dela. Afera honetan, Bera eta Etxalar Zugarramurdi-Urdazubitik nahiz Ipar Euskal Herritik hurbilago ditugu. Muga ondoko Irunen eta batez ere Hondarribian ere baliatzen da (Sagarazu 2005: 81).

8. Bortzerrietako (eta inguruko eremu zabalagoko) herri guzietan erabiltzen dira Nor Nori eta Nor Nor Nork sailak nahasi samarrean. Halarik ere, bertzelako isoglosa bat aurkitu dugulakoan gaude, Bera eta Etxalar batera, eta Lesaka, Igantzi eta Arantza bertzera uzten dituen: Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duten bi herrietan joera nabaria sumatu dugu halakoak erabiltzeko: *kotxe bat erosko zattut* ‘kotxe bat erosiko dizut’; *noizpattere errankatu yaut* ‘noizbait erran izan diat’ (Bera) nahiz *nik manen zaituztet* ‘nik emanen dizuet; *lasai ama, osabak ein zaitu mandatua* ‘lasai ama, osabak egin dizu mandatua’ (Etxalar). Hots, Nor Nori Nork saileko adizkien ordez, lehen bi pertsonetan, hala singularrean nola pluralean, Nor Nork saileko adizkiak erabiltzen ohi dira Beran eta Etxalarren. Gauza jakina denez, ondoko Lapurdin Nor Nork saileko adizkiak usu erabiltzen dira. Bidasoaz bertze aldean dauden Arantzan, Igantzin eta Lesakan, aldiz, ez dugu halako joerarik sumatu, adibide bat edo bertze bildu baldin badu-

gu ere. Gainera, Pedro de Yrizarrek ere gauza bera agertzen du bere tauletan (1992: 363-485).

9. Iduri du euskara nafarrean eta Ipar Euskal Herrian gero eta gutiago erabiltzen direla ahaleko adizki trinkoak. Bortzerrietako testuetan adizki trinkoak nonahi ageri dira, eta gaur egunean ia ez da batere erabiltzen. Erran bezala, eremu handi samarra hartzen du kontu honek, baina Bortzerrietan bereziki arrunt galduak dira jatorrizko adizkiak (Gaminde 1985: 220):

Amaiur, Igantzi, Etxalar, Bera, Lesaka eta Arantzan ez ziren adizki hauek agertu [nor-en ahaleko adizkiez ari da], *ahal izan* aditzaz baliatzen ziren beti, adibidez:

— (Igantzi) *ibiltzen al naiz emen*.

— (Bera) *mendirat yoaten al gattun*.

Guk singularreko 3. pertsonako adizkia bakarrik aurkitu dugu: (*i*)*zan tteke* ‘izan daiteke’ (maiz aski), *ez tatteke ori yan* (Bera), *izan ttezke oiek* (Igantzi), *aundiya eztaike ibiltzen al maldin* (Etxalar). Etxalarren Nafarroako zenbait tokitan aditzen diren *daike*, *daizke* adizki laburtuak ere bildu ditugu. Bortzerrietan, Etxalarren soilik bildu ditugu arestikoak. Berriz ere, Etxalar batera, eta gainerako lau herriak bertzera ageri zaizkigu. Honenbertzez, Nafarroako eta Ipar Euskal Herriko hizkerekin bat egiten dute Bortzerriek, baina ikusi dugunez, ahaleko adizkiak Bortzerrietan bereziki galduak dira<sup>40</sup>.

10. Ofizioa edo lana adierazten duen *-ko* atzizkia atzeman dugu; ekialdeko euskalkietan arrunta da: *artzaingua*, *nekazalgua*, *sorgingo*, *alkategoan* (Ibarra 1995: 412)... Bortzerrietan ere maiz aditzen da (*-go>-ko*): *artzaikun ibilli*, *alkatekun egon*, *soldadokua iñ*, *txoferkun*... Guk beti *-ko* aldaera aditu eta bildu dugu, nahiz eta behin *-go* ere jaso den Etxalarren: *neskatxa zen sorginguan ibiltzen zena* (Euskaltzaindia 1999: 101). *-go* honek ekialderago eramaki gaitu, zeren eta hau da ekialderago nahiz iparralderago erabiltzen den aldaera. Erraterako, Baztanen *argingo*, *zurgingo*, *artzaingo* (guk Baztanen bilduak) nahiz Luzaiden (Salaberri & Kamino 2001: 76): *artzaingo*, *apezgo*, *ahozko* ‘arozgo’, *xofergo*.
11. Hondarreko urteotan jasotako hitzen corpusa multzoetan sailkatu dugu, zenbait ezaugarri lexikoren isoglosak non kokatzen diren jakiteko. Bortzerriak banatzen dituzten zenbait hitz aurkitu ditugu. Honetan, bi azpisail eginen ditugu: Bera eta Etxalar gainerako herrietatik aldentzen duten ite-

40 Paskual Rekaldek egin oharren arabera, Baztangoizan (eta partikulariki adinekoen artean) *dai(te)ke*, *dai(te)zke*, *dezake* bizi-bizirik daude. Gazteagoen artean, aldiz, egitura perifrastikoak nagusi dira.



mak eta Etxalar bertze lau herrietatik urruntzen dutenak. Arestiko bi azpi-sail hauek Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasuna adierazten dute. 10.1. Bera eta Etxalar: *etsi*<sup>41</sup> vs. *itxi*; *eya*<sup>42</sup> ‘ukuilua’; *gasna* vs. *gazta*; *pastanarre*<sup>43</sup> vs. *zanaoria*; *ttu* vs. *listu*; *zilo* vs. *zolo* & *zulo*. 10.2. Etxalar: *arbu*<sup>44</sup>; *ats* & *arrats* vs. *arrats*; *boneta* vs. *zapela*; *fite* & *abudo* vs. *abudo*; *gisu* & *kisu* vs. *kisu*; *manatu* & *agindu* vs. *aginyu*; *orai* vs. (g) *uaiñ*; *peterraba*<sup>45</sup> vs. *erremolatxa*.

Eremua banatzen duten hamar ezaugarri azaldu ditugu, zenbait isoglosa lexikalez landara. Isoglosaren batek Bortzerriak banatzen dituenean, Bidasoa ibaiaren arabera nahiz Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasunaren arabera egiten duela ematen du: batetik, Bera eta Etxalar, eta bertzetik, Arantza, Igantzi eta Lesaka. Bidasoaren alde berean gelditzen diren Bera eta Etxalar zenbaitetan Ipar Euskal Herriko nahiz ekialderagoko hizkera nafarrekin batean ageri dira, bertze hiru herrietatik —eta Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranatik— aldenduz: *o>u* erakusleetan berrikuntza erregularragoa (Arantzan ere bai), *-rat/-ganat/-t(z)erat* adlatiboak, *-ganik* bizidunen ablatiboak, *-ki* aditz atzizkia puntukaritasuna adierazteko, Nor Nori Nork saileko adizkien ordeztu Nor Nork sailekoak erabiltzea lehen eta bigarren pertsonetan eta *gasna*, *ttu*, *zilo* bezalako aldaera eta item lexikoak. Nagusiki, Berako eta Etxalarko gazteek ere erabiltzen dituzten *itxerat yuaki nai* bezalakoak bereizgarriak suertatzen dira eguneroko solasean, gainerako hiru herrietakoen aitzinean

Ikusi dugunez, batzuetan Etxalar areago hurbiltzen da iparralderagoko hizkeretara: garrantzizko isoglosa den bustidura automatiko apala eta *atsa*, *boneta*, *fite*, *gisu* eta *peterraba* gisako aldaerak nahiz item lexikalak. Hortaz, iparraldetik nahiz ekialdetik heldu diren hainbat isoglosa ez dira Bidasoaren bertze aldera iragan, eta hauek batzuek Etxalar bakarrik hartzen dute, Hego Euskal Herriko mintzorik gehienetatik urrutiratuz.

#### 5.4. Uskara arantzarra

Aitzineko puntuan aurkeztu ditugun ezaugarri banatzaileak ez dira bakarrak; izan ere, bertzelako ezaugarri banatzaile batzuk ere atzeman ditugu, segidan zerrendatuko ditugunak, justuki. Ezaugarri hauek bertzelako banaketa bat iradokitzen dute, eta hori dela eta, aparte sailkatzea erabaki dugu: Arantza batetik, eta Bera, Etxalar, Igantzi eta Lesaka bertzetik.

41 Hau bertze herrietan ezaguna da, baina *itxi* da haietan aukera nagusia.

42 Irun-Hondarribian, Urdazubi-Zugarramurdin, Baztangoizan eta muga ondoko herri lapurtarretan ere bai.

43 *Pastanarre* maizago aditzen da Etxalarren Beran baino.

44 Gainerakoetan *arbaztak*, eta Baztanen nahiz Bertizaranan *arbak*. Zugarramurdin *arbuak*.

45 Frantsesez *betterave* erraten da. Mugaren bertze aldeko Azkainen nahiz Saran *beterraua* eman digute.

Baliteke, bakartze orografikoaren ondorioz, Arantza mendi tartean baitago, zenbait bilakabide berezi bertan bakarrik garatu izana. Nolabait ere, ezaugarri esklu-siboak dira, ez geografia hedaduraz, baina bai maiztasunaz eta indarraz den be-zainbatean. Hona hemen guk topatu dugun saila:

### **Uskara arantzarraren kontzientzia eragiten duten ezaugarriak**

1. Egoera soziolinguistikoa: hizkuntzaren erabilerari dagokionez, erran beharra da Arantzian ia ezagutzaren mailaren parean dagoela. Arantzako euskararen egoeraren oihartzuna Bortzerrietan eta inguruko herrietan barrena zabaldu da. 1999an, *Euskararen egoera. Baztanen, Bortzirietan eta Malerrekan* izeneko txosten bat atera zen, eta bertan erraten da, hiru eskualdeetako herrien arteko ezberdintasunak aipatzerakoan, Arantza salbuespena dela (*Euskararen egoera*: 7.or.):

Arantza denok jarraitu behar dugun eredia da eta herri hau mitifikaturik agertzen dela erraten ahal dugu.

2. Aferesiaren maila bizkorra: Bortzerrietako hizkeran *zan, man, kus(i), kar(ri), tor(ri), zautu, toz* ‘atoz’, *jito, men* ‘omen’, *te* ‘ote’ moduko aferesiak orokorrak dira herri guzietan. Hala ere, erran beharra dugu Bortzerrietan aferesirik gabeko formak ere aditzen ahal direla, Arantzian izan ezik: herri honetan aferesiaren indarra (aise) handiagoa da. Dena den, Bortzerrietan (eta Nafarroako Bidasoaldean, oro har) ez dauden aferesi zenbait aditu eta bildu ditugu Baztanen: adibidez, *txiki* ‘atxiki’, *baki, mazte, turri*, bezalakoak Arantzian ere arrotzak dira. Bortzerrietan beti honela aurkituko ditugu: *ebaki, emazte* eta *it(t)urri, itxeki*. Testuen kronologiaz den bezainbatean, orobat, Baztango testuetan ere lehenago eta maizago ageri dira aferesiak Bidasoaldekoetan baino. Honek Baztan-Bidasoako aferesien jatorria edota sorburuaren berri ematen ahal digu, gure ustez. Baztan ondoko Ultzaman ere aferesiak bizkor-bizkor dabilta (Ibarra 1995).
3. Gisa honetako sinkopak arrunt hedatuak dira Bortzerrietan barrena (baita Nafarroako Bidasoaldean ere, oro har): *gainko, bazterko, dutelkoz, eskol-tik, garraitzeko, zarna, gaztanbra, arizte*, ‘ari zarete’... baita zenbait maileru berritan ere: *zepildu, serbilta, fabrikatik*... Hala ere, sinkopen mailak Arantza<sup>46</sup> bereizten du arruntean bertze lau herrietatik. Afera hau hain da ezaguna bortzerritarren artean, ezen bertako edozeinek minutu bat(zu)ekin aski du solasean ari dena arantzarra dela jakiteko. Zalantzarik gabe, kontu honek sendotzen du Arantzako euskararen nortasuna bertze herrien aitzinean. Baina, ikus ditzagun Arantzako euskara bereizgarri egiten duten arau esklu-siboak: inesibo pluraleko *-ketan>ktan* (*anktan, berriktan*); aditz izenetako *-teko>-tko* (*yatkua, edatkua*); *-tzeko>-tzko* (*yotzko, garraitzkuk*); partizipio inperfektiboa laguntzailearekin elkartzean sortzen dire-

46 Arantza ondoko Igantziko Irisarri auzoan eta Sunbillako auzo batzuetan ere antzera egiten dute.

nak (*karsnu* ‘ekartzen du’, *kustnu* ‘ikusten du’, *torsna* ‘etortzen da’); Arantzan bakarrik sortzen diren kontsonante bikoitzak (*fabrikua*, *atetik* ‘ateetatik’) modukoak. Gogoan hartzen badugu anitzetan erabiltzen diren errateak direla, ohartuko gara zergatik gertatzen den hain emankorra eta berezia isoglosa hau.

4. Disimilazioak ( $o+a>ua$ ,  $e+a>ia$ ): gertakari hau arauzkoa dugu Nafarroako Bidasoaldean *un(e)takua*, *Lesakakua*, *basua*, *otsua*, *yokua*... eta *itxia*, *emakumia*, *ittia* ‘egitea’, *otia*, *gaztia*... Batzuetan, sobera maiz ez, mugatzailera erabat asimilatzen da: *itxeku*, *otsu*, *gazti*, *yabi*... Honetan Arantza ere nabarmen gelditzen da, herri honetan puskan maizago gertatzen baita, eta fenomeno bera dugu herri guzietan kontsonanteren bat gehitzean: *etxalarkuk*, *otsuk*, *kanpun*, *zokun*, *emakumik*, *yabik*, *itxin*, *barrenin*... Hala ere, adin batetik goitikoan artean bereziki, Beran eta Etxalarren bietara sumatu dugu guk: *onduan* & *ondun*, *ondarrian* & *ondarrin*, *gaziak* & *gazitik*; nahiz eta bigarrenak gailentzen (ari) diren.
5. *naiz* ‘naiz’, *yaz* ‘haiz’ bezalako monoptongazioak gero eta maizago entzuten dira Arantzan, bertan aski berriak diren seinale, ziurrenik. Erran nahi baitugu gazteen solasean gero eta gehiago aditzen direla. Gainera, Bortzerriek ematen diguten testuinguruan, ezaugarri bereizleak dira. *De facto*, Ibardingo (Bera) benta batean (guk sortu ez genuen) hizkuntzaren inguruko eztabaida bat entzuteko eta ikusteko aukera izan genuen. Lau gazteren arteko eztabaidagaia, hain zuzen, *naiz* vs. *naiz* zen. Arantzako «ordezkariak» hau erran zuen bere defentsan (arantzar bakarra baitzen beratarren eta lesakarren artean) *guk Arantzan ola erratten dugu*. Robert B. Le Page-k erranen lukeen gisan (1980), hiztun gazte honentzat behintzat, Arantza da erreferentzia taldea, eta ez Bortzerriak, Bidasoaldea edo Nafarroa: Arantzako komunitatea osatzen duten hiztunengan du begiratzeko eta jokatzeko ispilua. Kontuak kontu, *naiz*, *yaz* bezalakoak ezagun samarrak dira Gipuzkoako ekialdetik Pasaia bitarte, baita Aranon ere. Goizuetan, berriz, *naiz*, (*y*)*aiz* erabiltzen bide dira, Beran, Lesakan, Igantzin eta Etxalarren bezala.
6. Bertze monoptongazio mota bat ere aurkitu dugu Arantzan: Nor Nork saileko *nuzu* ‘nauzu’, *nu* ‘nau’, *nuzue*, ‘nauzue’ eta *nute* ‘naute’ ohikoak dira, *au>u* gertatu da adibideotan. Bortzerrietako bertze herrietan ez dago halakorik, guk dakigula bederen. Bai, ordea, Arantza ondoko Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 38) *no* ‘nau’, *nozuz* ‘nauzu’, *note* ‘naute’.

Arestian ikusi dugunaren arabera, Arantza ere zenbaitetan inguruko herri guzietatik bereizten da, Bera eta Etxalar baino gutiagotan izanagatik ere: soziolinguistikoki dagoen egoera paregabea, hitanoaren erabilera bizia<sup>47</sup>, aferesiaren eta batez ere sinkoparen indarra aise handiagoa da arrunt bereizgarri izateraino. Aran-

47 Nesken artean galduxa baldin bada ere.

tzan antzeman dugu guk euskararen nortasunik sendoena, erran nahi baita hiztunen kontzientzian *uskara arantzarra* badela.

Gainera, Bortzerrietako bertze herrietakoek ere hala sumatzen dute. Baita erran ere: *Arantzan abudo solasten dire agitz, itzak yaten ttuzte ta batzutan kaso man bar duzu ongi enteintzeko* ‘Arantzan agudo solastatzen dira hagitz, hitzak jaten dituzte eta batzuetan kasu eman behar duzu ongi ulertzeko’ (Berako testigantza); *Arantzakuk aritzen die solasian prisa baluteke bazala, ta klaro, erdiya miño geyo yaten-te* ‘Arantzakoak aritzen dira solasean presa balute bezala, eta klaro, erdia baino gehiago jaten dute’ (Etxalar); *nik uste, Arantza mendi tartin zattekin, zakarrago bazala aritzen direla* ‘nik uste, Arantza mendi tartean izatearekin, zakarrago bezala aritzen direla [solasean]’ (Lesaka). Egia erran, halako testigantza franko bildu ditugu. Badugu uste honat ekarritako hiru hauekin aski izanen den adierazi nahi dugunaren erakusgarri.

Bertze alde batetik, Arantzan antzeman ditugun *naz*, *yaz* eta *nuzu*, *nu* monopongazio bilakabideek mendebaleraxeago dauden herriekiko (Arano eta Goizuetarekiko) lotura agertzen ahal dute. Eta ezaugarriok Arantza Bortzerrietatik bereizten duten neurrian, tasun bereizleak ditugu Bortzerrietan barrena. Gainera, goitiago azaldu dugun eran, zenbait hiztunen kontzientzian ere isoglosa garbia marrazten dute.

### 5.5. Bortzerrietako ezaugarri eskusibo (hagitz) bakanak

Ez da harrizkoa Euskal Herriaren erdigunean dauden Bortzerriek nortasun linguistiko (hagitz) apala izatea. Hori dela eta, ia-ia ez dugu bertako euskararen ezaugarri espezifikorik aurkitu, erran nahi baitugu Bortzerrietan bertzerik erabiltzen ez diren tasun eskusibo gutixko direla. Guk azken urteotan atzeman ditugunak, gainera, ez dira munta handikoak, sarri ikusiko dugun eran:

1. Baldintzazko perpausetako *-tzekoztat* atzizkia Bortzerrietan bakarrik bildu dugu: *gaizki itekoztan obe ez itia yeus* ‘gaizki egitekotan, hobe deus ez egitea’ (Etxalar). Iñaki Gamindek ere honako adibide pare bat eskaintzen digu (1993: 85): *gaizki solas itekoztan isilikan egon* (Bera); *gaizki itekoztan ez ititia* (Lesaka). Sunbillatik beheiti *-tzeכותan* sumatu dugu nagusiki, gure datuen arabera, Malerrekan *-tzeכותan* erabat arrotza ez bada ere.
2. Atal lexikoari dagozkion ondoko aldaerak eta item bakanak ere bertako minztoan soilik bildu ditugu: *armigo* ‘armiarma’, *ateri*<sup>48</sup> ‘atera’, *bigarren goyal*

48 Dena den, Sunbillan, Malerrekan eta Bertizaranan inoizka aditzen da *ateri*, *ate* aukera nagusia baldin bada ere.

*gottia*<sup>49</sup> ‘ganbara’, *suspel* ‘ospel’ eta *txori-izigarri* ‘txorimalo’. Bai eta kulturalki arras markatua den *eltzetzuk* ‘karabineroak’<sup>50</sup> solasa ere.

Honenbertzez, deus gutik bereizten du Bortzerrietako euskara ondoko herri eta ibarretatik: hagitz apala den isoglosa gradual bat, *-tzeoztan* aditz atzizkia Sunbillan eta Malerrekan ere arrotza ez baita, eta bortz edo sei hitz. Bortzerrietako *uskara* ondoko hizkeretikiko dinamika bertsuari dagoela adierazten digu honek argi eta garbi.

## 5.6. Ondorioak

Bortzerrietako hizkerak berezko nortasun linguistikorik duen edo ez duen erabakitzeke tenorea heldu zaigu:

- Lehenik, erran beharra da ia ez dugula ezaugarri espezifikorik edo esklusiborik aurkitu, aldaera eta item lexikal bakan batzuk izan ezik. Honek adierazten digu Bortzerrietako euskarak duen berezitasunik handiena (eta ia bakarra) bertako hizkuntzaren ezaugarrien arteko konbinazioa dela.
- Bortzerriak zeharkatzen dituzten isoglosa nagusiek batzuetan banatzen dute eskualdea. Ezaugarriren batek eskualdea banatzen duelarik, Bidasoa ibaiaren arabera nahiz Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasunaren arabera egiten duela iduri du: batetik, Bera eta Etxalar, eta bertzetik, Arantza, Igantzi eta Lesaka. Hortaz, iparraldetik nahiz ekialdetik heldu diren hainbat isoglosa ez dira Bidasoaren bertze aldera iragan, eta hauetako batzuek Etxalar bakarrik hartzen dute.
- Arantza ere zenbaitetan bertze guzietatik bereizten da. Herri hagitz euskalduna izateak eta orografikoki aparte samar egoteak halako nortasun berezi bat eman dio bertako hizkerari. Arantzako hiztunen kontzientzian bada *uskara arantzarra*. Baztan-Bidasoan fenomeno hau gertatzen den herri bakarra dugu.
- Nolanahi ere, Bortzerrietako euskararen barreneko batasuna gailentzen da gainerakoan. Oro har, ezin dugu erran aparte sailkatu beharreko hizkerak aurkitu ditugunik, bertako euskarak koloreak eta ñabardurak ageri baldin baditu ere.

49 *bigarren gottia* hemos registrado en Lesaka y *bigarren goya* registró el ALEANR en Bera. [...] Los dominios de estas voces no salen del territorio de las Cinco Villas de la Montaña (Huarte 2003: 284).

50 Karabineroak mugazainak ziren. Egun, ordea, *eltzetzu* Espainiako goardia zibilari erraten zaio Bortzerrietan. Bertako lagunekin *gabažo lanean* aritutako hondarribiar eta sunbildar zenbaitzuek ere erabiltzen dute. Zugarramurdin eta Urdazubin, berriz, Espainiako goardia zibilari *kokoak* erraten zaio, eta Frantziako jendarmeei *guardak*. Bidenabarrekoan, Satrustegik (1989: 77-102) «koko» hitzari eskaintzen dion atala biziki gomendatzen dugu.



Bidasoa ibaiak muga lana egiten du Bortzerrietan: batetik, Bera eta Etxalar; bertetik, Lesaka, Igantzi eta Arantza



## **6. Sunbilla: Bortzerriak vs. Malerreka**

---





## 6.1. Sarrera

Deus guti dakigu Bortzerrietan dauden eta Malerrekan ez dauden hizkuntza ezaugarriez, edota Malerrekan dauden eta Bortzerrietan ez daudenez. Hitz batez, gutixko dakigu Bortzerrien eta Malerrekaren arteko hizkuntza dibergentziaz. Hori dela eta, seigarren atalaren helburu nagusia Bortzerrien eta Malerrekaren arteko ezberdintasunak zenbat eta nolakoak diren aztertzea izanen dugu. Horretarako, berriz, bi eskualde hauen tartean dagoen Sunbillako euskarara joko dugu.

Euskal Dialektologiaren literaturan bateratsu agertu izan dira beti bi eskualdeok. Louis Lucian Bonapartek sailkatutako «el subdialecto de Cinco Villas» delakoaren izenpean Bortzerrien inguruko eskualde nafar batzuk ere sartu izan dira oraintsu arte: Bortzerriez gain, Sunbilla, Malerreka, Basaburu Txiki erdia (Beintza-Labaien, Saldias, Eratsun, Ezkurra), Bertizarana eta Baztango Oronoz-Mugairi. Printzearen geroztiko dialektologialari nagusi zenbaitzuek ere (Pedro de Yrizarrek edo R.M. Azkuek, erraterako), Bonapartek berak egin bezalaxe, Berako hizkera hartu izan dute azpieuskalki honetako ordezkariatzat.

Orain arte ikusi dugunaren arabera, guk euskaraz izendatutako Nafarroako Bidasoaldeko multzo horretan ez dakuskigu ez Eratsun ezta Ezkurra ere. Oronoz-Mugairiri dagokionez, aldiz, zortzigarren atalean gaia landuko dugu. Orduantxe emanen dugu Baztango herri horri buruzko gure ikuspegi geolinguistikoa.

Pedro de Yrizarrek goi-nafarrerazko aditzaren morfologia aztertuz (1992) eta Rosa Miren Pagolak Nafarroako euskal mintzo frankoren fonetika ikertuz (1992), ondorio bertsura ailegatu dira bi ikertzaileok Sunbillako hizkeraren sailkapenari dagokionez: dialektalki, Sunbillak hurbilago ditu Bortzerriak Malerreka baino.

Hortaz, Sunbillari buruzko atal honetan, herri honetako euskararen norabidea aztertu nahi dugu: noiz-nola egiten duen Sunbillako mintzoak hegoalderagoko Malerrekarekin eta noiz-nola egiten duen iparralderagoko Bortzerriekin jakiteko. Orobat, Malerreka eta Bortzerrien artean dena ez dela bat, bera eta bakarra erakutsi nahi dugu segidan.

## 6.2. Sunbilla ondoko eskualdeen artean

Egitura administratiboen gaineratik, Sunbilla dugu Bortzerrien eta Malerrekaren artean gelditzen den herria. Errepidez, Doneztebetik hiruzpalau kilometro bertzerik ez dago. Lurrez edo dermioz, berriz, zenbait baserrik hurbilago dute Arantza

Doneztebe baino. Sunbillako egungo bizimoduan dikotomia bera sumatu dugu: oro har, kaletarrek aiseago jotzen dute Doneztebera, eta baserritarrek, aldiz, Arantzara<sup>51</sup>. Dena den, bizimodu modernoa —urbanoa— nagusitzen ari den neurrian, nabaria-go da Malerrekako hiribururako joera. Gainera, administrazioak eskaintzen dituen zerbitzu franko bertako mankomunitatean dituzte sunbildarrek. Halaber, Doneztebek aspalditik funtzionatu izan du hiriburutxo baten pare inguruan dituen herrientzat: merkatuak, feriak, aisialdia, lana eta abar.

Bertze alde, Sunbillako udalak, Narbarteko kontzejuarekin, Elgorriagako udalarekin eta Doneztebeko udalarekin batera Bidasoa-Berroarango Lau Herrietakoen Mendi Batzordea kudeatzen du. Joan Albreteko eta Katalina Nafarroako errege-erreginek Bidasoa eta Berroaran mendietarako belarrez, urez eta idientzako bazkalekuez baliatzeko eskubidea eman zieten lau herrietako bizilagunei<sup>52</sup>, Maiatzeko Gurutzetik San Martin eguna bitarte. Gaur egunean, Bidasoa-Berroaran izeneko dermio partekatu hauetatik zura ateratzen da gehienbat. Oihan ustiaketa da, beraz, *laberrikako* afera nagusia. Beraz, egurketan bederen, sunbildarrak, narbartearrak, elgorriagarrik eta doneztebearrak elkarren ondoan aritzen ohi direla pentsa dezakegu. Dena den, salbuespenak salbuespen, Lau Herrietako bizilagunen arteko harremanek ez dute bereziki emankorrek ematen. Aurrekontu ekonomikoa urtean behin aurkezten duen administrazio partekatu bati buruz mintzatzen ari gara, funtsean.

### 6.3. Sunbillako euskara: Bortzerriak vs. Malerreka

Sunbillako lagunen gizarte-joeretan nolabaiteko dikotomia dagoela ikusi berri da. Linguistikoki ere sumatu dugu bi indar lektalen topaketa: iparralderagoko Bortzerrietatik heldu dena eta hegoalderagoko Malerreka-Bertizaranatik heldu dena: batzuetan (i) Malerrekarekin batean ageri baita Sunbillako hizkera, eta bertze batzuetan, aldiz, (ii) Bortzerriekin batean. Ikus ditzagun lehenbiziko Sunbilla Malerrekarekin batean paratzen duten ezaugarri nagusiak:

#### Sunbilla Malerrekarekin batean paratzen duten ezaugarri banatzaileak

1. Erdal *-on>-oi* & *-on* vs. *-on*: mailegu zaharretan *-oi* bukaera dugu Nafarroako Bidasoalde osoan: *arratoi*, *arrazoi*, *sasoi*. Mailegu berriagoetan, aldiz, halako eremukako banaketa dugu: (i) Nafarroako berrikuntza espezifiko den *-on* Baztanen, Bertizaranan, Malerrekaren eta Sunbillan; (ii) Bortzerrietako lehia konplexua islatzen duten *-oi* (bereziki adin batetik goiti) & *-on* (bereziki gazteagoen artean); (iii) Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 39) eta Leitzan

51 Ramón Latasa aizkolariaren liburuaren egile Antton Espelosin sunbildarrarekin izandako solasaldi batean ere gaia atera zen: *Ni baserrikua naiz. Guratsuk ere baserrikuk. Sunbildarrak biyek. Aur denboran, oroitzen naiz attak erratten zigula «arantzarrak ta sunbildarrak anaiak».* Gaur den eunin, berri, *Doneztebara itten du hemengo yendiak, naiz Arantzare or dagon.*

52 Halarik ere, lau herrietako etxe guti batzuek bertako eskubideak saldu (behar) izan dizkiete inguruko herrietako etxerik aberatsenetako batzuei (Lakar & Telletxea 2006: 50).

(Olano 1998: 81-82) *-on* emaitza bakarrak omen diren *abiona*, *kamiona* eta *kordiona*; (iv) Hondarribian eta Irunen, adinekoen artean nagusiki, *balonka* (baina *baloya*), *kamiona* eta *porrona* bildu ditu Sagarzazuk (2005: 73); eta, azkenik, (v) Gipuzkoako herrietan erabiltzen den *-oi* forma bakarra genuke. Bidasoaldeko euskarari dagokionez, Sunbillatik hasten dira gauzak aldatzen.

2. *Bi & bida* zenbatzaileak: Bortzerrietan *bi* (nagusiki) eta *bida* ‘biga, bi’ erabiltzen dira. *bida* Sunbillan, Malerrekan nahiz Bertizaranan (hagitzez) gehiago erabiltzen dute<sup>53</sup>.
3. Destinatioa: Nafarroako hizkera gehientsuenetan bezala, Sunbillan, Malerrekan, Bertizaranan... *-tako* baliatzen da: *neretako*, *iretako*, *bere-tako*... Bortzerrietan, berriz, *-tzat* atzizkia erabiltzen da. Atzizki hau da, halaber, Bortzerrietako testu guzietan inolako salbuespenik gabe ageri zai-guna: *ebentzat* ‘eurentzat, berentzat’, *orrentzat*, *zakurrantzat*, *iretzat*... Gipuzkoan, Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 122), Lapurdi gehiengan *-tzat* erabiltzen da, eta Zugarramurdi *-tako* eta *-tzat* atzizkien arteko lehian, lehenbizikoa nagusi da<sup>54</sup>. Garrantzizko isoglosa dugu destinatioaren honako hau, ezaugarri emankorra delako eta muga geolinguistiko garbia marrazten duelako gure azter-eremuan.
4. Prolatioa: Euskaltzaindiak (1985: 447-450) *bi* balio bereizten ditu: xedea eta ustea. Xedea edo helburua adierazteko, Nafarroa gehiengan<sup>55</sup> dagoen *-tako* ezaguna da Bortzerrietan nola Malerrekan: *ejenplutko man tziun* (Arantza), *materialtako artu zten* (Bera). Alabaina, ustea adierazteko, «sorgintako artu z(u)ten» bezalakoak ez dira batere ohikoak Bortzerrietan, bai, ordea, *sorgiñaz artu zuten* (Bera), *ergelaz yotzen nauzu* (Igantzi). Hondarrekoak, Sunbillan, Malerrekan eta Basaburu Txikian (Olano 1998: 136-139) ere ezagunak dira. Nolanahi ere, ustea adierazten duten *-tako* honen ale batzuk Sunbillan nahiz Malerrekan bildu dira: *iditko naukan*, *biño da zezena* ‘iditzat neukan, baina zezena da’ (EHHA); *eta zaukaten arrun gaixtotako* (Urrotz herriko adibidea, Apalauza & Lakar 2005: 148). Bortzerrietan, ordea, ez dugu honelakorik bildu. Berebat, Bortzerrietako testuetan *-tzat* da aurkitu dugun aukera bakarra.
5. Etorkizuneko atzizkia: Baztan-Bidasoan aditz oina *-n* batez akitzen bada, *-en* atzizkia baliatzen da (*i)zanan*, *egonen*, *yanen*, *erranen*... Gure datuen

53 Bertze alde, *lautan ogei* modukoak Baztan-Bidasoa osoan gailentzen dira heldu eta adinekoen artean, gazteek euskara batuan maizago entzuten diren aldaerak erabiltzen baitituzte aiseago. Dena den, Gipuzkoa onddoan duen Bera herrian *larogei* gehiago aditzen dela gaztigatu digu Patxi Iñigok, gure bertako datuetan *lautan ogei* usuago aurkitu badugu ere.

54 Estibalitz Montoyak dioenez (2004: 112, 113), destinatioan, bai *norendako* bai *norentzat* erabiltzen dira, baina *norendako* askoz arruntagoa da.

55 Atzizki honen geografia hedaturaz den bezainbatean, ikus Camino (1997: 387), Ibarra (1995: 388), Ibarra (2000: 106) eta Olano (1998: 136).

arabera, Sunbillatik beheiti *-nen>-in* berrikuntza hasten da: *errain, izain, yain...* Hortaz, Sunbillan, Malerrekan, Bertizaranan, Baztanen, Zugarramurdin, Saran, Senperen... gertatu da berrikuntza. Bortzerrietan, aldiz, forma jatorra gorde da.

6. \**edun/eduki* arteko lehia aurkitu dugu Sunbillan: *badauzkit iru aitzur; or dauki begiya; dauka, naukan...* Malerrekan bezala, \**edun* aditzaren formak gailentzen badira ere, ez dira bakarrak. Bortzerrietan, ordea, ia ez da honako adizkirik ageri, salbuespenak salbuespen: badago egitura jakin bat tarteka aditzen dena *ederra daukazu* (*daukzu* jaso dugu Arantzan) ‘jai daukazu’, *ederra duzurekin* batera. Bortzerrietan, *iduki* aditz partizipioa nahiz bere adizkiak baliatzen direlarik, *kontu* edo *eutsi* adierazten dutelako iduria dugu: *preso iduki, burutan iduki, eskutan iduki...* Nolabait ere, ‘tener’ baino areago, iduri du ‘retener’ nahiz ‘contener’ adierazten duela. Erakusgarritako, Arantzako ondoko etsenplua ekarriko dugu: *erratto ez naiz oroitzen, erran tzanen ziuten, miño ez tut, eztaukat burutan*. Bertze alde, Malerrekan bildu ditugun adizkietan *-i-dun* eta *-a-dun* aldaerak ageri dira, Sunbillan bezala: *daukit, daukizu, naukin...* & *daukat, daukazu, naukan...* Goizuetan ere badira bi sailok (Perurena & Zubiri 1998: 143).

Arestiko sei ezaugarriek bederen banatzen dute Nafarroako Bidasoaldea, zehazkiago, Bortzerriak vs. Sunbilla-Malerreka-Bertizarana. Lehen multzo honetan Sunbillak Malerrekako herriekin bat egiten du: *-on* bukaera, *bida* zenbaitzailearen maiztasuna, *-tako* destinatiboa, *-tako* prolatiboa eta *izain* edo *errain* bezalakoak. Ezaugarri banatzaile hauek Sunbillak eta Malerrekak Nafarroako hizkerekin bat egiten dute, eta Bortzerriak, berriz, erdialderago begira daude: *-oi* & *-on* aukera bikoitza eta *-tatzat* destinatiboa bezalako ezaugarrietan, adibidez. Halarik ere, \**edun/eduki* arteko lehiari dagokionez, Sunbilla eta Malerreka erdialdetik hurbilago ageri dira Bortzerriak baino.

Lexikoaren atalaz den bezainbatean, Sunbilla, Malerreka vs. Bortzerriak idurikatzen duten aldaera eta item lexiko zenbait aurkitu ditugu. Beraz, segidan emanen ditugun ondoko hauek Sunbillako euskararen ere ohikoak dira (ezkerrean, Sunbillako eta Malerrekako forma, eskuinean, Bortzerrietakoa):

*aldein & lekutu vs. aldein, ateri & ate vs. ateri, airegaixtua vs. zizta-mizta & zimizta, asuña vs. osiña, erloju vs. relojo, ortots vs. tronboi, ongarrri vs. gorotz* (Sunbillan biak bildu ditugu), *saindu vs. santu*.

Hala ere, badira Bidasoaldea bertzela banatzen duten ezaugarri batzuk, eta berriz ere, Bortzerriak eta Malerreka banatzen dituztenak ditugu. Ondoko sail honetan, haatik, Sunbillako hizkerak Bortzerriekin bat egiten du Malerrekako euskararen aitzinean:

### Sunbilla Bortzerriekin batean paratzen duten ezaugarri banatzaileak

1. Hurbileko bokal asimilazioaren aztarnak izan litezkeen kasu batzuk bildu ditugu Bidasoalde guzian: *biyek, iruek, lauek, dire, nitzeke, litzeke, giñeke* eta

*lireke*. Gauza jakina da Oronoz-Mugairitik ekialdera arrunt indartsua dela gertakari hau Nafarroan. Isoglosa garrantzitsua dugu, ezbairik gabe, Baztan batera eta Bidasoaldea bertzeraz uzten dituen. Halarik ere, bertzelako isoglosa bat kausitu dugu, aise apalagoa izanagatik ere, isoglosatako balio dezakeena: atzizki beraren bi aldaera bildu ditugu era sistematiko samarrean: *-tikan* vs. *-tiken*. Sunbillan eta Bortzerrietan lehenbizikoak dira nagusi, eta Malerrekan nahiz Bertizaranan, ordea, bigarrenak: *emendikan* vs. *emendiken*, *gatzikan* vs. *gatziken*, *gertaturikan* vs. *gertaturiken*. Nolabait ere, Malerrekako eta Bertizaranako emaitzak Baztangoetatik hurbilago ageri dira.

2. *i+a>iya* epentesi bizkorra: *egiya*, *ipurdiya*, *xuriya*... Gipuzkoaz eta Lapurdiko itsasbazterraz gainera, Bortzerrietan eta Sunbillan dugu gertakari hau. Sunbillatik beheiti, hain zuzen, irregularragoa izaten hasten da. Alde nabarmena dago, beraz, Sunbilla eta Malerreka artean, Gipuzkoatik berrikuntza honi dagokionez.
3. *eben* ‘euren, beren’ pluraleko hirugarren pertsonari dagokion izenordain posesibo indartua Bortzerrietan eta Sunbillan bakarrik aurkitu dugu. Forma bakarra izanda ere, sei herriotan soilik erabiltzeak ematen dio dialektologia garrantzi zenbait. Alde horretatik, hortaz, ezaugarri eskusiboa dugu. Euskal Herriko bertze hizkera batzuetan forma hau ezezaguna da, guk dakigula. Erakusgarritako, hona hemen Arturo Campionek zer erraten zuen:

La forma del pronombre posesivo *eben* es inusitada; a pesar de su actual deformación su procedencia de *beren* no puede ponerse en duda; primero hubo pérdida de la *b* inicial y de la *r* y después intercalación de la *b* eufónica para evitar el hiatus (1880: 119).

Halarik ere, gure datuen arabera bertzelako gertakaria dugu. Saiatuko gara llabur azaltzera: Bortzerrietan (eta Malerrekan), Euskal Herriko bazter anitzetan bezala, *u* bokala diptongoaren bigarren osagai delarik, bertze bokal batekin elkartzearekin kontsonante bihurtzen da: (*au+a>aba*) *gaba*, *gabero*, *gabardi*, *aba* ‘ahoa’, *kristaba*, *sakristaba*, *labak* ‘laurak’...<sup>56</sup> Aise murriztagoa den *eu+e>ebe* kontsonantizazio bilakabidearen bi adibide kausitu ditugu: *zeben* ‘zeuen’ eta *eben* ‘euren’. Bi formok ongi dokumentatuak dira Bortzerrietako testuetan. Gainera, egungo hizkeran, Bortzerrietan nola Sunbillan, *euren* eta *eben* aditzen dira. Lehenbizikoak bigarrena ekarri duelakoan gaude. Malerrekan eta Bertizaranan, berriz, *biaurek*, *biauren* gisako izenordain indartuak erabiltzen dira. Eta Baztanen *beren* bezalakoak hasten dira<sup>57</sup>.

4. *erratten*, (*i*)*zatten*, *igatten* ‘igaten, igotzen’ eta *isatten* ‘isan = eutsi, mantendu’ aditz izen bustiak Bortzerrietan eta Sunbillan aditzen dira. Jakina denez,

<sup>56</sup> Baina *goizko lautan* erraten da, eta ez *labetan*.

<sup>57</sup> Erakusleen inguruko informazio zehatzagoa eta oparoagoa nahi duenak, ikus beza Irigoyen (1978).

formahauen gibelean dagoena *-iten* da: *erraiten*>*erratten*, *(i)zaiten*>*(i)zatten* e.a *De facto*, bustidura automatikoaren maila aise apalagoa den Etxalarren *erraiten*, *(i)zaiten*, *igaiten* eta *isaiten* ahoskatzen dira. Isoglosa honek Bortzerriak eta Sunbilla batera eta Malerreka bertzera uzten ditu. Bidasoalde guzian *eramatten*, *(e)matten* eta *egotten* ohikoak dira, baita Basaburu Txiki gehienez ere (Zuazo 1998b: 9). Aditz izenetako *-iten* honek Bidasoaldeko hizkera Ipar Euskal Herri aldera hubiltzen du, are nabarmenago Sunbilla eta Bortzerriak<sup>58</sup>.

5. Nor Nori Nork saileko hiketako adizkietan, Malerrekan eta Bertizaranan *dizkiok*, *zizkigutek* modukoak gailentzen dira, Gipuzkoan eta erdialdean bezala. Bortzerrietan eta Sunbillan, berriz, hauek ezagunak baldin badira ere, bai zuketan bai hiketan *-it-* pluralgilea nagusitzen da (*zittiok*, *zittigutek*), Nafarroako mintzo gehienetan bezalatsu. Pedro de Yrizarrek gauza bera atzeman zuen:

La mayor tendencia al empleo del tipo *zk* en las flexiones alocutivas que en las indefinidas, se ve muy claramente en la subvariedad de Lerín (1992-1: 392).

6. Sintaxian bi ezaugarri daude bi eremuok bereizten dituztenak. Azken boladan, bertako zenbait gazte *al* galde-partikula erabiltzen hasi baldin badira ere, Sunbillan eta Bortzerrietan, ez da ohikoa. Malerrekan, ordea, ugariagoa da partikula hau. Basaburu Txikitik sartutako ezaugarria dela ematen du, Basaburu Txikian usu baliatzen baita. Isoglosa Sunbillan berean kausitu dugu guk.
7. *egin* indargarri gisa erabiltzea da sintaxiari dagokion bigarren ezaugarria: Bortzerrietan eta Sunbillan baliatzen da, baina gutixko. Baztanen berean erabiltzen da (berria delako itxura guzia du: XIX. mendeko testuetan ez da behin ere ageri). Malerrekan (eta zer erranik ez, Basaburu Txikian), aldiz, (aise) maizago aditzen da. Maiztasunaz mintzatu beharrean gara, hain garbia ez den isoglosa gradualaren berri emateko.

Zazpi ezaugarri hauetan Sunbillak Bortzerriekin bat egiten du Malerrekatik aldenduz. Hondar zazpietatik batzuk, gainera, isoglosa garbia marrazten dute: *-tikan* vs. *-tiken*, *eu+e>ebe* kontsonantizazio bilakabidea, *i+a>iya* epentesi bizkorra eta *al* galde-partikula. *zeben* eta *eben* jabetza-izenordain indartuak, Beran, Etxalarren, Lesakan, Igantzin, Arantzan eta Sunbillan baizik ez dira erabiltzen. Bortzerrietako ezaugarri (ia) espezifikoa hau Sunbillara bakarrik hedatu da. Sintaxiari dagozkion bi ezaugarrietan (*al* eta *egin* indargarria) eta Nor-Nori-Nork saileko hiketako adizkietan, Malerreka Basaburu Txikiko hizkeretara hurbiltzen da zerbait, Bidasoaldeko gainerako hizkeretatik aldenduz.

Lexikoari gagozkiolarik ere, Sunbillak Bortzerrietako euskararekin bat egiten du ondoko adibidetan bederen (ezkerrean, Sunbillako forma eta Bortzerrietakoa,

58 Honetan Ipar Euskal Herritik hurbilago dago Bidasoaldea Baztan baino, Baztanen ez baita *-iten*.

eskuinean, berriz, Malerrekakoa): *aba* vs. *ago* ‘aho’, *bidali* vs. *bidali* & *igorri*, *neskatxa* vs. *neskatxa* & *neskatiko*, (*guain* vs. (*guain* & *orai*, *urdin* vs. *azul* & *axul*. Hortaz, Bortzerrietan eta Sunbillan bildu aldaerek eta itemek mendebalerago begira jartzen gaituzte.

Era berean, Sunbillatik hegoaldera dagoena, Malerrekan hasten dena, hain zuzen, Nafarroa Garaiko forma nagusia ohi da. Berriz ere, Malerrekafarra ageri zaigu Bortzerrien, eta kasu honetan, Sunbillaren ondoan. Honetaz landara, kulturalki markatua den bi hitzen —kontzeptuen— arteko isoglosa kausitu dugu: *golde(lur)* vs. *gizalur*. Lehena, Bortzerrietan (nahiz Irun-Hondarribian eta Saran) baliatzen da, eta bigarrena, aldiz, Malerrekan (nahiz Bertizaranan eta Baztanen)<sup>59</sup>.

Bertze alde batetik, Ipar Euskal Herriko mintzoen isuria —eta harekiko harremana— islatzen duten solasak ez dira guti. Honen ondotik emanen ditugunak Bortzerrietan ohikoak dira, eta hauetatik franko Baztanen eta Ipar Euskal Herriko hizkeretan ere aurkituko ditugu. Hitz hauek muga gurutzatu baldin badute ere, ez dira Malerrekarako iritsi. Bereizketa hau egiteari garrantzitsua deritzogu, kapitulu honen lehenbizian erran dugun bezala, arrunt guti baitakigu Malerrekaren eta Bortzerrien arteko isoglosa banatzaileez. Hona hemen, beraz, Ipar Euskal Herrian eta ondoko Bortzerrietan erabiltzen diren solas batzuk, eta Malerrekan baliatzen ez direnak (parentesi artean Malerrekako forma emanen dugu):

*Agiyan* (ere) ‘desio eta konfiantza adierazteko’<sup>60</sup>, *afera* ‘kontu’, *antzi*<sup>61</sup> (vs. *atzendu*), *autsiki*<sup>62</sup> (vs. *atsiki*) ‘ausiki, kosk egin’, *bizkar besta* (vs. *galdur besta*)<sup>63</sup>, *bokata* (vs. *lixiba*) ‘arroparen garbitzea’, *fier* ‘azkar, sendo’, *illar* (vs. *mallar* & *banabar*) ‘babarrun’, *illarbill* (vs. *illar*) ‘ilar’, *koko(r)ika* & *kokolka* (vs. *ttotto(r)ika*) ‘kukubilko’, *kasalla* ‘kasaila, gatazka’, *kokin* (frantsesez *coquin*) ‘aldarte txarreko’, *marranta*<sup>64</sup> (vs. *marranka*) ‘ahotsa lastu, zintzurra hartu’, *nardatu* (vs. *nazkatu*), *zerrakura* (vs. *itsindegi*) ‘hesitura’.

Batzuetan, eta ez gutitan, Bortzerrietan baliatzen diren solasak Irun-Hondarribian ere ohikoak edo ezagunak dira. Segur aski, lehengo garai baten ondorio direnak; gaur den egunean, Gipuzkoako bi herriotan gipuzkera oinarri duen euskara batua arrunt sartua baita; eta zer erranik ez, gaztelania. Isoglosa horiek iparraldetik heldu dira,

59 Gaztelaniaz ‘peonada’, 335 metro koadroko neurri mota. Oizko Lizasoaindaren testigantza dugu ondoko hau: *Beran ta «goldia» erraten dutena guk «gizalur»*. Izetak (1996: 92) eta Salaburuk & Lakarrek (2005: 352) *gizelur* dakarte Baztanerako. Bertze alde, Irun-Hondarribian eta Saran bederen *goldia* erabiltzen dela badakigu (cf. Urantz 1955: 54, Barandiaran 2000[1950]: 218).

60 *Benta berri bat paratu te Ibaridiñan, ya ongi ateitzen zayoten. Agiyan bai!* (Bera)

61 Irun-Hondarribian ere ezaguna da, *aztu* nagusi baldin bada ere.

62 Hondarribian *autziki*.

63 Banaketa garbia eskaintzen du Huartek bere tesian (2003: 149-150): *bizkar besta* Ipar Euskal Herrian, Esteribarren, Erroibarren, Baztanen, Urdazubi-Zugarramurdi eta Bortzerrietan; *galdur besta*, berriz, Anuen, Ultzaman, Bertizaranan, Malerrekan eta Basaburu Txikian.

64 Irun-Hondarribian, Baztanen eta Zugarramurdi, Bortzerrietan bezala aurkitu dugu.



horietako batzuk ez baitira Malerrekara edo Basaburu Txikira iritsi; bai, ordea, Irun-Hondarribira, Bortzerrietara eta muga inguruko hizkeretara (Urdazubi-Zugarra-murdira nahiz Baztanera). Hitz hauen arabera, Bortzerriak, Lapurditik hurbilago ageri dira eta, Malerreka, gainerako mintzo nafarrei lotuxeago.

Orotara, Bortzerriak eta Malerreka banatzen dituzten hamahiru tasun aurkeztu ditugu, atal lexikoaren gaineko zertzeladez gainera. Nolabait ere, Sunbillako bizi-moduan sumatu dugun dikotomia bera aurkitu dugu bertako hizkeraren azterketa dialektologikoan: badira Sunbilla Bortzerriei lotzen dieten zenbait ezaugarri, eta halaber, badira Sunbilla Malerrekari lotzen diotenak ere. Hots, Sunbillako hizkera Malerrekaren eta Bortzerrien tartean dagoela erran genezake.

Beraz, Nafarroako Bidasoaldeko euskararen baitan joerak eta ñabardurak badaudela frogatu dugu: Bortzerriak Ipar Euskal Herritik (Bera eta Etxalar, bereziki) nahiz Gipuzkoatik hurbilxeago ageri dira; halaber, Sunbillak Malerreka-Bertizaranarekin bat egiten duelarik, hizkerok mintzo nafarretara nabarmenxeago hurbiltzen dira. Dena den, argi eta garbi erran behar da Bidasoaldeko euskararen batasuna gailentzen dela, oro har.

#### 6.4. Ondorioak

- Bortzerrien eta Malerrekaren arteko ezberdintasunen berri jakiteko, Sunbillako euskara dugu gako nagusia. Herri honetan barrena zenbait isoglosa igarotzen baitira, Bortzerriak eta Malerreka banatzen dituztenak.
- Atal honetan azaldu ditugun ezaugarri banatzaileetan ikusi dugu bi multzo antolatzen ahal direla Nafarroako Bidasoaldean barrena: (i) Sunbilla, Malerreka *vs.* Bortzerriak eta (ii) Sunbilla, Bortzerriak *vs.* Malerreka. Yrizarrek (1992) eta Pagolak (1992) ez bezala, guk ez dakusagu Sunbillako hizkerak Malerrekaren aitzinean Bortzerrien aldera hain nabarmen egiten duenik. Gure azterketaren arabera, erdibidean baitago Sunbillako euskara: tarteka, Malerrekarekin; tarteka, Bortzerriekin.
- Dibergentziak ageri dituzten tasunetan nabari da Bortzerriak Lapurditik eta Gipuzkoatik hurbilago daudela, zeren Sunbilla, Malerreka eta Bertizarana batetik eta Bortzerriak bertetik banatzen dituzten ezaugarriak, Gipuzkoan eta Lapurdin ere badaude. Hortaz, erran genezake Bortzerriek batzuetan beren *nafartasuna* galtzen dutela, Nafarroatik alendu eta ondoko bi lurraldeekin bat egiten duten neurrian. Hizkeraz ez dira Baztan-Bidasoako gainerako herriak bezain nafarrak. Gisa berean, Bortzerrietako hizkera ondoko Malerrekaren aldean erdialderagokoa dela erran liteke.
- Nafarroako Bidasoaldeko euskararen multzoan koloreak eta ñabardurak bistan paratu ditugu. Aitzitik, *continuum* batean daude bertako hizkerak. Multzo honetako ezberdintasun gehienak gradualak dira, bat-bateko jauzi handirik gabeak.

### 6.5. Proposamen arealak

Sunbillan gauzak zerbaixko aldatzen dira. Ez sobera. Anitzez ere gehiago dira Malerrekak eta Bortzerriek elkarrekin dituzten kidesan linguistikoak ezberdintasunak baino. Halarik ere, isoglosa batek Nafarroako Bidasoaldeko euskara banatzen duelarik, arestian azaldu dugunaren arabera egiten duela iduri du. Ikusi dugunez, Sunbilla Bidasoaldearen baitako trantsizioko herria du.

Ondotik, gure proposamen arealaren berri ematen duten bi mapa eskainiko ditugu: (i) Sunbilla Malerrekarekin (eta Bertizaranarekin) batean paratzen duten ezaugarriak erakusten dituen, batetik; eta, (ii) Sunbilla Bortzerriekin batean paratzen duten ezaugarriak erakusten dituen, bertetik.





## **7. Malerreka**

---



## 7.1. Sarrera

Laugarren kapituluan ikusi dugun eran, euskara nafarraren eta erdialdearen trantsizioa Malerrekaren eta Basaburu Txikiaren tartetik igarotzen da, bereziki, Malerrekako hondar herria den Zubietatik mendebalera. Halarik ere, Zubietan be-rean badago aldaketa giro zerbait, Saldiasen dagoenaren ondoan, apalagoa baldin bada ere. Aipatu atalean, Zubieta *vs.* Malerreka idurikatzen duten bi ezaugarri ager-tu ditugu: (i) *-st-* *vs.* *-rtz-* kontsonante taldeak eta (ii) dialektologia garrantzi handia-goia hartzen duen destinatiboko *-tzat vs. -tako* morfemen arteko isoglosa garbia.

Seigarren kapituluan ere mintzagai hartu dugu Malerrekako euskara Sunbillakoaren eta Bortzerrietakoaren ondoan jartzearekin. Zazpigarren honetan, beraz, Malerrekako herrien artean zer gertatzen den aztertu nahi dugu: ez dakigu Malerrekako euskara homogenea den ala ez, ezaugarri espezifikorik edo eskusibori-k ote duen ala ez, ondoko hizkeretatik berezi egiten duen deus ote dagoen ala ez.

Malerrekatik mendebalera (Basaburu Txikira) eta iparraldera (Sunbillara nahiz Bortzerrietara) begira jarri ondoan, orain arteko literaturan guti samar agertu izan den Bertizaranara begira ere jarriko gara zenbaitzuetan, bi eskualde hauen arteko egitura geolinguistikoa zer-nolakoa den jakiteko. Rosa Miren Pagolak (1992) eta Pedro de Yrizarrek (1992) egindako ikerlanetako ondorio nagusien arabera, Bertizaranako mintzoa Malerrekakoari lotu behar zaio gehien-gehienean. Gure az-terketaren arabera ere hala ote den berretsi gogo dugu.

## 7.2. Malerrekako herrietan barrena

Malerrekako herrien artean hizkuntza ezberdintasunik dagoenentz ikusteko, bi muturretara joko dugu: batetik, ekialderago dagoen Donamaria hartuko dugu; eta, bertzetik, mendebalderago dagoen Zubieta. Herri batetik bertzera hamar-hamabi bat kilometro izanen dira, elkarrengandik hurbil samar, dena den.

Bi herriotako mintzoak alderatu nahi ditugu, Malerrekako euskaraz gehiago jakiteko asmoz: ba ote dago Malerreka banatzen duen ezaugarririk? Ezaugarriren batek banatzen baldin badu eskualde hau, nola egiten du? Zeren arabera? Balizko ezaugarri banatzaileok batera ote doaz, eta ondorioz, Malerrekaren baitan hizkuntza eremuez mintzatu behar ote dugu?

Hizkuntzaren erkaketari ekin aitzinetik, Malerrekaren ez ezik, Sunbillan eta Bertizaranako herrietan ere eragin handia duen Donezteberen itzala nabarmendu

nahi dugu: Doneztebek aspaldixkotik hiriburutxo baten pare funtzionatzen du. Euskararen egoera soziolinguistiko kaskarrak ere argiki erakusten digu bizimodu eta ohitura «urbanoak» ongi sustraituak direla herri honetan. Aspaldixkotik inguruko herrietako jendea Malerrekako hiriburura joaten da erosketak egitera, lan bila, aisialdiaz gozatzerantz e.a. Erran genezake, nolabait, sozialki nahiz (ondorioz) linguitikoki Doneztebe bere inguruko herriekiko indar bateratzailea izana dela aspaldi samarretik.

Alderaketa honetan ez ditugu laugarren kapituluan errandakoak errepikatuko, aintzat hartu bai, ordea. Hona hemen, beraz, Malerrekako herrien arteko ezberdintasunak idurikatzen dituzten ezaugarri zenbait:

### Zubieta vs. Malerreka idurikatzen duten ezaugarriak

1. *o>u* eta *i>e* zenbait irekidura maizago gertatzen dira Zubietan Donamarian baino: *do* ‘du’, *garbitto* ‘garbitu’, *motiko* ‘mutiko’, *afare* ‘afari’, *kuse* ‘ikusi’, *onge* ‘ongi’... ondoko Basaburu Txikiko mailaren pare ez badago ere. Erran nahi baita Zubietako hizkeran *du* ugariagoa dela *do* baino, Saldiasen ez bezala, adibidez. Pedro de Yrizarrek ere gauza bertsua eskaintzen du bere aditz tauletan (1992-1: 363-394). Zubietan, Iturenen eta Urrotzen irekidura hauek gertatzeko joera handiagoa da Malerrekako gainerako herrietan baino. Hiru herriok dira, hain zuzen, Malerrekako, geografikoki mendebalean gelditzen direnak. Basaburu Txikian ohikoa den gertakaria Malerrekako ondoko herrietara ere hedatu da, indar apalagoaz. Doneztebe inguruko herrietan, aldiz, ez dugu batere bizkor sumatu: Elgorriagan, Donamarian, Sunbillan eta Bertizaranan. Laburbilduz, Leitza aldera hurbildu ahala, gehiago eta nabarmenago nabarituko ditugu irekidurok; Doneztebe aldera joan ahala, berriz, gero eta gutiago adituko ditugu.
2. Herskari ahostunak/ahoskabeak, hitz hasieran: bere doktorego-tesian aztertu dituen hizkerak elkarrekin alderatzen ari delarik, Orreaga Ibarak Ultzaman, Atetzen eta Anuen *bago*, *bake*, *boxik* daudela diosku (1995: 196-197), eta Imotzen nahiz Basaburu Nagusian, aldiz, *pago*, *pake*, *pozik*. Guk ere antzeko banaketa kausitu dugu iparralderago: Zubietatik mendebalera, *pazko*, *pixtu*, *pake*, *pago*, *pozik* eta *fiesta* aditzen dira, eta Zubietatik ekialdera, berriz, *bazko*, *bake*, *bago*, *bixtu*, *boxik* eta *besta*. Nolanahi ere, Saldiasen eta batez ere Beintza-Labaienen eta Zubietan bietara sumatu dugu. Bidasoaldearen ondoan, Baztanen gauzak zerbaixko aldatzen dira: *bago*, *bake*, *bazko*, *besta*, *bozik* ahostunak ditugu Baztanen alde batetik, baina *bixkor* & *pixkor* bikotea eta *pixtu* aldaera ahoskabea bildu ditugu bertetik.
3. Izenaren morfologiaz den bezainbatean, Zubietan, singularreko hirugarren pertsona ergatiboduna *ark* da eta pluraleko hirugarren pertsonan, berriz, *æk* & *ayek* ‘haiek’ aurkitu ditugu. Emaidza hauek dira, hain zuzen, ondoko Saldiasen eta Beintza-Labaienen daudenak. Ez, ordea, Malerrekako nahiz

Baztan-Bidasoa osoan daudenak. Izan ere, Malerrekako gainerako herrietan *arek* ‘hark’ eta *ek* ‘haiek’ aditzen dira nagusiki. Ez da berebiziko bereizketa dakarren isoglosa, baina ezin baztertuzkoa da eremu geolinguistikoak definitzera laguntzen duen heinean: Zubieta batera, eta Malerrekako gainerako herriak bertzera.

4. Sintaxian ez da aise isoglosa garbirik aurkitzea. Halarik ere, Malerrekako herrien artean maiztasunak ezartzen duen isoglosa bat kausitu uste dugu: Malerrekako nahiz Nafarroako Bidasoalde guzian *-(e)nean* eta *-(e)larik* ditugu egun<sup>65</sup>, baina Donamarian (Bertizaranan, Sunbillan eta Bortzerrietan) *tortzen delik* ‘etortzen delarik, etortzen denean’ gisakoak maizago aditzen dira; eta Zubietan, berriz, *tortzen delik* bezalakoak aski ezagunak baldin badira ere, egia da *tortzen denin* modukoak ere frankotan baliatzen direla. Areago, Zubietako zenbait hiztunek *yotzen zenin*, *ari giñenin*, *tor zerenin* bezalakoak ia bakarrik erabiltzen dituztela ohartu gara, Zubietako grabazio batzuetan *-(e)larik* urri ageri baita (baina, oro har, Saldiasen eta Beintza-Labaienen baino maizago). Donamariako zenbait grabaziotan, berriz, kontrakoa gertatzen dela ikusi dugu, eta horrela, herri honetan *karri nittuliken*, *yarri zeliken*, *eldu zelikan*, *alletu nitzeliken*, *lo zaudelik*, *biar dugulik* erakoak ausarki bildu ditugu. Hortaz, ekialdera egin ahala, *-(e)nean* gero eta gutiago erabiltzen dela iduri du: *-(e)nean* usuago erabiltzen da Zubietan NARBARTEN baino, edo ITURENEN OIEREGIN baino. Mendebalera egin ahala, aldiz, gero eta gehiago sumatzen da. Isoglosa gradual honek Zubieta uzten du batera eta Malerrekako gainerako herriak bertzera.
5. Lexikoan ere zenbait ezberdintasun bildu ditugu. Basaburu Txikiko herrietara hurbildu ahala, erdialdean ohikoak diren aldaera nahiz item jakin batzuk gailentzen dira. Halaber, Basaburu Txikitik aldendu eta ekialdera egin ahala, euskara nafarrean ohikoak diren aldaerak eta itemak usuago ageri dira. Ezkerrean Malerrekako —Bidasoaldean— ohikoa dena emanen dugu, eta eskuinaldean, berriz, Zubietakoa: *a(g)itz* vs. *a(g)itz* & *oso*, *aitzin* vs. *aurre*, *aunitz* vs. *asko*, *a(u)tsiki* vs. *ozka in*, *bertze* vs. *beste*, *erran* vs. *esan*, *gibel* vs. *atze*, *guti* vs. *gutxi*, *mutil* vs. *morroi*, *ortzegun* vs. *ostegun*, *ortzila* vs. *ostila*.

Arestian ikusitako borts isoglosek, eta laugarren atalean ikusitako bertze biek, Zubieta vs. Malerreka idurikatzen dute, azken zerrenda honetako lehenbizikoak izan ezik: lehen tasunean Zubieta ez ezik, Ituren eta Urrotz ere batera ageri dira. Nolabait ere, Malerrekako euskararen egitura geolinguistikoak mendebala-ekialdea ardatzaren arabera egiten duela iduri du. Gainerako isoglosek, erran bezala, Zubieta Basaburu Txiki aldera hurbiltzen dute eta Malerrekatik aldendu. Isoglosak ez dira asko, bistan da, baina Malerrekako euskarak koloreak eta ñabardurak ezagun ditue-

65 Dena den, Bortzerrietako eta Bertizaranako testuetara jotzen badugu, denbora adierazteko *-(e)nean* gehiagotan ageri dela ohartuko gara. Hortaz, *-likan* hondarreko aldiak gailendu da eremuan.



la adierazteko balio diezagukete. Gainera, eta hau da garrantzizkoena, isoglosa gehienok Zubieta aldean biltzen dira, Malerreka eta Basaburu Txikia eskualdeek elkar ukitzen duten alderdian.

Bertze alde batetik, Donamaria alde batera eta Malerreka bertze batera uzten duen ezaugarriak ere aurkitu dugu. Honat Donamaria *vs.* Malerrekako gainerako herriak idurikatzen duten tasunak:

### **Donamaria *vs.* Malerreka idurikatzen duten ezaugarriak**

1. Donamarian, hagitz irregularra baldin bada ere, epentesia noizbehinka aditzen ahal da: *gorriya*, *xuriya*, *arriya*, *egiya*. Batez ere bi silabakoetan bildu dugu guk. Donezteben eta Bertizaranan ere antzeko egoera dagoela ohartu gara. Doneztebetik ezker gelditzen diren Malerrekako herrietan, berriz, Bidasoa ibaitik urrunago daudenetan, ez dugu garaurik ere jaso. Hortaz, Bortzerriak eta Sunbillaz landara, ibaian gora eginez, Doneztebe, Donamaria eta Bertizarana ere isoglosa honek marrazten duen eremuaren barrenean daude.
2. \*edun aditzaren iraganeko sailean, Bortzerrietan maiz aski aditzen diren *zunun* 'zenuen' eta *gunun* 'genuen' forma asimilatuak Sunbillan, Donezteben eta Donamarian ere bildu ditugu. Erran beharra da, halarik ere, herri guzietan ez dugula erabileraren maila bera sumatu: (i) Bortzerrietan aukera nagusiak dira, (ii) Sunbillan ohikoak ditugu eta (iii) Doneztebe-Donamarian batzuetan soilik aditzen dira. Guk dakigula behintzat, bi adizki hauek ez dira bertze inon erabiltzen. Nafarroako mintzorik gehienetako *ziñun* eta *giñun* Donezteben eta Donamarian gailen dira eta, Baztanen, Bertizaranan eta Malerrekako gainerako herrietan aukera bakarrik ditugu.
3. Item eta aldaera lexikalak: balio adierazgarria duen *ja (ere)* 'deus (ere)' Malerrekako herri bakarrean, Donamarian, aurkitu dugu. Hortik ekialdera, hain zuzen, gehiagotan aditzen da: Bertizarana, Baztan, Ultzama, Esteribar, Aezkoa, Zaraitzu... Ekialdera begira, Bertizarana aldera jartzen gaituzten bertze hitz batzuk ondoko hauek dira: *orai* eta *igorri*. Malerrekako herri gehienetan *orain* & *orai* aditzen dira. Hots, biak. Guk Urrotzen eta Oitzen ere biak jaso ditugu, erraterako. Donamarian, berriz, *orai* da forma nagusia. Gisa berean, Iturenen, adibidez, *biali* & *igorri* bildu ditugu, baina *biali* da forma nagusia, Donamarian ez bezala, herri honetan *igorri* gailentzen baita. Maiztasunaz mintzatu beharrean gara berriz ere.

Honenbertzez, ezaugarri gehiago eta garrantzizkoagoak ditugu Zubieta Malerrekatik aldentzen dutenak, Donamaria aldentzen dutenak baino. Gainera, erakutsi denez, Zubieta banatzen dutenek eten garbiagoa ezartzen dute geografian.

Bertze alde, Donamarian epentesi irregular baten arrastoak bildu ditugu eta Bortzerrietatik (nahiz Sunbillatik) heldu diren *gunun* & *zunun* adizkien noizbehinkako agerpena. Atal lexikoari dagokionez, isoglosa nabarmenik marrazten ez duten hiru hitz jaso ditugu. Donamaria Malerrekatik aldentzen duten ezaugarriotan

Bertizarana eta bereziki Doneztebe Donamariarekin batean ageri dira. Dialektologia garrantzi apaleko gertaerak ditugu, nolahi ere.

Rosa Miren Pagolak Nafarroako euskararen fonetika aztertzeke (1992), Bidasoaldeari dagokionez, Etxalar, Arantza, Sunbilla, Oieregi (eta ondoko Oronoz-Mugairi), Donamaria eta Ituren hautatu zituen, baita Basaburu Txikiko Eratsun ere. Kontua da ikertzaile nafarrak, bere lanaren ondorioak azaltzean, zenbait damu aitortzen dituela geolinguistikoki bereziak izan litezkeen hainbat herritako mintzoak espresuki jorratu ez zituelako. Herri hauetako hizkeren artean, hain zuzen, Zubietakoa da goela diosku:

Zubieta-koa Bortzirietakotik eta Bertizarana-kotik desberdintzen delako  
(Pagola 1992: 283)

Tamalez, gure azterketarekin bat datorren ondorio honi buruzko berri zehatzagorik ez dugu irakurri Pagolaren lanean. Zernahi gisaz, ados gaude Nafarroako Bidasoaldeko euskara Zubietan bertan aldatzen (hasten) dela adieraztearekin, batez ere kontuan harturik Deustuko irakasle nafarrak Zubieta ondoko Ituren bai hautatu zuela bere ikerlanerako. Berak, guk bezala, Malerrekakoak eta elkarren ondokoak diren Ituren eta Zubieta herrien artean trantsizio —aldaketa— linguistikoa sumatu du.

### 7.3. Malerrekako ezaugarri eskusibo bakanak

Baztan-Bidasoan eta Euskal Herriaren erdigunean gertatzen den bezala, ezaugarri guti aurkitu ditugu Malerrekako euskarara bakarrik mugatzen direnak. Espero izatekoa zena, bertze alde. Beharbada, orografiak bere eragina izaten ahal du eskusibotasun dialektalaren afera honetan: Bortzerrietan ikusi dugunez, Arantza da orografikoki aparte gelditzen den bakarra; eta iduri du, bakartze orografikoak lagun du duela bertako hizkeraren nortasuna garatzera.

Malerrekako zenbait herri, Ezpelura ibaiaren bazterrean daudenak, orografikoki isolatuxeago —altuxeago— daude. Gaur egunean ere aski ongi nabari da Doneztebetik Saldiasera doan errepidetik joanez gero (17,5 kilometro ditu errepedeak): Donamaria, Oitz, Urrotz, Beintza-Labaien eta Saldias aurkituko ditugu arestiko hurrenkera berean, Basaburu Txikiko hondar bi herriok aparte samar gelditzen direlarik.

Doneztebetik Leitzara doan Ezkurra ibaiaren bazterreko errepidetik joanez gero, berriz, Doneztebe bukatzen den tokian hasten da Elgorriaga, eta bizpahiru kilometro geroago Ituren dago, tartean orografiaren aldetik deus nabarmenik ez delarik. Norabide honetan azkeneko herria den Zubieta, ordea, aitzinekoetatik apartexego gelditzen da.

Puntu honetan, beraz, Malerrekaz ari baldin bagara ere, Malerrekako herrietan eta Basaburu Txikiko Saldiasen eta Beintza-Labaienen bildu ditugun ezaugarri espezifikoez arituko gara. Ekialdera, aldiz, Bertizaranara, ez dira iritsi ondotik zerrendatuko ditugun tasun linguistikoak:

**Malerrekako ezaugarri eskusibo bakanak**

1. *uri* ‘hori’, *urren* ‘horren’, *urbela* ‘orbela’, *nuski* ‘noski’, *nurmalin* ‘normalean’, *urdun* ‘orduan’ bezalakoak jaso ditugu Malerrekako hizkeran, hots, *o>u* bilakatzen ahal da dardarkariaren eta txistukariaren aitzinean, bereziki dardarkariaren aitzinean. Baztan-Bidasoan (eta Ipar Euskal Herrian) sudurkariaren aitzinean suertatzen dela badakigu; baina Malerrekako, Beintza-Labaienen eta Saldiasen gertakari hau dardarkariaren eta txistukariaren aitzinean gertatzea berezia da. Testuen kronologiaz den bezainbatean, Beintza-Labaiengo dotrinan ere honako adibideak ikusi ditugu (Pagola eta alii 1995-2: 515, 517): *urrela* ‘horrela’, *oturdu* ‘otordu’. Edozein kasutan ere, ez da sobera gertakari emankorra, salbuespen anitz baititu: *orma*, *ortz*, *orraxi*, *orrat*, *osto*...
2. Doneztebetik Saldias bitarte *-tako>-toko* bilakabidea jaso dugu destinatiboan eta prolatiboan; Eratsun kanpoan gelditzen bide da, bertan ez dela ezaguna erran baitigute. Hona hemen Malerrekako herrietan barrena, horhemenka, aditutako zenbait adibide: *neretoko*, *laguntoko*, *ontoko*, *zerbaitoko*... Bilakabidea ez da arrunt sistematikoa, *-tako* duten aldaerak ere frankotan aditzen baitira: *neretako*, *ortako*, *zakurtako*... Beharbada, forma jatorra den *-tako*-tik *-toko* sinkopatua gertatu da, eta horregatik, sinkopa egiten denean, *-toko>toko* dagoela iduri du.

Bi ezaugarri bildu ditugu, hain zuzen, Malerrekako euskararen espezifikotasunaren berri ematen digutenak. Bi ezaugarri bakarrik izanik ere, biak berrikuntza dira: Malerrekako bakarrik ez, tasunok Beintza-Labaienera eta Saldiasera ere hedatzen dira. Berriz ere Malerrekako herrien eta Basaburu Txikiko bi hauen arteko harremanak agerian gelditu dira.

Bi ezaugarriok ez daude ez Sunbillan ez Bertizaranan ere. Beraz, iduri du Malerrekako bi erreka nagusien arabera antolatzen direla: Ezkurra eta Ezpelura, Donezteben Bidasoara isurtzen baitira. Doneztebetik iparralderago edo ekialderago ez dugu ezaugarri berri hauen arrastorik ere aurkitu. Malerrekako bi erreka nagusiek ezarritako dinamikaren baitan ulertu beharreko tasunak direla uste dugu. Ezkurra eta Ezpelura erreken arroetan barrena hedatu diren ezaugarriak, hain zuzen.

Halarik ere, Malerrekako herrien eta Basaburu Txikiko herrien arteko harremanen erakusgarritako, bi eskualde hauetan soilik dagoen tasun baten berri emanen dugu segidan:

**Malerreka eta Basaburu Txikia elkarrengana hurbiltzen dituen ezaugarri eskusiboa**

1. Bi eskualdeotan, Doneztebetik Goizueta nahiz Leitzara bitarte, *nor ta* ‘nortzuk’ eta *zein ta* ‘zeintzuk’ galdetzaileak bildu ditugu *nor ta nor ziren* ‘nortzuk ziren’ (Oitz), *nor ta zien oiek* ‘nor ziren horiek’ (Donamaria). Bertakoa ez denarentzat, segur aski, bitxia gerta daitekeen bilakabide baten aldaera dugu.

Guk dakigula bederen, ez da ezaguna goitiago aipatu dugun eremutik kanpo. Fenomeno hau geolinguistikoki antolatze aldera, *nor ta* gehiago erabiltzen da Malerrekan, eta *zein ta* Basaburu Txikian. Gogoan hartu behar da Basaburu Txikian, erdialdera hurbildu ahala, «nor» eta «zein» arteko nahasketa handia dela. Dударik gabe, «nor eta» edo «zein eta» sintagmetatik eratorritako formak dira, baina eguneroko hizkeran nolabait finkatu direnak.

#### 7.4. Ondorioak

Tesi-lan honetan orain arte aztertu eta ikertu ditugun alderdien arabera, ondoko hauek dira Malerrekaren inguruko euskaraz adierazteko ditugun ondorio nagusiak:

- Malerrekako herrien arteko hizkuntza ezberdintasunak guti eta tikiak dira. Hortaz, Malerrekako euskara aski homogenea dela erran genezake. Zubieta da gehien bereizten dena, bertako euskararen Leitzako — Basaburu Txikiko — eragin zerbait sumatzen baita. Bosgarren atalean aztertu ditugun Bortzerriak baino homogeenagoa da Malerreka, batasun handiagokoa.
- Malerrekako barreneko batasunaz den bezainbatean, ezaugarri gehiago eta garrantzizkoagoak ditugu Zubieta Malerrekatik aldentzen dutenak Donamaria Malerrekatik aldentzen dutenak baino. Bertze era batera, gehiago eta nabarmenago aldatzen da bertako euskara mendebalera ekialdera baino.
- Malerrekako herrien arteko ezberdintasunei dagokienez, kapitulu honetan ikusitako isoglosek mendebala-ekialdea ardatzaren arabera funtzionatzen dutela iradokitzen dute. Erran beharra da isoglosak ez direla asko, baina Malerrekako euskarak koloreak eta ñabardurak ezagun dituela adierazteko balio diezaguke azterketak.
- Pagolak (1992) eta Pedro de Yrizarrek (1992) iradoki bezala, Malerrekako euskararen segida da Bertizarana. Dena den, badira berrikuntza guti batzuk Ezkurra eta Ezpelura erreken arroetan barrena hedatzen direnak, eta beraz, Bertizaranara iritsi ez direnak (Sunbillara ere ez). Hortaz, Malerreka Nafarroako Bidasoaldetik aldentzen denean, bere baitako bi erreken bidez egiten du, ondoko Basaburu Txikiko Beintza-Labaien eta Saldias herriekin elkartzuz.



## **8. Oronoz-Mugairi: muga-hiri**

---



## 8.1. Sarrera

Zortzigarren atal honetan, Baztango Oronoz-Mugairiko mintzoa aztertuko dugu. Halaber, herri honek mendebalean dituen Bertizaranako Legasa, Narbarte eta Oieregi herriak (eta Malerreka) aintzat hartuko ditugu, baita ekialdean dituen Baztango gainerako herriak ere: euskara nafarraren baitan, dagoeneko aztertuak ditugun Bortzerriak-Sunbilla-Malerreka-Bertizaranatik heldu diren ezaugarri batzuk nahiz Baztandik (eta ekialdetik) heldu diren bertze batzuk herri honetan barrena gurutzatzen direla ematen du.

Bonaparte printzearen garaitik, Oronoz Baztandik aparte agertu izan da zenbait sailkapenetan. Nonbait, bertatik pasatu diren euskalari nagusiak ohartuak ziren Oronoz Baztango euskaratik at utzi behar zela, eta Nafarroako Bidasoaldeko hizkerekin batean sartu beharra zela.

Geuri ere gertatu izan zaigu, hondarreko urteotan galdeka ibili garelarik, Oronozkoak ez direla baztandarrak, *errekarrak* baizik aditu izana. Halarik ere, gainerako baztandarrek zirikatzeko asmoz erraten dutela/dietela argitu beharra da. Honekin ez dugu Oronoz-Mugairin —Baztan guzian bezalaxe— sendo erroturik dagoen baztandar sena ukatu nahi. Alde horretatik ez baitago zalantzarik: Oronoz-Mugairi Baztango herria da, eta Baztan harana hamabortz herriek egiten dute. Hala mintzo izan da berrikitan aspaldi Ameriketara joan eta Renon bizi den Jesus Goñi bertsolari oronoztar ezaguna (*Berria* egunkaria, *Igandea* gehigarria, 11.or, 2007/10/14):

Ni baztandarra naiz. Baina Baztanen ez banaiz bizi, Ameriketako Estatu Batuetan nahi dut. Nire Euskal Herria hau da, Baztan. Baina, ez banaiz hemen bizi, Nevadan hilko naiz.

## 8.2. Oronozek Bertizaranarekin eta errekarekin (izan) dituen gizarte loturak

Oronoztarrak aise ohartzen dira solasa ezberdin samarra dutela, baztandarrak izanda ere. Ildo honetatik gogoratu nahi ditugu Oronoz-Mugairik Bertizaranako hiru herriekin (izan) dituen harreman historikoak. Eta horrek ekarri duen ondorio linguistikoa: Oronoz-Mugairi Baztango gainerako herrietatik aparte samar gelditu izana. Adibidez, lehen atalean ikusi dugunez, Oronoz Baztango artzapez-barrutitik kanpo egon da, Bertizaranarekin, Malerrekarekin, Basaburu Txikiarekin, Sunbillarekin eta Bortzerriekin batean, Doneztebeko artzapez-barrutiaren baitan.



Zinez, hagitx adierazgarria da, kontuan hartzen badugu, elizak duela guti arte izan duen garrantzia berebizikoa izan dela. Gisa berean, baita egun ere, Oronozko auzoa den Zozaiako bizilagunak elizaz Oieregikoak dira: kanposantua, hilobia eta elizki-zunak bertan dituzte. Honek ere ez du iduri txantxetarako afera denik.

Bidenabar, Oronozek hiru auzo dituela erranen dugu: Oronoz, Mugairi (nahiz eta bertakoek *mugaire* erraten duten) eta Zozai. Guri bederen ezinezko suertatu zaigu auzoen arteko bereizketarik egitea, hots, solasaren arabera sumatzea zein auzotakoa den pertsona bat, ez baitugu alderik nabaritu.

Berriemaile batek kontatzen zigunez, ikazketara ere Narbarte aldera joaten ziren, merkeagoa baitzen *an biltzen giñen Narbartetik zoazinak ta Oieregi... denak zaunak* ‘han biltzen ginen Narbartetik zihoazenak eta Oieregi... denak ezagunak’. Harreman mota hauek, segur aski bizimodua bera aldatzearekin, eten dira. Oronoz-Mugairi Baztan aldera begira jarria da, eta bertako mintzoan nabari da aldaketa, sarriago erakutsiko dugunez.

Bertze berriemaile batek dio bere etxeak Bertiztik egurra ateratzeko eskubidea duela (ez hau herrian kasu bakarra — salbuespena — ez dela badakigu). Berriemaile berak dio Belate aldera ere joan izan dela; baina hondarreko aldian, Baztango Balleko Etxeak loteak banatzen dituela eta, erosoago egiten zaiola. Hortaz, bizilagun batzuek bederen, harremanak anitz alderditara izan dituzte, gaur den egunean, Baztan aldera begira baldin badira ere.

Ornoz-Mugairitik Baztango hiriburua Elizondora joateko ez dago kilometro anitz egin beharrik, ez oztopo orografikorik gainditu beharrik ere, baina egia da are kilometro gutiagora dagoela beharrezko zerbitzuak eskaintzen dituen bertze gune inportante bat: Doneztebe. Malerrekako hiriburura begira egon dira Bertizaranako Legasa, Narbarte, Oieregi herriak eta Baztango Oronoz-Mugairi bera ere.

Ornoz-Mugairitik Baztango hiriburua Elizondora joateko ez dago kilometro anitz egin beharrik, ez oztopo orografikorik gainditu beharrik ere, baina egia da are kilometro gutiagora dagoela beharrezko zerbitzuak eskaintzen dituen bertze gune inportante bat: Doneztebe. Malerrekako hiriburura begira egon dira Bertizaranako Legasa, Narbarte, Oieregi herriak eta Baztango Oronoz-Mugairi bera ere.

Oieregiko berriemaileek azaltzen dutenez, Oieregiko jendeak ere Oronozera jo izan du anitzetan, Narbarte (edo Legasa) aldera jo beharrean. Honetan, demografiaren erakutsia gogoan izan behar dugulakoan gaude; zeren eta, azken eroldaren arabera, Oieregin 100 bizilagun baino gutiago diren bitartean, Oronoz-Mugairin 450etik gora gaude. Hortaz, Oronoz-Mugairik aise grabitazio-indar handiagoa eragiten ahal du Oieregi ttikiak baino. Adibidez, XX. mendean behinik behin, Oieregitik Oronozera joan izan dira eskolara, mandatuak egitera nahiz besta egitera. Halaber, Oieregiko bizilagun batzuek aitortu digute haurtzaroan eta gaztaroan harreman ge-

hiago izan dituztela oronoztarrekin Bertizaranako gainerako herrietakoekin baino. Oro har erran genezake geografikoki elkarren ondo-ondoan egoteak Oieregiren eta Oronoz-Mugairiren arteko hartu-eman sendoak ekarri dituela.

### 8.3. Oronoz-Mugairi, mugako hizkera

Rosa Miren Pagolaren doktorego-tesian (1992-1) bi herri nabarmentzen dira, bertan ageri den polimorfismo mailagatik: Eratsun eta Oronoz. Pagolak bildutako datuek eta hortik ateratako ondorioek gure datuekin eta ondorioekin bat egiten dute gehien-gehienan:

- *ate/piro, gasna/gazta*: Oronoz-Mugairi mugako hizkera ageri da bi aldakiek (83-84)
- Nabarmena Oronoz-Mugairikoa da, A lekukoak «gatúa», ebakitzen bait du, B-k, ordea, «kátue» bere bailarako Baztango inguruetakoa herriekin bat eginez. Berriro ere, herri honek mugan egotearen ondorioak agertzen ditu (91).
- polimorfismoa —hemen forma bi edo gehiagoren balioaz erabiltzen da terminoa— gehiago nabarmentzen da azpi-euskalkien arteko mugetan geratzen diren lurraldeetan. Oronoz-Mugairi genuke adibiderik adierazgarriena, baina Eratsun ere mintzaren arteko bidagurutzean kokatua agertzen da. Bigarren mailan geldituko litzateke Oieregi, Bortzirietako azpi-euskalkikoa, behin baino gehiagotan Baztan aldera begira aurkitzen duguna [...] (94).
- [Polimorfismoaz] kasu aski garbia Oronoz-Mugairi-rena da, eta hein batean, Eratsunena. [...] Oronoz-Mugairi bi bailaren arteko eta bi hizketen mugan dago, eta bertako hizketa ere mugako hizketen ereduakoa da, Bortzirietara eta Malda-Errekara gehiago jotzen duelarik Baztan aldera baino. Oieregi-k ere badu muga kutsurik, baina ez Oronoz-Mugairi-k beste (284-285).

Pagolaren ikerlanaren arabera, beraz, Oronoz-Mugairiko euskarak mugako hizkerek agertzen dituzten ezaugarriak agertzen ditu, nabarmenena, polimorfismoa, hau da, gutienez bi forma erabiltzea. Polimorfismo hori bizi-bizirik egoteak aldaketa tenorea dela gaztigitzen digu, gauzak uneon aldatzen ari direla, alegia. Kasu honetan, ekialdera. Hala ere, lehengo formak ere badiraute —sartu berriekin batean, lehian—. Zenbaitetan, Oieregik ere mugako kutsua hartzen du, baina bertze maila batean dago. Oronozen dantzan ari diren forma horiek ez dira edozein; normalean, zaharragoak Bidasoaldeko forma adierazten baitu; eta berriagoak, aldiz, Baztango (eta ekialdeko) forma adierazten baitu. Nafarroako mendebaletik heldu denak eta ekialdetik heldu denak hemen topo egiten dute.

Koldo Artolak (Yrizar 1992-1) bertan egindako lanen arabera ere, Oronozko hizkera —eta Oieregi maila apalagoan— Baztan aldera biratzen ari dela erraten du:

- En la subvariedad de Oronoz dicha palatalización [tt] se realiza en unos casos y no tiene lugar en otros. J. Gortari no palataliza. Con los informadores M. Arregi y L. Zelaieta ocurre lo siguiente: mientras el primero palataliza generalmente, pero deja de hacerlo en algunas ocasiones; en el segundo, sucede lo con-

trario. Es decir parece que en Oronoz la palatalización es fluctuante [...] La decisión de Bonaparte de separarlo del resto de Baztán e incluirlo en la variedad de Vera parece acertada, incluso en el momento actual. Sin embargo, el hecho de que todos nuestros informadores de Oronoz y Zozaya, hayan utilizado, en algunas ocasiones, formas baztanesas, proporciona a la conjugación de esta subvariedad –constituida por Oronoz y sus barrios de Mugaire y Zozaya– características peculiares, que la diferencian notablemente de las empleadas en las restantes subvariedades de la variedad de Vera (390).

Más abajo nos referiremos a la tendencia que se aprecia, en esta última época, en el habla de Oronoz y Oyeregui, a ir asemejándose al baztanés (393).

Lehen *didazu* erako adizkiak gehiago erabiltzen ziren, baina orain, pixkanaka nonbait, *datazu* gisakoak gehiago aditzen dira (585).

Rosa Miren Pagolak eta Koldo Artolak beren lanetan aipatutakoak berretsi beharrean gara: Oronoz-Mugairiko sei lekukoetatik lauk Bertizarana –Doneztebe– aldera egiten dute nabarmen, eta bertze biek aldiz, Baztango Basaburu aldera. Datu honek agerian uzten du Oronoz-Mugairiko euskal aldaera mugako hizkera dela. Hala ere, berriz ere Pagolaren nahiz Artolaren ildotik, Oronozen aldatuak aurkitu ditugun ezaugarri batzuk Oieregin bertan (aldatzen) hasten direla iduri du.

#### 8.4. Bidasoa vs. Baztan

Atal honetan bertze ikertzaile batzuek erranekoak nahiz guk adierazitakoak argudio geolinguistikoen bidez frogatzeko tenorea heldu zaigu. Ondotik aurkeztuko ditugun ezaugarri gehienak banatzaile gertatzen dira, eremua eta Oronoz bera batera edo bertzera uzten duten ezaugarriak baitira: Bidasoa aldera —erreka— edo Baztan aldera —ugaldea—. Bi ur ezberdin nahasten dira herri honetan, eta horregatik, tasun bakoitza zein sistematakoa den argitzera saiaturako gara, ezaugarrien geografia hedadura zehatza emanez, baita maiztasunaren eta indarraren berri ere, banaketa diatopikoa egiteko. Hona hemen, dialektologikoki bederen, bi eremu marraztera laguntzen duten ezaugarri nagusiak:

1. *i+a>iya* epentesia: hagitz irregularra da, baina aldizka (eta batzuen ahotan) aditzen da: *ariya*, *dermiyuak*, *xuriya*, *esiya*, *oliyua*... Batzuek, berriz, ez dute behin ere erabiltzen. Ezaugarri hau gibelka joaki da, gazteek zaharrek baino gutiagotan erabiltzen baitute. Honenbertzez, Gipuzkoatik heldu dena Oronoz-Mugairiraino iristen da arras lausotu arte, bertan hartzen baitu azken hatsa<sup>66</sup>.

66 Bertizaranako testuetan (Ondarra 1989, 1992, 1994) gauza bera sumatzen da: Narbarteko testuetan aski ahul ageri da *guciyec* & *guciec*, *guziya* & *gucia*, *hiziyan* ‘ehizan’, *eguiya*, *neurriya* eta *berriyac* ditugu, baina *aundiaren*, *lastimagarriac*, *becataria*, *gracia*, *miragarria*... Beraz, adibide bakan batzuk ditugu, arestiko epentesidunak, eta beti silaba bukaeran, inoiz ez da ageri hitz tartean (Berako dotrinako *abiyatu*, adibidez). Oieregiko euskal testuetan, berriz, ez dugu alerik ere jaso: *guciec*, *biec*, *andia*, *eguiá*... Bortzerrietako testuetan sendo eta bizkor dagoena, Narbarteko testigantza idatzietan ahula eta irregularra da; eta Oieregiko izkribuetan, ez da ageri ere.

2. Asimilazio bustidura  $i+t>tt$ ,  $i+l>ll$ ,  $id+>dd$ : ez da epentesia bezain urria, baina denetik kausitu dugu guk: Oronozko hitzun batzuek ia sistematikoki erabiltzen dute, eta bertze batzuek, ordea, ia sistematikoki ez dute erabiltzen. Dena herri berekoen artean gertatzen da. Yrizarrek bustiduraren mailaren arabera (1992: 390), Etxalar (bustiduraren maila hau ez dago) batera sailkatzen du eta Oronoz (aldizka) bertze batera. Oronoztik ekialdera, Baztanera<sup>67</sup>, ez dago honako asimilazio bustidurarik. Oro har, Malerrekan baino bustidura apalagoa aurkitu dugu Bertizaranan: *segitu* (vs. *segittu*), *iten* (vs. *itteen*), *zitun* (vs. *zittun*), *tu* (vs. *ttu*) ‘ditu’, *arraildu* (vs. *arrailddu*), *bildu* (vs. *bilddu*), *ibili* (vs. *ibilli*).... Nolanahi ere, zenbait hitzuni bi formak aditu dizkiegu, bustia eta bustigabea: *zerbaitere* & *zerbattere*, *aita* & *atta*. Bertze zenbaiti, berriz, aldaera bustiak hartu dizkiogu nagusiki: *nittun*, *zittun*, *berrittu*, *partittu*, *gutti*, *itteen*... Honenbertzez, bustidura automatikoaren maila ez da Malerrekan dagoena, eta ekialdera joan ahala ahultzen da, Baztanen itzali arte.
3. Aferesia: maiz, aferesiak euskara nafarraren ezaugarritzat jotzen dira, eta neurri batean hala da. Dena den, Nafarroa Beherean ere aldaera aferesidunak inoiz erabiltzen direla oroitarazi behar da. Indarraz eta maiztasunaz den bezainbatean, bi maila bederen bereiz daitezke aztergai dugun eremuan, Baztan-Bidasoa guzian gertatzen ahal direnak: (i) *kusi*, *torri*, *man*, *zan*, *karri*, *zautu* ‘ezagutu’, *te* ‘ote’, *kito* & *jito* ‘ijito’, *purdi*...; eta, (ii) Baztanen<sup>68</sup> bakarrik gertatzen direnak: *baki*, *mazte*, *txiki* ‘atxiki’<sup>69</sup>, *turri*. Hau da, hondarreko hauek ez dira Bertizaranan, Malerrekan edo Bortzerrietan erabiltzen. Oronozen, ordea, bai. Beraz, Oronoz-Mugairin kausitu ditugun emaitzek ekialderago begira jartzen gaituzte, herri honetan berean hasten baitira *baki*, *mazte*, *turri* aldaera aferesidunak. Halaber, fenomenoaren maiztasuna ere garrantzizkoa da: aferesien maila Nafarroako Bidasoaldean ez da Baztanen (Esteribarren, Erroibarren, Nafarroa Beherean...) dagoena. Areago, diakroniara joz gero, Baztango (eta Baigorriko) dotrinetan aferesia noiznahi ageri da, eta Bortzerrietako nahiz Bertizaranako testuetan, berriz, alerik ere ez dugu atzeman (Zelaieta 2002). Baztanen duela mende eta erdi bat ohikoa zena (hura idatziz ere

67 Ultzama eta Anue eremu banatan uzten ditu bustiduraren afera honek: Ultzaman, *mugittu*, *ukittu*, *attune*, *zittuen*...; Anuen, berriz, bustigabeak aditzen dira *mugitu*, *ukitu*, *loditu*, *zittuen*... (Ibarra 1995).

68 Urdazubitik hurbilago dagoen Amaiur herrian fenomeno hau apaltzen bide da (Salaburu 1984-2: 262): Amaiurren *ikusi* esaten dute beti, Arizkunen *kusi* aurkitzen da maizago. Urdazubin (eta Zugarramurdin), Montoyaren hitzetan (2004: 39), aferesia ez da oso ohikoa, Baztanen baino puska gutiago aditzen dira aldaera aferesidunak. Saran, aldiz, *man* eta *zautu* bertzerik ez dugu atzeman.

69 Nafarroako Bidasoaldean *itxeki* aldaera entzuten da ‘erantsi, itsatsi’. Ipar Euskal Herrian, Luzaiden (Kamino & Salaberri 2007: 23-24) eta Esteribarren nahiz Erroibarren (Ibarra 2007: 20) *atxiki* aldaera osorik ahoskatzen bide da.

adierazten baitzen) Bortzerrietako edo Bertizaranako euskal agirietan ezezaguna zen. Hortaz, Baztan-Bidasoan barreneko aferesiaren maiztasuna zein den eta nondik heldu den jakitera laguntzen digu azterketa honek.

4. Sinkopak ere nafartzat hartzen dira, baina hemen ere dena ez da bat. Bortzerriak-Malerrekako sinkopak hagitzez azkarragoak dira Baztangoak baino. Bidasoaldeko testu zaharretan noiznahi ageri dira: *entertu* ‘enterratu’, *borontia* ‘borondate’, *alletu* ‘ailegatu’, *garizma* ‘garizuma’, *cerubtan* ‘zeruetan’...; Baztango izkribuetan, ordea, ez dago halakorik. Gaur egunean ere mota honetako sinkopak arrunt hedatuak dira Nafarroako Bidasoaldean. Oronoz-Mugairin sinkopen maila Bortzerrietan eta Malerrekan dagoena baino aise apalagoa da. Berriemaile batzuek ez dute behin ere egiten: *allegatzen*, *launbata*, *denetan*, *engañatu*, *bijilatzen*, *serbilletak*, *belarretan*, *esposatu*, *aitzinetik*, *gaztanbera*, *txokolate*, *botatzen*, *gibeleko*... eta honako forma osoak erabiltzen dituzte, errate baterako. Bertze batzuetan bi formak grabatu ditugu, sinkopatu eta sinkopatu gabea: *lurko suan* baina *lurreko*, *alletu* (behin bakarrik), *garraitzen* & *garraiatzeko*, *kanbitu* & *kanbiatu*. Bertze alde batetik, aferesiekin gertatu bezala, sinkopa mota ezberdinek eremu bana zehazten dute. Orain artekoek Bidasoa idurikatzen dute, eta Oronozen hasten diren bertze batzuek Baztan eta Nafarroako bertze eskualde batzuk marrazten dituzte: *atra* ‘atera’, *erten* ‘erraten’, *bedratzi* ‘bederatzi’, *batre* ‘batere’. Sinkopa ezberdinak ditugu, azentubidea aldatzen delako. Bortzerrietatik Saldias eta Beintza-Labaieneraino +2 azentu mota dugu, lehenago ikusi dugun eran; Nafarroa (eta ekialde) gehienez, berriz, -2. Hortaz, bokal atonoak galtzea joera nafarra dela erran genezake, eta fenomeno hau Baztan-Bidasoa guzian gertatzen da; hala ere, bi azentubide dauden heinean, bi motako sinkopak ditugu, berriz ere bi eremu idurikatzen dituztenak: (i) Bidasoa eta (ii) Baztan. Nafarroako Bidasoaldearen baitako Bertizaranan sinkopen maila apalxeagoa da: *kontrolatu* (vs. *kontroltu*), *kanbiatu* (vs. *kanbitu*), *amarretan* (vs. *amartan*), *ondarreko* (vs. *ondarko*), *borondate* (vs. *boronte*), *operatu* (vs. *opetu*)... Oronozen, zenbait hitzuni hitz beraren bi aldakiak bildu dizkiogu: *txokoltia* & *txokolatia*, *entertu* & *enterratu*, *kontestu* & *kontestatu*. Halaber, forma sinkopatuak usu samar erabiltzen dituztenak ere kausitu ditugu herri honetan: *dentan*, *sostan*, *olkorik*, *Legaskua*, *abixtu*, *lodigua*, *asertu*, *lenbizkoz*, *kastitu*... Malerrekan eta Bortzerrietan indar handiagoa du sinkoparen gertakariak. Berrikuntzahau Oronoz-Mugairiraino iristen bada ere, Bertizaranan hasten da indarra galtzen.
5. Artikuluaren erabateko asimilazioa: bakarren batek aski erregulariki betetzen badu ere, ez da inondik ere Bortzerrietan, Sunbillan edo Malerrekan dagoena, nahiz eta adibide batzuk aurkitu ditugun *guatzin* ‘ohatzean’, *kukusuk* ‘arkakusoak’, *guzik*, *usuk*... Egia erran, joera honen ahultzea Oieregin berean sumatzen da, Oronozen aise gehiago ahultzen baldin bada

ere. Oronoz-Mugairiko gainerako berriemaileek ez dute behin ere hone-lakorik egiten. Beraz, errekan goiti heldu denak Oronoz-Mugairin bere azken hatsa hartzen duela erraten ahal dugu. Hortik ekialdera ez da ezaguna asimilazio mota hau.

6. Bokalen hurbileko asimilazioa: Bortzerriak-Malerrekan hurbileko asimilazioraren zenbait aztarna daude *biyek, iruek, lauek, guziyek, dire, nitzeke, ziñeke, litzeke, giñeke, lireke*. Adibide bakanduak dira, bertzerik ez. Baztanen eta Nafarroako zenbait tokitan hagitz indartsua da gertakari hau, ezaguna denez, sistematikoa eta emankorra baita mailegu berrienetan ere. Oronoz-Mugairin batzuek arrasto (eragin?) bat edo bertze agertzen dute: pertsona berak *aitatxi-aitetxi* (lehena nagusi), *aita-aite* bezalako pareak erabiltzen baititu. Bi lagunek, berriz, gehiagotan egiten dute (ez Baztanen bezain maiz): *iretziak, egune, franko urbil de, aur bet, orduen, lagunek, zelai bet*. Eta gainerako bertze hiruek, berriz, Bertizaranan bezalatsu, ez dute egiten, non eta ez den kasu bakanen bat. Berrero isoglosa Oronozen barrena kokatzen da, mendebalera ez baita emankorra asimilazio mota hau, eta ekialdera, aldiz, bixi-bixi baitago.
7. Erdal *-ción/-sión/-gión/-tión>-one* bihurtzen da: *kalefazione, subentzione, funtzioniak, sekzionia, opinione, diputazione, fundazione, tentazione, relazione, afzione...* erakoak bildu ditugu Oronoz-Mugairin. Behin *prozesian/prozesione* pareta atzeman dugu hiztun beraren ahotan. Oieregin ere antzera sumatu dugu, nahiz eta *tentazio, prozesio, bendizio...* bezalakoak gehixeago ageri diren. Mendebalerago joanda, bi bukaera hauen arteko lehia handiagoa da *konpazione, funtzione, distintzionia, telebisionin, obligazionik...*, baina *prozesio, bendizio, tentazio, intentziua, konfesionik/konfesiuk* ere bai (Legasa eta Narbarteko adibideak). Malerrekan eta Bortzerrietan bietara ageri da, Legasan eta Narbarten ageri den bezalatsu. Hortik mendebalerago, Beintza-Labaienen, Saldiasen edota Goizuetan *-zio* bukaera bakarria aurkitu dugu. Hiru eremu daude, beraz: (i) *-zio* bakarrik, (ii) *-zio* eta *-zione* eta (iii) *-zione*<sup>70</sup> bakarrik.
8. Badira metatesi batzuk bi eremu banatzen dituztenak: *manteinttu* ‘mantenitu’, *enteinttu* ‘entenditu’, *ofeinttu* ‘ofenditu’, *konpreinttu* ‘konprenitu’, *de-teinttu* ‘detenitu’... Metatesiok Bortzerrietako testuetan ere ageri dira. Gaur den egunean, Malerrekan eta Goizuetan (Zubiri & Perurena 1998: 49) ere erabiltzen direla badakigu, ez ordea, Baztanen edo Ipar Euskal Herrian. Guk, geolinguistikoki hitz eginda, Bertizaranan harrapatu ditugu lehenbiziko forma jatorrak, aldatu gabeak *entenditu, mantenitu...* Oronozen ere halakoak

70 Nahiz eta Baztanen *-zion* bukaera gero eta gehiago aditzen den, bereziki gazteagoen artean *diputazione/diputazion, obligazione/obligazion, tentazione/tentazion, telebisione/telebision...* Zaharrek erabiltzen dutena Ipar Euskal Herrian ere baliatzen da; bigarrenak, berriz, berriagoa ematen du, eta nonbait, Nafarroa aldetik sartua, *balona, melona, markarronak* erako *-on* bukaeradunen legeari jarraikiz-edo.

bildu ditugu. Malerrekan eta Bortzerrietan ohikoak —ia arauzkoak— diren metatesiak, aise gutiago daude Doneztebetik eskuin; Bertizaranan honakoak aditzen dira maiz: *entenditzeko* (vs. *enteintzeko*), *detenittu* (vs. *deteinttu*)... Aitzitik, zenbaitetan bederen, aldaera metatesidunak jaso ditugu Legasan, Narbarten eta Oiiregin ere: *ongi manteintzen da* (Narbarte), *nik lagunari ofeinttua* ‘nik laguna ofenditua’ (Legasa), *ederki konpreintzen dire biek* (Oiiregi). Baztanen ez dagoenaren eta Malerrekan maiz aski dagoenaren erdibidean ditugu Bertizaranako hiru herriok, Oronoz-Mugairirekin batean Bidasoako eta Baztango uren arteko zubi-lanak eginez.

9. Doinua, azentuera: banaketa garbi xamarra aurkitu dugu: Oronoz-Mugairiraino azentu mota bat dago (ikus 4.3. azpiatala) eta Oronoz-Mugairitik ekialdera bertze bat dago. Baina, zer gertatzen da herri honetan? Hitzun batzuek bi solas egin orduko Bertizarana eta Doneztebe inguruko mintzoa gogora ekartzen digute, bertze batzuek ere bi solas egin orduko, berriz, Baztan aldeko hizkera gogorazten digute. Estibalitz Montoyak Zugarramurdi-Urdazubirako (2004) dakarren azalpenak balio dezake Oronozkorako, gure iritziz. Izan ere, bi azentu ereduaren arteko isoglosa herri honetan dago egun: batzuek batera eta bertze batzuek bertzera egiten dute. Gogoan hartu behar da azentua arras isoglosa garrantzitsua dela, kate mintzatua osoki baldintzatzen duen neurrian. Hain da nabarmena arestian azaldu duguna, aski baita Oronoz-Mugairiko batzuekin solasean aritzea ohartzeko bi sistemak bertan topatzen direla elkarrekin. Belarriak ez du engainatzen afera honetan. Gure lekuko batek goranzko diptongoak ere (ez sistematikoki, baina bai zenbaitetan) egiten ditu: *gomazkwuak*, *gajtjak*, *astwa*... Hau da, Baztango (eta ekialdeko) mintzoaren ezaugarri bereizgarrietatik bat bere eginez.
10. *-ken* pleonasmoa: gutitan entzun dugu, baina adibide batzuk bildu ditugu herri honetan: *etzun bekaturiken*, *gizonen aldetiken*, *bakarriken*. Hots, Bortzerriak-Malerrekan baino puska gutiago dago, baina Baztanen baino gehixago; Baztango ibarrean, adibide bakar batzuk izan ezik (*soriken* ‘segurik’, konparazio), hemen ez baita emankorra. Bertzalde, Oronozen, *-ken* da aldaera, ondoko Bertizaranan eta Malerrekan bezala. Sunbillan nahiz Bortzerrietan, aldiz, Gipuzkoan bezala, *-kan* dugu. Aldaerak aldaera, Bidasoa ibaian goiti heldu den ezaugarria Oronoz-Mugairin akitzen dela erran genezake.
11. Berezko *-aren* ezegonkortasuna: erdialdeko zenbait hizkeratan, hitzaren bukaera *-a* delarik, bokal hau galtzeko joera bizia dagoela azaldu dugu laugarren atalean, bai eta ezegonkortasuna bertze aldekoa izan litekeela ere. Oronozen hondar mota honetako adibide batzuk kausitu ditugu: *opilla bat*, *baduzu miña bat*, *San Blasko ura ori*, *Almandozara*, *Belata aldera*... Gure datu-bilketaren arabera, Baztanen ere noizbehinka gertatzen ahal dela bada-kigu, baina iduri du, maiztasun edo indarrari dagokionez, Oronoz-Mugairik Bidasoaldeko hizkerekin bat egiten duela, hortik ekialdera bakan ageri baita.

12. *nun, ziñun, zun* adizki laburtuak Euskal Herriko erdigune zabalean ohiko berrikuntzak dira. Nafarroako gure eremuan, Bortzerrietatik Oronozera iristen dira. Baztanen, Basaburuan bertan *nuen, ziñuen, zuen* modukoak daude. Oronoz-Mugairin ia beti (cf. Pedro de Yrizar 1992-1: 588-589) adizki laburtuak ditugu, ondoko Bertizaranan bezala.
13. Nor Nori Nork sail diferenteen arteko lehia dago, Artolaren goragoko aipamenak erakutsi bezala. Gure lekuko gehienak adinekoak diren aldetik, arestiko lehia ez da hainbertze nabari. Erran nahi baita, lehengoari eusten diotela gehienez: *didazu, zien, ziguten* gisakoak. Hala ere, batzuek bi sailak erabiltzen dituzte: *zaben, datazu, zakuten*. Lekuko batek, gure grabazio batean, behin bi sailak bata bertzearen ondoan erraten ditu: *erraten zaben, erraten zioten*. Adinekoen artean, Euskal Herriko erdialdean eta Nafarroako Bidasoaldean erabiltzen diren adizkiak nagusi badira ere, urteetan beheiti egin ahala, \**eradun* erakoak maizago aditzen dira. Gazteagoek eta ez hain gazteek Baztan aldera egiten dute nabarmen. Dinamismo batean dagoen bertze ezaugarri garrantzitsu bat dugu aditzaren morfologian, zalantzarik gabe.
14. *-tiko* geroaldiko aditz atzizkia behin edo behin ageri da (lekuko bakarraren ahotan): *segitiko dute* ‘segituko dute’, *pagatiko zun* ‘pagatuko zuen’. Baztango ondoko herrietatik etorritako berrikuntza hau gero eta gehixeago aditzen ahal da herri honetan, Oronozen ohikoa ez bada ere. Gazteagoek berriz ere Baztan aldera egiten dute, bertako bizimoduak zein norabide hartu duen seinale garbia. Oronoz-Mugairitik mendebalera arrotza da geroaldia egiteko bilakabide hau, baita aldameneko Oieregin ere.
15. *-katu* aditz atzizkia, laugarren atalean ikusi duguna, Zubietatik Oieregiraino jaso dugu *zandukatu gara, kus zandukatu dugu, nik ez dut kusi zandukatu* (Narbarteko adibideak). Agerian gelditu denez, aditz atzizki hau aurkitu dugun hondar herrian, Narbarten, forma hibridoak dago *izan+ -katu > zandukatu*. Honek ohartarazten gaitu Bertizaranan itzaltzen hasten dela, bai gutiago sumatu dugulako bai *izanekin* batean ageri delako. Hurrengo herrian, Oieregin, guk bederen ez dugu bildu. Ezta Oronoz-Mugairin ere: *kusi zan dut, kanbiatu zan zuzten* ‘kanbiatu izan zituzten’, *beti ein izan dut* (azken adibide hau Oieregikoa da).
16. Partizipio analogikoak: Euskal Herriko erdigune zabalean<sup>71</sup> nagusitu dira partizipio analogiko batzuk: *izandu, egondu* eta *bizitu*. Halarik ere,

71 Erdiguneko eremu batzuetan ageri da: Gipuzkoan, Lapurdiko mendebalean, Nafarroako Bidasoaldean, Basaburu Txikian, Basaburu Handian, Larraunen, Sakanan, Ultzaman, Gesalätzen, Goñerrian, Olloibarren, Oltzan, Elortzibarren, Eguesibarren eta Esteribarren (Ibarra 1995: 543, Salaberri 2002: 37). Erroibarren gutiago ageri da. Nafarroako Baztanen, Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkarin, berriz, ez dago.



guk honako etsenpluak bildu ditugu Oronoz-Mugairin: *gure itxin izan da, kusi zan dut, bota zan ttuzte...* Alabaina, bertako bi lekukok aldi bana analogikoa eman digute: *bizitu* eta *bizittu zan zen* ‘bizi izan zen’. Eta bitan *izandu*, baina hagitz bakan, ageri denez. Partizipio analogikoen erabilerak beheiti egiten du Doneztebetik eskuin: *egon gara, egon dire, egon ziren* (Oieregiko adibideak) vs. *egondu*. Dena den, *izandu* aditz partizipioa Oronozeraingo iristen da: *izandu baita, bertan izandu naiz* (Oronozko adibideak). Hortaz, iduri du hiru partizipio analogiko hauek ez dutela hedadura berbera hartzen: (i)*izandu* partizipioa erabiltzen duten herri guzietan ez dute *egondu* baliatzen. Bertze alde, Malerrekan eta Bortzerrietan *bizittu gara* bezalakoa arauzko forma bakarra da. Bertizaranan, aldiz, biak topatu ditugu, jatorra eta analogikoa: *bizi izan da, bizitu gara* (Narbate). Oieregin berean partizipio hauek murrizten hasten dira. Horrat non ezartzen ahal den bertze isoglosa (gradual) bat.

17. «Joan» aditzen formei dagokienez, honelako adizkiak bildu ditugu Oronoz-Mugairin: *zazi* (nagusi) & *zoazi* ‘zoaz’, *doaina* ‘doana’, *doayen* ‘doan’, *badazi* ‘badoaz’, *bazazin* ‘bazindoazen’, *bazayen* ‘bazihoan’, *zazila* ‘zihoazela’, *zoazinak* ‘zihoazenak’... Mugaren alde banatako bi formak berriz ere, bai *-o-* dunak: *zoazi, doaye...*, bai *-a-* dunak: *bazazin, zazila...* Aldaera hauek guziak nafarrak dira. Hala ere, bi eremu bederen bereizten ahal dira: (i) *zoazi* erakoak Bortzerrietatik Oronozeraingo hedatzen dira, Bidasoalde osoan; eta (ii) *zazi* erakoak Oronoztik ekialdera. Nolanahi ere, eta gauzak zehazte aldera, Oronoz-Mugairin gehiago entzuten da *-a-* monoptongatua *-o-* baino. Hurbilago dago, beraz, Baztandik Bidasoaldetik baino kontu honetan.

Aurkeztu berri ditugun hamazazpi ezaugarriek bi eremu lektal ezberdinen berri ematen digutelako uste osoan gaude: (i) Bidasoaldea eta (ii) Baztan. Zehazkiago erran dezagun: alde batetik, Basaburu Txikiko Saldias eta Beintza-Labaien, Malerreka, Sunbilla, Bortzerriak eta Bertizarana (batzuetan Oieregi mugan dago); bertze aldetik, Baztan. Bi eremuon tartean, Oronoz-Mugairi dugu.

Bidasoa ibaiaren aldetik heldu diren ezaugarri franko Oronozeraingo iristen dira, baina indarra edota maiztasuna nabarmen apalduta: epentesia, asimilazio bus-tidura, bokalen erabateko asimilazioa, azentuera, *-ken* pleonasma eta *nun, ziiñun, zun* bezalako adizki laburtuak. Ia ezaugarri hauek guziak (azentua alde batera utzirik) berrikuntzak dira: Nafarroako Bidasoaldean barrena etorriak, eta Oronoz-Mugairiko hizkerari halako kolore nabarmen bat ematen diotenak.

Arestiko sortako berrikuntza gehienak aspaldi samarrean Euskal Herriko erdi-gunean sortuak dira, Gipuzkoan, Lapurdiko itsasaldean eta Nafarroako mendebaleko (eta erdialdeko) hizkera batzuetan ere badaudenak. Beraz, ezaugarri hauen geografia hedaduraren arabera bederen, Nafarroako Bidasoaldea Euskal Herriko

erdigunetiko euskararen dinamika berritzaile horretan txertatu behar dugu, Oronoz-Mugairi barne. Segur aski, honako tasunengatik Oronoz-Mugairiko mintzoa Bidasoaldekoekin batean sailkatu izan da orain arte: bistan da ezaugarriok ez dutela deus ikustekorik Oronoztik ekialdera hasten den euskararekin. Baztandarrentzat ere argi dago afera nonbait, eta alde lektal hau (baita egun ere) ederki sumatzen dute eguneroko hizketan.

Halarik ere, maiz Bidasoaldean bizkor eta sendo dagoena ahul eta apal ageri zaigu Oronozen, herri honetan hartzen baitute azken hatsa zenbait ezaugarrik. Honek erakusten du mendebaletik etorritako berrikuntza horiek Oronoz-Mugairiraino iritsiak direla, baina ez indar berarekin. Batzuetan, gainera, aipatu ahultzea Doneztebetik eskuin hasten da: asimilazio bustidura, sinkopen maila, metatesiak eta partizipio analogikoak. Malerreka eta Bertizarana banatzen dituzten ezaugarri hauek gradualak dira, hots, jauzi nabarmenik gabeak. Nolabait ere, bertako euskararen dinamikaren berri ematen digute: Bertizarana, euskal hizkuntzari gagozkiolarik, Malerreka ekialdeko muturra da, Baztanekin muga egiten duena.

Gutixko izanda ere, Baztandik zerbait edaten du Bertizaranak, Oieregik batez ere. Edozein kasutan, argi eta garbi erran beharra da batasuna gailentzen dela arruntetan: aski antzekoak direla Narbarteko eta Donamariako euskara, Oieregikoa eta Elgorriagakoa. Honenbertzez, hizkuntza distantzia gutiago dago Bertizaranatik Malerrakara, ezen Malerrekatik Bortzerrietara. Ondorio linguistiko hau ez da guziz harritzekoa, orografikoki, historikoki nahiz sozio-ekonomikoki ere halatsu gertatu baita.

Dena den, egiazko trantsizioa Oronoz-Mugairin dago, zalantza izpirik gabe. Pagolak eta Artolak ere adierazi bezala, herri honetan dagoen polimorfismo maila izugarria da. Gure azter-eremu osoan halako ezaugarri bereziak dituen herri bakarra da Oronoz. Eta berezitasun honek linguistikoki konplexuago egiten du. Aberatsago. Interesgarriago: aurkeztu ditugun hamazazpi ezaugarrietatik hamalautan, Oronoz ez da sekula bete-betea multzo batean edo bertean sailkatzen ahal. Nahitaez joeraz, maiztasunaz edota indarraz mintzatu beharrean gara. Ondoko tasunetan, adibidez, Oronoz-Mugairiko hizkerak gehiago egiten du Baztan aldera: aferesi motak, sinkopa motak, hurbileko bokal asimilazioaren aztarnak (hastapenak?), *-tiko* geroaldiko aditz atzizkiaren agerpenaren hasikinak, partizipio analogikoen ia desagertpena eta «joan» aditzaren formak.

Beraz, dinamismo bizian dauden ezaugarriok Baztan aldera ari dira, hori da bertako euskararen gaurko norabidea. Gisa berean, pentsatzekoa da etorkizun hurbilean, Oronoz-Mugairiko gazte(ago)en solasak adierazten duenez, joera hau areagotuko dela eta bertako hizkera baztandarra izanen dela, Euskal Herri osorako estandarra den batuaren eraginak gorabehera.

Euskal Herriko egoera linguistikoa kontuan hartuta, Hego Euskal Herrian eta Nafarroan hizkera gehienak erdialdera ari diren honetan, Oronoz-Mugairik ekialde-

ra egiteak arrunt paradoxikoa ematen du. Baina ez da ahanzi behar eskualdeko egoera soziolinguistikoa. Oronoztik mendebalera Bertizaranako hiru herriak ditugu, aski ttikiak eta erdaldundu samarrak. Hurrengo herria, garrantzitsua da, bai, Doneztebe, baina lehenbiziko atalean azaldu dugun eran, aski erdalduna. Oronoztik ekialdera, aldiz, gauzak ezberdin daude. Baztango Basaburuko herriak eta (Oronozekin batean *Erberea* kuartela osatzen duten) Gartzain, Irurita eta Arraioz dira hurbilen daudenak. Gartzain eta Irurita urrunxeago gelditzen dira. Arraioz, Berroeta, Ziga, Aniz eta Almandoz ditu hurbilxko Oronozek. Bortzak herri aski euskaldunak, gure hizkuntzaren ezagutzaz nola erabileraz den bezainbatean. Beharbada, Oronoz-Mugairiko euskaldunentzat, normalean euskaraz aritzen direnentzat, herri euskaldunotako jendea dateke *erreferente* linguistikoa, bereziki gazteagoen artean. Eta hortik etortzen ahal dira hondarreko belaunaldietan sumatu ditugun aldaketak.

Aparte utzi ditugu lexikoari dagozkionak. Hizkuntzaren maila honetan ere alderdi fonikoan nola morfologikoan dagoen aldaketa giroa islatzen da. Erran nahi baita behin baino gehiagotan bi aldaera topatu ditugula, mendebaleraxeago erabiltzen dena eta ekialderaxeago erabiltzen dena. Hona hemen Oronoz-Mugairiko euskararen trantsizioaren berri ematen diguten pareak, bertako solasean aditzen ahal direnak:

*aspo & ausko, ate & piro, baserritar & nekazari, bezpera & mezpera, birjiña & birkiña, ernatu & iretzarri, ideki & edeki, jito & kito.*

Gure lekuko batek, goranzko diptongoak egiten dituenak, baztandartzat hartzen ahalko genituzkeen aldaerak eman ditu: *potoiñak* ‘botoiak’, *puztena* ‘buztana’, *gan* ‘joan, eraman’. Gure iduriko, solasok ez dira Oronozko euskararen adierazgarri, bertako aukera nagusiak ez diren heinean, baina ezin gorde ditugun datuak dira.

Bertze hitz multzo bat dago, Oronoz-Mugairi, Baztan (ekialde) aldera eramaten duena: *boneta, burdin, doike* ‘dudarik gabe’, *izigarri, xarmanta, asmenta* ‘hasiera’. Hauek bai bertakotzat hartzen ditugula, Oronoz-Mugairiko eguneroko mintzoan aditzen diren neurrian, ekialderago eramaten bagaituzte ere.

Eta hondarreko multxo batean, Oronoz-Mugairi Bertizaranarekin eta, oro har, Nafarroako Bidasoaldearekin lotzen dituzten item lexikalak dakartzagu lerro hauetara (Baztango hurrengo herrian ez daudenak): *agitz* (bakan), *usaya* ‘usaina’, *erreka & ugalde* (vs. *ugalde*)<sup>72</sup>.

Bidasoaldea vs. Baztan erkaketa osatzeko, bi eremuon arteko isoglosa lexikala irudikatzen duten hitzak ekarriko ditugu honat. Ikusiko denez, hitz hauekin sorta bat

72 Guk mugaren bertze aldeko Saran ere *erreka* bildu dugu. Halaber, Zugarramurdin eta Urdazubin *erreka* da ohikoa, nahiz eta bi herriotan *u(g)alde* ele nafarra ez den arrotza.

osatzera irits liteke. Lehenik, aldaerak emanen ditugu (ezkerrean Bidasoaldean erabiltzen dena, eskuinean, berriz, Baztangoa):

*aingeru vs. aingiru, aisa vs. aise, akabilla vs. akaballa* ‘bukaera’, *arpegi vs. aurpegi, bazala, bezala & bizala vs. bezala, ba(r)kazio vs. bakantza* ‘opor’, *berandu vs. berant, bezpera vs. mezpera, bixtu vs. piztu & pixtu, burne vs. burdin, duikabe vs. doike, (e)mazte vs. (e)mazteki, erabera vs. arabera, ereno vs. erenegu* ‘herenegun’, *galdetu vs. galdein, gerri vs. gerruntze, gizon vs. gizon & gizonki, ideki vs. edeki, i(g)artu vs. iñertu* ‘ihartu’, *igextu vs. igetu* ‘higatu (arropa)’, *(i)jito vs. jito & kito, izugarri vs. izigarri, jangoiko vs. y(a)inko, kabi vs. kafi* ‘habia’, *kutxara vs. ku(t)xeta, langar vs. lankar, lixatu vs. laxatu* ‘askatu’, *noski vs. naski, podore vs. podere* ‘botere’, *porrakatu vs. porrokatu* ‘xehatu, txikitu’, *ttiki & txar vs. ttiki, ttipi, ttar & ttall, yo vs. ego* ‘eho’.

Bigarrenik, arestiko aldaerokin batean heldu diren ondoko item hauek ere isoglosa lexikal bera ezartzen dute geolinguistikoki, Bidasoa batetik, Baztan bertetik:

*agitz & arras(o) vs. arras, atrunsi(ka) vs. atriye(ka)* ‘doministiku(ka)’, *aukeratu vs. autetu, balakatu vs. ferekatu* ‘laztandu’, *baserritar vs. nekazari & laborari, bixki(y)ak vs. bibiroak* ‘bikiak’, *burdi vs. orga, ernatu vs. iretzarri & idetzarri, erori vs. bota* ‘erori, jausi’, *kontes(ta)tu vs. ñardetsi<sup>73</sup>, madal & magal vs. altzo, oñutsik & ankutsik vs. ortotsik & ortozik, senide vs. aurride* ‘anai-arreba’, *silla vs. katadera & sille, txalo vs. eskuzarta, txintxamari & zintxamari vs. zizein* ‘izain’.

Honenbertzez, lexikoan ere iduri du badela aldea eremu batetik bertzera. Zenbaitetan, Bidasoaldean nagusitzen dena ondoko Gipuzkoan ere badugu: *aingeru, aisa, arpegi, aukeratu, baserritar, bazkatu, berandu, burne, galdetu, gerri, gizon* (vs. *gizonki*), *izugarri, kabi, senide, txalo*. Horren arabera, Bidasoaldeko hizkeretan ezagunak eta ohikoak diren hainbat eta hainbat hitz erdialdean ere aukera bakarrak edo nagusiak dira. Gisa berean, Baztango aldaerak eta itemak Ipar Euskal Herrian nahiz Nafarroa Garaiko hegoalderagoko mintzoetan ere ezagunak eta ohikoak dira: *aingiru, aise, (h)autatu, berant, ferekatu, galdein, mazteki, izigarri, altzo, igitu* (azken hau Ipar Euskal Herrian bakarrik). Laburbilduz, Bidasoaldeak mendebalerago egiten du eta Baztanek ekialderago.

Azkenik, koadro bat paratuko dugu Bortzerriak-Malerrekatik heldu dena noraino eta nola (maiztasuna) iristen den jakinarazteko asmoz. Koadro honetan Malerreka, Legasa-Narbarte, Oieregi eta Oronoz sartu ditugu, orain arte azaldu dugunaren ildotik, Bidasoaldetik Baztanerako trantsizioa nola gertatzen den argituko duelakoan. Erran gabe joaki da Oronozen hasten denak Baztanen segida duela; be-rebat, Oronozen hiltzen denak ez duela Baztanen segitzen.

73 Adinekoek batez ere.

**Bidasoaldetik Baztanerako hizkuntza trantsizioa**

<b>Malerreka</b>	<b>Legasa, NARBARTE</b>	<b>Oieregi</b>	<b>Oronoz-Mugairi</b>
Epentesia <i>-iya</i> (irregularra)	Irregularra	Hagitx irregularra	Hagitx irregularra
Bustidura azkarra	Errekan baino gutixeago	Errekan baino gutixeago	Areago apaltzen da
Sinkopen maila	Errekan baino gutiago	Are gutiago	Baztan aldeko sinkopak: <i>atra, erten, bedratzi, batre</i>
Aferesiak	Errekan bezala	Errekan bezala	Baztan aldeko aferesiak: <i>baki, turri, purdi</i>
Bokalen erabateko asimilazioa	Errekan bezala	Gutiago	Are gutiago
Hurbileko asimilazioaren aztarnak	Errekan bezala	Errekan bezala	Gehiago, Baztango maila ez bada ere.
Hitz bukaeran: <i>-zio/-zione</i>	<i>-zio/-zione</i>	<i>-zione</i> nagusi	<i>-zione</i> (ia) soilik
<i>Enteintu, konpreintu</i> erako metatesiak	Errekan baino gutiago	Are gutiago	Metatesirik ez
Doinua, azentuera	Errekan bezala	Errekan bezala	Bidasoaldekoa nagusi, baina, bietara.
<i>-ken</i> pleonasmoa	<i>-ken</i> (maiz)	<i>-ken</i> (gutixeago)	<i>-ken</i> (tarteka)
<i>Didazu</i> bezalako adizkiak N-N-N sailean	Errekan bezala	Errekan bezala	N-N-N sailen arteko lehia: <i>didazu</i> nahiz <i>datazu</i>
<i>nun, ziñun</i> moduko adizki laburtuak	Errekan bezala	Errekan bezala	Bietara: <i>nun/nuen, ziñun/ziñuen</i>
<i>-tuko</i> geroaldiko morfema	<i>-tuko</i> geroaldiko morfema	<i>-tuko</i> geroaldiko morfema	<i>-tuko</i> nagusi, lekuko batek <i>-tiko</i> batzuetan. Gazteek ere bai
Partzipio analogikoak	Errekan baino gutiago	Are gutiago	Bakan ( <i>zandu</i> baizik ez)
Joan aditzaren formak	<i>Zuzi, banindayen</i>	<i>zuzi, banindayen</i>	<i>zazi</i> nagusi, <i>banindayen</i>
<i>-katu</i> aditz atzizkia	Errekan baino gutiago: <i>zandukatu</i>	aditza + <i>izan</i> egitura	aditza + <i>izan</i> egitura
Aldaera lexikalak: <i>ate, uskara, agitz, yoan, yoare</i>	<i>ate, uskara, agitz, yoan, yoare</i>	<i>ate-atra, uskara-eskuara, agitz, goan</i>	<i>atra, eskuara, agitz</i> (bakan) <i>goan, goare</i>

### 8.5. Ondorioak

- Oro har, Doneztebe inguruko euskarak jarraipena du Bertizaranan. Malerrekandauden ezaugarri nagusi gehienak Bertizaranako herrietan ere badaude. Batasun linguistikoa gailen da bi eskualde hauen artean. Halarik ere, Doneztebetik ekialdera gauzak zertxobait aldatzen direla ohartu gara. Bereziki, Bertizaranako hondar herria den Oiiergin.
- Bidasoan goiti heldu dena, Bortzerriak-Sunbilla-Malerrekatik, Oiiergin eta batez ere Oronoz-Mugairin hasten da aldatzen. Nafarroako Bidasoaldetik heldu den indar hori hemen barrena apaltzen da. Atal honetan aurkeztutako ezaugarri anitzek Oronozen hartzen dute hondar hatsa. Hizkuntzaren trantsizioa, beraz, Oiiergin hasi eta Oronoz-Mugairin mamitzen da.
- Oronozko solasa muga-mugakoa da. Aldakortasuna ez dago hiztun bakoitzaren baitan, baizik eta Oronoz-Mugairi osatzen duten euskaldunen erkidegoaren baitan. Bi joera nagusiak ageri dira, mendebaletikoa eta ekialdetikoa; baita doinuaren ere. Lehia hau ekialdetikoa *irabazten* ari dela iduri du. Hala ere, baztandarrentzat oraindik bada diferentzia, eta artean Oronoz-Mugairiko mintzoak Bidasoaldeko hizkeren antz handia(goa) du.
- Oronoz-Mugairin trantsizio betean dauden ezaugarri nagusiek bi eremu lektal ezberdin marrazten dituzte Baztan-Bidasoa azter-eremuan: (i) Bidasoaldea eta (ii) Baztan.

### 8.6. Proposamen arealak

- Hitz joko bat eginez (eta ez etimologiaren arabera), Oronoz-Mugairi muga-hiria dela erran genezake: Baztan *ugaldea* eta Bidasoa *errekaren* arteko zubi-hizkera dugu. Ibai honek daramatzen bi ur korrante nagusiak hemen elkartzen dira, muga-hirian. Saldiaстик nahiz Beintza-Labaiendik hasten den euskara mota herri honetaraino iristen da, Bortzerriak, Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranarekin batean. Beraz, Nafarroako hizkeren eta euskalkien mapari gagozkiolarik, Oronoz-Mugairik Bidasoaldeko multzoaren ertzetik hurbilsko agertu behar du, gure azterketaren arabera.



## **9. Baztan**

---





## 9.1. Sarrera

Atal luze samar honetan, bi afera aztertuko ditugu nagusiki: Baztanen barreneko isoglosa nagusiak eta ibar honek aldameneko bertze ibar eta eskualdeekin dituen ezberdintasunak eta antzekotasunak. Berriz ere, xede kontrastiboak ezartzen digu metodologia: alderaketa. Galde-modu anitz ditugu, eta ez dakigu denei erantzuteko gauza izanzen garen. Ahal dugun neurrian bederen, zenbait erantzun ematera saiatuko gara.

Euskal Dialektologian egun ere ditugun zalantzak eta gabeziak ez dira guti: (i) kanpotik heldu diren ezaugarriak Baztan guzian betetzen diren edo ez ikusi nahi dugu; (ii) ez badira Baztan guzian betetzen, non gertatzen diren eten nagusiak jakin-minez gaude, Baztanen batasun linguistikoa ote dagoen, alegia; (iii) Baztan osoa besarkatzen duen ezaugarri eksklusiborik dagoen edo ez argitu beharra da; (iv) Baztango euskara berezi egiten duen deus ote dagoen ere ikertu nahi/behar dugu, Baztango euskararen nortasuna bertako gizartearenaren parekoa ote den; bertze alde batetik, (v) Baztan-Baigorri arteko kideasunez gutixko dakigu, baita (vi) Baztan eta Ultzama arteko ez ere.

Azken urteotan eskuratu ditugun datuak askotarikoak dira. Batzuk, guk geuk bilduak (zuzenean nahiz bertako berriemaileen bitartez); bertze batzuk, berriz, bertze ikertzaile batzuek eskainiak dira: Pello Salaburu, Mariano Izeta eta Geneviève N'Diaye gogoan izan ditugu, bertzeak bertze. Salaburu da, ezbairik gabe, gehien erabili dugun iturria, lan interesgarri zenbait argitaratuak baititu (ikus 1980, 1984, 1996 eta Maite Lakar laguntzailearekin batera 2005). Auzoei buruzko datuak eskuratzeko, gure zenbait eginahalez landara, Orreaga Ibarra (1995, 2000, 2007) eta Estibalitz Montoyarengana (2004) jo dugu. Baita ikuspegi areala eskaintzen duten Koldo Zuazoren (1998, 1999, 2003) eta Iñaki Caminoren (2004, 2004b) lanetara ere.

Zortzigarren kapituluaren erakutsienez, bistan da ibar honetako Oronoz-Mugairi kanpoan utzi beharra dugula, edo Bidasoaldearen eta Baztanen tartean bederen. Kontuan hartuko dugu, dena den, bereziki Baztango Basaburuaz mintzatzean. Halaber, Baztango euskara aztertzeke ez gara Baztanen geldituko, inguru hurbilera ere begiratu dugu: ondoko herri nafarretara eta mugaz bertze aldeko herrietara.

## 9.2. Harremanak eta gizarte loturak

Pello Salaburuk Mariano Izetaren *Baztango hiztegia* ongi gaztigitzen digunez, zenbait ezberdintasun badaude ibarreko herrien artean:

Baztan nahiko handia eta zabala da (euskararen kontu hauetan, jakina) eta baztandarrak berehala ohartzen dira Anizen eta Amaiurren ez direla beti berdindin mintzo hango biztanleak (1996: 17-18).

Aski da euskalkien gaineko literaturari begiratu bat egitea, ordea, Baztani buruz mintzatzen delarik, ohartzeko gauza bakarra eta arras homogeneousaren iduria eman izan dela ia salbuespenik gabe; izan ere, Bonaparteren lanez geroztik, Baztango euskararen gainean aritzeko Elizondoko hizkera hartu izan da eredu eta aztergai:

Jakin badakigu Elizondoko eta Erratzuko hizketen artean ez dela horrelako diferentzia sakonik egonen, baina duda kasutan Elizondokora jo behar zuen Echeniquek, ez beste herri edo auzokoetara (Salaburu 1980: 12).

Egia da, ikerlan honen lehenbiziko kapituluaz azaldu dugun gisan, Elizondo Baztango ardatza dela eta hartara biltzen direla baztandar gehienak. Baina gezurra erranen genuke baztandar guziena euskara Elizondoko euskara hutsa dela baieztatu bagenu, ibar osoan Elizondoko euskararen arituko balira bezala. Baztango hizkerak koloreak eta ñabardurak ere baititu, Salaburuk eskainitako aipuek adierazten diguten bezala.

Lehenago errana dugu hamabortz herri osatzen dutela Baztan ibarra. Herriok lau *kuartel* edo eremutan banatzen dira: Baztangoiza, Elizondo, Erbera eta Basaburua. Haatik, eskualde hauen espezifikotasun maila ez dela bera erran genazake: erdigunetik aparte samar gelditzen diren Baztangoiza eta Basaburua esparruen konkretzioa zehatzagoa da, erdigune alderago dauden bertze biena (Elizondo eta Erbera) baino. Iparraldean dago Baztangoiza, eta hegoaldean Basaburua. Anitzetan gertatzen den bezala, erdialdean ez dagoenak nolabaiteko nortasuna garatu du, periferia kutsukoa. Betiere, Baztanen baitan, erran gabe doa. Ezaguna baita baztandarraren artean dagoen elkartea sendoa dela. Erkidego sena arrunt errotua da Baztango bizilagunen baitan. Baztandar dira ororen gainetik.

Azkeneko urteotan entzun eta egindako grabazioetan aski garbi dago arestian erran duguna, hots, geografiak tokian tokiko harremanetan berebiziko garrantzia izan duela. Geografia hau, gainera, denboraren poderioz, giza geografia bihurtu da (Chambers & Trudgill 1980). Adierazi nahi baita Baztango lau guneez iturri komuna izan dutela batetik (Baztan bera), baina bertzetik ere, iparraldean dauden Baztangoizako lau herriek iparralderago eta ekialderago dauden herriekin hartueman franko izan dituzte; halaber, hegoaldean dauden Basaburuko lau herriek hegoalderago eta mendebalderago dauden herriekin. Erraterako, Baztango berriemai-leak kontrabandoaz edo *gau lanaz* ari direlarik, Erratzukoak Baigorri aipatzen du hitzetik hortzera, eta Almandozko bi lagunek, berriz, Belatez bertze aldeko Ultzamako herriak. Hirugarren kapituluako Milroyren (1980) erakutsia gogoan izateko tenore egokia da.

Kontrabandoaren gaineko kontu hau ez da halabeharrezkoa. Basaburuko grabazioetan, guk eskuratu ditugun grabazioetan, Ipar Euskal Herriko herririk ez da behin ere aipatzen. Bai, ordea, oihanean aritu direnen ahotan, Luzaide, Irati,

Erronkari, Val D'Aran... Alde honetatik argitu beharra da, kanpora ateratzen baziren ere (solasa nahasteko eta kutsatzeko arriskua dagoela pentsatzen ahal da) koadrilaka joaten zirela herri beretik (12-15 lagun). Hortaz, herri bakoitzak bereari eusten zion, herri ezberdinetakoen arteko harremanak gertatzen baziren ere.

Berebat, Baztango Basaburuko tratanteek Elizondo eta Doneztebe aipatzen dituzte maizenik; Iruñea ere bai (San Migeletan, batez ere); Lesaka bakarren batek aipatzen du; eta Ipar Euskal Herria inork ez. Honek Basaburuko harremanen iduria ematen ahal digu: lehenik, Elizondo (Baztan); bigarrenik Doneztebe-Bertizarana; hirugarrenik Iruñea-Ultzama (bereziki, Almandoz); bertze maila batean, Bortzerriak; eta azkenik, Ipar Euskal Herria.

Behin baino gehiagotan aipatu dugunez, giza geografia honen arabera sortuko dira kidetasunak edo ezberdintasunak herrietako hizkeren artean. Hartu-emanak direla eta, konparazio baterako, Arraioz, Irurita eta Gartzaingo grabazioetan (Erberea) Bertizarana eta Doneztebe puska gutiago aipatzen dira; Bortzerriak are gutiago; Iruñea, berriz, mantentzen da (ez Ultzama); Elizondo (eta neurri apalagoan, Baztango gainerako herrien gaineko aipamenak) gailentzen da erabat; eta Ipar Euskal Herria aipatzen hasten da. Beraz, pentsatzekoa da Baztango herrien arteko antzekotasun eta diferentzia linguistiko-kulturalak arestikoaren arabera (ere) izan direla.

Baztangoizako herriek, aldiz, Elizondo izan dute ardatz, baina harreman opa-roak izan dituzte Zugarramurdi-Urdazubirekin nahiz ondoko Sara, Ainhoa eta Baigorriekin. Hemen, hala ere, oztopo orografiko batzuen berri eman behar dugu: Otsondo, Urdazubi aldera edo Lapurdira joateko eta Izpegi Baigorri aldera joateko. Segur aski, erliebe aldaketak gainditu behar izateak oztopatu izan du Baztangoizako herrietako euskara eta mugaz bertze aldekoa (areago) elkarrengana bildu izana. Nolanahi ere den, Baztangoizako herriek Ipar Euskal Herriarekin hartu-eman zuzenak izan dituzte, baita Zugarramurdi-Urdazubirekin ere. Eta honetan, hain zuzen, Baztango gainerako herrietatik aldentzen dira zerbait.

Berriki Estibalitz Montoyak (2004) aztertu duenez, Urdazubiko eta Zugarramurdiko hizkerak lotura estuak ditu Sara eta Ainhoarekin, baina baita Baztanekin ere. Maiz bi herriok Baztanera jo izan dute. Errate baterako, Zugarramurdiko eta Urdazubiko gazteak Elizondora eta Lekarozera joaten dira ikastera. Nekazaritza eta abeltzaintza kontuak zirela eta, bertako lotura sozioekonomikoen emaitza izan daitezke hizkerok ageri dituzten kidetasunak. Gisa berean, elizaren egiturari dagokionez, gogoratu behar da Urdazubi eta Zugarramurdi Baztango artzapezpikuaren mende egon direla.

### **9.3. Baztan, lau eremuren baitan: Oronoz-Mugairi, Basaburua, erdigunea eta Baztangoiza**

Orain artekoaren arabera, iduri du Baztanen lau eremu edo gune bederen be-reizten ahal ditugula: Oronoz-Mugairi, Basaburua (Almandoz, Aniz, Berroeta,

Ziga), Baztangoiza (Amaiur, Arizkun, Azpilkueta, Erratzu) eta guk hemendik aitzinera *erdigunea* deituko duguna: Arraioz, Lekaroz, Gartzain, Irurita, Elizondo eta Elbete.

Oronoz-Mugairi dialektalki ezberdin sailkatu beharra dela agerian utzi dugu aitzineko atalean, nahiz eta herri honetara itzuliko garen, Basaburura iristen diren zenbait ezaugarriren hedadura ematen dugularik.

Bigarren eremuan Basaburuko lau herriak ditugu: (hegoaldetik iparraldera) Almandoz, Aniz, Berroeta eta Ziga. Aski homogeneous iduritu zaigu, batasun handikoa ageri duena. Zigako berriemaile batek erraten zigunez *Iruiten hasten da kanbietzen batera, eta Mugairen ta Oronozen bertze azentu bat dute. Basaburuan barna igualtsu, hitz bat edo bertze aldatiko da doike. Baztangoizen frantsago dute. Gure iduriko, bertako errealitate linguistikoa ongi deskribatzen du, Baztango Basaburuko hiztun baten ikuspegitik, jakina. Alderik nabarmenena hiztun honentzat Oronoz-Mugairi aldera dago; gero, Baztangoizan *frantsago* dute, hau da, Ipar Euskal Herriarekiko lotura nabaria da, eta hondarrean, Iruritan aldatzen hasten da, ez sobera, baina bai belarriak sumatzeko adinakoa. Goitiagoko lau eremuak ditugu aipu honetan.*

Aski euskara homogeneous bildu dugu Arraioz-Iruritatik goiti Elbeteraino. Erdiguneko multzo honetan, duda izpirik gabe, Elizondo da ardatz nagusia, hiri-burua erdaldundu samarra izanda ere. Honetara biltzen dira baztandarrak, eta are gehiago, erdiguneko herrietakoak. Sei herri sartu ditugu multzoan: hegoaldetik iparraldera zerrendaturik, Arraioz, Irurita, Gartzain, Lekaroz, Elizondo eta Elbete. Hemen ere badira zenbait etxe eta baserri, Elizondoko Beartzun auzoan batez ere, herringunetik nahiko aparte daudenak. Hauetako batzuek, ondorioz, gehiago jo izan dute Aldudera Elizondora baino, baita igandeeetako mezara joateko ere: Aldude hiru bat kilometrora dago, eta Elizondo, berriz, hamarrera. Mugako baserri bakan batzuk dira, ez sobera. Berebat, Eugi aldera ematen duen parajea bereizi behar da, bertakoek izendatzen duten *Iruritebazterra*. Hemen zenbait etxe eta baserri baitaude, guti samar dena den, Esteribarko jendearekin harremanak eduki dituztenak.

Azkenik, Baztangoizako lau herriak ditugu: Azpilkueta, Arizkun, Amaiur eta Erratzu. Hemen ere badago aipatu beharreko bat: Orabidea. Esparru menditsu hau Otsondoraino iristen da, eta bertan ondoko herrietako baserriak daude: Arizkun, Azpilkueta, Amaiur, Lekaroz, Elizondo, Gartzain, Arraioz, Oronoz (eta Baztangoak ez diren), Bertiz eta Etxalarkoak. Bertako bi berriemaileen laguntzaz gainera, biak Lekaroz aldekoak, han barrena ibili garenean, eta bertako norbaitekin solasean gertatu garenean, gure belarriak bi indize nagusi erabili izan ditu: mintzoa baztandarra goa edo Ipar Euskal Herritik hurbilagokoa. Oharmenezko dialektologiaren atalari dagokion inpresio adierazgarri bat jaso genuen, Orabideko lekuko batek hala gaztigatzen baitzigun bertako hizkeraz galdeka ari ginelarik: *igualtsu eiten da Orabide guzian. Zenbaitzuk frants kutsu aundie baute. Arraiozera aldatzen da pixke at, ta Oronozen kanbio gogorra da*. Gure datuen arabera, *frants kutsua* dutenak izan

ezik, bertzeak erdiguneko herrieekin batean sartu beharrekoak dira. Nolanahi ere, eremu honek bizilagun guti dituela oroitarazi behar da, 80 lagun inguru baizik ez.

Pedro de Yrizarrek Baztango euskararen aditzaren morfologia aztertzen duenean, hiru eremutan sailkatzen du ibarra: *Baztango hegoaldea* (Basaburuko lau herriak), *propioa* gainerako guzira (Orabideko baserriak izan ezik) eta *Baztango ipar-mendebala* (Orabidea, alegia).

Subvariedad de Baztán noroccidental, constituida por las bordas de Azpilcueta, Lecaroz y Arizcun situadas al norte del arroyo del Infierno y de la línea que desde éste se dirige al monte Alkurruntz y al puerto Otsondo, y al sur del río Olabidea y el arroyo Oranea. Las bordas situadas al norte de estos límites, con unos 70 vascófonos, están incluidas en la variedad de Sare (Yrizar 1997: 535).

Orain, batzuek sumatzen duten *frants kutsu aundie* nondik heldu den hobeki konprenituko delakoan gaude.

#### 9.4. Baztanen barreneko isoglosa nagusiak

Orain arte erran duguna tasun linguistikoez frogatzeko tenorea da. Horretarako, guk Baztanen barrena aurkitu ditugun isoglosa nagusi batzuk baliatuko ditugu. Isoglosok eremu jakin bat hartzen duten heinean eta geografian eten garbia adierazten duten heinean, Baztanen dena ez dela bat erakusteaz gainera, bertako euskararen dinamikaren berri ematen digute: non ageri diren berrikuntzak eta noraino zabaltzen diren, zer nolako multzoak osatzen dituzten ezaugarri nagusiek eta multzo hauek zer iradokitzen duten, non dauden eten nagusiak eta abar. Isoglosa banatzaile nagusiok bi multzotan aurkeztuko ditugu: (i) Basaburua Baztandik aldentzen dutenak, eta (ii) Baztangoiza Baztandik aldentzen dutenak.

##### Basaburua Baztandik aldentzen duten ezaugarriak

1. Bustidura automatikoa ez da bera Baztan guzian (cf. Salaburu 1984-2: 158-159, Salaburu & Lakar 2005: 50-55). Oronozen eta Basaburuko lau herrietan azkarragoa da gainerakoetan baino: *illupe, iñe vs. ilupe, ine*. Koldo Artolarekin mintzatutako Almandozko bi lekukok *guk eñe dugu* zioten, bereizketa gogoan zutela (Yrizar 1997: 530). Dena den, Oronoz-Mugairitik hurbilen den Arraiozen eta, neurri apalagoan, Ziga ondoko Iruritan *ziñen* nahiz *illergi* moduko (bakan) batzuk agertzen ahal dira. Bi herriotan busti gabeko formak nagusi izanik ere, gure datuen eta Pagolaren azterketaren arabera (1992: 254-260), nolabaiteko lehia dago. Baztanen barreneko isoglosarik nabarmenetatik bat dugu honako hau., hiztun frankoren buruan ere badena. Bertze alde, Oronoz-Mugairin *tt* hots bustia txandaka aditzen da, Baztango Basaburuan, ordea, ez da aditzen, non eta ez den palatalizazio adierazkorra (Baztan guzian bezalaxe, alegia). Ultzama honetan urruntzen da, bertan *tt* bustidura automatikoa ohikoa baita (Anuen, aldiz, ez).

2. Bokalerdiaren kontsonantizazioa, *-au+a>-aba* Euskal Herriko zenbait tokitan gertatzen da. Gure azter-eremuaz den bezainbatean, eremu trinkoa marrazten du ezaugarri honek: Bidasoaldea, Oronoz, Ultzama eta Baztango Basaburua. Baztangoizan, berriz, ez dago honako kontsonantizaziorik. Adibideak (Anizkoak): *eskolaba* ‘elizmutil’, *gaba*, *gabardi*, *labak*, *labetanogei* ‘lauetan hoge’. Isoglosa honen muga Arraiozen berean dago, bertan *gaua*, *gauerdi* erakoak hasten baitira. Halarik ere, Arraiozen, Iruritan, Gartzainen, Lekarozen, Elizondon eta Elbeten *gabaz*, *gabatik* modukoak ere bildu ditugu. Basaburuan (eta eremu zabalagoan) aukera bakarra dena Baztango herriotan lehiatzen dago, nonbait ere.
3. Basaburuan ergatibo singularra (*-ak*) eta plurala (*-ek*) ez dira sistematikoki bereizten, Baztango gainerako esparruetan maizago bereizten dira, bereizketa erabat sistematikoa ez den arren<sup>74</sup>. Oronoz-Mugairin, ondoko Bertizaranan bezalaxe, ez dira inoiz bereizten.
4. Erakusleetan badago berrikuntza bat *okek* ‘hauek’ Baztango Basaburuan gero eta gehiago aditzen dena, bertako adinekoek oraindik *ok* erabiltzen badute ere. Honek adierazten du berrikuntza *berria* dela, duela gutxi egingakoa. Pleonasmu hau ezaguna da Ultzaman (Ibarra 1995) eta ipar Esteribarko Eugin eta Iragin (Ibarra 2000: 129). Baliteke Ultzamatik sartu izana, ez baita atzendu behar Belateren bertze aldean Baztango Basaburua dagoela. Hau horrela izatera, zenbait kontutan bederen Ultzama eta Baztango Basaburuko euskara dinamika berean daudela erran genezake. Halaber, berrikuntza Iragira eta nabarmenago Eugira hedatu izanak bi herriok batzuetan Esteribartik (eta hego-nafarreratik, oro har) aldentzen direla adierazten du, Ultzama eta Baztango Basaburuarekin batean agertuz.
5. *G(o)ainko* ‘joanen’, *mainko* ‘emanen’, *inko* ‘egingo’... moduko batzuk bildu ditugu Basaburuan. Gure iduriko, bi fenomeno ezberdin ditugu. Alde batetik, *g(o)ainko*, *mainko* kasuetan *joan+en+ko> goainko* pleonastikoa genuke. Geroaldiko morfema bi aldiz *-edo* bi morfema erran beharko genuke, *-en* eta *-ko-* erabiltzen da. Bertze aldetik, berriz, aditz nagusiari *-ko* geroaldiko morfema eranstea, *-nk-* talde ahostuna genuke. *-nk-* taldea Ultzaman (eta Anuen, Erroibarren, Basaburuan, Imotzen, Arakilen, Sakana erdialdean eta Burundan) ageri da. Berriz ere Basaburura bakarrik iritsi den berrikuntza dugu, (Belate tarteko) Ultzamarekiko lotura adierazten duena.
6. Bidasoaldean gertatu den berrikuntza garrantzizko bat hedatua da Basaburura: N-N-N saileko *dio*, *nio* sinkretismoa gailentzen hasia da, nahiz eta *dabet*, *naben* jatorrak ezagunak dituzten (kasua nik haiei da). Iduri du Bidasoan goiti etorria dela berrikuntza hau. Elizondon ez dela gertatzen

74 Zugarramurdi-Urdazubín ere ez da beti bereizketa egiten (Montoya 2004: 110), ezta Lapurdiko kostaldean ere (Zuazo 1999: 253, 4.oinoharra).

badakigu (Pedro de Yrizar 1997: 531-532). Oronoz-Mugairi eta Bidasoaldeko hizkerekiko lotura garbia da honako hau, aditzaren sistema harrapatzen duena. Ultzaman, guk dakigula bederen, ez dago sinkretismo mota hau.

### Baztangoiza Baztandik aldentzen duten ezaugarriak

1. Baztangoizan ez bertze guzietan, Bortzerrietan, Malerrekan eta Bertizaranan dauden *okeri*, *ekeri* erakusleak aurkitu ditugu nagusiki Baztanen: *okei* ‘hauei’, *ekei* ‘haiei’. Baztangoizan, berriz, beti *oki*, *eki* bildu ditugu<sup>75</sup>, Zugarramurdi-Urdazubin nahiz ondoko Ipar Euskal Herrian daudenak (Sara, Ainhoa, Bidarra, Baigorri), alegia. Beharbada, ez da berebiziko isoglosa bat, baina bertze maila bateko etenen eta mugen berri ematen digu.
2. Hurrengo isoglosa hau, aldiz, garrantzizkoagoa dugu: *yaiç*, *yabille*, *yaut...* bigarren pertsonako aldaerak Baztanen (eta Nafarroa gehiengan) erabiltzen dira. Baztangoizan, ordea, *aiz*, *abile*, *aut...*<sup>76</sup> erakoak aise maizago baliatzen dira. Neurri handi batean, beraz, Nafarroan egindako berrikuntza honetatik kanpo egon da Baztangoiza; segur aski, lau herri hauek Ipar Euskal Herriarekin (izan) duten loturari esker. Hala ere, Baztangoizan forma *nafarrak* –berriak– gero eta gehiago aditzen direla aipatu beharra dugu; Pedro de Yrizarrek Baztangoizarako bietako adizkiak dakartza (1997: 517-750). Bertako laguntzaile dugun Paskual Rekaldek erran digunez, egun adin kontua ere ez ote den: Amaiurren (bere sorterrian) adinekoek ez dituzte ia-ia inoiz y-dun formak erabiltzen. Gazteagoek, ordea, bai: *Etxean aitak beti erran digu: «yaiç» ta olako itzek Elizondoko kontua dire»*. Aita arizkundarra duen Jaime Biguria elizondoarrak ere gatzigatu digunez, Baztangoizan biak aditzen dira, nahiz eta bere adinekoek (1970ean sortua da bera) y-dun aldaerak gehiago erabiltzen dituzten. Laburbilduz, Nafarroan egindako berrikuntza hau Ipar Euskal Herriarekiko lotura adierazten duten aditz erak baztertzen ari da.
3. *nion* ‘inon’, *nior* ‘inor’, *niori* ‘inori’, *nioiz* ‘inoiz’... Baztangoizan ezagunak dira bertan ohikoagoak diren Hego Euskal Herriko izenordainekin batean. Baztango gainerako eskualdeetan, berriz, arrotzak dira egun<sup>77</sup>. Baztangoiza berriro Zugarramurdi-Urdazubitik nahiz Ipar Euskal Herriatik hurbilago ageri da; nahiz eta, goitiago adierazi dugun eran, gaurko euskararen norabidea aldatzen ari den Nafarroa aldera, eta ondorioz, Euskal Herriko erdialde-ara. Garai batean, gaur Baztangoizan bakarrik gorde direnak erabiltzen bide

75 Pello Salaburuk ohartarazi gaituenez, berak *eki* Baztangoizatik kanpo ere bildua du.

76 Nolanahi, *aiz* erakoak Baztangoizan ez ezik, Baztango gainerako eskualdeetan ere aditzen ahal dira tarteka.

77 Elizondoko dotrinetan halakoak ageri dira (Salaburu 1980: 54, 56, 58, 147): *nioi* ‘inori’, *nior* eta *niork*. Halaber, Berako udal ordenantza batean *ñior* eta *ñiork* (Idoate & Villanueva 1981) ditugu, Etxalarko otoiñ batzuetan *nior* ageri da (Satrustegi 1987), eta Narbarteko seme Lakoizketaren testu batean ere *niorc* eta *nioiz* (Ondarra 1994) dokumentatuak dira. Era berean, Iruñerrian ere aski hedaturik egon dira (cf. Elkanokoa).



ziren Baztan guzian. Egun, aldiz, Baztangoizan bakarrik baliatzen dira, eta gainera, adin batetik goiti.

4. Gure datuen arabera, Baztangoizan bakarrik erabiltzen da pluraleko bigarren pertsonako *-ze* atzikia *duze* ‘duzue’, *naize* ‘nauzue’, *gaituze* ‘gaituzue’... Berrikuntza hau sistematikoa da, eta gainera, Baztangoizan baizik ez da erabiltzen<sup>78</sup>. Hortaz, Baztangoizako euskararen ezaugarri eskusiboa dugu. Ezaugarri eskusiboek edo espezifikoez, ezaguna denez, hizkera bati nortasuna ematen diote, gainerako hizkeretatik aldentzen eta bereizten duten heinean. Honek, inolako dudarik gabe, hizkuntza nortasuna ematen dio Baztangoizari: *-ze* aditzen den aldiro, hiztuna Baztangoizakoa dela gauza jakina baita ingurukoentzat.
5. «egon» aditzaren formei dagokienez (*zaude*, *gaude*, *daude* arruntez gain), Baztangoizan *zautzi*, *gautzi*, *dautzi* aurkitu ditugu: *nire ardiek dautzi botayak eta ezin dire xutitu* (Erratzuko adibidea) ‘nire ardiak daude botreak eta ezin dira zutitu’. Ondoko Zugarramurdi eta Saran ere badaude honelako adizkiak. N’Diayek ere forma hauen berri ematen digu:

Mais, au présent de l’indicatif, P1 et P3, on connaît des variantes en *-tzi*: *gautzi\** et *dautzi\**(1970: 167)

Dena den, Baztangoizan nola Urdazubi-Zugarramurdi, Euskal Herrian orokorrak diren *zaude*, *gaude*, *daude* ohikoagoak direla erran beharra da. Baztango Basaburuan, berriz, *za(g)oz*, *ga(g)oz*, *da(g)oz* formak erabiltzen dira; Nafarroako Bidasoaldean ere antzekoak daude (argibide gehiagorik nahi duenak ikus beza Zelaieta 2005: 292).

Izetak bere hiztegian dakar *goaki nai*, *gaki nai* bezalakoak Orabidean erabiltzen direla. Guk, egia erran, ez dugu horrelakorik jaso ez entzun ere Baztanen. Zernahi gisaz, kontuan izan behar da Orabidea eskualdeko zenbait baserri muga egiten dutela Etxalarrekin eta Zugarramurdirekin, eta aipatu herriotan erabiltzen direla honako egitura perifrastikoak. Beraz, alde horretatik, ez litzateke harritzekoa izanzen zenbaitzuek —ez soberak, hala ere— halakoak erabiltzea. Edozein kasutan ere, forma hauek aski bakanak direla zehaztu beharra dugu, salbuespenak, alegia.

Seina ezaugarri dituzte bi eskualdeok Baztandik urruntzen dituztenak. Bertze irakurketa bat izan liteke hamabi aldiz bederen Baztan ibarra dialektalki banaturik gelditzen dela. Ondorioz, zail da Baztango euskararen (erabateko) batasunaz mintzaztea —baztaneraz—. Erran bezala, Basaburua sei ezaugarritan aldentzen da.

<sup>78</sup> Baztanez eta inguruko ibarrez ari gara, morfema honen geografia hedadura zabala baita Nafarroako bertze eremu batzuetan: hego-nafarrerak besarkatzen dituen Gesalaten, Goñerrian, Gulibarren, Eguesibarren, Elortzibarren eta Itzarbeibarren bada. Bistan denez, bilakabide morfologiko bera Euskal Herriko zenbait gunetan gertatu da, baina ez du iduri elkarren arteko harremanik izan den (cf. Camino 2004: 76).

Bidasoalde edo Belate aldetik heldu dira ezaugarriok: Oronoz-Mugairitik (Bertizararana-Malerreka) edo Ultzamatik. Beraz, Baztango Basaburua Baztango bertze eskualdeetatik urruntzen delarik, hegoalderagoko nahiz mendebaleragoko hizkerekin bat egiten du. Batzuetan iduri du Bidasoan goiti heldu dela eta Basaburuan akitzen dela halako ezaugarri bat: N-N-N saileko sinkretismoa Saldias inguruan hasi eta Basaburuko lau herriotaraino hedatzen da, tartean Bidasoalde guzira harrapatzen duelarik. Bortzerrietan edo Bertizaranan sistematikoa da berrikuntza hau; Basaburuan, berriz, bi sistemak daude: Baztango aditzari dagokiona —zaharra— eta Oronozen barrena sartu dena —berria—.

Bi aldiz, hala ere, eta bietan berrikuntza da, hegoalderako isuria ageri du Basaburuak, Belateko mendiak oztupo ez direla erakutsiz: *okek* erakusle berria eta garrantzizkoagoa den *-nk-* taldea geroaldiko morfeman. Basaburuak (bereziki, Almandozek) eta Ultzamak dituzten loturen eta hartu-emanen erakusgarritako. Bertze bi ezaugarritan, Basaburua bai Bidasoaldearekin bai Ultzamarekin batean ageri da: bustidura mailan eta *aba* kontsonantizazioan.

Bertze alde batetik, Baztangoiza sei ezaugarritan urruntzen da Baztango bertze eskualdeetatik. Isoglosa hauek guziaz ez daude maila berean, jakina. Ororen gainetik, badago ezaugarri bat nabarmentzen dena: pluraleko bigarren pertsonako *-ze* atzizkia. Berrikuntza eskusiboa da, Baztangoizan bakarrik erabiltzen dena. Ezaugarri hau Baztangoizako lau herrietara bakarrik iritsi izanak lau herrion arteko batasuna bizkortzen du. Gainerakoan, Baztangoizako Azpilkueta, Amaiur, Arizkun eta Erratzu Baztandik aldentzen direlarik, beti Ipar Euskal Herriarekin nahiz Zugarramurdi-Urdazubiren batean gertatzen dira. Nafarroako (eta Hego Euskal Herriko) berrikuntzetatik kanpo gelditzen da zenbaitetan Baztangoiza: *y-* dun aldaerak singularreko bigarren pertsonan duela guti sartu bide dira, eta gaur den egunean, lehian dira *aiz* vs. *yaiz*. Halaber, *nion*, *nior* bezalako aldaerak gibelka ari dira (euskal testuen arabera) eta Baztangoizan baizik ez daude halakoak egun, aski bakan, gainera.

Basaburua gainerako mintzo nafarrekin bat egitera bulkatzen duten ezaugarriak hagitzek biziago eta indartsuago daude Baztangoiza Ipar Euskal Herriarekin estekatzen dutenak baino, Baztango *eskuarak* nafartzera jo duelako seinale garbia. Nolanahi ere, oraindik, Basaburuak hegoaldera eta mendebalera egiten badu ere, Baztangoizak iparraldera eta ekialdera egiten duela erran liteke, iraganean izandako harremanen adierazgarri.

Lexikoari dagokionez, aldaera eta item batzuk kausitu ditugu Baztanen barrena nolabaiteko gune batzuk idurikatzen ahal dituztenak. Dagoeneko, sarri ikusiko dugun bezala, ezin izanen dugu erran halabeharrezkoak direnik, isoglosa lexikal hauek bat heldu baitira orain arte aurkeztutako isoglosekin. Adierazi nahi baita isoglosaren batek Baztan zatitzen duenean, Basaburua edota Baztangoiza batera gelditzen dela eta Baztan bertzerara. Hori dela eta, maila foniko-morfologikoan erabili dugun eske- ma errepikatuko dugu ondotik: Basaburua aldentzen duten ezaugarri lexikalak eta Baztangoiza aldentzen duten ezaugarri lexikalak aurkeztuta:

**Basaburua Baztandik aldentzen duten aldaerak edo item lexikalak**

1. Aldaerak: aitzineko atalean ikusi dugu Oieregin hasten dela *goan* aldaera. Oronozen *goan* eta *goare* ‘joare’ ditugu, han zuzen, Basaburuan daudenak *goan*, *goare*. Baztango gainerako eskualdeetan *gan*, *gare* daude. Esteribarren ere *goan* dago. *aunditz* ‘anitz’ aurkitu dugu Basaburuan. Gauza bera dago Bertizaranan, Ultzaman eta Esteribarren. Arraiozen biak bildu ditugu *aunditz* eta *aunitz*. Hortik goiti, berriz, *aunitz* nagusitzen da, *aunditz* arrotza ez bada ere. *itxe*<sup>79</sup> Bidasoalde guzian dago, eta Baztanen, Basabururaino iristen da. Salaburuk ere hala aipatzen du bere lanean:

*etxe* hitza *itxe* ahoskatzen da Anizko lurraldeetatik Almandozko aldera (1984-2: 181).

2. Itemak: Basaburuan *laster* eta *garesti* aurkitu ditugu, eta Baztango gainerako herrietan *fite* eta *kario*. Lehenbiziko biak Bidasoalde guzian daude, nahiz eta Etxalarren (*abudo* &) *fite* ere erraten den.

**Baztangoiza aldentzen duten ezaugarriak**

1. Aldaerak: Baztangoizan *urtxintxa* bildu dugu, Zugarramurdin eta Ipar Euskal Herrian bezala, gainerako eremuetan, berriz, *katapurtxintxa*. Halaber, Baztangoizan *arno* eta *ardo* bildu ditugu, bigarrena nagusi baldin bada ere. Gainerakoetan, *ardo* bertzerik ez dugu jaso. Azkenik, Baztangoizan *kuraia* bildu dugu, eta gainerakoetan *korajia*.
2. Itemak: *a(a)lke* Baztangoizan, *lotsa* gainerakoetan; *zizerkora* Baztangoizan, *kazka(ra)bar* bertzeetan. Halaber, Baztangoizan bakarrik bildu ditugunak dira ondoko hauek: *botike* ‘denda’, *deliberatu* ‘erabaki’, *ele* eta *eleketa* ‘solas, berriketa’, *ganbara* ‘logela’. Arestiko hitzok Ipar Euskal Herrira hurbiltzen gaituzte zalantzarik gabe. Era berean, Baztan gehienez *arrano* ‘arrano & putre’ aurkitu dugu, baina Baztangoizan (guk Azkainen, Saran eta Bortzerrietan bildu bezala) *futre* ‘putre’ eta *arrano* ‘arrano’. Baztangoizan, Ipar Euskal Herrian bezala, *urtarril* ohikoa da (*ilbeltz* ere ezaguna da bertan), eta gainerakoetan, Nafarroa gehienez bezala, *ilbetz*. Baztangoizan bikote batzuk kausitu ditugu *pastan(anbre)* eta *zanaoria*, *a(a)ntzi* eta *atzendu*; lehenbizikoak Ipar Euskal Herrikoarekiko lotura adierazten du<sup>80</sup>. Eta hondarra, (*i)kuzi* ‘ikuzi’ Baztangoizan bakarrik bildu dugu, aski bakan izan bada ere, gainerakoan *garbitu*.

Bertzelako isoglosa batzuk ere ikusi uste ditugu, baina modu lausoxeagoan ageri direnak, hau da, ezin erran dezakegu, aitzinekoetan adierazi dugun eran, halako isoglosa herri bateraino iristen denik edota eremu zehatz bat hartzen duenik. Segidan aurkeztuko ditugun ezaugarrietan maiztasunaz mintzatu beharrean gara,

<sup>79</sup> Egia erran, Nafarroa Garaiko erdigunean ere han-hemenka ageri da.

<sup>80</sup> 6. atalean erakutsi bezala, *antzi* muga ondoko Irun-Hondarribian eta Bortzerrietan ere erabiltzen da. Sunbillan, ordea, *atzendu* hasten da.

geografian barrena gradualki aldatzen direnak dira, eten garbirik gabeak. Dena den, badute halako norabide jakin bat: ezaugarriok hobeki gorde dira iparralderago hegoalderago baino. Iragan garai batean, ezaugarriok eremu zabalagoa hartzen zuten bai Baztanen bai Nafarroako bertze toki batzuetan ere. Gibelka ari dira aspalditik. Kontua ez da diatopikoa bakarrik, adinaren aferak ere badu bere garrantzia: zenbaitz eta zaharragoa izan hitzuna, orduan eta hobeki mantendu du halako ezaugarria. Lau dira eremu honetan atzeman ditugun isoglosa gradualak:

### Baztanen barreneko isoglosa gradualak

1. *-rat* adlatiboa (vs. *-ra*) maizago aditzen da iparraldera egiten dugun ahala, maizago aurkitu dugu Baztangoizan Elizondon edo Lekarozen baino; hala-ber, ohikoagoa da Lekarozen Zigan baino. Gogoan izan behar da Ipar Euskal Herriko mintzoetan *-rat* bizirik dela. Beraz, normaltzat hartzen ahal dugu, mintzo horietara hurbildu ahala, gehiago aditzea. Zernahi gisaz, usu samar erabiltzen duen hitzunen bat edo bertze atzeman baldin badugu ere (Erratzun, bereziki), ez da Ipar Euskal Herrian bezain sistematikoa. Erratzuko adibideak dira ondorengoak *etxeat*, *azpiret*, *alderat*, *mendiret*... baina pertsona berak *kontrako zintzurrea*, *bazkaltzera*, *Baionara*... eman ditu. Ildo beretik, konparazio baterako, Amaiurko grabazio batean *eskolat*, *etxeat*, *barneat* aditu ditugu, baina gero *etxea gan*, *Elizondora*, *kustea torri* bezalakoak ugariago eman ditu hitzun berak.
2. Garai batean osagarri zuzena genitiboan agertu ahal izatea Euskal Herri osoko ezaugarria bazen ere, gaur egunean, berriz, ekialdeko hizkeretan bakarrik gorde da. Baztango XIX. mendeko euskal testuetan ageri da. Egun, maizago jaso dugu iparraldera egin ahala, osagarri zuzena genitiboan Baztan guzian entzun daitekeen arren. Edonola ere, adineko jendeari entzun diogu bereziki, gazte(ago)en artean nekez aditzen baita. (*Elkartasun* Arizkungo aldizkariko etsenpluak): *beren animen indartzeko ta sendatzeko; aur sorberriaren agurtzera; elizain laguntzeko; aundiek ere ganen gara zuen dantzen kustera*... Arizkungo gazte batek hala erraten zuen, gure galderari erantzunez *bakarren batek ibiltzen du, biño espreski yendiakin*... «*banaye amain kustera edo ganitzen amatxin kustera*». Ezaugarri hau ere gibelka ari da. Halarik ere, oraindik sumatzen da puska gehiago aditzen ahal dela Baztangoizan Basaburuan baino.
3. *egun* ‘ehun’, *negurritu* ‘neurtu’, *ago* ‘aho’, *begorra* ‘behorra’ bezalakoak herri guzietan daude, baina maizago aditzen dira iparraldera egin ahala, bereziki hasperenaren aztarna delarik. Erraterako, *zagarra* ‘zaharra’ ez dugu behin ere aditu Basaburuan, bai ordea, Baztangoizan. Nonbait, hasperena beranduago galdu zen (gogoan hartu behar da Ipar Euskal Herriko mintzoetan bizirik dagoela hasperena).
4. Oro har, Basaburuan, Oronoz-Mugairin (eta Nafarroa gehianean) *-(la)koz* dugu, baina zenbait adibide bakanetan *-(la)kotz* aldaera ere aurkitu dugu;

Berroetan berean, adibidez. Iparraldera egin ahala, frikariaren eta afrikatuaren arteko lehia areagotzen da. Horrela, Baztangoizan *-(la)kotz* nagusi da adineko jendearen solasean, nahiz eta *naizelako*z modukoak ere jaso ditugun bertan. Zugarramurdin eta ondoko Ipar Euskal Herrian *delakotz* erakoak nagusi direla badakigu. Laburbilduz, bi aldaera ditugu Baztanen, bertako herri guzietan erabiltzen direnak: frikaria eta afrikatua. Halarik ere, bi aldaerok maiztasunaren arabera sailkatzeko aukera dago: frikaria nafarragoa da eta hegoalderago egin ahala maizago aditzen da eta afrikatua, berriz, iparralderago egin ahala gehiagotan entzunen dugu.

Nahiz eta erabateko etenik marrazten ez duten arestiko lau tasunek, iradokitzen duten norabideak bat egiten du lehenago ikusitako bertze hamahiru ezaugarriekin: zenbat eta iparralderago egin Baztanen baitan, orduan eta hurbilago egonen gara Ipar Euskal Herritik; hegoaldera joaten bagara, aldiz, Nafarroako mintzoak eta moldeak hurbilago sumatuko ditugu.

Beraz, Baztanen barreneko hamazazpi ezberdintasunok kontuan hartuta bederen, lau eremu bereiz ditzakegu: aparte samar dagoen (i) Oronoz-Mugairi; Bidasoaldearekin nahiz Ultzamarekin zenbait lotura agertzen dituen (ii) Basaburua; guzietan solasik baztandarrena dela erabaki genezakeena, (iii) erdigunea; eta, zenbaitetan, Urdazubi-Zugarramurditik nahiz Ipar Euskal Herritik hurbilago ageri den (iv) Baztangoiza.

## 9.5. Baztan vs. Ultzama

Baztanen den-dena ez dela bat, eta aldeak badaudela erakutsi eta ondoan, Baztango euskararen ezaugarri nagusiak ondoko bertze eskualde batzuetako euskararekin alderatzeko tenorea da. Aitzinetik ikusia dugu, Oronozko euskarari buruzko atalean, Baztan vs. Bidasoa erkaketa. Hortaz, Baztan vs. Ultzama hau bigarrena izanen da.

Konparazio hau egiteko, erran gabe joaki da, Ibarren tesia (1995) baliatu dugu<sup>81</sup>, Ultzamako euskararen berri zehatza izateko. Bederatzigarren atal honen hasieran erran dugunez, gutixko dakigu Baztan-Ultzama arteko (ez)berdintasunez. Nolanahi ere, gure asmoa apala da: beharbada, sakon egindako konparaketa batek bertze tesi baterako ere eman bailezake. Orain arteko metodologiarekin jarraituko dugu: eten eta muga garbienak non sortzen diren argitzera saiaturako gara. Beraz, ez gara ezaugarri ezaugarri ibiliko, baizik eta, zenbait isoglosa nagusi baliatuz, bi ibarren arteko harremanen berri ematera saiaturako gara. Zertan datozen bat, eta zertan bereizten diren.

Oro har, Ultzaman dauden ezaugarriak, Basaburu Nagusian eta Imotzen ez daudenak, Baztanen ere badaude, eta batzuk Bidasoaldean ere bai. Hori dela eta, ezaugarri

81 Ikertzaile berak Esteribar eta Erroibarren bildua eta aztertua (2000, 2007) ere gogoan izan ditugu. Halaber, Caminok hego-nafarreraz egindako lanak (2003, 2004) aintzat hartu ditugu.

banatzaileetan zentratuko gara. Hots, Ultzama eta Baztan banatzen dituzten ezaugarrietan, euren arteko ezberdintasunak ikusi ahal izateko, Ivić-en erakutsia gogoan (1962).

Ultzama nafar egiten duten ezaugarri guziak Baztanen ere badaude, baita Ultzama ekialdearekin batean paratzen dutenak ere. Alderantziz, ordea, ez da gertatzen. Ultzama erdialdera hurbiltzen duten guziak ez daude Baztanen. Alde horretatik, beraz, Ultzama erdialdekoagoa da Baztan baino. Errate baterako, partizipio analogikoen aferak ongixko azaltzen duela iduritzen zaigu: *izandu*, *egondu* bezalakoak Euskal Herriko erdigune zabalean hedatu dira, bertzeak bertze, Nafarroako Bidasoaldera eta Ultzamara iritsita. Baztanen, berriz, ez dago halakorik. Honek adierazten du erdialdean egindako zenbait berrikuntza ez direla Baztaneraino iritsi, eta bai Bortzerriak, Malerreka, Imotz edo Ultzamara.

Lehenik, dena den, Baztan-Bidasoa Ipar Euskal Herrira hurbiltzen duen berrikuntza baten berri eman nahi dugu:

### **Baztan-Bidasoa Ipar Euskal Herrira hurbiltzen dutenak**

1. *o>u* bilakatzea sudurkari aitzinean: *unat/unet*, *unekin*, *unentzat*, *unela*, (Baztango eta aldizka Etxalarako) *untzi*, *ungi*... Berrikuntza hau ez da Ultzamara hedatu. Baztan-Bidasoan eta Ipar Euskal Herrian barrena, ordea, bai.

Bilakabide hau ez da Ultzamako hizkerara hedatzen eta bi hizkera [Baztangoa eta Ultzamakoa] hauen arteko isoglosa bat, fenomeno fonetiko honetan oinarri daiteke (Ibarra 1995: 94).

Honetan, Baztan-Bidasoa Ipar Euskal Herriko mintzoetatik aski hurbil ageri da, ez baita ahantzi behar geografikoki hurbilago daudela Baztan-Bidasoako herriak Ultzamakoak baino. Gisa berean, orografikoki Baztan-Bidasoako Pirinioak apalagoak dira Baztandik ekialdera altxatzen direnak baino. Baztandik, eta are aiseago, Bidasoaldetik orografiak ahalbidetzen du muga errazago iragatea. Ondorioz, *gaulana* edo kontrabandoa hagitzez arruntagoa izan da Baztan-Bidasoan bertze inon baino (Perales 2004), eta dakigunez, kontrabandoak bi aldeetako euskaldunak harremanetan jarri izan ditu. Adibidez, 1959. urtean, Espainiako guardia zibilak muga zaintzeko postu hauek zituen Nafarroan (Perales 2004: 189): Beran 36, Etxalarren 13, Zugarramurdi 12, Urdazubin 12, Erratzun 15, Arizkun 5, Elizondoko Bearztunen 13, Baztanen eta Esteribarren artean dagoen Urkiaga alderdian 12, Zilbetin 8, Gerendiainen, 8, Aurizperrin 9, Auritzen 7, Orreagan 9 eta Luzaiden 30. Bistan da, hortaz, orografia berdina izateak ez dituela harremanak hainbertze eten, eta hori hizkuntzan ezagun da.

Nolabait arestikoarekin lotuta, Jean Saroïhandyk artikulu batean isuritako iritzia iruzkindu nahi dugu:

El dialecto de Sara está estrechamente emparentado con el de las aldeas de la frontera española, no solamente de Zugarramurdi y Urdax, que están vueltas hacia Francia, sino de Vera o Elizondo, y podría ser considerado como una variedad del alto navarro de España (1925: 524).

Datu zehatzik ematen ez badu ere, argi dago erromanista eta euskalari frantsesak antzekotasun nabarmenak sumatuko zituela bi alderdietako hizkeren artean. Guk ere zenbait kidesan ikusi ditugu, baina ez inondik ere Berako euskara (edo Elizondokoa) eta Sarakoa multzo berean paratzeko adina. Dena den, kidesan horiek Baztan-Bidasoa eta mugaz bertze aldeko mintzo lapurtarrak elkarrengana hurbiltzen dituzte. Batzuetan, gainera, goitiagoko *o>u* bilakatzea kasu, ez da Belatez bertze aldera iragan.

Nolanahi ere den, Saroihandyk, guk dakigula behinik behin, ez zuen eremuko euskararen gaineko azterketa dialektologiko sakonik egin; ez eta bilketa-lan nabarmenik ere. *De facto*, Sarako euskararen inguruko artikulua Schuchardtek aitzinetik egin *Zur Kenntnis des Baskischen von Sara (Laburd)* lanean oinarritua zen. Alde horretatik, Urkixok ondoko honetaz ohartarazten gaitu:

El principiante debe, no obstante, a mi juicio, manejar con cautela los trabajos de Saroihandy; no solamente porque sus hipótesis son a veces inadmisibles (tal ocurre por ejemplo con la explicación que propone de *z-* y *l-* en la conjugación) sino porque como no le fue posible explorar lingüísticamente más que una pequeña parte del País Vasco, y no dispuso del tiempo y circunstancias favorables para estudiar a fondo la abundante bibliografía lingüística vasca, sus datos no son siempre seguros (1932: 505-506).

Pedro de Yrizarrek ere «sorprendente conclusión» dio (1997: 5) Saroihandyren iritziaz. Beraz, bertze euskalari batzuek bi multzo ezberdinetan sailkatu izan dituzte Sara eta Baztan-Bidasoako herriak. Edozein kasutan ere, egia da Sarak eta inguruko herri lapurtar batzuek muga inguruko herri nafarrekin loturak eta harremanak (izan) dituztela aspalditik. Hartu-eman hauetan, gainera, Sara izan da herri nafarrekin lotura gehien agertu dituen. Arestian erran dugunaren frogagarri dira Barandiaran zenaren *Bosquejo etnográfico de Sara* liburutik hartu ditugun hainbat testigantza (gehiago ere baziren, baina hurrengo hauekin aski izanen delakoan gaude):

Durante la guerra de 1914 a 1918 fueron a vivir a Navarra, principalmente a Zugarramurdi, Echalar y Vera, 75 jóvenes de Sara, si bien volvieron casi todos más tarde. Algo análogo va ocurriendo durante la actual ocupación alemana. Y en tiempos anteriores, principalmente durante la gran revolución, gran parte de la población fue obligada a abandonar sus hogares, y muchos huyeron a los vecinos pueblos de Navarra (2000 [1950] : 74, 10. oinoharra).

Durante el periodo 1930 a 1939 se celebraron en Sara 167 casamientos. En solo 40 casamientos eran de Sara ambos contrayentes. En 11 lo fueron uno de Sara y el otro de uno de los pueblos del cantón. En 31 lo fueron uno de Sara y otro de los pueblos vascos del departamento de Bajos Pirineos, fuera del cantón. En 37 lo fueron uno de Sara y el otro de Navarra. En cinco lo fueron uno de Sara y el otro de Gipuzkoa. En 15 uno de Sara y el otro de una de las regiones no vascas de Francia (2000 [1950] : 75).

El contrabando es otro motivo por el que muchos vecinos de Sara y de los pueblos de Vera, Echalar y de Zugarramurdi se comunican frecuentemente (2000 [1950] : 267).

El domingo 2 de junio de 1946, hubo elecciones generales para las Cortes Constituyentes. El cura de Sara encareció en su sermón de iglesia la obligación de votar. Dijo que en el referendun del día 5 de mayo hubo más de 200 abstenciones. Añadió que tales casos le dolían a él como cura de Sara: se diría que este pueblo es español y que no ama a Francia; pero «vosotros sois franceses y debéis amar a Francia y dar señales de vuestro amor» (2000 [1950] : 280).

Agerian geratu denez, Sarak berekin muga egiten duten Bera, Etxalar eta Zugarramurdirekin harreman oparoak izan ditu. Bereziki, Zugarramurdirekin. Halarik ere, Sarak lotura emankorrakoak izan ditu eta ditu Lapurdirekin; hain zuzen, Lapurdi osatzen duten bi eremuekin: itsasaldearekin eta barnealdearekin. Errate baterako, saratarrak Donibane-Lohizuneko merkatura nahiz Ezpeletakora joan izan dira. Geografikoki ere, Sara barnealdean dago, baina itsasoa eta itsasoari lotutako bizimodua hurbil samar du<sup>82</sup>.

Gizartean eta historian gertatu denak utzi du arrasto nabarmena bertako mintzoan. Izan ere, Montoyaren tesiak (2004) nahiz Zuazoren ikuspegi areala eskaintzen duten hondarreko lanek (1998, 2003) erakusten dutenez, Sara (baita Senpere eta Ainhoa ere) nafar-lapurteraren baitan dago, zehazki errateko, euskara nafar-lapurteraren sartaldean. Berarekin eta Etxalarrekin izandako harremanek ez diote nafar kutsu narbamenik eman Sarako euskarari —Zugarramurdi kulturaliki nahiz linguistikoki Ipar Euskal Herria (izan) baita—.

Egin beharreko parentesi honen ondotik, Ultzama Baztandik urruntzen duten ezaugarri zerrenda bat azalduko dugu. Jakiteko, lehenbiziko, Baztan eta Ultzama zertan bereizten diren. Hona hemen, beraz, Ultzamako euskararen gertatzen diren fenomenoaren zerrenda bat:

### Ultzama Baztandik urruntzen duten ezaugarriak

1. *e>a* gertatu da dardarkariaren eraginez: *baztar*, *asarratu*, *eguardi*, *eguarri...*, nahiz eta gero Ultzaman *izerdi*, *izter*, *maixter* ere badauden. Halaber, Esteribarren eta Erroibarren ere ez dira arrotzak *baztar*, *asarratu* bezalakoak (Ibarra 2000: 45). Iparralderago joanda, ordea, Baztan-Bidasoan *baztar* erakoak (ia) ezezagunak dira<sup>83</sup>.

82 Sarako Mixel Urbistondok hauxe erran zigon 2000. urteko grabazio batean: *saratarrak entrecot-ak gara. Ez kostatarrak, ez barnealdekoak. Tartekoak*. Sarak ez ezik, Senperen eta Ainhoa ere ezagun dute bitasun hau. Ahetzek ere hor egon beharko ote lukeen ez dakigu. Lapurdiko mintzoen artean, egon liteke multzo bat ez kostaldean eta ez erabat barnealdean koka genezakeena. Hortaz, herri hauetako hizkeren gaineko ikerketa bat abiatzeak emaitza zientifikoak ekartzen ahal lituzkeelakoan gaude. Aipamena bederen egina da.

83 Haatik, *baztar* & *bazter*, *izerdi* & *izardi*, *iztar* & *izter* bezalako bikoteak Zugarramurdin eta Urdazubín ere badaude, baina *eguerriak*, *piperra*, *eguerdia forma bakarrak bildu dira bertan*. Hots, *e* ohikoagoa bada ere, bertze aldaerak lehiatzen daude. Urdazubítik hurbilsko dagoen Azpilkuetako adibide bat dakarte Lakarrek eta Telletxeak beren liburuan *eguardi* (2006: 169). Ez-ohikotzat hartu beharrekoa da, gure datuen arabera.



2. *-nko* geroaldia egiteko baliatzen da zenbaitetan: *erranko, inko, edanko, yakinko...* modukoak bildu dira (*-en* atzizkiarekin lehian). Burundatik Erroibarrera zabaltzen da aukera hau. Baztango Basaburuan batzuetan ageri dela ikusi dugu goitiago. Baztan-Bidasoako gainerako herrietan eta eremuetan arrotza da.
3. Soziationboa: *-ki & kin* vs. *-kin*. Lehen bi aukerak ditugu posible Ultzamako euskaran, bigarrena baizik ez Baztan-Bidasoako hizkeretan. Ezaugarri honek, egia erran, ez du Ultzama erdialdera hurbiltzen, baizik eta hego-nafarrerara.
4. *\*-ani>-ai* akabaila zenbait hitzetan: *arrai, amorrai, artzai, aurtzai, usai*. Bilakaera bera izan da Euskal Herriko erdigune zabalean: Gipuzkoan, Bidasoaldean, Basaburu Txikian, Basaburu Handian, Ultzaman, Erroibarren, Aezkoan... Baztanen eta Ipar Euskal Herrian, berriz, *-ain* bilakaera dago.
5. Palatalizazio maila: Basaburu Nagusian (eta Bidasoaldean) bezain bizkorra ez bada ere, bada Ultzaman *tt* bustia palatalizazio automatikoan *gutti, nittuen, ttio...*:
 

ultzamerak baztanerak baino palatalizatzeko joera handiago eta sistematikoago[a] erakusten du. Zenbait morfema mugatan, palatalizazioa oztopatzen duten inguruneak badauden arren; ultzamera, alor honetan, behinik behin, baztaneratik urruntzen da (Ibarra 1995: 319).
6. Genitiboan *-an* dugu Ultzaman, Bidasoaldean eta erdialdean bezala. Baztanen, berriz, *-ain* erabiltzen da, Nafarroako eta ekialdeko hainbat tokitan bezala.
7. Ergatiboari dagokionez, Ultzaman, pluralean ez dira gertakari pasiboak eta aktiboak bereizten. Baztanen, lehenago ikusi dugun moduan, erabat sistematikoa ez bada ere, frankotan eusten zaio bereizketari.
8. Instrumentalean, Ultzaman, hego-nafarrerari dagokion eremu guzian bezala, ahoskera apikaria nagusitu da *nitas, egunas, orretas* moduko emaitzak emanik. Berrikuntza hau euskara nafarraren ezaugarri eksklusibotzat hartzen da Euskal Dialektologian, nahiz eta Baztan-Bidasoara ez den iritsi<sup>84</sup>.
9. N-N-N sailera *it* pluralgile berria iritsi da Ultzamara, eta bertako hizkeran ez da bertzerik erabiltzen, Bidasoaldean eta Nafarroako bertze toki ba-

84 Hala ere, egungo nafarrerari Baztan-Bidasoa osoki kenduz gero, zein eremu geldituko litzaziguke Nafarroan? Kontuan hartu behar baita demografikoki nahiz soziolinguistikoki Baztan-Bidasoa euskara nafarraren bihotza dela gaur egunean. Nahiko genuke gure mintzairaren errealitatea bertzelakoa izan ledin, baina ez du ematen Nafarroako euskal aldaera dialektalen oraina eta (hurbileko) geroa Belatez bertze aldean idurika daitezkeenik. Hortaz, dialektologia sinkronikoaz den bezainbatean, ez dakusagu sobera garbi ezaugarri honek nafarrera determinatzeko omen duen eksklusibotasun maila.

tzuetan bezala. Honek ez du erdialdera hurbiltzen, euskara nafarraren ezaugarri espezifikoa baita (Zuazo 1998, 2003), baina Ultzama Baztandik aldentzen du.

10. *izandu*, *egondu* bezalako partizipio analogikoak ohikoak dira Ultzamako hizkeran. Baztanen eta ekialdean, berriz, partizipio hauek arrotzak dira<sup>85</sup>.

Arestian zerrendatu ditugun hamar ezaugarriotatik, sei kasutan Ultzamak erdialdera egiten du, Baztanek ez bezala. Behin, Basaburuko eta Gipuzkoako nahiz Bizkaiko zenbait eskualdetako hizkerekin bat eginez: *e>a* dardarkariaren eraginez. Lau aldiz, Ultzaman dagoena Gipuzkoan eta Bidasoaldean aurkitu dugu: palatalizazio maila, genitiboan *an*, pluralean gertakari pasiboak eta aktiboak ez bereiztea eta partizipio analogikoak. Honenbertzez, Ultzama Baztandik aldentzen delarik, Euskal Herriko erdialdera egiten duela erran genezake, Bidasoaldeko hizkerekin batean. Hots, Ultzama eta Baztan bereizten direnean, batzuetan behintzat, Ultzama eta Nafarroako Bidasoaldea elkarrekin ageri dira, mendebaleragoko tasunak hartuz. Bertze alde batetik, erdialdean sortutako berrikuntzok ez dira Baztanera iritsi, Baztango gizartea (eta ondorioz, euskara) bertzelako dinamika batean egon delako.

Bi ezaugarritan, Ultzama Baztandik urruntzen da, Nafarroako hegoalderagoko eta mendebaleragoko hizkerekin batean agertuz: *-nko* geroaldia egiteko eta soziatiiboan *-ki* ere agertu ahal izatea (orokorragoa den *-kin* atzizkiarekin batean). Eta behin, instrumentaleko apikaria, Ultzaman, hego-nafarreran eta Nafarroako bertze toki batzuetan dagoena, ez dugu Baztan-Bidasoan aurkitu.

Azkenik, badago ezaugarri nafar bat Baztan eta Ultzama banatzen dituen: N-N saileko *it* pluralgilea ez da ageri Baztanen, hirugarren pertsonan izan ezik. Kontu honetan, Baztanek iraganean Ipar Euskal Herriko herri eta hizkerekin izan dituen harremanen ispilutzat hartu beharko genuke, azken batean, Baztan bera baita Nafarroako mintzorik gehienetatik urrutiratzen dena.

Gure hurrengo urratsa alderaketan, Ultzama eta Baztan batera eta Nafarroako Bidasoaldea bertzera uzten dituzten tasunetan murgiltzea izanen da.

### **Ultzama-Baztan vs. Nafarroako Bidasoaldea agertzen duten ezaugarriak**

1. Etorkizuneko morfeman *-tuko>-tiko* palatalizazioa gertatu da Nafarroa Garaiko erdialdean (Camino 2004: 71): Baztanen, Ultzaman, Esteribarren... Bidasoaldean, aldiz, arrotza da berrikuntza hau.
2. Hitz bukaeran *u>o* eta *i>e* irekidurak: aldeak alde, bi Basaburuetan bizkorren, Bortzerrietan eta Bertizaranan ahulen, halakoak gertatzen dira. Baztanen eta Ultzaman, berriz, arrastorik ere ez dago. Dialektologia garrantzi bera ez duela jakinik ere, Ultzama eta Baztan era pasiboan biltzen bai-

85 Azkainen bertze partizipio analogiko batzuk bildu ditugu: *ateratu*, *botatu*, *bizitu*, *egotu*, *izatu* eta *jakindu*.

tira honetan, bada isoglosa bat bi eremuak bereizten dituen. Gainera, isoglosa honek bertze gainerakoekin batean halako multzo bat osatzen du, ezberdintasunei dagokienez.

3. Hurbileko asimilazioa *a>e*: *aldi betes, torri de, laun bet, izain de...* (Ultzamako adibideak dira, Ibarra 1995) Hego Euskal Herriko zenbait eskualdetan gertatzen da fenomeno hau. Nafarroan eremu handia hartzen du berrikuntzak: Baztan, Ultzama, Esteribar, Erroibar (apalxeago), Olaibar... Ekialdetik, ez da Aezkoara iritsi. Mendebaletik, berriz, Sakanan hasten da. Nolanahi ere, ez da Bidasoaldera hedatu. Muga ere ez du gurutzatzen gertakariak, Ipar Euskal Herrian arrotza baita. Berrikuntza garrantzitsua dugu, dudarik gabe.
4. Aferesien indarra eta sinkopa motak. Aitzineko atalean ikusi dugu aferesiak eta sinkopak gehienbat Nafarroa Garaian eta Nafarroa Beherean gertatzen direla, bertako hizkeren ezaugarritzat jotzen ahal da, beraz; baina, baita erakutsi ere aferesien maila bizkorragoa dela Baztanen eta Baigorriin, Bidasoaldean eta Zugarramurdin baino, ekialdean mendebalean baino: *makomia, maztekie, turri, baki...* Gisa berean, bi azentuera ezberdin dauden neurrian, bi sinkopa mota ezberdin ere sortzen dira. Horretan bat datoz Ultzama eta Baztan: *atra, arpatu, batre, obrena, bedratzi, abratsa...* vs. (Bidasoaldekoak) *ateri & ate, arrautu, batere, obena, bedetzi, abetsa...* Koldo Mitxelena-ren ustez (1977: 391), Ultzamako euskara da sinkoparen oparotasun handiena erakusten duen hizkera, baina orain arteko guziak azaldu eta ondoan, ez du iduri Ultzamako euskararen sinkopa maila Nafarroako Bidasoaldeko euskararen gainetik dagoenik. Eta, Bortzerriei buruzko atalean ikusi bezala, Arantzako euskararen gertatzen diren sinkopa mota askotarikoak bizkorrak eta indartsuak dira hagitx. Guk dakigula behinik behin, Arantzako sinkoparen arau eskusiboek ez dute parerik Euskal Herrian.
5. Goranzko diptongoak ohikoak dira Sakanan, Ultzaman, Baztanen, ekialdean eta Ipar Euskal Herrian. Isoglosa honek Euskal Herria erdibitzen du: goranzko diptongoak egiten dituzten mintzoak eta goranzko diptongorik egiten ez dutenak. Hots, goranzko diptongoak Ipar Euskal Herrian eta Nafarroako zenbait eskualdetan arruntak dira; eta, Bidasoaldean, erdialdean eta mendebalean, ordea, ez dira ohikoak. Isoglosa honek garrantzi handia du, goranzko diptongoak frankotan gertatzen diren fenomenoak izanik, belarrirako nahiko nabarmen suertatzen baitira eguneroko solasean.
6. -g- bokal arteko bigarrenkaria: *ago* ‘aho’, *egun* ‘ehun’, *ligua* ‘lihoa’, *negurritu* ‘neurtu’... Ultzamako adibideak ditugu. Dena den, Ultzamako hizkera (Mitxelena 1977: 88) ez da Baztangoaren mailara iristen: *bage* ‘bahe’, *logi* ‘lohi’, *zogi* ‘zohi’ vs. *baye, loye, zoye* (Ultzamakoak). Bidasoaldean honelaxe aurkitu ditugu: *aba, eun, linua, neurtu, bae, loi, zoi*; nahiz eta hasperenaren arrasto izaten ahal diren *iges* ‘ihes’ edo *igartu* ‘ihartu’ auke-

ra nagusiak diren (edozein kasutan ere, *iges* eta *igartu* Gipuzkoan ere ezagunak dira).

7. *errataute* ‘erraten dute’, *kartzaute* ‘ekartzen dute’, *ittaute* ‘egiten dute’ moduko laburdurak ohikoak dira Ultzaman. Arestiko formak Baztanen arrotzak ez badira ere, aise ohikoagoak dira ondoko hauek: *errateute*, *kartzeute*, *iteute*. Oronoz-Mugairin, ordea, bertzelako bilakaerak ditugu: *errateunte*, *kartzeunte*, *itteunte*... Hondarribian, Bortzerrietan, Malerrekan eta Bertizaranan bezala; Goizuetan ere *ekartzeunte* bildu da (EHHA, 87170 galderan). Hortaz, antzeko fenomenoak diren hauek nolabait antolatze alde, hiru sail egin ditugu: (i) *errataute*, (ii) *errateute* eta (iii) *errateunte*. Bonapartek *Le Verbe Basque* lanean antzeko banaketa dakar: (i) Lizasorako *yataut* eta *biauzu*; (ii) Elizondorako *yateut* eta *beaizu*; eta (iii) Berarako *yateuntzu* eta *biaurtzu* (1869: 160). Arturo Campionek ere emaitza berak eskaintzen ditu bere gramatikan (1884: 129). Nafarroatik kanpora begira jarritz gero, Baztan ondoko Zugarramurdin, Saran, Ainhoan, Donibane-Lohizunen eta abarren ere *yateut* motakoak nagusitzen dira. Funtsean, dena den, emaitzok bi multzo geolinguistikotan sailka ditzakegula uste dugu, metatesi fenomenoaren arabera hain zuzen: alde batetik, metatesidunak (Gipuzkoako ipar-ekialdean, Nafarroako Bidasoaldean, Basaburu Txikian, Arakil inguruan, hego-nafarrera gehienez); eta, bertze aldetik, metatesirik gabeak (Ultzaman, Baztanen, Ipar Euskal Herrian). Nolanahi ere den, aitor dugu gure saio xume honek ere badituela kontradibideak: Lapurdi ekialdeko Bardozen *uzteunte* eta Nafarroa Behereko Jutsin *harzteunzu* metatesidunak bildu izan baitira (Camino 1997: 228, 362).
8. Lehen graduako erakusle pluraletan: *ok*, *oketan*, *oketaik* erakoak ditugu Ultzaman. Orreaga Ibarrek Basaburu Nagusiaren eta Ultzamaren arteko isoglosa ezartzen du (1995: 329), Basaburuan *ok*, *otan*, *otatik* nagusitzen baitira. Baztanen lehen graduari dagozkion erakusleak deklinatzean, itxura analogikoagoa hartzen dute, Ultzaman bezala: *ok*, *oketan*, *oketaik*. Bidasoaldean, berriz, *otan*, *otara*, *otik* (<*otatik*).
9. Oronoz-Mugairi eta Baztango Basaburua banatzen dituen bertze isoglose-tako bat hurrengo hau da: *nun*, *zun* vs. *nuen*, *zuen*. Lehena, berriagoa, Basaburuan, Bidasoaldean<sup>86</sup> eta Gipuzkoan dago; bigarrena, kontserbatzailea, ekialdera zabaltzen da: Ultzama, Baztan...
10. *-tako* destinatiboa dago Ultzaman, Nafarroa gehienez bezalaxe: *neretako*, *guretako*, *nondako*... Bidasoaldean, ordea, dena ez da bat: *-takoren* eremuaren barrenean, Bertizarana, Malerreka eta Sunbilla sartzen dira. Bortzerrietan, aldiz, Gipuzkoa eta Lapurdi gehienez erabiltzen den *-tzat*

86 Nolanahi ere den, Bidasoaldean *nuen* eta *zuen* erakoak tarteka aditzen ahal dira, bereziki, adin batetik goitikoan ahotan.

dago: *neretzat, gureztat, nontzat...* Beraz, etena ez da isoglosa gehien bil-tzen diren gunean gertatzen, Oronoz-Mugairin edo Oieregin, alegia; baizik eta Sunbillan, batetik, eta Zubietan, bertzetik.

11. Halaber, *-tako* prolatiboa dago Ultzaman eta Baztanen: *medikutako artu zuten, apeza izeki* ‘medikutzat hartu zuten, eta apaiza zen!’ (Anizko adibi-dea). Ultzaman eta Baztanen bezala, Nafarroa gehianean ere bi adieretan erabiltzen da: xedezkoan eta ustezkoan. Zernahi gisaz, Bidasoaldean aurkitu dugun egoera konplexu samarra da. Xedezko balioa duten perpausak, *egurtako baliyo du* bezalakoak arruntak dira Bortzerrietan edota Malerrekan. Alabaina, ustea adierazten duen *medikutako artu zuten* baino gehiago, *mediku(ta)z* aditzen da, hots, kasu instrumentala baliatzen da prolatiboa egiteko: *ergelaz yotzen nauzu* (Bera), *sorgintaz artu zuten* (Oitz), *apezaz artu zuten* (Sunbilla)... Honenbertzez, Oronoz-Mugairitik ekialdera *-tako* prolatiboa sistematikoago bihurtzen da, Baztanen eta Ultzaman aukera bakarra izateraino. Hortaz, sistematikotasunak ezarritako isoglosa genuke honako hau.
12. Ablatibo plurala *-(e)taik* da Ultzamako eta Baztango hizkeran, ekialde zabalean bezala. Bidasoaldean eta hortik mendebalera, aldiz, *-(e)tatik* bakarrik aurkituko dugu. Berriz ere, Euskal Herria bitan zatitzen duen isoglosa finkoa dugu.
13. *-ik>-ikan* pleonasma gertatu da nola Nafarroako Bidasoaldean hala Euskal Herriko erdigune zabalean, partitiboan, ablatiboan, motibatiboan, kontzesio perpausetan eta modu-denborazko perpausetan: *nai dukelikan torri* ‘nahi dualarik etorri’, *neregatikan ez erran; guañikan ez da agertu; nundikan kar duk trasti ori* ‘nondik ekarri duk traste hori’... (Lesakako adibideak). Halarik ere, *-ikan* pleonastikoa ez da Ultzamara lerratu. Gisa berean, Baztanen, *oñiken* ‘oraindik’, *soriken* ‘segurik’ eta bertzelako arrastoren bat izan ezik, ez da emankorra erdialdetiko berrikuntza hau.

Bertze alde, Aezkoan *-(r)ikan* perpaus kontzesiboetan dago, Nafarroa Beherean bezala (Camino 1997: 390). Halaber, Larresoron ere ezagunak dira kontzesio perpausetan beti ere: *inikan e* ‘eginik ere’, *zerinikan e* (Epelde 2004: 283). Arestiko *-(r)ikan* kontzesiboa salbu, pleonasma mugaz bertze aldean ez dela arrunta iduri du. Guk Saran (eta Senperen) ez dugu garaurik ere bildu, eta galdeka hasi garelarik, beti erran izan digute hori ez dela bertakoa. Dena den, *Senpereko kantu xaharrak* (ikus bibliografian) izeneko bilduman, pleonasmo mota hau frankotan ageri da, eta ez (beti) neurriaren kontuagatik. Bukatzeko, Duhauk (2003: 304) adibide zenbait dakartza Beskoitzeko euskaran: *etxin dielaaikan* ‘etxean direlarik’ edota *hor delaikan*. Honenbertzez, eremukako azterketari dagokionez, argitu beharreko afera dugu.

14. «ekarri»ren adizkiak: *dakarrat, dakarrazu, dakarra* modukoak ditugu Ultzaman, Baztanen, Esteribarren... Oronoztik mendebalera, aldiz, *dakarkit, dakarkizu, dakarki* erakoak hasten dira, Gipuzkoaraino iristen direnak.
15. «eraman»en adizkiak: *damat, damazu, dama* modukoak. Antzeko hedadura dute adizkiok: Ultzama, Baztan, Esteribar... Bidasoaldean, berriro *-ki*-artizkia dugu: *damakit, damakizu, damaki*.

Hamabortz ezaugarri zenbatu ditugu. Hauetatik hamahiru tasunek antzeko eremuak idurikatzen dituzte, bi aldiz datuek eskaintzen diguten isoglosak ez baitu gainerako isoglosekin bat egiten: destinatioaren eta prolatioaren atzizkiek bertzelako hedadura hartzen dute. Halarik ere, hamahiru ezaugarrik iradokitzen dute eremu lektal bat dugula Oronoz-Mugairiraino, eta bertze eremu lektal bat dugula Oronoz-Mugairitik Saldias eta Beintza-Labaieneraino. Bi eremu hauen arteko bereizketa edo muga ikusia genuen zortzigarren atalean, arestiko datuok orain arte erran duguna areago berretsi dute.

Bistan da aitzintxeago zerrendatu direnek ez dutela dialektologia garrantzi bera. Sei ezaugarri berrikuntza dira: etorkizuneko morfeman *-tuko>-tiko* palatalizazioa, hurbileko asimilazioa, aferesien indarra eta sinkopa motak, goranzko diptongoak, *-g-* bokal arteko bigarrenkaria, *oketan* erako erakusleak eta *errataute* moduko laburdurak. Berrikuntza hauek Nafarroa Garaiko zenbait ibarretan barrena hedatu dira, baina ez dira Bidasoaldera iritsi. Sei berrikuntzok eta hautua den ablatibo pluraleko *-(e)taik* atzizkiak, Ultzama eta Baztan ez ezik, Atetz, Anue, Esteribar eta Erroibar ere besarkatzen dituzte. Zazpi tasunak betetzen dira aipatu ibarretan. Aezkoan ez dago hurbileko asimilaziorik ez eta *-tuko>-tiko* palatalizaziorik ere, baina bertze guztiak betetzen dira. Era berean, hauetarik batzuk Sakanan ere betetzen dira: hurbileko bokal asimilazioa, aferesien indarra (apalagoa baldin bada ere), sinkopa motak, goranzko diptongoak eta *-g-* bokal arteko bigarrenkaria (zenbaitetan bederen). Hego-nafarreraren (Camino 2004) eremu gehiena, arestian aipatu Aezkoa salbu, bat heldu da zazpi ezaugarriotan Baztan eta Ultzamarekin batean. Hortaz, ematen du Bidasoalde *vs.* Baztan idurikatzen duten isoglosetatik batzuek eremu handiago bat marrazten dutela, Bidasoaldekoak ez diren eta Baztanen dauden ezaugarriak maiz Nafarroa Garaiko toki anitzetan daudelako. Dena den, eremu hau ez da erabat homogenea, usu aipatu berri ditugun ezaugarriak Nafarroa mendebalean dagoen Sakanara ere iristen baitira. Baztango euskarak gehiagotan bat egiten du inguruan dituen hegoalderagoko (Ultzama, Atetz, Anue) eta ekialderagoko hizkerek (Esteribar, Erroibar) Bidasoaldearekin baino.

Bi ezaugarri dira Nafarroako Bidasoaldera (Basaburu Nagusira eta Larraun ingurura) zabaldu diren berrikuntzak, ekialderago zabaldu ez direnak: hitz bukarrak *u>o* eta *i>e* eta *nun, zun* adizki laburtuak. Irekidurak bi Basaburuetan sumatzen dira sendoen eta azkarren. Bertatik abiatutako berrikuntza iduri du: Malerrekan (areago Zubietan, Iturenen eta Urrotzen), gehiago antzematen da Bortzerrietan baino. Adizki laburtuak Euskal Herriko erdigune zabalekoak dira: Gipuzkoa eta

Nafarroako mendebala besarkatzen baitituzte. Berrikuntzok ez dira Ultzamara edo Baztanera hedatu, bai, ordea, Bidasoaldera. Horrek, euskara nafarraren baitan, erdialdera begirago kokatzen du Bidasoaldeko euskara.

## 9.6. Baztan vs. Baigorri

Baztandik mendebalera eta hegoaldera begiratu eta ondoan, iparraldera eta ekialdera zer gertatzen den ere jakin beharrean gara.

Baigorri eskualdeko datuak eskuratzeko iturriak askotarikoak izan dira. Batetik, tesi honen bigarren atalean zerrendatu ditugun lagunetara jo dugu, gure betiko berriemaile eta laguntzaileengana. Bertze batetik, *Kanaldude Telebista* eta bereziki *Irulegi Irratian* egindako zenbait grabazio (*Gure arbasoak* saiokoak) esku artean ibili ditugu. Azkenik, bertako kultura eta hizkuntzaren gaineko datuak eskaintzen dituzten ohiko lan bibliografikoez landara (Lacombe eta Barandiaran, batez ere), Euskal Dialektologian saihestu ezinezko bi erreferente nagusien artikuluetara jo dugu: Koldo Zuazo (1999) eta batez ere Iñaki Camino (2004b).

Baztanek Baigorri ibarrarekin muga egiten duela aipatua dugu, Erratzuk, hain zuzen. Baigorri, Banka, Aldude eta Urepele herriak sartzen dira Baigorriko kantonamenduaren alderdi menditsuan. Baztanek ez ezik, Esteribarrek, Erroibarrek eta Luzaidek ere inguratzen dituzte herriok. Alderdi honetako bizilagunen arteko harremanak usu gertatu dira, bereziki, azienda kontuak (eta ondorioz etorri diren hitzarmenak, fazeriak) eta *gau-lana*. Baina baita familia bi aldeetan egotea, erosketak eta elizara joateko muga gurutzatzea ere.

Lehenik eta behin, Koldo Zuazok eta Iñaki Caminok egindako saioak ekarriko ditugu honat. Hizkuntzalari eibartarrak gertakari nagusi bat nabarmentzen du, Baigorri aldean ez dagoela zuketarik ezta xuketarik ere (1999: 273-74). Zuberoan, Nafarroa Behere gehiengan, Lapurdiko Aturrialdean, Nafarroa Garaiko Erronkarin nahiz Zaraitzun barrena zabaldutako berrikuntza hau Baigorri ez izateak aparte uzten du. Ezaugarri hauek ez badira Baigorri, pentsatzekoa da Nafarroa Behereko gainerako hizkeretatik bereizten duten bertze zerbait aurkitzea ere posible dela. Ezaugarri horien berri jakiteko, Baigorri norekin izan dituen harremanak jakitea ezinbertzekoa da.

Ildo beretik abiatzen da Caminok argitaratutako artikulua, arazoaren konplexutasuna hasieratik beretik aitortzen duelarik:

Baigorriko hizkuntza-ezaugarri batzuek Ipar Euskal Herriko mendebalera-goko euskararen oihartzuna dakarte eta Nafarroa Behere gehiengan ageri diren zenbait ezaugarritarik zertxobait urruntzen dira. Besterik da frogatu ahal izatea, Nafarroa Behereko berrikuntzetarik desberdinak diren Baigorriko bereizgarri gordetzailerik batzuk, Baigorriren izaera menditsuaren eta bakartze orografikoaren ondorio diren, ala ondoko Baztan, Esteribar eta Erroibarrekiko hartu-emanari ote dagozkion, ala bi arrazoak batera biltzen ote diren.

[...] Enpirikoki froga ote daiteke, Baztango, Esteribarko, Erroibarko eta Baigorriko diren ezaugarri batzuk (baina era eskusiboan beren bereizgarri ez direnak), Nafarroa Behereko mintzo orokorretik saihesten direnak, mugaz bi aldeetako ibar hauen arteko hartu-eman historikoari dagozkiola? Ez da aise (2004b: 446).

Ados gaude ikertzaile donostiarrarekin. Ez da aise inondik ere jakitea Baigorriin, Erroibarren, Esteribarren eta Baztanen dauden ezaugarri batzuk, eskusiboak ez badira ere, bertako bizilagunek izandako elkarren arteko loturen ondorio izan daitezkeen edo ez: enpirikoki ezin dezakegu frogatu gizarte lotura horiek zer nolako ordain zehatza izan duten hizkuntzaren bilakabidean, edo bilakabiderik ezean. Hau da, oraingoz ezin dezakegu zehaztu ibarrok dituzten kidetasun oro beren arteko harreman historikoaren ondorio hutsa diren, ala bertzelako faktore batzuek euren ordaina ere baduten, orografiak, erraterako. Nolanahi ere den, bai erraten ahal dugula historia komuna eduki izanak hizkuntzaren alorrean zenbait gauza berdintzea eragin izan duela. Jakin gabe ere, historiari dagokiona zenbatekoa den, eta bertzelako eragileei dagokiena zenbatekoa den.

Caminok bere artikuluan dio Baigorri aldean ikusi duela isoglosa multzo bat: gainerako Nafarroa Beherean erabiltzen diren ezaugarri batzuk ez ditu Baigorriin kausitu, eta baditu bere-bereak diren berrikuntzak ere (2004b: 448). Gure lan honetan gakoa da jakitea Baigorri, Nafarroa Beheretik aldentzen delarik, Baztanekin (nahiz Esteribarrekin eta Erroibarrekin) bat egiten duen edo ez. Horretarako, irizpide metodologikoei buruzko atalean narbamendu dugun bezala, ezaugarri guzietan ez baitute dialektologia garrantzi bera, Baztanek eta Baigorri noiz egiten duten berrikuntza elkarrekin ikusiko dugu ondotik:

### **Baztan-Baigorri vs. Nafarroa Beherea ageri duten berrikuntza nagusiak**

1. Etorkizuneko morfeman *-tuko>-tiko* palatalizazioa gertatu da Nafarroa Garaiko erdialdean: *segitiko, artiko, oroitiko...* Oro har, Caminok bertze lan batean erraten duenez (2004: 71), Iruñetik goiti dauden ibar batzuetan erabiltzen da: Txulapain, Ezkabarte, Odieta, Ultzama, Olaibar, Anue, Baztan, Esteribar eta Erroibar ibarretan. Lacombe Alduden *hartiko, inganatiko* 'engainatuko' bildu zituen (1971-2: 32 eta 44). Gisa berean, Epeldek dio Hazparneko hizketa laxoan inoiz aditu duela *-tiko* (2004: 277).
2. *-ra(t)* atzizkiak landara, *-la(t)* ere badago adlatiboan Nafarroa Beherean. Baigorriin, Lapurdi gehienean eta Hego Euskal Herri gehienean bezala *-la(t)* > *-ra(t)* bilakabidea gertatu da.
3. Batzuetan, Baigorri aldean Nor Nori Nork adizkiak erabiltzen dira Nor Nork sailekoen ordez (Yrizar 1981-2: 363). Hau ibar honetan bakarrik gertatzen bide da. Hego Euskal Herrian (Baztanen ere bai) aski ezaguna den joera hau ez da batere ohikoa Ipar Euskal Herrian.

Goitiko hiru ezaugarri berriotan bederen bat egiten dute Baztanek eta Baigorri, Baigorri Nafarroa Beheretik aldentzen delarik. Bereziki, Nafarroa Garaiko ondoko



hizkeren eragina (Baztanen bitartez?) izaten ahal diren bi ezaugarri ageri dira Baigorri aldean: etorkizuneko morfeman *-tuko>-tiko* palatalizazioa eta Nor Nori Nork adizkiak Nor Nork sailekoen ordezt erabiltzea.

Bertze alde, aitzineko berrikuntzen maila berean ez egonagatik ere, Baztanek eta Baigorri hiru haututan bat egiten dutela ohartu gara:

1. Nafarroa Beherean, gehienetan, ez beti, *-st-* kontsonante taldea dago, Baigorri izan ezik. Hortaz, erran genezake *beste/bertze, bost/bortz, ostirale/ortzirale* bezalako aldaeren arteko isoglosa Baigorritik igarotzen dela. Halarik ere, Garazi inguruan *hertze, ortzeun eta ortzirale* modukoak ere badira.
2. *partez* ‘ordezt’ posposizioa, Baigorri, Zugarramurdi nahiz Urdazubin (Montoya 2004: 149), Baztangoizan eta Erroibarren erabiltzen dela badakigu. Ez, ordea, Nafarroa Behereko gainerako eskualdeetan; hemen *orde* nagusitzen baita (Camino 2004b: 470).
3. Nor Nori Nork sailean bi erro erabiltzen dira Baztanen eta Baigorri: *\*i* eta *\*eradun*. Lehena datiboa hirugarren pertsona (singularra nahiz plurala) den guzietan ageri da: *diot, diote, dio...* Bigarrena lehenbiziko eta bigarren pertsonekin baliatzen da: *datzut* ‘dizut’, *datzute* ‘dizute’, *daku* ‘digu’... Aditzaren bikoiztasun morfologiko hau Lapurdiko barnealdean, Zilbetin, Esteribarren, Baztanen eta Baigorri gertatzen da. Nafarroa Behereko gainerako eskualdeetan, Erroibar gehienez, Luzaiden eta Aezkoan, ordea, *dako, dakote* gisakoak erabiltzen dira hirugarren pertsonetan.

Aitzitik, ez da atzendu behar Baigorri Nafarroa Beherearen aitzinean bertzelako berezitasun batzuk ere ageri dituela. Labur-labur zerrendatuko ditugu Baigorri alderdiko berrikuntza esklusiboak:

### Baigorri alderdiko berrikuntza esklusiboak

1. Hiketan «e»-ra aldatzen da hirugarren pertsona datiboko morfema: *dakot* ‘diot’, baina *zake(n)at* ‘zio(n)at’; *dazkou* ‘dizkiogu’, baina *dazkeauk & dazkenaun, ginakon*, baina *ginake(n)an* ‘genio(n)an’.
2. Berrikuntza gertatu da Nor Nori Nork edo Nor Nori sailetan: *auzk/zkau* lehia ageri da *dauzkigu/dazkau* ‘dizkigu’ adizkietan.
3. *zinazkidaan & zinazkidahan* ‘zenizkidan’, *deat & dehat* ‘diat’ edo *deanat & dehanat* ‘dinat’ motako hasperentzeak gertatu dira Baigorri.

Halako berrikuntzak Baigorri eskualdean bakarrik gertatzea, zinetan bertako euskararen bereizgarri izatea, loturik egon liteke bakartze orografikoarekin; eta zentzu horretan, zenbaitetan —ez sobera maiz, dena den— isolatuta egoteak bere ordaina baduela erakusten digu.

Bertze alde, Koldo Zuazok (1998 eta 2003) Lapurdiko euskara eta Nafarroa Beherekoa euskalki bereko atalak direla agerian utzi du, eremu osoko euskarari

*nafar-lapurtera* izena emanez. Ildo beretik etorri dira Irantzu Epelderen tesia (2003: 330) eta Iñaki Caminoren artikulua (2004b). Egokia iduri du, beraz, izen honek bertako egoera dialektala islatzeko: Lapurdiko mendebaletik (itsasbazterra izan ezik) Nafarroa Behereko ekialderako bidea bat-bateko etenik gabea da, nahiz eta Donibane-Lohizuneko euskara eta Donibane-Garazikoa ez diren gauza bera. Hizkuntza aldaketa geografian barrena gertatzen da, polliki, mailaz maila.

Euskara nafar-lapurtarrak ez du bereizgarri askorik, Euskal Herriko erdialdean egotearen ondorioz. Halarik ere, badira zenbait ezaugarri bertako euskararen berri ematen digutenak. Zuazok bere hondar lanean sei ezaugarri aipatzen ditu nafar-lapurteraren bereizgarri direnak (2003: 153-154). Gure hurrengo ariketa hauxe izanen da: dialektologo eibartarrak emandako zerrenda horretako ezaugarriren bat ondoko Baztanen, Esteribarren edota Erroibarren betetzen ote den aztertuko dugu, nafar-lapurterak —Baigorriren bidez— muga ondoko hizkera nafarrokin loturarik baduen edo ez ikusteko. Hona hemen, beraz, Baztanek nafar-lapurterarekin batean ageri dituen zenbait ezaugarri:

### **Baztanek nafar-lapurterarekin batean ageri dituen zenbait ezaugarri**

1. Lapurdiko eta Nafarroako eremu gehienez arrotza da *i* bokalak eragindako bustidura: *in, il, it* bere horretan erraten dira, *iñ, ill, itt* bilakatu gabe, *edozo-  
ini, gainetik, etxezaina, etxeraino*, adibidez. Lapurdiko kostatarra eta Nafarroa Behereko ekialdea dira salbuespena, hemen bustidura maizago gertatzen baita. Lehenago ikusi dugun bezala, Irurita eta Arraioztik iparraldera, bustidura automatikoaren gertakaria murrizten da, are gehiago Baztangoizako lau herrietan. Aezkoan ere palatalizazio maila hagitz apala da (Camino 1997).
2. Hitz hasieran *x-* izatea da euskara nafar-lapurtarraren bertze bereizgarri bat: *xapela, ximino, ximista, xingar...* Baztanen ere ohikoak dira honakoak: *xori, (ardietako) xakurre, xurie, xingar...* (Lekarozko adibideak). Muga ondoko Esteribarren edo Erroibarren, ordea, ez bide dago *x-*dun aldaerarik:

Aipa bidenabar, ez dugula Lapurdin eta Nafarroa Beherean bezalako hitz hasierako txetxekari frikariarik aurkitu: *xahal, xapela, ximistu, xokolatia* etab (Ibarra 2000: 84).

Dena den, Baztanen bertzelako frikariak ere bildu ditugu: *zapela, zerrie, zintzur, zinger...* Egoera konplexu samarra dagoela iduri du:

Jakina denez, Baztanen ez ditugu hitzak afrikatuekin hasten, *txabola, txar* eta *tzar* kentzen badira, bi azkenok baten aldakiak izanik. *Itsusi* hitza ere askotan *tsusi* ahozkatzen da han, aitzineko *i* hori gabe. Mailebuetan gehiago entzuten dira orain: *txapa, txaketa* (ez ahaztu, dena den, *txaketaren* ordez *lastiku* edo *jipon* esaten dutela zaharrenek. Elizondon *gipon* ere aurkitu dut), *txuleta* etab. Afrikatuen ordez, frikariak erabiltzen dira: *zintzur, zakur, zardine, zilibitu, zimur, zinger, ziztor, zurrute*, etab. eta balio adiera-

zkorra eman nahi izanez gero, ez dugu *txintxur*, baizik *xintxur* esaten. Berdin *xakur*, *xixtor*, *xerri*, *xori*, etab. Hor ditugu, baita, *Zidro* eta *Xidro*, *Isidroren* partez (Salaburu 1984-2: 78).

Afera ez da aise. Guk ez genuke erranen Baztango mintzoan *xinger zinger* neutroaren aldakia dela, *xinger* gehiagotan aditu eta bildu baitugu. Gainera, Baztanen ez ezik, Bidasoaldean ere *xingarra* aski neutrotzat jotzen dugu guk. Era berean, bertze zenbait bikote jaso ditugu, hizkera adierazkorraz landara: *zori & xori*, *zixtor & xixtor*, *zurrute & xurrute*. Beraz, hitz hasierako *x-* Bidasoaldean baino gehiagotan sumatzen bada ere, ez du iduri mugaz bertze aldean bezain erregularra denik<sup>87</sup>.

3. Erdal *-on* bukaera *-oin* egiteko joera izan da nafar-lapurteraren eremu gehienean: *arrazoin*, *botoin*, *kantoin*, *patroin*... Baztanen ere zenbait mailegu zahar gorde dira: *arrazoña*, *sasoña*, *arratoña*, *botoña*, *eskalapoña*, *takoña* eta *pozoña* bildu eta aditu ditugu<sup>88</sup>. Mailegu berriagoetan *-ona* dugu: *balkona*, *koltxona*, *bastona*, *melokotona*... Ultzaman ez dago *-oinen* arrastorik (Ibarra 1995: 265). Erroibarren, ordea, Patxi Salaberrik bildua du Mezkiritzen Juanito Ernagaren ahotik: *ze arrazoña zuen, eh!* Amikuzen eta Zuberoan *-uña* akabaila dago. Urdazubin eta Zugarramurdin Baztanen dagoen antzeko egoera aurkitu du Montoyak: zenbait mailegu zaharretan *sasoina*, *arratoina*, *xalboina* ‘xaboi’ eta mailegu berriagoetan *garrafona*, *pabellona*, *millona*.
4. Erdal *-age* amaiera, berriz, *-aia* bilakatzeko joera izan da: *bisaia*, *domaia*, *lengoia*, *salbaia*... Gertakari hau ez da Baztanen ezaguna. Bai, ordea, Zugarramurdin eta Urdazubiko euskarako zenbait adibidetan: *usaia*, *bisaia*.
5. *nehor*, *nehori*, *nehun* tankerako izenordainak eremu honetako bereizgarria dira. Nafarroa Garaian barrena ere baziren horrelakoak aspaldi, lehenago ikusi dugunez. Gaur egunean, muga ondoko hizkera guti batzuetan baizik ez dira atxiki, Baztangoizan, Erroibarren eta Esteribarren, hain zuzen.
6. Lexikoan, ondoko solasok aipatzen ditu Zuazok: *fitsik* ‘ezer’, *gako* ‘giltza’, *guri* ‘bigun’, *ortzantz* ‘trumoi’, *ortzadar*, *sehi* ‘zerbitzari,’ *xingar* ‘urdaia’. Eta Lapurdi aldean, gehienbat, *auzapez* ‘alkate’. Erran beharra da, hala ere, *guri*, *xingar* eta *ortzadar* bederen Baztanen entzun ditugula. Lehenbiziko biak, gainera, hedadura zabalagokoak dira, Nafarroako Bidasoaldean ere behinik behin erabiltzen baitira.

87 Estibalitz Montoyak ohartarazi gaituenez, Urdazubin eta Zugarramurdin ere *xingar* & *zingar*, *xerri* & *zerri* bezalako pareak jaso ditu, denak neutroak izanik.

88 Hona Kamila Zubeldiak guri emandako Urruñako nahiz Ziburuko adibideak, Hendaiatik Getaria bitarte bederen erabiltzen direnak, Lapurdiko kostaldean, alegia: *botoña*, *sasoña*, *pozoña* (Baztanen bezala), baina berriagoak diren bertze hauek ere bai *formazioña*, *abioña*, *meloña* (Baztanen ez bezala).

Arestian ikusi dugunaren arabera, euskara nafar-lapurarrak dituen ezaugarrietatik gehienak, aldeak alde, betetzen dira Baztanen edo Baztango eskualderen batean —Baztangoizan—. Halarik ere, nafar-lapurteran ohikoak eta sistematikoak diren ta-sunak Baztanen ere badaude, baina ez maila berean: bustidura automatikoaren maila apala<sup>89</sup> (Basaburuan izan ezik, jakina), hitz hasierako *x*- frikaria ohikoa da Baztan guzian (baina *zerri*, *zapela* erakoak ere aditzen ahal dira), *-oin* akabaila Baztango zenbait mailegutan (egun, Lapurdin eta Nafarroa Beherean emankorra da, Baztanen ez bezala), *nehor*, *nehori*, *nehun* tankerako izenordainak erabiltzen dira Baztangoizan (Hego Euskal Herriko izenordain arruntekin batean) eta lexikoan zenbait item Baztanen ere erabiltzen dira. Hauetatik batzuek bertako euskararen dinamikaren berri ematen digute, (seitik) bi ezaugarri gibelka ari baitira hondarreko aldian: *-oin* akabaila eta *nehor* gisako izenordainak. Azkenik, bi aldiz Baztangoiza nafar-lapurterari atxikita ageri zaigu eta Baztango gainerako eskualdeetatik bereizita: arestiko izenordainetan eta bustidura automatikoaren maila apalean (nahiz eta hemen despalatalizazio fenomenorik ez dagoen, Baigorri edo Aezkoan bezala).

Honenbertzez, goitiago aurkeztu ditugun ezaugarrien arabera, Baztango euskarak lotura nabariak ageri ditu nafar-lapurterarekin, Hego eta Ipar Euskal Herria banatzen dituen muga gero eta azkarrago sumatzen baldin bada ere. Lotura hauek zirela eta, 1869ko sailkapenean, Bonapartek Baztango hizkera iparraldeko goi-nafarreraren baitan sartu zuen (1869: 3), baina geroago, 1881. urtean, Baztango hizkera lapurteraren baitan sailkatu zuen dialektologialari frantsesak (1881: 161). Harrezkero, bertze ikertzaile nagusi batzuek bide bera egin dute.

Nolanahi ere, argi eta garbi adierazi beharra da sei ezaugarri hauek guti eta munta apaleko direla modu orokor batean hitz egiteko. Gainera, loturok aspaldi eginak dira eta batzuk gibelka ari dira, Baztango hartu-emanak franko aldatu dire-lako seinale. Ez du iduri, hortaz, goitiagoko zerrendan oinarriturik, Baztango gaurko mintzoari buruz deus definitiborik erran daitekeenik.

Bertze alde, ezaugarri bat kausitu dugu alokutiboko oraineko adizki trinkoetan, zeinean Baztanek nafar-lapurterarekin bat egiten baitu. Aparte sailkatu dugu nafar-lapurteraren eremu guzian ageri ez delako<sup>90</sup>, eta ondorioz, Zuazoren zerrendan ez dagoelako:

### **Baztan Nafarroa Beherearekin batean paratzen duen bertze ezaugarri bat**

1. Alokutiboko oraineko adizki trinkoetan nahiz N-N-N sailekoetan *d*-erabiltzen da Baztanen (Ornoz-Mugairin izan ezik): *diekak* ‘ziok’, *diekatek*

89 Dena den, bokalerdien ondorengoa egiten da. Baliteke diptongo ez den *i* bokalaren ondoko *iñ* adibide bakan horiek, egoera zaharrago eta bustiangoaren ondorioa izatea (Oñederra 1990: 177).

90 Lapurdiko zenbait gunetan, Saran adibidez, *z*- da nagusi, eta hori ere nafar-lapurtera da. Hots, nafar-lapurtera, ezaugarri honi dagokionez, ez da homogeneoa. Sara ondoko Urdazubin eta Zugarramurdin *ziok*, *zion* / *diok*, *dion* bikotea bildu da. Baina, bi herriotan ere, gainerako kasuetan *z*-dunak nagusi dira (Montoya 2004: 200).

‘ziotek’, *diagok* ‘zagok’... Nafarroa Beherean ere halakoak erabiltzen dira. Antzeko iritzia agertu du Pedro de Yrizarrek bere lanean:

En algunas formas baztanesas puede percibirse un cierto aire bajo-navarro, a lo que contribuye también la *d-* inicial de las formas alocutivas (Yrizar 1997: 3).

2. Mezkitzen ere honakoak baliatzen dira (Yrizar 1992b: 183). Kasu honetan, hortaz, Nafarroa Beherean dagoen ezaugarria muga ondoko Baztanen eta Erroibarren ere badago. Euskal Herriko erdialdeko hizkeretan, berriz, *z-*dun aldaerak erabiltzen dira, gauza jakina denez.

### 9.7. Baztan vs. Urdazubi-Zugarramurdi

Bederatzigarren atal honi dagokion azken alderaketa egiteko, Estibalitz Montoyak berriki argitara emandako lana aintzat hartu dugu *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara* (2004). Gisa berean, Zugarramurdiko mintzoa ongixko ezagutzen duen Beñardo Goietxe adiskidearen laguntza baliatu dugu, berari eta bere jendakiei (denak *zamordiarrak*) grabazioak nahiz galdetegiak egiteko. Halaber, beti bezala, gainerako iturri osagarriak ere profitatu ditugu ahalik eta ikuspegi osatuena izateko asmoz.

Montoyak bere doktorego-tesian ongi erakutsi duenez, bi herriotako euskararen norabidea aldatzen ari da: gazteek Hego Euskal Herrian orokorrak diren egituren alde eta gaztelaniazko maileguen alde egiten dute. Hortaz, Ipar Euskal Herriko hizkerekiko lotura gero eta ahulagoa dela iduri du. Dena den, *Xareta* osatzen duten herrien arteko harremanek indarrean diraute: Urdazubi, Zugarramurdi, Sara eta Ainhoa. Gaur den egunean ere, Montoyaren iduriko, Urdazubi eta Zugarramurdiko euskaratik hurbilen dauden herriak Sara eta Ainhoa dira. Ondotik, nolabait, Baztan dugu hurbilago (eta Baztanen baitan, Baztangoizako herriak).

Dialektologian ohiko diren hiru alderdi gogoan hartuko ditugu oraingoan: elizaren egituraketa, lotura sozioekonomikoak eta orografiaren azterketa. Lehen atalean agertu dugun eran, badakigu Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztan-Bidasoa osoki Baionako Elizbarrutiaren barrenean egon zirela, Felipe II.a Gaztelako erregeak herriok Iruñeko Gotzaindegiari lotu zizkion arte. 1566. urteaz geroztik, Zugarramurdi eta Urdazubi Baztango artzapez-barrutian gelditu ziren (Iruñeko Gotzaindegiaren mende). Bi herriok Baztanekin eduki dituzten harremanak emankorrak izan dira, bereziki abeltzaintzaren eta nekazaritzaren inguruan. Era berean, Elizondoko azokan Baztan osoko eta Urdazubi-Zugarramurdiko bizilagunak (baita muga ondoko lapurtarrak eta Baigorri aldekoak ere) bildu izan dira. Bi argudiook Urdazubi-Zugarramurdiko euskarak eta Baztangoak agertuko dituzketen kidetasunen arrazoibide izan litezke. Halarik ere, hirugarren eragileak, orografiaren azterketak, dibergentzien berri emanen digu. Hala azaltzen du Estibalitz Montoyak bere azterketa dialektologikoaren ondorioetan:

Beraz, Zugarramurdik eta Urdazubik Sara eta Ainhoarekin ez ezik, Baztanekin ere lotura estuak izan dituztela ikus dezakegu, baina, hala ere, hizkuntzari dagokionez, gure herri bietako hizkera hurbilago dago lapurteratik baztandarretik baino. Arrazoia, nire ustez, orografian bilatu behar dugu. Izan ere, Otsondoko mendateak, Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubiren arteko harremanak zaildu egin ditu; Sara edo Ainhoara joateko, berriz, ez dago horrelako oztoporik (2004: 292).

Duela guti arte, beraz, Zugarramurdi eta Urdazubi aski aldentuta egon dira Iruñetik eta, oro har, Nafarroatik. Baztan bera ere ez da gutitan iparraldeari loturik egon (gauza bera gertatu da, aldeak alde, Ipar Euskal Herriarekin muga egiten duten Nafarroa Garaiko eskualdeetan: mendebaletik ekialdera zerrendaturik, Bortzerrietan, Esteribarren, Erroibarren, Luzaiden, Aezkoan, Zaraitzun eta Erronkarin). Aitzitik, hondarreko aldiari Ipar Euskal Herriarekiko harremana ahuldu da eta Baztan Nafarroari (gehiago) lotu zaio. Zugarramurdi eta Urdazubin ere gauzak aldatzen hasiak dira, baina bi herriotan Lapurdirekiko lotura azkarra da oraindik.

Hau guzia erran eta ondoan, azterketa dialektologikoari ekiteko tenorea da, gizartean gertatu diren aldaketek zer nolako isla duten bertako hizkuntzan ikusteko garaia, alegia. Galde-modu batez abiatuko gara: zertan dira (ez)berdin Urdazubi-Zugarramurdiko eta Baztango euskara? Horretarako, lehenbiziko, gure lan honetan lagundu gaituen Estibalitz Montoyak zerrendatutako ezaugarriak baliatuko ditugu:

**Urdazubi-Zugarramurdi mendebaletik nahiz erdialdetik banatzen dituzten ezaugarri nagusiak**

1. Genitibo singularreko *-aren>-ain* bilakabidea gertatu da: *mutilain* ‘mutilaren’, *zakurrain ilea* ‘zakurraren ilea’... Oinarrian *noren* duten deklinabide kasuetan ere betetzen da (soziatiboa, destinatiboa...).
2. Ablatibo pluraleko eta mugagabeko (eta erakusleetroko singularreko) *-ta(r)ik*: *erritaik*, *etaik* ‘haietarik’, *lagunetaik*...
3. Bizidunen ablatiboko *-ganik*: *aitaganik*, *zureganik*, *apezainganik*...
4. Adlatibo destinatiboko morfema *-ko*: *suko* ‘sutarako’, *orduko* ‘ordurako’...
5. *baten bat* egiturako izenordain zehaztugabeak ez dira ohikoak Zugarramurdi-Urdazubin.
6. Adberbio eta bigarren mailako predikatuetan partitiboaz eta mugagabeaz gainera, absolutibo mugatua ere aukeran dago: *ixil-ixila egon zen*.
7. Menpeko perpausetan osagarri zuzena absolutiboan ez ezik, genitiboan ere erabiltzen ahal da. Dena den, Zugarramurdi-Urdazubin (nahiz Baztanen) ez da sobera erabilia: *baserriain ikusterat gan nitzen* ‘baserria ikustera joan nintzen’.

8. Aditza eta datiboaren arteko komuntadura hautazkoa da.
9. Erdal *-sio* & *-tio* bukaerek *-zione* eman dute: *tentsione, indizione, telebisione...*
10. *eman* eta *utzi* aditzekin osatzen diren perifrasiatan, menpeko aditzean adlatiboa hartzen dute: *edatera eman, gatera utzi*.
11. Aditz trinkoek *-a-* artizkia dute iraganean: *naukan, zaukan*, nahiz eta trinkoan guti samar erabili.
12. *-ki* aditz atzikiaren erabilera: *gaki naiz* '(ba)noa', *ibilki dire* '(ba)dabil-tza'.
13. *-t(z)en* + *ahal* ahaleko egitura perifrastikoak.
14. Aditzoina eta partizipioa bereizten dira normalean: *garbizak oi, oroiak* 'oroi hadi', *paazu gainean* 'para ezazu gainean'...
15. Kausa perpausak osatzeko «aditza + *eta*» egitura erabiltzen da mendebalean eta erdialdean. Zugarramurdi eta Urdazubi, berriz, ez da ezaguna aukera hau.
16. *uste* aditzarekin sortzen diren menpeko perpausetan *-(e)n* morfema ageri da, baita baiezkotzat perpausetan ere.
17. Mendebalean eta erdialdean *hobe da... ezen eta* egitura ez da ezaguna: *obe duzu sos batzuk ekartzea ezen ez fitsik ein gabe eotea*.
18. Aldaera lexikoak: *ameka, apez, beldur* (vs. *bildur*), *erran, ertze, eskuin* (vs. *eskuma, eskubi*), *gider* (vs. *girten, kirten*), *guzi* (vs. *guzti*), *iduzki, izigarri, nigar* eta *orai*.
19. Lexikoko zenbait item. Ez ditugu denak zerrenda honetara ekarriko. Erran dezagun, dena den, berrogeita bortz hitz direla (Montoya 2004: 296) eta Baztanen denak erabiltzen direla. Bidasoaldean ere ia denak erabiltzen dira, ondoko biok izan ezik<sup>91</sup>: *airegaixto* eta *manatu*.

Urdazubi-Zugarramurdi mendebaletik eta erdialdetik aldentzen duten hemeretzi ezaugarri hauek guztiak Baztanen ere betetzen direla agerian utzi nahi izan dugu ariketa honen bidez. Alde horretatik, hortaz, erran genezake Zugarramurdi eta Urdazubi Euskal Herriko mendebaleko nahiz erdialdeko hizkeretatik aldentzen direnean, Baztan ere bi herriekin batean urruntzen dela. Hemeretzi ezaugarri hauek Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdi elkarrengana hurbiltzen dituzte.

91 Bortzerrietan hauek erabiltzen dira: *zimita* edo *zizta-mizta*, *bidali* eta *aginyu* (nahiz eta Etxalarren, *agindurekin* batean, *manatu* ere erabiltzen den gutiago). Bertizaranan, ordea, Baztanen erabiltzen diren solasak erabiltzen dira. *Airegaixto*, Bertizaranan ez ezik, Sunbilla eta Doneztebe inguruan ere bildu dugu.

Nolanahi ere, hauetatik franko Nafarroako Bidasoaldean (eta eremu zabala-goan) ere betetzen dira, ez baitugu ahantzi behar, mendebaletik eta erdialdetik banatzen duten tasunez ari garela. Zehazkiago errateko, hamabi ezaugarri betetzen dira Bidasoaldean: adlatibo destinatiboko *-ko* morfema, erdal *-tio* bukaerak *-zione* eman du, *eman* eta *utzi* aditzekin osatzen diren perifrasietan menpeko aditzean adlatiboa hartzen dute, aditz trinkoek *-a-* artizkia dute iraganean, *-ki* aditz atzizkia, *-t(z)en + ahal* ahaleko egitura perifrastikoak, aditzoina eta partizipioa erregular-tasunez bereiztea, kausa perpausak osatzeko «aditza + *eta*» egitura arrunta ez izatea, *uste* aditzarekin sortzen diren menpeko perpausetan *-(e)n* morfema agertzea, *hobe da... ezen eta* egitura ezaguna (baita *ezikan* ere), aldaera lexikoak eta item lexikalak.

Honenbertzez, sei ezaugarritan Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztan elkarrekin ageri dira batetik, eta Oronoz-Mugairitik ezkerreko hizkerak batean bertzetik. Sei tasunak hauek dira: *-aren>-ain* bilakabidea<sup>92</sup>, ablatibo pluraleko eta mugagabeko (eta erakusleetako singularreko) *-ta(r)ik*, bizidunen ablatiboko *-ganik*<sup>93</sup>, *ixil-ixila egon zen* erako adverbio eta bigarren mailako predikatuak, menpeko perpausetan osagarri zuzena genitibo kasuan ere agertu ahal izatea (TO GEN akronimoaz ezagutzen dena) eta aditza eta datiboaren arteko komuntadura hautazkoa izatea. Bistan da ezaugarri hauek geografia hedadura zabala hartzen dutela: gehienez, Nafarroa Garaiko hego eta ekialdea eta Ipar Euskal Herria. Baztanek, Zugarramurdi-Urdazubik eta Ipar Euskal Herriak kideetasunok edukitzea (neurri handi batean) iragan komuna izateari zor diote.

Dena den, berdintasun gehiago ere ageri dituzte Baztango euskarak eta Zugarramurdi-Urdazubikoak, fonetika-fonologian bereziki: bertako hizkeretan, bokalen arteko kontsonante galtze ugariak gertatzen baitira, ondoko Bidasoaldean ez bezala, adibidez. Hona hemen bokalen arteko kontsonante galtzerik emankorrenak, eguneroko solasean erraz aski entzuten direnak:

### **Urdazubi-Zugarramurdi eta Baztan elkarrengana hurbiltzen dituzten bokalen arteko kontsonante galtze nagusiak**

1. /r/ > 0 / V\_V/: *baatxuria, baatzea, apilean*, ablatiboko *-(e)tarik>-taik*, datiboko *-ari>-ai*.
2. /g/ > 0 / V\_V/: *aileatu, laundu, letainak, iande...*
3. /b/ > 0 / V\_V/: *ilaete, izoa 'izeba', iloa, ueldura...*
4. /d/ > 0 / V\_V/: *eerra, bearba, baldinbaa...*

92 Etorkizuneko morfemaren bilakabidea ezaguna da Sunbillaraino: *egoin* 'egonen', *zain/zein* 'izanen' gisakoak. Alabaina, gainerakoak (soziatiboan, destinatiboan...) ez.

93 Nahiz eta Bortzerrietako euskarari buruzko atalean ikusi dugun bezala, Etxalarren eta Beran — *ganik* bildua den.



Arestiko gertakari fonologikooz landara, Baztanek nafar-lapurterarekin batean ageri dituen zenbait ezaugarri zerrendatu ditugu lehenago: bustidura automatikoaren maila apala, hitz hasierako *x*-frikaria, *-oin* akabaila zenbait mailegutan, Baztangoizako *nehor*, *nehor*, *nehun* tankerako izenordainak eta zenbait item lexikal. Eta gauza jakina denez, Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskara nafar-lapurteraren barrenean dago. Hortaz, bortz ezaugarri hauek bi eskualdeetan betetzen dira. Orotara, hogeita bortz kidetasun zenbatu ditugu orain arte.

Arestiko hogeita bortz ezaugarri zerrendatik, bederatzik kasutan bederen hizkuntza tasunek ezberdin jokatzeko dute Oronoz-Mugairitik mendebalera eta ekialdera, hizkuntza dibergentziak eta konbergentziak sorraraziz. Ikus ditzagun Nafarroako Bidasoaldea vs. Zugarramurdi-Urdazubi & Baztan idurikatzen duten ezaugarriak ondoko taula honetan:

**Nafarroako Bidasoaldea vs. Zugarramurdi-Urdazubi & Baztan**

Isoglosa	Bidasoaldea	Zug-Urd. & Baztan
Bokalen arteko kontsonante galtzeak: <i>baatxuria</i> , <i>baatzeta</i> , <i>izoa</i> , <i>ueldura</i> ...	Ez dira galera emankorrak.	Galera ugariak eta arruntak
<i>-aren</i> > <i>-ain</i> bilakabidea	Oronozen, Bertizaranan, Malerrekan eta Sunbillan aditzetan bakarrik. Bortzerrietan inoiz ez.	Aditzetan eta izenetan.
Ablatibo plurala, mugagabea	<i>-(e)tatik</i>	<i>-(e)ta(r)ik</i>
Bizidunen ablatiboa	Beran eta Etxalarren ez bertze guzietan <i>-gandik</i>	<i>-ganik</i>
<i>ixil-ixila egon zen</i> erako adberbio eta bigarren mailako predikatuak	Bortzerrietan ez. Bertizaranan eta Malerrekan (hagitz) gutitan.	Sistematikoki
TO GEN (gaur egunean)	Ez	Bai
Aditza eta datiboaren artean	Komuntadura beharrezkoa, salbuespenak salbuespen	Komuntadura hautazkoa
Hitz hasierako <i>x</i> -frikaria (balio neutroa duelarik)	Hitz guti batzuetan	Hitz gehiagotan
<i>-oin</i> akabaila	Ez	Zenbait mailegutan

Bertze alde batetik, Baztan eta Zugarramurdi-Urdazubi elkarrengandik alden-tzen dituzten ezaugarri banatzaileak ere aurkitu ditugu. Hauek, gehienez, Zugarramurdi-Urdazubiko euskara Ipar Euskal Herrikoarekin batean agerian uzten dute, eta Baztangoa, berriz, euskara nafarrarekin (eta oro har, Hego Euskal Herrikoarekin) batean. Segidan, Zugarramurdi eta Urdazubi Ipar Euskal Herrira hurbiltzen dituzten ezaugarri banatzaileen berri emanen dugu:

### **Zugarramurdi-Urdazubi Ipar Euskal Herrira hurbiltzen duten ezaugarri banatzaileak**

1. Hurbileko bokal asimilaziorik ez dago Zugarramurdi-Urdazubin. Bi herriotan, salbuespenik gabe, *begia*, *burua* moduko aldaerak entzunen ditugu. Baztanen (baita Hego Euskal Herriko eremu zabal batean ere), ordea, *begie*, *burue* bokal asimilazioa hagitz indartsua da. Isoglosa garbia bezain garrantzizkoa, inolaz ere.
2. Hurbiltze adlatiboia adierazteko, Euskal Herrian orokorragoa den izena + *aldera(t)* egitura da Zugarramurdi eta Urdazubin ohikoena, baina Ipar Euskal Herrian arruntak diren *-ra / -ri buruz* egiturak ere ezagunak dira. Baztanen, aldiz, hondar hauek ez dira erabiltzen, salbuespenak salbuespen.
3. Kontsonantez (edo kontsonante + *e* mutua) bukatutako frantsesetikako mailegu frankori *-a* mugatzailea eranstearekin *ekipa*, *minuta* erakoak sortzen dira Ipar Euskal Herrian. Zugarramurdi eta Urdazubin ere ohikoak dira hauek *klianta*, *zimenta*, *pasaporta*... Baztanen (baita Bidasoaldean, Ultzaman... ere) mailegu zaharragoa den *estomaka* izan ezik<sup>94</sup>, bertzelakoak sortzen dira: *ekipoa/ua*, *minutoa/ua*...
4. Nor Nori Nork saileko objektu pluralgileak bi izaten ahal dira Zugarramurdi eta Urdazubin: *-zki- dazkitzut* ‘dizkizut’ eta *-zk- diozka* ‘dizkio’. Oro har, azkena, *-zk-*, datiboia hirugarren pertsonakoa delarik (singularra nahiz plurala) erabiltzen da, eta *-zki-*, berriz, gainerako pertsonekin. Bitasun hau ohikoa da, Zugarramurdi eta Urdazubin bezala, Basusarrin, Ahetzen, Senperen, Ainhoan eta Saran bederen (Zuazo 1999: 271). Gisa berean, Gipuzkoako ekialdeko itsasaldean ere *dizka* ‘dizkio’, *zaizka* ‘zaizkio’, *nizkan* ‘nizkion’ erakoak baliatzen direla badakigu. Baztanen (eta Bidasoaldean) arrotzak dira adizkiok.
5. Zugarramurdi eta Urdazubin *ari du / ari da* bikotea aukeran bide dago. Lehenbizikoa ohikoa da Ipar Euskal Herrian. Baztanen, berriz, gure datuen arabera, bigarrena baizik ez du onartzen bertako hizkerak<sup>95</sup>.

94 Baztan-Bidasoa osoan *telefonoa/oa* erraten da (vs. Ipar Euskal Herriko *telefono*), baina aditza, berriz, *telefonatu* dugu.

95 Pello Salaburuk erran digunez, Baztangoizan *ari duzu* erako adibideren bat entzuna du, nahiz eta bere grabazioetan ere ez duen alerik atzeman.

6. Hego Euskal Herrian (Baztanen ere bai, beraz) *baina* eta *baizik* ederki be-reizten dira. Ipar Euskal Herrian<sup>96</sup>, Zugarramurdin eta Urdazubin bezala, *baina* juntagailuak betetzen du maiz bien lekua.
7. Aitzineko kasuan bezala, frantsesaren eragina egon liteke ondoko gertaka-riaren gibelean: Zugarramurdin eta Urdazubin *beti* aditzondoak, Euskal Herri osoan orokorra den erranahiaz landara, *oraindik* adiera ere hartzen ahal du. Frantsesaren eragina aipatu dugu arestian, hizkuntza honetan *toujo-urs* hitzak *encore* ere adierazten baitu. Erran gabe joaki da adiera hau Ipar Euskal Herrikoa dela.
8. Ipar Euskal Herrian nahiz Urdazubi-Zugarramurdin ohikoak diren hurrengo aldaera lexikalak ez dira Baztanen erabiltzen (Baztango aldaera parentesi artean emanen dugu): *ainitz* (*aunitz*), *fruitua* (*fruta*), *gerla* (*gerra*), *libro* (*libre*), *maina* (*maia*) ‘mahaia’ eta *ogoi* (ogei).

Aurkeztu berri ditugun zortzi ezaugarrietatik zazpi ohikoak dira Ipar Euskal Herrian eta Zugarramurdi-Urdazubin, eta (ia) ezezagunak Baztanen eta Hego Euskal Herriko mintzoetan: hurbiltze adlatiboa adierazteko *-ra / -ri buruz* egiturak, *ekipa*, *minuta* erakoak, Nor Nori Nork saileko *-zki-* eta *-zk-* objektu pluralgileak (hauek ez dira Ipar Euskal Herri osokoak, baina Lapurdiko eremu batean erabiltzen dira), *ari du & ari da* bikotea aukeran, *baina* eta *baizik* ongi ez bereiztea, *beti* adi-tzondoaren erabilerak. Eta Nafarroa Garaiko ibar frankotan sendo eta azkar dagoen ezaugarri bat, Baztanera iritsi da eta ez, ordea, Zugarramurdira eta Urdazubira: hur-bileko bokal asimilazioa.

Lehen zazpi ezaugarriek Urdazubi eta Zugarramurdi Ipar Euskal Herriko eus-karari lotzen dizkiote, Baztango mintzoak Hego Euskal Herrikoekin bat egiten duelarik. Halaber, azken berrikuntzak Baztan euskara nafarrari lotzen dio, eta Urdazubi eta Zugarramurdira iritsi ez izanak agerian uzten du bi herriotako hizkerak lotura estuagoak (izan) dituela Lapurdirekin Nafarroarekin baino.

Lexikoaz den bezainbatean, segidan aipatuko ditugu Ipar Euskal Herrian nahiz Urdazubi-Zugarramurdin ohikoak diren item lexikal zenbait, hain zuzen, Baztanen erabiltzen ez direnak: *arrabots*, *berina* ‘kristal, beira’, *debaldetan* ‘alferrik’, *egun* ‘gaur’, *esperantzetan izan* ‘haurdun egon’, *gako* ‘giltza’, *kalaka* ‘solas, berriketa’, *kaper*a ‘ermita’, *maraxel* ‘albaitari’, *miise* ‘mihise, maindire’, *mokanes* ‘muki zapi’, *ojoin* ‘ohoin, lapur’.

Aitzitik, Zugarramurdi-Urdazubi eta Baztan banatzen dituzten bertzelako ezaugarri batzuk ere kausitu ditugu. Ondotik agertuko ditugun ezaugarrien mul-tzoan, Baztan ekialderagoko hizkerekin batean ageri da, eta Urdazubik eta Zugarramurdik, aldiz, Euskal Herriko hizkera gehienekin bat egiten dute:

96 Azkue honetaz ohartu zen: Es galicismo tomado de la doble significación de *mais* ‘pero’ y ‘sino’ (1925: 490).

### Baztan ekialderago eramaten duten ezaugarri banatzaileak

1. Azentuera hizpide izan dugu laugarren atalean. Bertan adierazi dugu ekialdeko hizkeren eta erdialdeko hizkeren arteko isoglosa, gaur den egunean, Urdazubitik eta Zugarramurditik igarotzen dela. Bi herri hauetako azentua bi ereduen arabera ezartzen baita, erdialdeko [+2] eta ekialdeko [-2] ereduen arabera. Baztanen eta Euskal Herriko ekialdeko eremu zabalean, ordea, bigarren eredia nagusitzen da. Garrantzizko isoglosa dugu, inola ere.
2. Goranzko diptongoak ohikoak eta arruntak ditugu Baztanen nola ekialde zabalean. Zugarramurdin eta Urdazubin ez dira erabat arrotzak, baina Montoyak erraten duenez (2004: 277), mailegu berriak alde batera utzirik, *eskwara* eta bakan batzuk dira. Baztanen, aldiz, izena + *a* mugatzailea egituran goranzko diptongo franko sortzen dira: *katwe*, *astwa*, *ardwa*... Ezberdintasun nabarmen-nabarmena da eguneroko solasean, beraz.
3. Destinatiboko morfema nagusia *-tako* da egun Zugarramurdin eta Urdazubin, Baztanen bezala. Alabaina, Zugarramurdiko eta Urdazubiko testuetan *-entzat* & *-tako* ageri dira. Bortzerrietan, Gipuzkoan eta Lapurdiko eremu handi batean erabiltzen den *-entzat* morfema ezaguna da Zugarramurdi-Urdazubin, bereziki adinekoen artean. Gauzak horrela izatera, nafartu egin da bi herriotako euskara, Lapurdiko aukera nagusia erabiltzeari utzi eta Nafarroako nagusia hartu duen heinean.
4. Prolatiboko morfema nagusia *-tako* da bi herri hauetan, Baztanen bezala. Dena den, *-tzat* morfema adinekoen artean batez ere ezaguna da. Morfema hau da, hain zuzen, ondoko herri lapurtarretan baliatzen dena.
5. Nor Nori Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako hirugarren pertsonetako adizkietan *z-* dago Zugarramurdin eta Urdazubin. Baztanen, aldiz, *d-*.

Goitiagoko bortz ezaugarriak arruntak dira Euskal Herriko ekialdean, Baztanen bezala. Bortz ezaugarriok, beraz, Baztango solasa ekialderago eramaten dute. Urdazubi eta Zugarramurdi, berriz, Euskal Herriko erdialdeari lotuago ageri dira.

Dena den, isoglosa hauek aitzineko ezaugarri multzoetakoak bezain garbiak ez direla erran beharra da. Izan ere, bortz kasuetan ekialderago dagoenaren zerbait hedatu da Urdazubira eta Zugarramurdira: erdialdeko [+2] eta ekialdeko [-2] ereduen arteko isoglosa bertatik pasatzen da (Baztanen ekialdekoa baizik ez dago); goranzko diptongoak ez dira arruntak Zugarramurdin eta Urdazubin (Baztanen bai); destinatiboko morfema nagusia *-tako* baldin bada ere, *-entzat* ere aditzen da; prolatiboko morfema nagusia *-tako* baldin bada ere, *-tzat* ere aditzen da (hau da testuetan ageri dena) eta Nor Nori Nork saileko eta trinkoen hitano alokutiboetako hirugarren pertsonetako adizkietan *z-* da nagusi, baina *diok* ‘ziok’ eta *diagok* ‘zagok’ gisakoak ere bildu ditugu Urdazubin eta Zugarramurdin (Urdazubin gehixeago nabari da bi-

tasuna; baliteke Baztandik hurbilago egotearen ondorioz izatea). Prolatiboaren eta destinatiboaren kasuetan, hiztunen adinak eta bertako testuen gaineko azterketak erakusten digute XX. mendean gauzak aldatu direla: ondoko Lapurdin ohikoak diren aukerak gibelka ari dira eta Nafarroa Garaiko ezaugarriak sartzen ari dira. Zugarramurdiko eta Urdazubiko euskara hartzen ari den norabidearen erakusgarritako. Alde horretatik, beraz, pentsatzekoa da Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdi banatzen dituzten ezaugarriek murriztera joko dutela, eta gero eta nabarmenagoak izanen direla ezaugarri bateratzaileak.

Orotara, gaurko egoera dialektalari dagokionez, hamahiru ezaugarri banatzaile azaldu ditugu, bi multzotan aurkeztuak. Lehenbiziko multzokoek iradokitzen digute Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskarak lotura gehiago izan dituela eta oraindik ere badituela Ipar Euskal Herriarekin, Lapurdiko (muga ondoko) herriekin hain zuzen. Bigarren multzokoek, berriz, Baztan ekialderago egon dela eta oraindik ere badagoela adierazten dute.

Ekialderagoko isuri honekin bat heldu dira bertzelako kidetasun batzuk, kulturaren atalari dagozkionak: Pirinio inguruko Aezkoa, Zaraitzu eta Erronkari ibarretan bezala, Baztango udalerrri bakarrak bertze herri eta haran anitzek ez dituzten esku-menak ditu; mutildantza Baztanen bakarrik dantzatzen da, baina Iparraldeko eta Luzaideko dantza-jauziekin lotuta bide dago, bereziki, Lapurdi aldekoekin. Gaur egun, mutildantzak Baztan guztian berdin dantzatzen dira. Lehenago dantzek hainbat urrats ezberdin zituzten. Ezberdintasun horiek ezabatzen hasi ziren Baztango mutildantzariak 1918an, Oñatira, Euskaltzaindiaren inauguraziora dantzatzera joan zirenean Erratzukoak eta Elizondo aldekoak. Geroago, oraindik gauza batzuk ezberdin egiten baitziren, bertze bateratze bat egin zen.

Gisa berean, Baigorri alderdiko gazte zenbait Elizondora eta Baztanera joaten dira *oraindik*. Honen froga izan liteke 2004ko azaroan Elizondon ireki diskotekaren arduradun nagusiak *Berria* egunkarian egin adierazpenak (*Tartea* gehigarria, 6.or, 2005/04/06):

Lur diskotekara, Baztango, Malerrekako, Bortziritako eta Ultzamako jendea joaten da, Urrutiak azaldu duenez. «Eta Iruñetik ere etortzen dira, eta iparraldetik asko, Baigorritik, Bankatik, Urepeletik, eta Bidarraitik». Lur diskotekaren lehiakiderik hurbilena Lanuba da, Dantxarinean (Lapurdi) dagoen dantzalekua. «Baina hangoa bertze giro bat izaten da», dio Urrutiak. «Giro frantsesagoa da. Baigorritik-eta etortzen zaizkigunek ere erraten digute arrunt Frantziako giroa dela Lanubakoa. Eta gure bezeroek bertze giro bat nahi dute, euskaldunagoa.

Orografiaz den bezainbatean, Otsondo tartean egoteak mendatearen alderdi banatan dinamika ezberdinak eragin bide ditu:

[...] Zugarramurdi y Urdax, separados geográficamente y aún socialmente por el puerto de Otsondo (Zudaire 1992: 725).

Oztopo orografiko honek historian ezberdintasunak garatzera lagundu badu ere, hogeita bertz isoglosak bederen bateratzen dituzte Baztan eta Urdazubi-Zugarramurdi. Hortaz, ezaugarri bateratzaileak banatzaileak baino gehiago dira. Bertzela erranda, linguistikoki gehiago dira kidetasunak ezberdintasunak baino, guk orotara aztergai izan ditugun hogeita hemeretzi ezaugarriotan, lexikoaren atalaz landara.

### 9.8. Ondorioak

Baztanen barreneko isoglosa nagusiak eta ibar honek ondoko bertze ibar eta eskualdeekin dituen (ez)berdintasun nagusiak aztertu nahi izan ditugu atal honetan. Lehenbizian aitortzen genuen galde-modu anitz genituela. Zenbait erantzun bederen eman ditugulakoan gaude, nahiz eta zalantzak eta gabezia batzuk agerian gelditu diren. Erraterako, ez ditugu gordeko Baztan-Baigorri arteko alderaketa egiteko izan ditugun zailtasunak. Alde horretatik, muga gurutzatzea oraindik nekeza da guretzat. Ipar Euskal Herriko eremu franko aztertu gabe daude, eta datu onak lortzea ere ez da erraza izaten. Dena den, argi zerbait egin dugula uste dugu. Urrats bat gibeletik heldu direnentzat.

Hona hemen bederatzigarren atalean aztertu ditugunek zer nolako ondoriotara ekarri gaituzten:

- Honenbertzez, Baztanen barreneko ezberdintasunak gogoan izanik, lau eremu bereizten ahal ditugula ematen du: Oronoz-Mugairi, Basaburua, Baztangoiza eta guk hemen *erdigunea* deitu duguna: Arraioz, Lekaroz, Gartzain, Irurita, Elizondo eta Elbete. Oronoz-Mugairi ezberdin sailkatu beharra dela agerian utzi dugu aitzineko atalean.
- Frogaturik geratu da Baztango euskararen koloreak eta ñabardurak badaudela, baztandarren kontzientzia maila hagitz azkarra izanda ere. Zenbait ezaugarri behinik behin sistematizatu ahal izan ditugu.
- Baztango Basaburuak hegoaldera eta mendebalera egiten badu, Baztangoizak iparraldera eta ekialdera egiten duela erran liteke, iraganean izandako harremanen adierazgarri. Isoglosaren batek Baztan zatitzen duenean, Basaburua edota Baztangoiza batera gelditzen da eta Baztan bertzera. Basaburuak Bidasoaldearekin nahiz Ultzamaarekin zenbait lotura agertzen ditu; Baztangoiza, berriz, Urdazubi-Zugarramurditik nahiz Ipar Euskal Herritik hurbilago ageri da. Baztango eskualde guzietan solasik baztandarrena erdiguneko delako erabaki dugu, Elizondo inguruan egituratutakoa, hain zuzen.
- Oro har, Ultzaman dauden ezaugarriak, Basaburu Nagusian eta Imotzen ez daudenak, Baztanen ere badaude, eta batzuk Bidasoaldean ere bai. Ultzama nafar egiten duten ezaugarri guziak Baztanen ere badaude, baita Ultzama ekialdearekin batean paratzen dutenak ere. Alderantziz, ordea, ez da gertatzen. Ultzama erdialdera hurbiltzen duten guziak ez daude Baztanen. Alde horretatik, beraz, Ultzama Baztan baino erdialdekoagoa dela erran liteke.

- Bidasoaldea vs. Baztan idurikatzen duten isoglosetatik batzuek eremu handiago bat marrazten dute, Bidasoaldekoak ez diren eta Baztanen dauden ezaugarriak maiz Nafarroa Garaiko toki anitzetan baitaude. Baztango euskarak gehiagotan bat egiten du hegoalderagoko (Ultzama, Atetz, Anue) eta ekialderagoko hizkerekin (Esteribar, Erroibar) mendebaleragokoekin (Bidasoaldea) edo iparralderagokoekin baino (Lapurdi, Nafarroa Beherea). Hau da, azterketaren arabera, Baztandik hurbilen diren euskal mintzoak (i) Ultzama-Atetz-Anue eta (ii) Urdazubi-Zugarramurdi dira.
- Euskara nafar-lapurterak dituen ezaugarrietatik franko betetzen dira Baztanen. Dena den, Ipar Euskal Herrian ohikoak eta sistematikoak diren bereizgarri gehienak Baztanen gibelka eta indarge ageri dira: lotura hauek aspaldi eginak dira, hartu-emanak aldatu direlako seinale. Hitz batez, Hego eta Ipar Euskal Herria banatzen dituen muga gero eta azkarrago sumatzen da.
- Urdazubiko eta Zugarramurdiko euskarak lotura gehiago (izan) ditu Ipar Euskal Herriarekin, Lapurdiko muga ondoko herriekin hain zuzen; Urdazubi-Zugarramurdiko gazteen solasa Hego Euskal Herrira begira jartzen hasia dela ahantzi gabe. Guk aztertutako bertze ezaugarri batzuek, ordea, Baztan ekialderaxego dagoela adierazten dute. Bukatzeko, Urdazubi-Zugarramurdiko euskara eta Baztangoaren artean ezberdintasun nabariak baldin baude ere, gehiago dira elkarren arteko kidetasunak.

### 9.9. Proposamen arealak eta bertze

- Hemendik aitzinera, *baztaneraz* mintzatea zaila izanzen zaigu, Baztango euskarak zenbait koska eta ñabardura ageri dituen heinean. Uste osoa dugu izenak izanaren araberkoa behar duela, eta ez alderantziz. Ez dugu erranen Baztanen lau euskalki edo azpieuskalki —edo hiru, Oronoz-Mugairi alde batera— daudenik. Baina ezin erran, atal honetan aztertu duguna aztertu ondotik, Baztango hizkera bat, bakarra eta bera denik. Guk ez dugu Baztango euskaran bertako hizkeraren nortasuna sendotuko lukeen ezaugarri espezi-fikorik aurkitu. *baztanera*, *aezkera* Bonaparteren *baztanais*, *aezcoan...* eta abarretik heldu dira. Bere sailkapena, eta batez ere, bere irizpide metodologikoak auzian paratuta, ez du sobera koherentea iduri bere terminologia erabiltzen jarraitzeak, non halako izen bakoitzak euskalki edo dialekto ezberdin bat idurikatuko bailuke.
- Garai batean, Baztanek Ipar Euskal Herriarekin zituen harremanak azkarra-goak baziren ere, eta ondorioz, bertako euskarak —berezik, Baztangoizakoak— nafar-lapurterarekin lotura gehiago ageri bazituen ere, gaur den egunean, Baztan Hego Euskal Herriko hizkeren dinamika berean edo bertuan daku-sagu. Mugaren eragina gero eta nabariagoa da, nahiz eta aduana gehienak kenduak diren. Beharbada, aitzineko mendeetan kanpotik ezarritako muga egiazko muga bilakatu da denboraren poderioz. Eta orain, ongi barneratu-

tako muga dugu, denen edo gehienen gogoan dagoena: ezberdin jaten da, ordutegi ezberdinak daude alde bakoitzean... eta ezberdin solastatzen da.

- Euskal Dialektologiak historian izan duen eztabaida klasiko bati helduz, Baztango euskara lapurtera edo nafarrera ote den, erantzuna emana da. Bonaparteren sasoian, Baztan mugako hizkera izaten ahal zen, eta Zugarramurdi eta Urdazubi, berriz, Lapurdiko mintzoa. XXI. mendearen hasieran, ordea, gauzak aldatuak dira: trantsiziotik edo mugatik hurbil ikusten dugu guk Zugarramurdi-Urdazubikoa eta aski nafartua Baztangoa.
- Oraingo eta etorkizun hurbileko dinamikak direla eta, Baztango euskararen geroa bere mendebalera begira dagoke: Hego eta Ipar Euskal Herria zatitzen dituen muga gero eta bizkorrago sumatzen da, ekialdera (Esteribar-Erroibar) eta hegoaldera (Ultzama, Atetz, Anue) euskararen egoera ez da ona, soziolinguistikoki eskualde erdaldundu samarrak baitira. Haatik, mendebaleragoko Nafarroako Bidasoaldea aski euskalduna da, eremuak gorabeherak erakusten baditu ere, eta bertan euskararen estatus soziala ere ona dela erraten ahal dugu. Tesiaren zirriborroa idazten ari ginelarik, Nafarroako Gobernuak euskara ikasteko diru-laguntzak murriztuko zituela jakinarazi zuen (2005eko udaren atarian). Garai hartan berean bildu ziren Baztan-Bidasoako zenbait eragile (alkateak, zinegotziak, euskararen mankomunitateetako kideak, euskaltzaleak...) murrizketa salatzeke. Euskararen (eta euskal kulturaren) aferari dagokionez, Baztan-Bidasoa izendapena gero eta maizago ageri da: eremu euskalduna izanda, antzeko kezkek eta problemak dituztelako. Halaber, 2006. urteaz geroztik, *Baztan-Bidasoako Gazte Eguna* egiten hasia da urtean behin; bertako gazteek espazio eta zirkunstantzia bertsuak partekatzen dituztelako, eta ondorioz, elkarrenganako (nolabaiteko) identifikazioa garatua dutelako. Bigarren deialdia izan berri den 2007ko azaroaren 10ean, Baztan-Bidasoako bi mila gaztetik goiti bildu dira Elizondoko karrketan.



**Baztango mintzoaren koloreak eta ñabardurak**



## **10. Ondorio nagusiak eta azken proposamenak**

---



## 10.1. Sarrera

Segidan azpimarratu nahi ditugu tesi honek egin uste dituen ekarpen nagusiak: orain arte aztertu dugunak zein ondoriotara ekarri gaituen, eta, ondorio hauek direla medio, zein proposamen areal egiten ahal den gure talaia apal honetatik. Hitz batez, egungo Euskal Dialektologia aberastera eta osatzera etor daitezkeen eduki zenbait agertu nahi ditugu. Horretarako, hainbat alorren gaineko ezagutza eta azterketa egi-tearen garrantzia nabarmenduko dugu: (i) hidrografia; (ii) orografia; (iii) giza geografía; (iv) Baztan-Bidasoako hizkeren norabidea; (v) Ipar Euskal Herria aztertu beharra; eta (vi) hizkerek usu ageri dituzten koloreak eta ñabardurak.

Ondotik, hasieran jarriak genituen helburuak bete nahian, dialektologialari orok egin beharreko taxonomia lanak eginen ditugu guk ere: Baztan-Bidasoako (eta inguruko) hizkerak Nafarroan eta Euskal Herrian non-nola dakuskigun azalduko dugu, ikerlan honen ondorio nagusizat.

## 10.2. Hidrografiaren garrantziaz

Jakina denez, geografía fisikoaren atala dugu hidrografia. Ez gara orain definizio sakonetan murgilduko, baina bai erranen dugula hidrografiak berebiziko garrantzia hartu duela gure lan honetan. Hidrografiak, edo nahiago bada, sare hidrografikoak: tesiarene izenak berak dakarrenez, Baztan-Bidasoa ibaiak Nafarroan barrena egiten duen bideari jarraitu diogu. Guzira, 59 kilometroko bidea egin dugu, hain zuzen, Baztan-Bidasoa ibaiak Baztanen, Bertizaranan, Malerrekan, Sunbillan eta Bortzerrietan barrena egiten duena.

Bertze batzuek guk baino aise hobeki azalduko baldin balute ere, bi zertzelada baizik ez gizakiaren eta uraren arteko harremanez. Pertsonak beti behar izan du ura bizitzeko eta horregatik eraiki ditu bere etxe, herri eta hiriak ura zegoen lekuetan. Nafarroan, Euskal Herri osoan bezala, ibai handi baten ondoan daude herri eta hiri nagusiak. Herri ttikietan ere ez da falta izanen iturri eder bat plazan. Gizakiok etekin handia atera izan diogu urari, eta uraren ondoan paratu izan ditugu errota eta olak. Bagenioen lanaren hasieran berean, ura biziaren iturri nagusia izan da eta da oraindik ere, nahiz eta egun industria modernoek ez duten (erabat) beharrezkoa ibaiaren ondoan kokatzea.

Herri erranera batek ere ongixko gogorazten digu *mila urte igarota, ura bere bidean*. Zeren eta urak bidea egiten du beti. Bide iraunkorrak, normalean. Alde ho-

rretatik, zenbait euskalari aspaldi ohartu ziren «ibai» eta «ibar» hitzen arteko loturaz; ibaiak ibarrak sortzen dituela iradokiz.

Hidrografiaz hitz egiten ari garenean, hortaz, bizilagunen espazio-kokagune nagusiez ari gara, hiztunen eta jendeen bizitokiez:

La disposición del poblamiento es esencialmente hidrográfico. Cada corriente fluvial lleva consigo un establecimiento humano hasta el extremo de que se adivinan los ríos y afluentes sin estar reseñados en el mapa. Como ya hemos indicado, esta población se distribuye en pequeñas concentraciones, generalmente inferiores a 700 habitantes, y caseríos, excepción hecha de Elizondo, Irurita, Lesaca y Vera de Bidasoa que son de mayor población. Las riberas del Bidasoa son las de mayor atracción humana (Jiménez 1958: 31).

Lanean zehar ikusi eta erakutsi dugunez, zenbait ezaugarri ibaiak ekarri dituela iduri du. Batzuetan, adibidez, Bidasoan goiti heldu dena, Bortzerriak-Malerrekatik, Oieregin eta batez ere Oronoz-Mugairin hasten da aldatzen. Halarik ere, hizkuntzalaritzan hau ez da harritzeko gauza, Eugenio Coseriuuk gaztigitzen duenez:

Las innovaciones se difunden a lo largo de las grandes vías de comunicación, siguiendo, por ejemplo, los valles de los ríos (1977: 131).


Beharbada, Baztan-Bidasoa ibaia ez dela Rin handia pentsa lezake bakarren batek. Alabaina, Baztan-Bidasoa bere ttikian handi da. Eta den baino handiago egiteko saioak ere anitz izan dira historian, Bidasoa nabigagarri bihurtzeko eginahalak XVI. mendeaz geroztikoak baitira:

Las ferrerías de toda la cuenca del Bidasoa utilizaban el río para el transporte de las materias primas. [...] En Cinco Villas solamente, existían a mediados del siglo XVI quince ferrerías (Uranzu 1955: 73-74).

Interesa, gainera, Bidasoaren bi aldeetakoa izan bide da: Gipuzkoakoa eta Nafarroakoa. Erraterako, Luis de Uranzuk dioenez, 1534. urtean Hondarribiak Bidasoa nabigagarri egitea proposatu zion Nafarroari. Nafarroak Endarlatsatik Doneztebe bitartekoa onartu ez ezik, ekonomikoki laguntzea ere agindu zuen (1955: 76).

Ildo beretsutik, Margarita Jiménezek bere *La población en Navarra* doktorego-tesian dakarrenez, «la región cantábrica de Navarra organiza su vida en la dirección de sus aguas corrientes, es decir, en dirección de Guipuzcoa» (1956: 31).

Ageri denez, aspaldikoak dira Bidasoaren bi aldeak elkarrengana lotzen dituzten faktoreak. Lotura historiko hau, bereziki, Irun-Hondarribia eta Bortzerrien artean izan da. Gauzak horrela, Bidasoaldeko batasun iduri bat aurkitu dugu gure lanean: Irun-Hondarribiko eta Bortzerrietako hizkeren artean. Bidasoaldeak bere (nolabaiteko) nortasuna baduela aldarrikatzen duten gertakari linguistikoak dira, gure aburuz. Ez da harritzekoa, geografikoki nahiz sozio-ekonomikoki ere halatsu gertatzen baita. Dena den, nortasun hau Bidasoa ibaiarekin batean hedatzen da Sunbilla, Malerreka eta Bertizaranara; baita tarteka Basaburu Txikira eta Baztango Basaburura ere.



Mapa honetan, hizkuntzaren atalean aztertu ditugun bortz berrikuntza kontuan harturik, Bidasoaren nortasun linguistikoa geografian barrena nola hedatzen den ikus dezakegu: mailaz maila, (i) Irun-Hondarribia eta Bortzerriak; (ii) Sunbilla, Malerreka eta Bertizarana; (iii) Beintza-Labaien, Saldias, Oronoz Mugairi eta Baztango Basaburua; (iv) Goizuetan; (v) Oiartzun; eta (vi) Baztan, Urdazubi-Zugarramurdi eta Lapurdiko herriak.

Haatik, batzuetan, Bidasoa ibaiak bertzelako banaketa batzuk ere iradokitzen ditu, eremu tikiagoak marrazten dituztenak. Bortzerriak hizpide izan ditugun atalean ikusi dugu Bortzerriak zeharkatzen dituzten isoglosa nagusiek batzuetan banatzen dutela eremua. Hala, ezaugarriren batek eremua banatzen duelarik, Bidasoa ibaiaren arabera nahiz Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasunaren arabera egiten duela iduri du: batetik, Bera eta Etxalar, eta bertzetik, Arantza, Igantzi eta Lesaka. Izan ere, Bidasoaren alde berean gelditzen diren Bera eta Etxalar zenbaitetan Ipar Euskal Herriko nahiz Baztango hizkerek batean ageri dira. Honetan, Bidasoa ibaiak muga lana egiten duela erran liteke.

Ibai batek linguistikoki muga-lana egitea ere ez da aparteko kontua hizkuntzalaritzan: ezagunaenez, Navia ibaiak asturiera eta galiziera banatzen ditu (Martínez 2006 [1996], Zamora 1989 [1960]).

Laburbilduz, ibaien —erreken, ugaldeen— bi ahalmen aipatuko genituzke: hizkuntzaren ezaugarriak geografian barrena zabaltzearena eta tasun linguistikoen muga izatearena. Hemendik aitzinera, beraz, Euskal Dialektologian ohi diren geo-

grafiaz eta orografiaz landara, hidrogafia ere aintzat hartzeko nahiko argudio eta froga aurkeztu ditugulako uste sendoa dugu.

### 10.3. Orografiaren garrantziaz

Azter-eremuko orografiak eragin dituen —edo eragitera lagundu dituen— zenbait hizkuntza ezberdintasuni erreparatuko diegu segidan. Erraterako, lanean ikusi den bezala, isolatuxe dagoen Arantza herrian *uskara arantzarraren* kontzientzia garatu dute bertako hiztunek; nahiz eta, mendiari esker, Arantzako baserritarrek Goizuetako eta Sunbillako baserritarrek in harreman oparoak ere (izanak) dituzten berriki arte.

Berebat, Baztango Basaburuaren eta Ultzamaren artean zenbait lotura ikusi ditugu, Belateko mendiak beti oztopo ez direla erakutsiz. Dena den, Belateko mendiak direla medio, Ultzama erdialdera hurbiltzen duten zenbait ezaugarri ez daude Baztanen. Gisa berean, Ipar Euskal Herritik heldu diren zenbait tasun ere ez dira Belatez bertze aldera iragan.

Orografikoki Belate bezain garrantzitsua ez bada ere, Otsondo mendateak ere *bere lana* egin du: Nafarroa Garaiko leku frankotako ezaugarri emankor bat, hurbileko bokal asimilazioa, Baztanen (hagitz) indartsu dabilena eta ez da iritsi, ordea, Zugarramurdira eta Urdazubira. Otsondoz bertze aldera iritsi ez izanak agerian uzten du Urdazubi eta Zugarramurdiko hizkerak lotura estuagoak (izan) dituela Lapurdirekin Nafarroarekin baino. Hona hemen, beraz, 700 metro eskaseko mendi apal batek zer nolako eragina izaten ahal duen hizkeren egitura geolinguistikoa, hizkuntzaren ezaugarrien banaketa eta geografia hedaduran.

### 10.4. Giza geografiaren garrantziaz

Nolanahi ere den, badakigu eten dialektalak ez direla beti bat etortzen eten orografiko edo geografikoekin; bertzelako faktore batzuk ere izaten ahal direla hizkuntza aldakuntzaren eragile. Nafarroan barrena badira zenbait isoglosa garrantzizko orografiarekin loturarik ez dutenak. Errate baterako, Basaburuaren eta Ultzamaren artean, *jakin, jan, jo, josi...* eta *yakin, yan, yo, yosi...* moduko errerealizazioak banatzen dituen isoglosa ez du iduri erliebe fisikoari loturik dagoenik:

Dagokigun kasuan, geografia fisikoa ez da elementu garrantzizkoa muga ezarpenean [...] Inolako mendi kate, portu edo erreka garrantzizkorik ez dagoelako Basaburuaren eta Ultzamaren artean. Esate baterako, *x/y* bereizten duen isoglosa leku zelaitzutik pasatzen da, inolako erreka edo mendi katerik ez dagoelarik muga honetan. Zehatzago izanik, Muskitzen eta Oskotzen artean, sei kilometroko urruntasuna besterik ez dago (Ibarra 1995: 691).

Halakoetan, bistan da, bertze mota bateko azalpen batzuk bilatu behar dira, hizkuntzaren ezaugarri dibergenteen geografia banaketa ongi ulertu nahi badugu. Giza erkidegoen arteko harreman historikoak, ibarren eta herrien arteko lotura sozio-ekonomikoak nahiz zatiketa politiko-administratiboak ere aldakuntzaren eragile

izaten dira maiz, lanean zehar behin baino gehiagotan agerian utzi dugunez. Are gehiago, batzuetan, hizkuntza espazioaren egituraren gakoa orain arte ikusitako arrazoi guzien arteko konbinazioan bilatu beharra dugula ematen du, hidrografia-orografia-geografia barne:

Muga geolektalei dagokienez, garbi dago Andimendiak eta Iratik hizkuntza-eten nabarmena sortzen dutela; hain zuzen ere, azpidialektotik azpidialektora lehenak eta euskalkitik euskalkira bigarrenak: orografiak garrantzia eta eragina du, baina Aezkoatik Zaraitzura dagoen hizkuntza-jauzirako, orografiaz gain, gizataldeen jardun sozio-historikoa ere aintzat hartu beharko litzateke; batzuen eta besteen joerek, hizkerak elkarren desberdinak izatea eragin dute (Camino 2004: 145).

Badugu uste aski frogaturik gelditu dela Saldias eta Beintza-Labaien Goizueta baino (aise) nafarrago direla: Goizueta nafar egiten duten tasunak Saldiasen eta Beintza-Labaienen ederki betetzen dira; eta gainera, egungo Euskal Dialektologian nafartzat hartzen ditugun bertze ezaugarri batzuk, Saldiasen eta Beintza-Labaienen indarrean daude eta Goizuetan ez daude (edo lehian ageri dira erdialdetik sartutako bertze batzuekin).

Baina zerk eragin du Goizuetaren ondoan Saldias eta Beintza-Labaien nafarrago gorde daitezen? Zer dela eta, Goizuetara iritsi diren ezaugarri berriak ez dira iritsi, edo ez bederen maila berean, Saldiasera eta Beintza-Labaienera?

Saiatuko gara arestiko galderari erantzuna ematera. Alde batetik, Goizuetak ondoko herri nafarrekin, Arantzarekin kasu, aspalditik izan dituen harremanak modeldu dira nabarmen, eta, aldiz, ondoko Hernanirekin (eta Hernaniren bidez, Gipuzkoarekin) bizkortu. Oraindik ere, Goizuetako lagun zenbaitzuek harremanak izaten dituzte Arantzarekin (batez ere, mendiz, Arantzatik hurbilago dauden baserri-tar batzuek), baina, oro har, iragan batean baino hagitzez ere apalagoak dira hartu-emanok. Bertze aldetik, Saldiasko lagunek eta Beintza-Labaiengoek Leitza aldera nahiz Doneztebe aldera egin dutela eta egiten dutela badakigu. Beraz, Saldias eta Beintza-Labaien herrien dinamika bertze bi herri nafarren tartean gertatu da. Egia da Leitzako euskara, bertako euskararen gaineko lana (Olano 1998) eta Zuazoren euskalkien mapa (1998, 2003) lagun, erabat nafarra ez dela gaur egunean, baina egia da, orobat, Leitzako mintzoa erabat erdialdekoa ere ez dela. Doneztebe inguruko euskara, berriz, hizkera nafarren baitakoa dugu, ezaguna denez. Hortaz, Saldiasko eta Beintza-Labaiengo bizilagunek, merkatura, ferietara, lan egitera edota aisialdiaz gozatzera joan direnean, harreman gehiago izan dituzte inguruko euskaldun nafarrekin gipuzkoarrekin baino. Eta hori nabari da bertako hizkeraren bilakaeran. Hitz batez, Saldias eta Beintza-Labaiengo euskara Doneztebe-Leitza giza geografiaren ardatzaren baitan ulertu beharra da, gure iduriko. Goizuetaren kasuan, ordea, giza geografiaren sokak ia erakarpen-mutur bakarra du egun: Hernani eta inguru gipuzkoarra<sup>97</sup>.

97 Nahiz eta Hernanin goizuetarren solasa *naparra* gertatzen ahal den. Perspektiba kontua da, gure ustez: Gipuzkoatik, goizuetar baten hizkuntzazko moldea nafarra da, baina jardun bera Baztanen gipuzkoarra da. Goizuetako hizkera trantsiziokoa den seinale garbia.



Doneztebek, soziologikoki, kulturalki nahiz linguistikoki eragin duen itzala luze samarra da. Doneztebe inguruak historian zehar ehundutako sare trinko horretan Saldias, Beintza-Labaien, Malerrekako zortzi herriak, Bertizaranako hirurak eta Oronoz-Mugairi bera ere dakuskigu.

Halaber, Sunbilla ere besarkatzen du arestiko sare honek, neurri apalxeagoan. Bortzerrien eta Malerrekaren tartean dagoen Sunbillak bi aldeetatik edan izan baitu. Bortzerrietatik, bereziki, Arantzarekin (izan) dituen harremani esker; Malerrekatik, berriz, errepidez hiruzpalau kilometrorra duen aldameneko Donezteberi esker. Sunbillako euskarak gaur ezagun duen aldaketa apalaren giroa ezinbertzeko gakoa dugu, Nafarroako Bidasoaldeko hizkeren dinamika sozio-espaziala behar bezala konprenitzeko: garai batean, Bortzerriei lotuago bide zegoen; gaur egunean, aldiz, Doneztebe aldera ari da.

Bortzerrien eta Malerrekaren arteko ezberdintasunen berri jakiteko, Sunbillako euskara dugu giltza. Dialektologia dibergentzia hauek ageri dituzten tasunetan nabari da Bortzerriak Lapurditik eta Gipuzkoatik hurbilago daudela, zeren eta Sunbilla, Malerreka, Bertizarana eta Bortzerriak banatzen dituzten ezaugarriak, Gipuzkoan eta Lapurdin ere badaude. Hortaz, erran dugu Bortzerriek batzuetan beren *nafartasuna* galtzen dutela, Nafarroatik aldendu eta ondoko bi lurraldeekin bat egiten duten neurrian. Hizkeraz ez dira Bidasoaldeko gainerako herriak bezain nafarrak.

Berte alde batetik, lanean Baztango lau gunere bereizi ditugu: Oronoz-Mugairi, Basaburuua, Baztangoiza eta guk hemen *erdigunea* deitu duguna: Arraioz, Lekaroz, Gartzain, Irurita, Elizondo eta Elbete. Oronoz-Mugairi ezberdin sailkatu beharra dela argi eta garbi utzi dugu. Baztango Basaburuak hegoaldera eta mendebalera egiten badu, Baztangoizak iparraldera eta ekialdera egiten duela erran dugu, iraganean izandako harremanen adierazgarri. Isoglosaren batek Baztan zatitzen duenean, Basaburuua edota Baztangoiza batera gelditzen da eta Baztan bertzerera. Basaburuak Bidasoaldearekin nahiz Ultzamarekin zenbait lotura agertzen ditu; Baztangoiza, berriz, Urdazubi-Zugarramurditik nahiz Ipar Euskal Herritik hurbilago ageri da, nahiz eta Baztangoizako hitzun gazteagoek galduxeak dituzten aspaldiko loturok. Baztango eskualde guzietan solasik baztandarrena erdigunekoa dela erabaki dugu, Elizondo inguruan egituratutakoa, hain zuzen.

### 10.5. Norabidearen garrantziaz

Dialektologia azterketa bat osoki egiteko, hirugarren atalean agertu dugunez, pertsonak ezagutzen dituen hiru aldiak aintzat hartu behar dira: iragana, oraina eta geroa; orainari lehentasuna emanez, betiere. Argi dago oraina ulertzeko ezinbertzeko dugula iraganaren ezagutzea. Azken batean, gure lanaren zati batean ere iragana aztertzen eman dugu, egun topatu dugun egoera linguistikoaren eragile nagusiak kausitzeko; gauzak zergatik aurkitu ditugun aurkitu ditugun bezala ulertzeko.

Hagitx interesgarria izaten da dialektologia azterketa batean hizkera batek edo gehiagok zein norabide hartu duten ikustea; zein dinamikak eragiten duten delako hizkeran. Interesgarria, edo ia ausartuko ginatke erratera gauzatu beharra ere bada, lanak azterketaren maila iritsi nahi badu (Chambers & Trudgill 1980).

Gure lanean zehar ikusi dugu herri bereko hiztun zaharragoek eta hiztun gazteagoek ezberdin egiten dutela solasean. Hain ezberdin, non bertako hizkeraren dinamika aldaketa nabarmena salatzen baitu. Belaunaldien artean aldea egotea ez da hain arraroa, normalizat ere har liteke neurri batean. Gizartearen bertzelako aferak batzuetan ere halatsu gertatzen dela badakigu. Kontua da alde hori, batzuetan bederen, aski handia izatera iristen ahal dela. Errate baterako, Goizuetan, zaharren eta gazteen arteko hizkuntza aldea nabarmena da: zaharrek Nafarroa aldera gehiagoko egiten dute eta gazteek Gipuzkoa aldera aiseago. Saldiasen eta Beintza-Labaienen ere adinaren kontua nabaria da, jakina, baina ez dago Goizuetan dagoen aldea.

Irun-Hondarribia, Oiartzun eta Bortzerriak elkarren ondoan paratu eta gero, hemen ere erdialdearen eta nafarreraren arteko iragatearen iduri bat eman dugu: Hondarribia da Nafarroatik (eta batzuetan, Lapurditik) hurbilen dagoena; Irun ondolik doakio, baita Oiartzun ere, urrunxeago. Gipuzkoako herriotan adinaren kontuak bertako hizkeren norabidearen berri ematen digu: Irunen, ahozko euskara irundarra baserriaren zenbaitzuen artean gordea da nagusiki; eta Oiartzunen sustrai nafarra gorde duten lagunak guti eta adin batetik gorakoak ditugu. Hortaz, gaur-gaurkoz eta era *funzional* batez, Gipuzkoan zinezko trantsizio dialektalik baldin bada, Hondarribian da, gure ustez.

Laugarren kapituluaren erran dugunagatik nahiz goitiago azaldu dugunagatik, euskalkien mapari gagozkiolarik, Saldias eta Beintza-Labaien euskara nafarraren baitako dinamikan sartu behar direla pentsatzen dugu. Goizuetaren kasuan, ordea, euskara nafarraren barretetik atera behar da ertz-ertzean kokatzeko, gaur den egunean, muga baitago, eta ez (erabat) euskara nafarrean: bertako euskararen norabidea ez bada aldatzen, eta ez du iduri, Gipuzkoa aldeko solasak gero eta hurbilago (izanen) ditu, eta Nafarroa aldekoak, aldiz, gero eta urrunago.

Hizkeraren norabidearen garrantziaz ari garelarik, Oronoz-Mugairiko euskararen kasua, zinez, berezia delakoan gaude: tesi honetan frogatu uste dugun bezalaxe, Oronozko solasa mugakoa da. Aldakortasuna ez dago hiztun bakoitzaren baitan (bakarrik), baizik eta Oronoz-Mugairi osatzen duten euskaldun guzien artean. Lehia hau ekialdetikoa *irabazten* ari dela ikusi dugu. Hala ere, baztandarrentzat oraindik bada diferentzia, eta artean Bidasoaldeko hizkeren antz handia du. Baztan-Bidasoa ibaiak daramatzen bi ur korrante nagusiak herri honetan elkartzeko dira: Baztan ugaldoko mintzoa eta Bidasoa erreko solasa. Baztan-Bidasoa deitura bikoitzak Oronoz-Mugairin hartzen du egiazko izatea.

Estibalitz Montoyak, Urdazubiko eta Zugarramurdiko hizkera Ipar Euskal Herriko mintzoetatik aldentzen ari dela diosku, bere tesian (2004) nola «Urdazubi

eta Zugarramurdiko euskararen norabidea» izeneko artikuluan (2004b). Orobat, bi herri hauetako euskarak Hego Euskal Herriko dinamika sozio-espazialak gero eta hurbilago ditu, ondoko hizkera nafarren nahiz euskara batuaren bitartez. Garai batean, Baztanek ere Ipar Euskal Herriarekin zituen harremanak azkarragoak ziren. Eta ondorioz, bertako euskarak —bereziki, Baztangoizakoak— nafar-lapurterarekin lotura gehiago ageri zituen. Gaur den egunean, ordea, Baztan Hego Euskal Herriko —Nafarroako— hizkeren dinamika bertsuan dakusagu: euskara nafar-lapurtarrak dituen ezaugarrietatik, Baztanen gehienak gibelka eta indarge ari dira. Nafarroako (eta Hego Euskal Herriko) gainerako hizkerekin ageri dituen loturak, aldiz, emankorrek eta bizkorrek dira.

### 10.6. Ipar Euskal Herria aztertu beharraren garrantziaz

Zorigaitoz, dialektologia afera hauei dagokienez, oraindik ez dakigu sobera ongi zer gertatzen den mugaren bertze aldean. Ziurrenik, errateko moldeak berak salatu izanen gaitu, aitor dugu, gauzak «mugaren bertze aldetik» ikusten baititugu; nahiz eta guk geuk muga inguruko hizkera lapurtarrak eta baxenafarrak zerbaixko ezagutzen ditugun. Eginahalak egin ditugula uste dugu. Haatik, gehiago egin ote zitekeen zalantza deserosoa barrenean ibili zaigu behin baino gehiagotan. Alabaina, sentsazio horrek astindu gaituenetan, bertze argudio gisako bat —nork bere burua estimatzeko edo konbentzitzeko, apika— etorri izan zaigu segidan: gure lanaren geografia dimentsioak Baztan-Bidasoa besarkatzen du. Ez gehiago, ez gutiago. Gure xaharrek ere erraten dute gauzak *neurrian* egin behar direla. Halaxe jokatzera saiatu gara gu ere: Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoaren neurrian.

Neurri edo izari honetan, Ipar Euskal Herriko mintzoak ongi ezagutzeak badu bere garrantzia, bereziki, Baztan-Bidasoarekin muga egiten duten eremuetako mintzoak. Halarik ere, aitor dugu, dialektologikoki Ipar Euskal Herria hobeki ez ezagutzeak gure xede kontrastiboa apaldu du inoiz.

Laguntzaileak, berriemaileak nahiz goitiago zerrendatu ditugun guziak gorabehera, Euskal Dialektologian deus guti dakigu, adibide argi bat paratzeagatik, Hendaiak eta Hondarribiak elkarren artean izan ditzaketen kidesunez eta ezberdintasunez. Pentsatzekoa da, Txingudiko Badia elkarbanatzen duten bi herri hauen artean, bertze zenbait gauza ere konpartituko dituztela, duela ez gehiegi arte Bidasoaren alde banatan zegoen hizkuntza nagusiaren alorrean. Edozein kasutan ere, azterketa linguistiko zehatzagoak egin bitarte, honako intuizio aprioristikoekin gelditu beharko dugu. Eta gelditu erran dugu, intuizio honek ez baikaitu asetzen. Horra non dagoen ikerketa zinez interesgarria abiatzeko lerro bat.

Oro har, euskalkien mapari begira, Ipar Euskal Herriko hizkerak deskribatu eta aztertu behar dira, noizbait, Europako hainbertze tokitan burutua dutena eginen baldin badugu. Egia da, bertze alde, Euskararen Herri Hizkeren Atlasas aspaldian dela abian, baina iduri du atlas honek ekarriko dituen emaitza eta ondorio interesga-

rrien zain egon beharko dugula denbora batez. Bitartean, bertzelako lan batzuk ere egiten ari dira hor-hemenka: tokian tokiko monografiak, ikuspegi areala eskaintzen duten azterketak, doktorego-tesiak, diakronia eta sinkronia uztartzen dituzten lan interesgarriak eta abar. Ikerlan honek, alde horretatik, euskalkien mapa osatzeko eta berresteko behar diren pieza guzien artean, bertze pieza bat izan nahi du, Baztan-Bidasoako hizkeren gainean argia egiten duena, hain zuzen.

### 10.7. Koloreen eta ñabarduren garrantziaz

Baztango euskarak koloreak eta ñabardurak badituela ikusi dugu; are gehiago, kolore eta ñabardura hauek, edo hauetatik batzuk bederen, sistematizatu ahal izan ditugu. Bortzerrietako euskaraz den bezainbatean, Berak eta Etxalarrek Ipar Euskal Herriko herriekin bat egiten dute zenbait ezaugarritan, gainerako Lesaka, Igantzi eta Arantza herrietatik aldentuz. Halaber, Bertizaranako euskarak koloreak eta ñabardura zehatzak ditu: Oieregi aldameneko Oronoz-Mugairirekin bat heldu da behin baino gehiagotan. Eta, jakina, Malerrekako euskarak ere baditu bere gora-behera linguistikoak: zenbait aldiz, Zubietako euskara Malerrekako gainerako herrietatik aldentzen da, Basaburu Txikikoekin bat eginez.

Gaude, dialektologia ñabardura hauek Baztan-Bidasoako hizkerak dialektologikoki aztertu izanak ekarri dituela. Beraz, eta hauxe da adierazi nahi duguna, eremu bateko hizkerak eta mintzoak aztertu ahala, direlako kolore eta ñabardurak agerian gelditzen dira. Euskal Herriko errealitate linguistikoa zenbat eta hobeki ezagutu, orduan eta kolore eta ñabardura gehiago sumatuko ditugu euskararen herrian. Errealitate dialektala —ez bertzea ere, maiz— ez baita izaten, dialektologialariak nahiago izaten duen bezalakoa, baizik eta hainbat eta hainbat eragilek mendeen joanean marraztu duten bezalakoa. Hortaz, hor-hemenka argitaratuko diren dialektologia lan berriek ñabardurak eta koloreak ekarriko dizkigute, ziurrenik. Euskal Dialektologia urratsak egiten ari den seinale garbienenetako bat.

Zalantza izpirik ez dugu Koldo Zuazoren euskalkien mapa abiapuntutzat hartu beharrekoa dela, edo tresna baliagarritzat, baina inolaz ez akabailatzat: mapa berri horretan ageri diren eremu dialektalak berretsi eta finkatu beharko dira, eta horretarako, oraindik lan franko egin beharra dugu. Irakasle eibartarrak ere halatsu erraten du:

[...] izango dira hutsuneak eta akatsak, baina eginda daude, behintzat, hasierako urratsak. Hasierakoak eginda, lasterrago eta erosoago ibiliko dira ondorengoak. Horixe da helburua (2003: 22).

Arrazoi du Zuazok: lasterrago eta erosoago aritu gara gu ere, azken aldian Euskal Dialektologian argitara eman diren lanei esker. Bertze ikertzaile batzuek ongi errana dutenez, zientzian nola biziaren bertze alor batzuetan aitzinera egin behar da. Eta gauza jakina da aitzinera egiteko denen indarra behar-beharrezkoa dela.

### 10.8. Nafarroako Bidasoaldea eta Baztan, biak euskara nafarrean

Orain arte erran eta aztertu dugunaren ondorioz, Baztan-Bidasoan euskalki bereko bi eremu lektal nagusi dakuskigu: Nafarroako Bidasoaldea eta Baztan, biak euskara nafarrean.

Honako herri eta ibar hauek sartu beharrekotzat ditugu guk Nafarroako Bidasoaldearen multzoan: hegotik iparrera eta mendebaletik ekialdera zerrendatuta, Saldias, Beintza-Labaien, Malerreka, Sunbilla, Bortzerriak, Bertizarana eta, sail honen ertzetik hurbil samar, Baztango Oronoz-Mugairi.

Hizkuntzaren azterketaren arabera, Nafarroako Bidasoaldeak lau trantsizio-gune nagusi ditu: (i) Zubietan hasi eta bereziki Basaburu Txikiko ipar-ekialdean dagoen aldakuntza-giroa; (ii) (Bortzerrietan zerbaixko hasi eta bereziki) Gipuzkoako Bidasoaldean eta, apalago, Oiartzunen dagoena; (iii) Nafarroako Bidasoaldearen barreneko trantsizio apala den Sunbilla; (iv) Oieregin hasi eta bereziki Oronoz-Mugairin dagoena.

Alde batetik, Louis Lucian Bonapartek deitutako «Subdialecto de las Cinco Villas» delakotik Ezkurra eta Eratsun atera ditugu gure Bidasoaldeko multzotik, nahiz eta Eratsunek Saldiasekiko kidesasun zenbait ere ageri dituen (herri honek bere-berezko azterketa merezi duelakoan gaude).

Bertze aldetik, Koldo Zuazok izendatutako «ipar-sartalde»tik Goizueta atera dugu euskara nafarraren ertz-ertzearaino eramateko eta Saldias, berriz, eremuaren barrenean kokatu Beintza-Labaienen ondoan. Gure azterketaren arabera, XXI. mendearen hasiera honetan, Goizueta ez baitago sarturik multzo nafar honetan, Gipuzkoaren eta Nafarroaren arteko trantsizio betean baizik. Eta, egia bada ere Saldias eta Beintza-Labaien ere trantsizio beraren soka daudela, azken bi herriok Malerrekako euskara hurbilsko dute, Goizuetak (Bortzerrietakoa edo Malerrekakoa) ez bezala.

Hizkuntzaren tasunek erakutsi bezala, Goizueta eta ondoko eskualde nafarrak ez daude dinamika geolinguistikoa berean. Aise nafarrago ageri zaigu Nafarroako Bidasoaldea Goizueta baino. Hori dela eta, hain zuzen, bertze proposamen bat ere egin nahi dugu, izenak eta izanak uztartu nahian: Saldias ingurutik Oronoz-Mugairiraino hedatzen den aldaera dialektalari Nafarroako Bidasoaldea izendatzea. Lanean zeharreko argudio geolinguistikoez gainera, izendapen honen aldeko bertze lau arrazoi —abantaila— ere ikusten ditugu:

1. Tradizioa: Bidasoaldea ez da atzo goizeko izena, tradizio luzea baitu. Beraz, ez gara deus berririk asmatzen ari, baizik eta tradizio mintzatuan nola idatzian dagoena jasotzen.
2. Nortasuna: Bidasoaldeak badu bere nortasuna. Eta, gure ustez, izenen lehenbiziko eginbeharretako bat horixe da: nor/zer den adieraztea.
3. Identifikazioa: Bertakoek ere erraz aski onartzen duten izena da. Nolabaiteko identifikazioa badago, beraz .

4. Konkrekzio geografikoa: Bidasoaldea erratearekin, oro har, jendeak badaki nondik nora ari garen.

Nolabait, Baztan-Bidasoa hain ederki ezagutzen zuen Luis de Uranzurekin bat heldu da gure ondorio-proposamena:

Villa de Labayen. Este pueblo marca el límite, por la parte de Santesteban, de la comarca bidasotarra. De atenernos meramente a la geografía del país, sin tener en cuenta los motivos étnicos que dan uniformidad a una región, ensancharíamos aún más el perímetro que abarca la cuenca del Bidasoa, incluyendo al pueblo de Saldías (1955: 60).

Guk ere, dialektologialariak egin beharreko taxonomia lanetan, Bidasoalde dialektala Saldiaseraino zabaldu dugu.

Bertze alde, Koldo Zuazoren maparen arabera, Nafarroako euskararen erdiguneko azpieuskalkitik ipar-sartaldekoa, Lizasotik Berara Bonaparteren hitzetan, alde lektal (aise) gutiago behar luke erdiguneko Ultzamatik Baztanera baino: ipar-sartaldekoa eta erdigunea euskara nafarraren –dialekto beraren– azpieuskalkiak diren neurrian. Gauza jakina baita Zuazok Baztan tarteko hizkeratzat duela, hain zuzen, euskara nafar-lapurttarraren eta Nafarroa Garaikoaren tartekotzat (2003). Alabaina, 9.5. puntuan azaldu denez, (aise) kidetasun gehiago eta garrantzizkoagoak dituzte Ultzamak eta Baztanek (vs. Bidasoaldea), ezen ez Ultzamak eta Bidasoaldeak (vs. Baztan). Hots, Ultzama eta Baztan elkarrengandik hurbilago daude, Ultzama Bidasoaldea elkarrengandik dauden baino.

Hortaz, Baztan tarteko hizkera izatera eta Bidasoaldea nahiz Ultzama euskara nafarraren bi azpieuskalki, ezingo litzateke inolaz ere gertatu arestiko konparaketa. Kontua bertzelakoa da, ordea, Baztango gaurko mintzoa ez baita trantsizio betekoa: Ipar Euskal Herriarekin zituen loturak ahulduak ditu; ez, ordea, Nafarroarekikoak. Dagoeneko nafartua da Baztango solasa; eta are nafarrago bihurtzera joko du denboraren poderioz.

Baztango euskara Hego Euskal Herrian kokatzeko arrazoi nagusietatik bat, Koldo Zuazok berak eskaintzen digu bertze lan batean, dialektoak sailkatzeko irizpideak jorratzen ari dela:

Eta dialektoak sailkatzen dihardugunean, ezin gara adin handikoen hizkera-  
ra mugatu. Helduena eta gazteena ere kontuan hartu behar dugu, eta adin handikoen hizkeran dauden arauak gazteen jardunean ere bizirik ote dauden begiratu. Bizirik dauden horiek dira, hain zuzen, dialektoak sailkatzeko lehentasuna dutenak (2006: 103).

Egun, nekez adieraziko bailuke inork Anizko, Gartzaingo edota Arizkungo gazteen solasa Ipar Euskal Herriaren eta Hego Euskal Herriaren tartean dagoenik. Ez solasa, eta ez bizimodua bera ere. Hau ikusi edo entzun nahi duenak aski du Baztan aldera itzulixka bat egitea. Halaber, Goizuetako gazteen hizkera arruntetik ondoko Arantzakoengana dagoen aldea nabarmen-nabarmena da: berriz diogu, hizkeraz nafarra den Bidasoaldea eta Goizueta ez baitaude dinamika berean.

Berebat, Iñaki Caminok azken urteotan Nafarroako hizkerak landu edo aztertu dituzten ikerleen lanak gogoan hartuta, euskara nafarraren borts ezaugarri espezifikoa eta 34 ezaugarri supradialektal bateratzaile zerrendatu berri ditu (2009). Euskal Dialektologian erabili eta onetsiak diren 39 ezaugarri hauek euskara nafarra determinatzaile laguntzen dute (Camino 1997, 2004; Erdozia 2001; Ibarra 1995, 2000; Montoya 2004; Olano 1998; Perurena & Zubiri 1998; Zelaieta 2004-2005; Zuazo 1998, 1998b, 2003). Finean, gogora ekar dezagun azkenekoz Dialektologiaren aitatzat ohi den Ascoli, hizkuntzaren ezaugarri batzuen konbinazioaz ari gara: zenbatez ezaugarri gehiago bildu mintzo batek, orduan eta nafarrago agertuko da delako mintzoa<sup>98</sup>.

Gauzak sobera ez luzatzeagatik, gure hondar ariketaren emaitza emanen dugu; beraz, argibide gehiago nahi duenak jo beza Iñaki Caminoren lanera:

	<b>Leitza</b>	<b>Goizueta</b>	<b>Saldias</b>	<b>Sunbilla</b>	<b>Bortzerriak</b>
Tasun (5) Esklusiboak	1	2	4	4	4
Ezaugarri (34) Supradialektal Bateratzaileak	10-11	12-13	24-25	30	28

	<b>Legasa</b>	<b>Oronoz- Mugairi</b>	<b>Baztango Basaburua</b>	<b>Baztan- goiza</b>	<b>Ultzama</b>
Tasun (5) Esklusiboak	4	4	3	3	5
Ezaugarri (34) Supradialektal Bateratzaileak	31	32	34	33	34

Azkenaldiko Euskal Dialektologian erabilitako datuon arabera: nafartasuna neurtzeko indize eskusiboetan, (i) Ultzama gendike hizkerarik nafarrena, (ii) Bidasoaldea, (iii) Baztan, (iv) Goizueta eta (v) Leitza. Halaber, ezaugarri bateratzaileei dagokienez, (i) Ultzama eta Baztango Basaburua, (ii) Baztangoiza, (iii) Oronoz-Mugairi, (iv) Bertizarana-Malerreka, (v) Sunbilla, (vi) Bortzerriak eta (vii) Saldias genituzke batetik; bertetik, berriz, arestikoengandik nabarmen aldentuta, (i) Goizueta eta (ii) Leitza.

Oro har, Ultzama gendike euskara nafarra definitzeko hautatu eta onartutako ezaugarri gehien betetzen dituen gunea, ariketaren arabera. Bertzela erranda, Ultzama gendike hizkerarik nafarrena. Aski zentzuzkoa ematen duena, bertze alde, Ultzama Nafarroaren erdialdean baitago eta hiriburu Iruñetik hurbil.

<sup>98</sup> Eskertzekoa litzateke euskal dialektologoen arteko kontsentsua handiagoa izatea, bertzeak bertze, halako aferak foru komun batean lasai eztabaidatzeko: adibidez, zenbat ezaugarri bete behar ditu hizkera batek nafartzat har dezagun? Tamalez, zientzian hain beharrezkoa ohi den talde-lana egiteko girorik ez dugu sumatzen egun, ikertzaile zenbaitzuek bertzelako interes batzuk ageri dituzte eta.

Berriz ere, Goizueta ez-nafar ageri da Bidasoaldearen ondoan, eta Baztan euskara nafarraren barrenean.

### 10.9. Eremu lektalen estatusaz

Elizondoko Gabriel Imbuluzqueta kazetari-ikertzaileak, bere «Navarra-Etnografia» lana aurkeztu berrian, hala erantzun dio Diario de Navarrako irakurle bati (2005/10/29):

Existen dos Navarras (montaña y ribera o no somos tan distintos como pudiera parecer)?

Existen más de dos Navarras: la del Baztan es diferente a la del Bidasoa, a la de Ulzama o a la de Basaburua y una demostración es el uso dialectal del euskera en cada zona. Aunque las diferencias entre los dialectos no sean tan grandes como para no entenderse.

Hala ere, ez dugu uste Baztanen, Bidasoaldean, Ultzaman edo Basaburu Nagusian euskalki banatan aritzen diren bertako euskaldunak. Zein da, beraz, Bidasoaldeko eta Baztango aldaera lektalei dagokien estatusa?

Literaturari begiratu bat emanez gero, Bonaparterenganik hasita eta Zuazoren maparaino joanez, Bidasoaldean nahiz Baztanen ditugun hizkerak bi azpieuskalki genituzke. Halaber, guk azertu ditugun datuen arabera, Bidasoaldean euskara nafarraren azpieuskalki bat eta Baztanen euskara nafarraren bertze azpieuskalki bat ageri dira: Bidasoaldeari nortasun berezia ematen dioten tasunak ikusi ditugu, baita Baztani nortasun berezia aitortzen diotenak ere. Eta, eremu bakoitza banatzen duten ezaugarriak aurkeztu baldin baditugu ere, aldaera bakoitzak erakusten duen barreneko batasunak azpieuskalkiaren maila ematen die. Beraz, Bidasoaldeko eta Baztango hizkerak euskara nafarraren bi azpieuskalki dira, gure iritziko.

### 10.10. Euskal Dialektologiako eztabaida aberasten: gure proposamenak

Hona hemen, Euskal Dialektologian beharrezko ikusten dugun eztabaida aberasteko asmoz, gure proposamen arealak kartografiaren bidez: (i) Baztan-Bidasoako (eta inguruko) hizkeren egitura geolinguistikoa eta (ii) Bidasoaldeko eta Baztango azpieuskalkiak gaurko euskara nafarrean.

Honaino iritsia den lan honek hutsuneak eta akatsak izanen dituela jakinda, desio bat adierazi nahi dugu: honen ondotik heldu direnek zuzen dezatela gure gaizki egina.

Bukatzeko, Baztango Udalak, Bortzerrietako Euskara Mankomunitateak eta Malerrekako Mankomunitateak *Ongi etorri! Hemen euskaraz bizi gara* izeneko zabal-kunde-argitalpenean adierazia dutenez, «Euskara eskualde honetako herrien balore kulturala da, beren nortasunaren eta bizimoduaren elementu garrantzitsua [...] Guk halaxe ulertzen dugu gure garapena, gure nortasunean oinarritua». Errana da, beraz.



### Baztan-Bidasoako (eta inguruko) hizkeren egitura geolinguistikoa



**Bidasoaldeko eta Baztango azpieuskalkiak, gaurko euskara nafarrean**





# BIBLIOGRAFIA

---

## Dialektologia orokorra

- ALARCOS, E. 1976. *Fonología española*. Gredos. Madril.
- ALVAR, M. 1973. *Estructuralismo, geografía lingüística y dialectología actual*. Gredos. Madril.
- 1991. *Estudios de geografía lingüística*. Paraninfo. Madril.
- BALDINGER, K. 1972. *La formación de los dominios lingüísticos en la Península Ibérica*. Gredos. Madril.
- BRITAIN, D. & CHESHIRE, J. (arg.). 2003. *Social Dialectology. In honour of Peter Trudgill*. Impact. Amsterdam & Filadelfia.
- BUTLER, G. R. 1988. «Variation and the Study of Communicative Competence» in A. R. Thomas, (arg.). *Methods in Dialectology*. Multilingual Matters LTD. Clevedon. Filadelfia. 11-19.
- CHAMBERS, J. K. & TRUDGILL, P. 1980. *Dialectology*. Cambridge University Press. Cambridge.
- CHAMBERS, J. K. 1991. «Sociolinguistic Dialectology» in D. R. Preston (arg.). 1993. *American dialect research*. John Benjamins. Amsterdam & Filadelfia. 133-164.
- CHESHIRE, J. 1982. *Variation in an English dialect: a sociolinguistic study*. Cambridge University Press. Cambridge.
- COSERIU, E. 1977. *El hombre y su lenguaje: estudios de teoría y metodología lingüística*. Gredos. Madril.
- 1978. *Sincronía, diacronía e historia. El problema del cambio lingüístico*. Gredos. Madril.
- FISCHER, J. L. 1958. «Social influences on the choice of a linguistic variant». *Word* 14. 47-56.
- FRANCIS, W. N. 1983. *Dialectology: An introduction*. Longman Group Limited. London.
- GARCÍA MOUTON, P. 1990. «El estudio del léxico en los mapas lingüísticos» in F. Moreno (arg.). *Estudios sobre variación lingüística*. Universidad de Alcalá de Henares. 27-75.
- GIMENO, F. 1990. *Dialectología y sociolingüística españolas*. Universidad de Alicante. Alicante.

- GOEBL, H. 1983. «Parquet polygonal et treillis triangulaire: les deux versants de la dialectométrie interponctuelle». *Revue de Linguistique Romane* 47. 353-412.
- 1992. «Problèmes et méthodes de la dialectométrie actuelle (avec application à l'AIS)» in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.). *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7. Euskaltzaindia. Bilbo. 429-475.
- 2002. «Analyse dialectométrique des structures de profondeur de l'ALF». *Revue de Linguistique Romane* 66. 5-63.
- GUTIÉRREZ, J. 1982. «Joaquín Costa y la dialectología hispánica», *Senara* 4. 27-57.
- HAENS, G. 1962. «Algunos caracteres de las hablas fronterizas catalano-aragonesas del Pirineo (Alta Ribagorza). Contribución al estudio del problema de los dialectos llamados de transición». *Orbis* 11. 75-110.
- HERNÁNDEZ, M. 1999. *Geolingüística. Modelos de interpretación geográfica para lingüistas*. Universidad de Murcia.
- HJELMSLEV, L. 1972. «Una introducción a la lingüística» in *Ensayos lingüísticos*. Gredos. Madrid. 20-22.
- JORDAN, I. 1967. *Lingüística románica*. Ediciones Alcalá. Madrid.
- IVIĆ, P. 1962. «On the Structure of Dialect Differentiation». *Word* 18. 33-53.
- LABOV, W. 1966. *The Social Stratification of English in New York City*. Center for Applied Linguistics. Washington.
- 1983 [1972]. *Modelos sociolingüísticos*. Cátedra. Madrid.
- LE PAGE, R. B. 1980. «Projection, focusing, diffusion or steps towards a sociolinguistic theory of language». *York Papers in Linguistics* 9. 9-33.
- LÁZARO CARRETER, F. 2003. *El nuevo dardo en la palabra*. Ediciones Aguilar. Madrid.
- MARTÍNEZ, J. 2006 [1996]. «Las hablas asturianas» in M. Alvar (zuz.). *Manual de dialectología hispánica. El Español de España*. Ariel Lingüística. Madrid. 119-133.
- MELIS, L. et alii. 1989. «La notion de dialecte supralocal: essai de définition dialectométrique». *Orbis* 33. 70-132.
- MILROY, L. 1980. *Language and Social Networks*. Blackweel. Oxford.
- MONTES, J. J. 1982. *Dialectología general e hispanoamericana*. Publicaciones del Instituto Caro y Cuervo. Bogota.
- 1986. «Dialectología y sociolingüística: algunas ideas sobre sus interrelaciones». *Lingüística Española Actual* 8. 133-141.

- MORENO, F. 1990. *Metodología sociolingüística*. Gredos. Madril.
- PRESTON, D. R. 1988. «Change in the perception of language varieties» in J. Fisiak (arg.). 1988. *Historical dialectology. Regional and social*, Mouton de Gruyter. Berlin, New York & Amsterdam. 475-504.
- 1989. *Perceptual dialectology: nonlinguist's views of areal linguistics*. Foris. Dordrecht.
- RECASENS, D. 1985, «Contribució a l'estudi de las àrees dialectals de transició». *Actes del XVI Congrés Internacional de Lingüística i Filologia Romàniques (Palma de Mallorca, 1980)*. Moll. Palma de Mallorca. 539-555.
- SALVADOR, G. 1987. *Estudios dialectológicos*. Paraninfo. Madril.
- SÉGUY, J. 1973. «La dialectométrie dans l'Atlas linguistique de la Gascogne». *Revue de Linguistique Romane* 37. 1-24.
- SILVA-CORVALÁN, C. 1988. *Sociolingüística. Teoría y Análisis*. Alhambra Universidad. Madril.
- THOMAS, A. R. (arg.). 1988. *Methods in Dialectology*. Multilingual Matters LTD. Clevedon. Philadelphia.
- TRUDGILL, P. 1972. *The Social Differentiation of English in Norwich*. Cambridge University Press. London.
- 1974. «Sex, covert prestige and linguistic change in the urban British English of Norwich». *Language in Society* 1. 179-195.
- 1983a. *On Dialect*. Blackwell. Oxford.
- P. 1983b [1974]. *Sociolinguistics: An Introduction to Language and Society*. Penguin. London.
- 1986. *Dialects in Contact*. Blackwell. Oxford.
- 1990. *The Dialects of England*. Blackwell. Oxford.
- VENY, J. 1985. *Introducció a la dialectologia catalana*. Enciclopèdia Catalana. BarCELONA.
- 1992. «Fronteras y áreas dialectales» in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.). *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7. Euskaltzaindia. Bilbo. 197-245.
- VIAPLANA, J. 1996. *Dialectologia*. Universitat de València. Valentzia.
- ZAMORA, A. 1989 [1967]. *Dialectología española*. Gredos. Madril.

## Euskal Dialektologia

- AGIRRETXE, J. L., LERSUNDI, M., & OLAETXEA, O. 2000. *Pasaiako hizkera*. Pasaiaiko Udala. Pasaia.
- AGIRRETXE, J. L. & ESNAOLA, I. 2000. *Lezoko euskararen azterketa*. Lezoko Unibertsitateko Udala. Lezo.
- AURREKOETXEA, G. 1992. «Nafarroako euskara: azterketa dialektometrikoa». *Uztaro* 5. 59-109.
- 1995. *Bizkaieraren egituraketa geolinguistikoa*. EHU. Bilbo.
- AZKUE, R. M. 1925. *Morfología vasca*. La Gran Enciclopedia Vasca. Bilbo.
- 1931. «Particularidades del dialecto roncalés». *Euskera* 12. 207-406.
- BONAPARTE, L. L. 1869. *Le verbe basque en tableaux*. Londres. Berrarg. in Euskaltzaindia. *Opera omnia vasconice I*. 1991. Bilbo.
- 1877. «Observations sur le basque de Fontarrabie, d'Irun, etc.». *Actes de la Société de Philologie*. 149-191.
- 1881. «Observaciones acerca del vascuence de Valcarlos». *Revista Euskara* 4. 161-166.
- CAMINO, I. 1994. «Abiaburu bat aezkeraren azterketarako», in R. Gómez eta J. A. Lakarra (arg.), *Euskal dialektologiako kongresua (Donostia, 1991-ko irailaren 2-6)*, ASJU-ren gehigarriak 28, Gipuzkoako Foru Aldundia, Donostia, 59-160.
- 1997. *Aezkoako euskararen azterketa dialektologikoa*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- (arg.) 1998. *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. UEU. Bilbo.
- 1998b. «Zer dago dialektologiaren gibelean», in *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. UEU. Bilbo. 111-145.
- 1999. «Goñerriko hizkera (I)». *ASJU* 33-1. 5-78.
- 2000a. «Goñerriko hizkera (II)». *ASJU* 33-2. 137-196.
- 2000b. «Abiaburu bat Donostiako euskara aztertzeko», in K. Zuazo (arg.), *Dialektologia gaiak*. Arabako Foru Aldundia. Gasteiz. 51-81.
- 2003. «Hego-nafarreraren egituraz». *FLV* 94. 427-468.
- 2004. *Hego-nafarrera*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- 2004b. «Nafarroa Behereko euskara». *FLV* 97. 445-486.

- 2004c. «Irizpide metodologikoak egungo Euskal Dialektologian». *Euskera* 49-1. 67-102.
- 2005. «Euskal soziolinguistikaren atarian» in P. Etxeberria & H. Knörr (arg.). *Nerekin yayo nun. Txilardegiri omenaldia*. Iker 17. EHU & Euskaltzaindia. Bilbo. 157-187.
- 2009. *Dialektologiatik euskalkietara tradizioan gaindi*. Elkar. Donostia. (baliatu duguna aurreedizio bat da)
- DUHAU, H. 1993. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara*. Alinea. Donibane Lohizune.
- 2003. *Hasian hasi. Beskoitzeko euskara, «Birdena» edo bigarren partea*. Akoka. Donibane Lohizune.
- EPELDE, I. 2004. «Lapurdikoko hego-ekialdeko euskararen kokapenerantz». *FLV* 96. 271-303.
- ERDOZIA, J. L. 2001. *Sakana erdialdeko euskara*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- FRAILE, I. & FRAILE, A. 1996. *Oiartzungo hizkera*. Oiartzungo Udala.
- GAMINDE, I. 1985. *Aditza ipar goi-nafarreraz* (3 liburuki). UEU. Iruñea.
- 1985b. «Nor-en ahalezko oraina eta «joan», «ibili» eta «egon» aditzen alokutiboak». *FLV* 46. 215-263.
- 1994. «Nafarroako menperagailuez». *FLV* 66. 227-250.
- 1996. «Lesakako azentu eta intonazioaz». *FLV* 71. 45-70.
- 1998. «Nafarroako azentu ereduen sailkapena» in I. Camino (arg.). 1998. *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. 23-48.
- GAMINDE, I & HUALDE, J. I. 1995. «Euskal azentu-ereduen atlasarako: zenbait isoglosa». *ASJU* 29-1. 175-198.
- HEATH, J. 1972. «Genitivation in Northern Basque Complement Clauses». *ASJU* 6. 46-66.
- HUALDE, J. I. 1997. *Euskararen azentuerak*. *ASJU*-ren gehigarriak 42. Gipuzkoako Foru Aldundia & EHU. Donostia & Bilbo.
- IBARRA, O. 1995. *Ultzamako hizkera. Inguruko euskalkiekiko harremanak*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- 2000. *Erroibar eta Esteribarko hizkera*. Nafarroako Unibertsitate Publikoa. Iruñea.
- 2007. *Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia. Bilbo.



- IÑIGO, P., SALABERRI, P & ZUBIRI, J.J. 1995. «-Ki aditz-atzizkiaren gainean». *FLV* 69. 243-295.
- IRIGOYEN, A. 1978. «Erakusleez». *Euskera* 24-2. 713-735.
- KAMINO, P. & SALABERRI, P. 2007. *Luzaideko Euskararen Hiztegia*. Nafarroako Gobernu & Euskaltzaindia. Bilbo.
- LACOMBE, G. 1971-72. «Notes sur le basque des Aldudes. Noms de maisons, mots et récits populaires». [J.M. Barandiaran arg.] *Anuario de Eusko Folklore* 24. 25-44.
- LAFITTE, P. 1962. *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire)* (2.arg.). Amis du Musée Basque et Ikas. Baiona.
- LARRAMENDI, M. 1745. *Diccionario trilingüe del castellano, bascuence y latín*. Donostia.
- LETAMENDIA, J. A. & SAGARZAZU, T. 1992. «Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)» in G. Aurrekoetxea & X. Videgain (arg.). *Nazioarteko Dialektologia Biltzarra. Agiriak*. Iker 7. Euskaltzaindia. Bilbo. 497-533.
- MITXELENA, K. 1950. «En torno a algunos aspectos del habla de Renteria (Guipúzcoa)». *BAP* 6. 89-94.
- 1972. «A note on old Labourdin accentuation». *ASJU* 6. 110-120.
- 1976. «La fragmetación dialectal: conocimientos y conjeturas». *Revista Española de Lingüística* 6. 309-324.
- 1977. *Fonética Histórica Vasca* (2.arg.). Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- 1981. «Lengua común y dialectos vascos». *ASJU* 15. 291-313.
- 1990 [1963]. *Lenguas y protolenguas*. *ASJU*ren gehigarriak, 20 Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.
- MONTOYA, E. 2004. *Urdazubi eta Zugarramurdiko euskara*. Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- 2004b. «Urdazubi eta Zugarramurdiko euskararen norabidea», *FLV* 96. 249-267.
- MOUTARD, N. 1975. «Étude Phonologique sur les Dialectes Basques». *FLV* 19. 5-42 eta *FLV* 20. 141-189.
- NAFARROAKO GOBERNUA. *Nafarroako euskara eta bere euskalkiak*. 2003. Iruñea.
- N'DIAYE, G. 1970. *Structure du dialecte basque de Maya*. Mouton. The Hague-Paris.

- OLANO, M. 1998. *Areso eta Leitzako hizkerak*. Nafarroako Gobernua & Leitzako eta Aresoko Udalak. Iruñea.
- OÑEDERRA, M. L. 1990. *Euskal fonologia: palatalizazioa. Asimilazioa eta hots sinbolismoa*. EHU. Leioa.
- PAGOLA, R. M. 1992. *Euskal fonetika Nafarroan* (2 liburuki). Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- SAGARZAZU, T. 1994. «Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak: Larramendi, Bonaparte, Azkue», in R. Gómez & J. A. Lakarra (arg.). *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJUren gehigarriak* 28. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 589-631.
- 2005. *Hondarribiko eta Irungo euskara*. Alberdania, Hondarribiko Udala & Irungo Udala. Irun & Zarautz.
- SALABERRI, P. 1996. «Iruñea: toponimia eta hizkuntza», in *Iruña eta euskara*. Iruñeko Udala. Iruñea. 21-44.
- 2000. «Luzaideko euskara, Mezkirizkoaren eta Aezkoakoaren argitan», in K. Zuazo (arg.) *Dialektologia gaiak*. EHU & Arabako Foru Aldundia. Gasteiz. 221-259.
- 2002. «Acerca del euskera de Pamplona y sus alrededores», in A. Garcia Sanz Marcotegui (arg.) *La comarca de Pamplona. Territorio, economía, sociedad e historia*. Iruñerriko Mankomunitatea. Iruñea. 225-241.
- SALABURU, P. (arg.) 1980. *Baztango euskalkiaz (1)*. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- 1984. *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia* (2 liburuki). EHU. Bilbo.
- 1991. «Baztango hizkeraz ohar batzuk». *Euskera* 36-3. 915-921.
- 1996. «Baztango hizkeraz hitz pare bat» in M. Izeta 1996. *Baztango hiztegia*. Nafarroako Gobernua. Iruñea. 15-22.
- SALABURU, P. & LAKAR, M. (lag.). 2005. *Baztango mintzoa: gramatika eta hiztegia*. Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia. Bilbo.
- SAROIHANDY, J. 1925. «El vascuence en el Collège de France». *RIEV* 16. 524-528.
- SATRUSTEGI, J. M. 1981. «Bidasoaldeko zenbait berezitasun». *Euskera* 26. 35-41.
- SCHUCHARDT, H. 1992 [1922]. «Sobre el vascuence de Sara (Labort)». *Euskera* 37-1. 253-292.

- YRIZAR DE, P. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca*. 2 liburuki. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia.
- 1992. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki). Euskaltzaindia & Nafarroako Gobernu. Iruñea.
- 1997. *Morfología del verbo auxiliar labortano*. Euskaltzaindia & EHU. Bilbo.
- 2001. *Memorias de un vascólogo. Mis relaciones con lingüistas y colaboradores*. RSBAP. Madril.
- ZELAIETA, E. 2002. «Bortzerrietako eta Bertizaranako euskara XVIII. eta XIX. mendeetako testu batzuen argitarara». EHUko 2000-2002ko doktorego-programan defendatutako ikerlan argitaragabea.
- 2004. «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (I)». *FLV* 96. 223-248.
- 2005. «Bortzerrietako euskara, herriz herri (ez)berdintasunetan barrena (II)». *FLV* 99. 287-306.
- ZUAZO, K. 1987. «Euskaldunek euskalkienganako izan dituzten jarrerez». *ASJU* 21-3. 927-950.
- 1988. *Euskararen batasuna*. Iker 5. Euskaltzaindia. Bilbo.
- 1994. «Burundako hizkera» in *Euskal dialektologiako kongresua (Donostiako 1991eko irailaren 2-6)*, Gomez, R. & Lakarra, J.A. (arg.). *ASJU*ren gehigarriak 28. Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia. 297-364.
- 1997. «Oiartzungo hizkeraren kokagunea». *FLV* 76. 397-425.
- 1998. «Euskalkiak gaur». *FLV* 78. 191-234.
- 1998b. «Nafarroako euskal hizkerak», in I. Camino (arg.) *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak*. UEU. Bilbo. 1-22.
- 1999. «Baigorriko euskara kokatzeari buruz». *Lapurdum* 4. 247-277.
- 2000. *Euskararen sendabelarrak*. Alberdania. Irun.
- (arg.) 2000. *Dialektologia gaiak*. EHU & Arabako Foru Aldundia. Vitoria/Gasteiz.
- 2003. *Euskalkiak, Herriaren lekukoak*. Elkar. Donostia.
- 2006. *Deba ibarreko euskara. Dialektologia eta tokiko batua*. Badihardugu. Deba Ibarreko Euskera Elkartia.

- ZUBELDIA, K. 2003. *Urruñako euskararen fonetika eta fonologia*. Bordeleko Unibertsitateko doktorego-programako ikerlan argitaragabea.
- ZUBIRI, J. J. & PERURENA, P. 1998. *Goizueta eta Aranoko hizkerak*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- ZUBIRI, J. J., 2000, «Arano eta Goizuetako hizkera», in K. Zuazo (arg.) 2000, *Dialektologia gaiak*, EHU & Arabako Foru Aldundia, Gasteiz. 85-120.

## Corpusa

- APALAUZA, A. & LAKAR, M. 2005. *Malerreka solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Nafarroako Gobernua & Malerrekako Mankomunitatea. Iruñea.
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA [EAEL]. 1984-1990. *Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (2 liburuki). Donostia.
- AURREKOETXEA, G. & VIDEGAIN, X. 1993. «Euskal Herriko Hizkuntz Atlas: Galdesorta». *Euskera* 38-3. 529-647.
- AZKUE, R. M. 1989 [1945]. *Euskalerraren yakintza IV* (3. argitalpena). Espasa Calpe & Euskaltzaindia. Madril.
- BARANDIARAN, J. M. 1982-83. «Materiales para un estudio del Pueblo Vasco en Urepel. Año 1948». *Anuario de Eusko Folklore* 31. 9-30.
- CAMPIÓN, A. 1880. *Orreaga. Balada escrita en el dialecto guipuzcoano, acompañada de versiones a los dialectos bizcaino, labortano y suletino y de diez y ocho variedades de la región bascongada de Nabarra desde Olazagutía hasta Roncal*. Librería de Joaquín Lorda. Iruñea.
- 1884. *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara*. Lopez Mendizabal. Donostia.
- ETXAIDE, A. M. 1984. *Erizkizundi Iruikitza. Iker* 3. Euskaltzaindia. Bilbo.
- 1989. *El euskera en Navarra: Encuestas lingüísticas (1965-67)*. Eusko Ikaskuntza. Donostia. *Hizkuntza eta Literatura* 8.
- ETXEBARRIA, J. M. 1983. *Euskal dialektologiarako testo eta ariketak*. El Carmen. Gasteiz.
- 1994. «Las grabaciones de Viena en euskera. Bajo navarro occidental y Bajo navarro oriental». *Mundakiz* 47. 45-75.
- EUSKALERRIA IRRATIA & MUJICA, M. 1990. *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- EUSKALERRIA IRRATIA. 1993. *Nafarroako Euskaldunen Mintzoak (II)*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- EUSKALTZAINDIA. *Euskararen Herri Hizkeren Atlas*. Bilboko Azkue Bibliotekan aditutako grabazioak: Aldude, Aniz, Baigorri, Donamaria, Erratzu, Etxalar, Lekaroz eta Sunbilla.
- HUARTE, J. V. 2003. *Estudio del léxico de la casa en los dialectos vascos de Navarra*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- IDOATE, C. & VILLANUEVA, J. J. 1981. «Unas ordenanzas de Vera en vascuence», *FLV* 37, 275-281.

- IZETA, M. 1996. *Baztango hiztegia*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- LAKAR, M. & TELLETXE, A. 2006. *Baztan solasean. Ahozko tradizioaren bilduma*. Nafarroako Gobernua & Baztango Udala. Iruñea.
- LAKOIZKETA, J.M. 1994 [1888]. *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- LARREA, J. M. & DIEZ DE ULZURRUN, P. 1987. *Nafarroako euskal idazleak (I)*. Pamiela. Iruñea.
- LARREA, J. M. 1995. *Nafarroako euskal idazleak (II)*. Pamiela. Iruñea.
- LEKAROZ, G. 2006. «Antzinako baztanera: XVIII. mendeko prediku argitaragabe bat». *FLV* 101. 69-94.
- INTZA, D. 1922. «Naparroa'ko aditz-laguntzalea zuketazko esakeran». *Euskera* 3. 65-92.
- IRIARTE, N. & LAKAR, M. 2004. *Bortzirietan aditutakoak. Bortzirietako ahozko tradizioa*. Nafarroako Gobernua & Bortzirietako Euskara Mankomunitatea. Iruñea.
- ONDARRA, F. 1982. «Textos en vascuence navarro de Baztán, Nuin y Urdazubi». *FLV* 40. 387-401.
- 1989. «Nafarroako Bertizaranan aurkitutako euskal testuak». *ASJU* 23-3. 701-755.
- 1992. «Oieregiko testu berriak». *ASJU* 26-1. 181-204.
- 1994. «Javier Ramon de Lakoizketa Bertiz-en euskal testuak». *FLV* 65. 349-369.
- OTXANDORENA, T. 1997. «Don Jose Erasun (1821-1894)». *FLV* 74. 93-98.
- PAGOLA, R. M. et alii. 1995. *Bonaparte Ondareko Eskuizkribuak: Iparraldeko Goi-Nafarrera* (3 liburuki). Deustuko Unibertsitatea. Eusko Ikaskuntzen Institutua. Bilbo.
- SALABURU, P. 1986. «Baztango Euskalkiaz: Elizondoko Doktrina bat». *ASJU* 20-3. 817-844.
- 1987. «Baztango Euskalkiaz: Elizondoko beste doktrina bat». *ASJU* 21-2. 453-473.
- SATRUSTEGI, J. M. 1987. *Euskal Testu Zaharrak I*. Euskaltzaindia. Iruñea.
- SATRUSTEGI, J. M. 1997. «Lesaka eta Luzaideko euskal testu partekatuak». *FLV* 74. 99-126.
- TREBIÑO, I. 2000. *Euskarazko testu zibilak administrazioan*. Eusko Jaurlaritza, HAAE/IVAP. Gasteiz.

URRIZOLA, R. 2006. «Tres cartas en euskara escritas por un ferrón de Bera». *FLV* 102. 255-269.

ZAVALA, A. 1970. *Bidasoa aldeko bost bertsolari*. Auspoa. Tolosa.

ZIA TALDEA. 1994. *Berako erranera zaharrak*. Berako Euskara Batzordea.

**Denetarikoak**

- AIERBE, E. (arg.). 1989-91. *Ibaiak eta haranak*, 8. liburukia: Navarra, 10 liburuki. Etor Argitaletxea. Donostia.
- ALTZUGARAI, J. L. et alii. 2006. *Sunbildarrak Ameriketan (1898-1993)*. Diario de Noticias. Iruñea.
- ARBURUA, R. 2005. *Bortzirietako gaztiak (1940-1960)*. Alberdania & Kulturkari. Zarautz.
- ARDAIZ, J. 1980. *Navarra, elementos para su estudio regional*. 2 liburuki. Eusko Ikaskuntza. Donostia.
- ARIZCUN CELA, A. 1988. *Economía y sociedad en un valle pirenaico de Antiguo Régimen: Baztán, 1600-1841*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- ARVIZU, F. 1997. *La solución institucional del conflicto de los Alduides (Pirineo navarro)*. Universidad de León & Nafarroako Gobernua. Leon.
- BARANDIARAN, J. M. 2000 [1950]. *Bosquejo etnográfico de Sara*. José Miguel de Barandiaran Fundazioa. Ataun.
- BIDASOA IKERKETA ZENTROAREN KOADERNOAK. 1998. *Berako historia, 1500-1850*. Zaragozako Unibertsitatea & Berako Herriko Etxea. Zaragoza & Bera.
- 1999. *Lesakako historia, 1400-1830*. Kulturkari & Lesakako Herriko Etxea. Bera.
- 2000. *Bertizko Jaurerria*. Nafarroako Gobernua. Iruñea & Bera.
- 2006. *Bortziriak II. Errepublik inguruan — Baztango Ordenantzak eta Gerra ostea*. Kulturkari. Etxalar.
- CARO BAROJA, J. 1986 [1944]. *De la vida rural vasca (Vera de Bidasoa)*. Txertoa. Donostia.
- 1995. «La casa en Lesaca». *Príncipe de Viana* 206. 597-618.
- CASAS TORRES, J.M. & ABASCAL GARAYOA, A. 1948. *Mercados geográficos y ferias de Navarra*. Institución Príncipe de Viana y Estación de Estudios Pirenaicos. Zaragoza.
- DOUGLASS, W. 1977. «Borderland Influences in a Navarrese Village», in Douglass, W., Etulain, R. & Jakobsen, J. (arg.) *Anglo-American Contributions to Basque Studies: Essays in Honour of Jon Bilbao*. 135-145. Reno.
- ESARTE, P. 1983. *Alduide, corazón de Navarra*. Elizondo.
- 2006. «Baztango bizimoldea bere ordenantzetan barna» (Jose Mari Nuñezek euskaratua) in Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoak. 2006. *Bortziriak II*.



*Errepublika inguruan – Baztango Ordenantzak eta Gerra ostea*. Kulturkari. Etxalar. 129-197.

ESPELOSIN, A. 2005. *Ramon Latasa: Basoko aizkolaria*. Sunbilla.

*Euskararen egoera Baztanen, Bortzerrietan eta Malerrekan*. 1999. Baztango Udala, Bortzerrietako Euskara Mankomunitatea & Malerreka Mankomunitatea.

FAIRÉN GUILLÉN, V. 1955. «Sobre las facerías internacionales en Navarra». *Príncipe de Viana* 61. 507-524.

FORTÚN PÉREZ DE CIRIZA, L. J. 1986. «Organización eclesiástica». *Gran Atlas de Navarra*, 2. liburukia. Nafarroako Aurrezki Kutxa. Iruñea. 138-143.

GARMENDIA, J. 1983. *Artisanos de la regata del Bidasoa: Sumbilla, Aranz y Yanci*. Txertoa. Donostia.

GIL BERA, E. 1994. «Introducción» in J. M. Lakoizketa. [1888] *Diccionario de los nombres euskaros de las plantas en correspondencia con los vulgares, castellanos y franceses y científicos latinos*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.

GORTARI, J. 1975. *Baztan-Bidasoa*. Irakasle Elkarte. Donostia.

GUTIÉRREZ, A. & PAUL, J. 2006. «1930. Berako Galdategian izan zen greba baten argiak eta itzalak» in Bidasoa Ikerketa Zentroaren Koadernoak. 2006. *Bortzerriak II. Errepublika inguruan – Baztango Ordenantzak eta Gerra ostea*. Etxalar.

IÑIGO, A. 1996. *Toponómica histórica del Valle de Santesteban de Lerín*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.

IRIGARAI, A. 1974. *Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra*. Colección Diario de Navarra. Iruñea.

IZETA, M. 1979. «Euskararen giroa Baztanen». *Euskera* 24. 569-572.

JIMÉNEZ DE ABERASTURI, J. C. 1980. «Aproximación a la historia de la comarca del Bidasoa». *Príncipe de Viana* 160-161. 263-410.

JIMÉNEZ, M. 1958. *La población de Navarra*. Instituto Juan Sebastián Elcano. Zaragoza.

KASARES, P. 1999. «Aunitz dakit. Bizitzen badakit. Baztan (Nafarroa), hizkuntzaren antropologiatik aztertua: hizkuntzen kategorizazioa komunitate elebidun batean». *Bat* 30. 79-94.

LASA, X. 2003. «Euskararen erabilera Iruñeko eta Tuterako jarduera pastoralean». *Euskera* 48. 697-768.

LEIZAOLA, A. 1998. «Mugaren eragina hizkuntz jarduera eleanitzean». *Ankulegi* 2. 81-89.

- . 2003. «Eleaniztasunaren erronkak eurohirian: komunikazio etenak eta mugaz gaindiko joera berriak». *BAT* 47. 89-98.
- LISON, C. 1994. «Antropología de la frontera». *Revista de Antropología Social* 3. 75-103.
- MARIN, A. M. et alii. 1993. *Baztan*. Iruñeko Udal Aurrezki Kutxa. Iruñea.
- MERINO, F. J. 1983. *El desarrollo económico de la cuenca del Bidasoa*. EHUko tesi argitaragabea.
- MINDEGIA, P. 1998. «Euskararen egoera Baztan, Bortzerri eta Malerrekan». *Euskera* 43. 375-376.
- MUJKA, S. 1914-17. «El Obispado de Bayona con relación a los pueblos de Guipuzcoa adscritos a dicha diócesis». *RIEV* 8. 184-229.
- PERALES, J. A. 2004. *Fronteras y contrabando en el Pirineo Occidental*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.
- SANTAMARÍA, L. & ONDIKOL, J. M. 2006. *Las cuatro estaciones en el valle de Baztan (y alrededores). Un almanaque personal e intransferible*. Diario de Noticias & Baztango Herri Unibertsitatea. Iruñea & Elizondo.
- SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. 1972. *El estado actual del vascuence en la provincia de Navarra [1970]*. Instituto Príncipe de Viana & Nafarroako Foru Aldundia. Iruñea.
- . 1981. «La Navarra Cantábrica (Malda-Erreka). Estudio antropolingüístico de una comunidad euskaldun». *FLV* 37. 19-97.
- SAN SEBASTIAN, K. 1997. *Los vascos del Pirineo. Historia, leyendas y tradiciones*. Txertoa. Donostia.
- SATRUSTEGI, J. M. 1989. *Antropología y Lengua (Tradición popular, memoria colectiva)*. Iruñea.
- URABAYEN, L. 1926. «Estudios de geografía humana». *RIEV* 17. 289-328.
- URANZU, L. 1955. *Lo que el río vio: biografía del río Bidasoa*. Donostia.
- URKIXO, J. 1908-10. «Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a algunos de sus colaboradores». *RIEV* 4. 233-297.
- . 1932. «Jean Saroïhandy». *RIEV* 23. 503-514.
- URTEAGA, L. 1976. *Guía sentimental del Bidasoa*. Gipuzkoako Aurrezki Kutxa. Donostia.
- YANCI, L. et alii. 2006. *Bortzirietako Artzainak Ameriketan*. Lesakako Udala. Lesaka.

ZUDAIRE, E. 1967. «Facerías de la cuenca Baztán-Bidasoa». *Principe de Viana* 106-107. 61-96.

——— 1991. *Valle de Baztán*. Nafarroako Gobernua. Iruñea.

——— 1992. «Consaguinidad en Baztán, Santesteban y Cinco Villas». *Cuadernos de Etnología y Etnografía de Navarra* 40. 723-75.

\* Manuel Zubigarai Etxalarko erretoreak idatzitako predikua. 1878-1917 (bertako erretore izan) bitartean idatzia. Pello Apezetxeak utzitako 14 orriko eskuizkribua.

## **Helbide elektronikoak**

[www.bidasoa-baztan.com](http://www.bidasoa-baztan.com)  
[www.elizondo-baztan.com](http://www.elizondo-baztan.com)  
[www.etxalar.org](http://www.etxalar.org)  
[www.ituren.es](http://www.ituren.es)  
[www.elgorriaga.biaizpe.net](http://www.elgorriaga.biaizpe.net)  
[www.lesaka.net](http://www.lesaka.net)  
[www.valledebaztan.com](http://www.valledebaztan.com)  
[www.baztan.es](http://www.baztan.es)  
[www.ttipi-ttapa.com](http://www.ttipi-ttapa.com)



## IRUDIEN AURKIBIDEA

Baztan-Bidasoa ibaia . . . . .	11
Baztan-Bidasoa inguratzen duten ibarrak eta herriak . . . . .	12
Baztan-Bidasoako herrien izenak eta beren kokapen geografikoa . . . . .	13
Luis de Uranzuren Bidasoa . . . . .	24
Basaburuen eta Bidasoaldearen arteko azentuaren isoglosa . . . . .	96
Bidasoa ibaiak muga lana egiten du Bortzerrietan . . . . .	129
Sunbilla Malerrekarekin batean paratzen duten ezaugarriak . . . . .	141
Sunbilla Bortzerriekin batean paratzen duten ezaugarriak . . . . .	142
Baztango mintzoaren koloreak eta ñabardurak . . . . .	212
Bidasoaren inguruko bortsu berrikuntza hedaduraren eta maiztasunaren arabera . . . . .	217
Baztan-Bidasoako hizkeren egitura geolinguitikoa . . . . .	228
Bidasoaldeko eta Baztango azpieuskalkiak, gaurko euskara nafarrean. . . . .	229



## **MENDAUR Bilduma / Colección MENDAUR**

Mendaur I.

*Jose Mari Satrustegi: ereile eta lekuko*, Andres Iñigo

Mendaur II.

*Baztango Mintzoa: gramatika eta hiztegia*, Pello Salaburu eta Maite Lakar (lag.)

Mendaur III.

*Luzaideko Euskararen Hiztegia*, Peio Kamino Kaminondo eta Patxi Salaberri Zaratiegi

Mendaur IV.

*Erroibarko eta Esteribarko Hiztegia*, Orreaga Ibarra Murillo

Mendaur V.

*Erronkari eta Ansoko toponimiaz*, Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte

Mendaur VI.

*Gero*, Pedro Axular (prentsan / en prensa)

Mendaur VII.

*Baztan-Bidasoako hizkeren azterketa dialektologikoa*, Edu Zelaieta Anta





